

Laratz - Ahozko literatura bilduma/2



Juan Manuel Etxebarria

Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak

Labayru Ikastegia
Bilbao Bizkaia Kutxa

GORBEIA INGURUKO ETNO-IPUIN
ETA ESAUNDAK

JUAN MANUEL ETXEBARRIA

GORBEIA INGURUKO
ETNO-IPUIN ETA ESAUNDAK

Hitzaurrea: Jabier Kalzakorta

LABAYRU FUNDAZIOA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2017

1. argitaraldia: 1995
2. argitaraldia: 2017

Azaleko irudia: Ramón Serras Aizpurua

© *Egilearena:* Juan Manuel Etxebarria

© *Hitzaurrearena:* Jabier Kalzakorta

© *Argitaraldi honena:* Labayru Fundazioa - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa

Diseinua eta maketazioa: Ikeder, S.L.

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.

Silutegia: Impresión Tecnigraf, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-282-2017

ISBN: 978-84-86833-78-7

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimen barik.

INDICE

HITZAURREA	15
1. Mateo Txistu, esaunda baten aldakiak	17
2. Kastrejanako zubia	33
3. Martiko Oilarra	57
4. San Martin eta Deabrua	58
5. Aita-semeak	61
6. Txorien inguruko esaunda etiologikoak	65
7. Hiru alaba jostun titilipatala	67
8. Lanbreabeko laminak	72
9. Garia eta artoa	75
Azken hitza	76
SARRERA	79
ETNO-TESTOON IRAKURKETA ERRAZTUZ	81
Kontsonante Multzoen ahozkerak	82
1. Leherkari gorak	82
2. Frikari-xistulariak	87
3. Afrikariak	89
4. Sudurkariak	90
5. Albokariak	91
6. Dardarkariak	91
7. Kontsonante bikoitzak	92
8. Idazkera ≠ Ahozkerak	94

ETNO-IPUIN ETA ESAUNDAK	99
Bertsio Fonologikoa. Bertsio Literario-Etimologikoa	99
1.1. Itargia, eguzkia eta mundua	99
1.2. Gaeko argi ibiltaria	100
1.3. Muskerrari bildurra	101
1.4. Larrabotiko abemariak	101
1.5. Azalaria eta txakurra	102
1.6. Martxanderak	103
1.7. Bedeinkaziñoak	104
1.8. Azeguna	108
1.9. Gizonaren edadea	108
1.10. Gorrotobako haserrak	109
1.11. Santa Agedak	110
1.12. Bidaztiak	113
1.13. Patakon lapurra	118
1.14. Astoa, txakurra, katua eta oilarra	119
2.1. Gaeko arimak Santa Kurtzen	122
2.2. Deabruari Samartinen hamabi egiak	122
2.3. Aita asilora eroan-damutua	124
2.4. Begizkoa	125
2.5. Garia eta artoa berbaz	126
2.6. Saldaingo txakurrarena	130
2.7. Zozoa, errekatxoria eta txindorra	131
2.8. Txirritxirria eta inurria	132
2.9. Eskekoa kontu erratuarena batzean	133
2.10. Txakurra eta katua pleituan	135
2.11. Salomonen amenazua	136
2.12. Gabonetako kontuak	137
2.13. Beleak beti bere haitzera	142
2.14. Burdiak be untatuz gero irrintzarik ez	143
2.15. Haltzaren ondoan haltza erne	145
2.16. Errekadu-kontuak	146
2.17. Untze joak karu urten	148
2.18. Arimea berbaz tximinitik	152
2.19. Ermakariak	154
2.20. Hiru ahizta joskila berbaltudunak	155
3.1. Anbotoko Señorea eta urregoria	155
3.2. Aita zaharrari zurezko tenedor-koilarak	157
3.3. Aita baztertuarena	158

4.1. Lamiñak Manualdeko txarkoan	158
4.2. Abadea eta hodeia	160
4.3. Kastrejanako zubia	162
5.1. Inizituari deika	164
5.2. Parte txarrekoak	164
5.3. Sua, ura eta edurra	166
6.1. Lamiñak Ugarten	166
7.1. Jentilak eta lamiñak Untzetapikun	168
8.1. Anbotoko Señorea Sarasolan	168
8.2. Lamiñak Bañutzen	168
9.1. Aibelabeko beste-mundukoak	169
9.2. Saiak Anbotoko Señorearen itxuran	170
10.1. Itargiaren ilundeak	170
11.1. Arimak promesak betatuz Zeberioan	171
11.2. Sorginduta hil ezinik Uriondon	172
11.3. Itargiko mantxak	172
11.4. Jentilkumak Upon	172
11.5. Parte txarreko zaldia	173
12.1. Lamiñak Gorozitun	173
12.2. Anbotoko Señorea sutan. Mandoiatik	174
13.1. Parte txarrekoak karea egite orduan	174
13.2. Jentilak eta gaztaña denporea	174
14.1. Gaueko arimak eta liño zapia	175
15.1. Anbotoko Señorea Anboton eta Lekandan	178
15.2. Jentilak Untzetaben	178
15.3. Jentila eta pastorea Orozkon	178
16.1. Kastrejanako zubia	179
17.1. Musker demonin trua	180
18.1. Lamiña eta mutila ezkongai	181
18.2. Zaldiotsa hodeiagaz	183
18.3. Ugaoko abadea eta hodeia	183
18.4. Hil eta gero agertu	184
18.5. Deabruarekin tratua soloa lantzeko	184
19.1. Jentilak: 140 urteko jentila	185
19.2. Jentilak Untzetapikun	185
19.3. Anbotoko Señorea Bertsutenen	186
19.4. Anbotoko Señoreak errotea geratu	186
19.5. Abade bat penitentzia betatuen	187
19.6. Abade-txakurrak	188
19.7. Akerrak andrea eroan aidean	189

19.8. Lamiñak Saldainen	190
19.9. Jentila eta Perutxu	190
19.10. Txarri batek zazpi gantzagi	195
19.11. Txarri odoloste jan ezinekoak	197
19.12. Jentilak ikatz-egostorduan	200
20.1. Jentilak: laiñoa eta euren azkena	204
20.2. Jentilak Zollo-mendin	204
20.3. Lamiñak Eskori ganean	206
20.4. Anbotoko Señorea Azpitartetik Dimako haitzera	206
21.1. Lamiñak erreketan	206
21.2. Jentilak harri-bolan Untzetabetik Mandoiara	207
21.3. Jentil-ume eskolara	207
21.4. Jentilak eta ereitzea	208
22.1. Anbotoko Señorea eta abadegaia	211
23.1. Errotaria eta bere alabea erregiñagai	211
24.1. Lamiñak ikatz-egostorduan Uriondon	213
24.2. Zaldi-irrintzak eta kateotsa	214
25.1. Jentilak Gorbeian	215
25.2. Superlegorren penitentzia betatuten	216
25.3. Gaubeko argi deabrua	217
25.4. Jentilak Superlegorren biziten	218
25.5. Anbotoko Señorea Superlegorren	219
25.6. Gaueko arimak Gallartun-Orozkon	221
25.7. Deabru gedarrez ahuntzak pilatuteko	221
25.8. Txikoa eta Pepetxin	222
25.9. Jentilak andrak eroan	223
25.10. Abemarien osteko «beste mutilok»	223
25.11. Lamiñak Lanpreabeko errotan	223
25.12. Jentila: Ameriketako pastore tuerto indartsua	224
25.13. Arrabako landea Zeberiorena	225
25.14. Kastrejanako zubia	226
25.15. Musker-bildurra	227
25.16. Muskerra eta subea	228
25.17. Josafaten landea	230
25.18. Arimak penitentzia betatuten ZeberioGANEN	230
25.19. Urregorria San Justoko landapean	231
25.20. Urregorria Oiz mendian	231
25.21. Urregorria etxe-oinarripetan, kuebetan... ..	232
25.22. Norbere kurtzearekin deskontentuz	232
25.23. Kamiñeru emendatu ezina	233

25.24. Gaubean eleizportikuari hiru buelta emon ezetz	234
25.25. Jentilak eleizea aldatu gaez	235
25.26. San Juanetako kontuak	235
25.27. Gorbeia inguruko otsoak	239
25.28. Lau anaia ofizioa ikasten	241
26.1. Sorgina katu itxuran	243
27.1. Kastrejanako zubia	243
28.1. Neska galanta neskazahartu	247
29.1. Anbotoko Señorea: sorrera: Anbototik Gorbeiarda	249
30.1. Jentilak errota-andaparea sikatu	250
30.2. Anbotoko Señorea gaez «ni bakarrik» alaurika	250
30.3. Sorginak eta Superlegorreko kurutzia	250
30.4. Lamiñak sutera andrea goruetan dela	251
30.5. Jentilak, Samartin eta artoa	252
30.6. Jentilak, Samartin eta kaldea	252
31.1. Jentilak eta pastore bat Superlegorren	253
31.2. Lapurzuloko kontua	253
31.3. Abade bi Superlegorren	254
31.4. Hodeia eta abadea	255
32.1. Jentilak arrebea eroan	256
33.1. Anbotoko Señorea eta eguzkia	256
33.2. Lamiñak Jentil-zulon	256
34.1. Anbotoko Señorea anega-indabeak garautan beste urte harona	257
34.2. Pastore bat Superlegorren	257
35.1. Anbotoko Señorea Ganekogortan	257
36.1. Lamiñak Zeanurin	258
36.2. Kastrejanako zubia	259
37.1. Napoleonen gerre (Frantzesadea) Gorbeian	259
37.2. Lamiñak Lamindao-Petralandan (Dima)	262
37.3. Lamiñak Uriben (Zeanuri)	263
38.1. Sorginak eta: Baltzolan, Petralandan	264
39.1. Anbotoko Señorea: sorrera	266
39.2. Lamiñak barikuetan Petralandara	268
39.3. Lamiñak Lanpreabeko pozuetan	269
39.4. Lamiñea ezkongai Lanpreaben	269
40.1. Anbotoko Señorea Baltzolan	271
40.2. Artzak andrea Baltzolako koban	271
40.3. Anbotoko Señorea Obaburun	271
40.4. Sorginak Mañarin	272

41.1. Laminak Usansolon	273
41.2. Anbotoko Señorea Urkiolan	273
41.3. Anbotoko Señorea Upon	274
41.4. Txispeak kondenu	274
41.5. Abade txakurrak	274
41.6. Patakon lapurra	275
41.7. Asto demoniñoa	276
42.1. Zezena sutan erreka barrutik	276
42.2. Sorginak galdu errogatibekin	277
43.1. Asto deabrua	277
43.2. Lamiñak orrazi gedarrez	277
43.3. Gaueko txarri-elia: erdia txarria eta erdia arima	278
44.1. Zolloko lapurrak	278
44.2. Anbotoko Señorea zulorik zulo	279
44.3. Lamiñak Arguiako ortusantu ondotik	279
45.1. Anbotoko Señora, deabruari alaba eskeintzerik	280
46.1. Anbotoko Señorea eta baranbioarra	282
46.2. Superlegor-koba	283
46.3. Abade bat Superlegorren	283
46.4. Urre gorria Superlegorren	284
47.1. Baltzolako subea	284
47.2. Lamiñak eta pastore ezkongai	288
47.3. Kastrejanako zubia	289
48.1. Jentilak Diman	290
48.2. Kuebara limosna dirua	291
48.3. Dimako Petralandako bidekurtzea	291
48.4. Deabruari arimea ofrezidu	291
49.1. Anbotoko Señorea Orduñako haitzean	292
49.2. Saiak Anbotoko Señorearen itxuran	293
49.3. Olarreko Señorea Upon	295
49.4. Udiarrago Amabirjinea (Ugaon)	296
49.5. Santua erre guran ikazgina erre txondorreatan	298
50.1. Goruetan kontu kontetan	299
50.2. Surteko hautsa garbikuzirako	299
50.3. Zeberio aldi bateko neskato sorgindua	300
RESUMEN EN CASTELLANO DE CUENTOS Y LEYENDAS DEL GORBEA	301
HIZTEGIA	331

AURKIBIDE TEMATIKOA	341
BERRI-EMAILEAK BANAN-BANAN	343
BIBLIOGRAFIA	351

HITZAURREA

Aspaldirik aspaldieneko garaiak gaurkoak baino hobeak ziren: landareak, belarrak, arbolak, animaliak eta patariak ere hitz egiten omen zuten eta basoetako zuhaitzak berez-berez etortzen omen ziren supazterretaraino. Baina behin enbor pusketa batek, egur batek, atso zahar baten gona urratu omen zuen eta atsoak madarikatu egin zuen egurra eta harrez gero gizonak berak, egurrik nahi izatera, joan behar du basora egurketa. Basoak eta supazterrak aipatu ditugu eta guztiok dakigu supazterrean kontaktzen ziren ipuin, kontaera eta esaunden berezko ekintza kokalekua gehienetan basoa zela eta kontaktailearen berezko lekua supazterra. Badakigu baita ere, urrearok hartako basoak gaur egunekoak baino zabal, itsu eta aberatsagoak zirela eta basoetan bazeudela basajaun eta basandere bat ere. Baina urteak joan urteak etorri aizkorek, trontzek, zerrek eta motozerrek basoak urritu dizkigute eta gelditzen zaizkigun bakantxoak erabat mehatzurik daude. Garai bateko etxeko sua sukaldearen erdian egiten omen zen eta guk ezagutu dugun beheko sua edo behesua hormara baztertutako sua zen. Delako su hori beste era bateko berogarri batek gure begibistatik urrundu digu eta gaurko etxe eta are beserriek ere behesurik gabe agertzen zaizkigu askotan.

Basoak naroago, itsuago eta sorgingarriago ziren garaian bizi izan ziren euskaldun argitu batzuek, Azkue, Barandiaran, Cerquand, Vinson, Webster, Barbier, M. Ariztia,... ipuin bilduma ederrak eskeini zizkiguten. Garai hartan ia edozein euskaldunek zekizkien hainbat ipuin, gizartea erabat euskalduna zen leku askotan, eta egurra supazterrera zetorren aspaldiko garai hartan bezalaxe ipuina entzun erraza zen. Ipuina osasun onean bazegoen ere ez zitzaion gora handirik ematen. Gaur egun, ordea, tradiziozko ipuina ia hilzorian dagoenean badirudi ipuin, kontu eta esaunden balioa merezi duen lekura heldu dela. Gauzak horrela bi aukera dauzkagu, bata aspaldiko biltzaileak bildutakoaz pozik gelditu —eta *aspaldiko* hitza erabili arren biltzaile zaharrenak 1875 urtean argitara eman zituen bere lanok— edo gaur eguneko euskaldun nagusi edo nagustuengana (edadekoak, zaharrak,... badira hainbat hitz krudel), aitona-amonengana hurbildu

eta astitsu, ez ekitaldi batean, beren ipuin-kontu jakituria garantzen utzi. Lizardik berak adierazia zuen, aspalditxoan gainera, sukalde hozte hau «Euskal Pizkundean»:

IV

*Amonaren alxia
ago sutonduan
aren ipuirik al dek
ik jaso gogoan?
Ik ez laratzak? ezta!...
Ez uste gogoan
geunden, ta gure poza
betiko da joan...*

VII

*Geroztik ari nazu
auts zarrak astintzen
Aiton-amon guztien
ipuiak jasotzen
Erriaren pitxiak
magalean biltzen
Ez baita il gure Erria!
zutitu gaitezen.*

Eta aiton-amonengana hurbiltzen garenean, eta askotan aitona edo amona askorengana jo beharko dugu zertxobait bilduko badugu, bide arlo luze eta nekagarriak egin behar dituen egurketa doan egurgile gaixoaren gisa, konturatzen gara beraren ama edo auzoa edo senidea —gaur egun bizi ez dena hain zuzen— berak baino askoz gehiago zekizkiela eta orduan ipuin biltzailea itzaltasun handi batek jotzen du hala nola egurgilea bihozmintzen den basoko zuhaitz enborrik ederrena usteldua dagoela konturatzean. Dagoen sentimenturik tristeenerarikoa beti berandu ibiltzeak sortarazten du. Ipuinetan beretan ere kontaktzen da ipuinetako pertsonaia nagusien heriotza, esaterako, lamia-konturik ezagunenetarikoa da lamiak nola galdu ziren azaltzen duena. Sorgin-kontuen bila zabiltzala gehienetan Eibarko armak galdu zituela esaten dizute baina hori ez da kontuan berean agertzen. Sorgin-kontuetan ez da inoiz sorginik hiltzen gehienetan mankatu egiten da katuren bat eta hurrengo egunean auzoko atsoa (eta hemen ez dugu esan ez edadetu, ez nagusi, ez nagustu, ez amona) herrenka agertzen da plaza aldean. Lino Akesolok esaten zuen basajaunen hondamendia adierazteko: «Basa-yaunok zelan ondatu zireaneko barririk zarrak esteuskue emon; baye eritxi baten,

baso ilunek garbituteak basayaunen azkena ekarri oala esan geinke».¹ Hau da, baso gabe nola egongo da basajaunik, itsaso gabe nola egongo da zerenarik?

Liburu honetan, Juan Manuel Etxebarriak Bizkaiko besorik eder eta zabalenak euki dituen, eta orain neurri handi batean mehaztuxe euki arren, Gorbei inguruko, edo hasi Gorbeian eta Baranbiorainoko, ipuin esaunda kontu eta etnostestuak eskeintzen dizkigu. Ez da lehena Gorbei inguruko ipuinen berri ematen, berak baino lehen Aita Barandiaranek eman zigun eta, gainera, idatzi zuen azkenetariko artikulua Gorbei inguruko berri emanez egin zuen.² Lino Akesolok ere, zoritxarrez gutxitxo ezagutzen den lan zoragarri bat eskeini zigun *Ipiña eta Ipiña'tarren barri* Zeanuriko Ipiñaburu aldeko zehaztasun eta esaundaz. Esan barri dugu ez dela lehena izan baina horrekin batera esan dezakegu, inolako zalantzarik gabe, ugariena eta zehatzena dela. Barandiaranen eta Azkueren lanak meritu handikoak dira ezpairik gabe, baina ahozko euskaren zehaztasun eta ñabardura askok ihes egiten digute. Aita Linoren lanean ipuin eta esaundok orraztuta eman zizkigun. Juan Manuel Etxebarriak begietaritzen digun lan honetan batetik ezpainetatik harako hizkera den denean ematen digu bestetik forma estandarra lehenaren lagungarri.

1. Mateo Txistu, esaunda baten aldakiak

Atal laboru honen helburua ez da behin eta berriro esanak hemen berresatea. Jakina da Mateo Txisturen gainean egin diren azterketak Barandiaranek, Azkuek eta batez ere Julio Caro Barojak egin dituztela, baina gehienetan, harrigarria badirudi ere, Azkuek eta Barandiaranek bakarrik jasotako esaundak erabiltzen dituzte aztergai, besterik ez balego bezala. Horretara dator atal honen helburua: han-hor-hemen sakabanatutako testuak bildu nahi nituzke eta denak euskarazkoak eta erdarazkoak elkarren ondoan jarri. Badakit oraindik ere geratuko direla argitaraturik egon arren nik hona aldatu ez ditudan esaundak, baina bilketa lanean aritu naizenean guztiak biltzeko asmoa euki arren jakin dut holakoetan beti egoten dela eskuartetik itzurtzen denik —harresi zahar zulotsuetan haur bihurriari sugelinda xehe ipurtarinak ezkututzen zaizkion bezalaxe—. Baina ornigarrri berrien bila abiatu ere naiz eta aitona amonen ezpainetatik nik neuk ere batu ditudan bi esaunda ekarri ditut hona.

Lehenagokoek esaten dute apaiz bat bizi izan zela ehizazale amorratua eta behin meza ematen ari zela mezerdian zakurrek elizara eraman ziotela erbia eta

¹ AKESOLO, Lino: *Ipiña ta Ipiña'tarren barri* berez Simeon Angoitia Uriartek (1897-1983) bildutako zehaztasunekin Aita Linok atondua.

² BARANDIARANGO Joxemiel: «Esaundak, sinismenak eta Mitoak Bizkaiko mendietan», *Etniker Bizkaia* 8, 11-19 orr.

erbia ikusi eta beste gabe, itsuturik, meza bertan behera utzi eta elizjantziak erantzi gabe apaiz horrek eskupeta hartu eta erbiaren ondorik abiatu zela. Apaiz hura kondenatu egin zen eta handik hara zeruetan zehar omen dabil bere txakurrekin batean ekaitza ari duenean eta zakurren zaunka lanturua askok entzun omen dute negu mineko gauetan.

Horixe duzu, aldakiak aldaki, euskal herriko esaunda famatu bat.³

EHIZTARI BELTZAREN IZENAK

Apaiz horrek lekuan lekuko izena du, izen propioa esan dezagun, baina gaur egun izenik gogoratzen ez den leku batzuetan abade kondenadue, esaten zaio besterik gabe, hona hemen zenbait izen:

- a) Ehiztarie.
- b) Ehiztari beltza.
- d) Mateo txistu.
- e) Salomon apaiza
- f) Juaniko txistu, Juaniko txistrularie.
- g) Errege(n) txakurra.
- h) Abade txakurra(k).
- i) Pixti Juan.

Izenen gainean ohar batzu egitekotan esan behar dugu Ladislao de Velascok *¡Abade chacurra!* esan arren hona hemen nola ematen duen itzulpena: «La tradición *Abade chacurra* (los perros del abad o cura) no es peculiar a una comarca sola del país; si bien modifica a veces el nombre y la fábula»,⁴ hau da, euskaraz singularrean dagoena pluralean itzultzen du «Los perros del abad o cura». Julio Caro Barojak ez du ontzat hartzen Ladislao de Velascoren itzulpena eta horren ordeztu beste zerbait proposatzen du *perro-cura*. Horrela itzultzeko arrazoia ematen du euskarazko izena (abadetxakurra) aztertu eta berak jasotako esaunda baten arabera apaiza txakur bihurtzen delako. Guk, oster, erdaraz ordaina eman behar bagenu *el cura y los perros*, hau da, hitz konposake-

³ Ez da hemen artikuluxka honetan ipuin, sinesmen, esaunda eta mitoaren arteko aldea azaltzen baina guk *esaunda* hitza *leyenda* adieratzat hartuko dugu Joxemiel Barandiarangoak halaxe baitarabil. Ikus «Esaundak, sinismenak eta mitoak Bizkaiko mendietan», *Etniker Bizkaia* 8, 11-18 or. Julio Caro Barojak du esaunda honen gaineko artikulurik sakonena eta osoena gure ustez eta berak ere ez du zehazten zer den: «Me refiero a la tradición leyenda o historia del cazador errante». Ikus: *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*, «Eiztari beltza (=el cazador negro)», 54-65 or.

⁴ VELASCO Y FERNANDEZ DE LA CUESTA, Ladislao: *Los euskaros en Alava, Guipuzkoa y Vizcaya* (Barcelona, Oliveres, 1879) 470-471. orr. Guk aipatutako Julio Caro Barojaren artikulutik bildu ditugu datu hauek.

taren alde egingo genuke, Juan Manuel Etxebarriak bildutako esaundan agertzen den bezalaxe.⁵

EUSKARAZKO TESTUAK

Donostia aldean Fausto Arozenak dioenez Pixti Juan da eta Pixti edo delako horrek Preste hitzaren aldakia da eta ez piztiarena, gainera Preste Juan hori ardatz dela European barrena hainbat esaunda korritzen baitute.⁶

Pixti Juan (Jose Ramon Erauskin)

Pixti Juan, erri kokkor bateko apaiz bat zan, eizerako gogo izugarria zuena. Edozein eizetarako zuen afizioa, baña batez ere erbitarako, eta

⁵ Hona hemen Caro Barojaren argudioa:

Don Ladislao de Velasco, como alavés ciudadano, no podía tener un buen conocimiento del vascuence, y así se explica que el nombre que pone a la tradición vaya defectuoso o mal traducido. Los perros del cura es "Abaderen txakurrak"; "Abade txakurra" sería el perro-cura. Posiblemente para designar a este personaje también se ha usado tal expresión, como veremos. Por lo demás todo lo que dice Velasco concuerda perfectamente con los datos folklóricos recogidos después.

(Aipatutako artikulua 56 or.)

Egia esan ez gaude ados bete betean Caro Barojarekin alde batetik *los perros del cura abadearen txakurrak* izango litzatekeelako hau da *abade* hitza artikularekin nahiz eta delako abade horrek bere izen propioa ere baduen. Baina beste alde batetik *abadetxakurrak* ezin da izan abadearen txakurra, *abadekriada* «abadearen» edo «abadeen kriada» den bezalaxe? Adibideak zenbatnahi luza daitezke baina ez da hori artikulua xume honen egitekoea. Caro Barojak proposatzen duena da beste adibide batez emateko *txanpainboteila* eta *boteilatxanpaina* direlakoekin azaltzen dena. Hau da, lehenengoa *boteila* bera dela *arditxakurra* arditarako erabiltzen den txakurra den bezalaxe eta bigarrena, ostera, *txanpaina*. Baina euskal ipuinetan, geroago ikusiko dugunez, pluralean agertzen denez gero zergatik ez pentsatu *abadetxakurrak* edo hobeki idatzita *abade-txakurrak* erako konposizioa *senar-emazteak*, *neska-mutilak*, *sagu-arratoiak* eta era horretako konposizio ez denik?

⁶ AROZENA, Fausto: «¿Pixti Juan-Preste Juan? Folklore vasco», RIEV, 1927, XVIII, 150-151 orr.:

Haciendo alto en la tarea de rebuscar en el santoral folklórico nuevos onomásticos para el protagonista de la tradición venatoria, queremos fijarnos especialmente en el nombre procedente de la pila donostiarra, para lanzar la quizá atrevida suposición de que *Pixti Juan* no sea sino una corrupción de *Preste Juan*. Es sabido que el *Preste Juan* animó un sinnúmero de leyendas moviendo empresas viajeras a la busca del supuesto sacerdote-rey. Ignoramos si, entre los fantásticos sucedidos que la imaginación popular ideó en torno al misterioso personaje, está el originado por su desmedida afición a la caza, cuya importuna excitación le atrajera un castigo ejemplar. Pero no es un despropósito afirmar que las leyendas se mezclan y que sus personajes se intercambian las designaciones, como ha podido ocurrir en nuestro caso.

Eta teoria honez Karmelo Etxegaraireren kartazko bermea darama artikulua berean:

La inducción relativa a la posible identificación del *Pixti Juan*, con el *Preste Juan*, que fué la encarnación de tantas leyendas fantásticas, me parece muy atinada.

Guk ez dugu Preste Juanen berri handirik aurkitu erdal bibliografian, hona zer dakarran PEREZ-RIOJA, J.A.ren *Diccionario de Símbolos y Mitos* liburuan:

Preste Juan. Fabuloso emperador de los abisinios, según se creyó en diversos países europeos hasta fines del siglo XV. En realidad, el *Preste Juan* de las Indias es un personaje imaginario o simbólico que anda en boca de todos y nadie sabe a punto fijo quién fue, ni dónde ni cuándo existió.

onetarako bi zakur ederrak ere bazituen. Etzan, inguru aietan, arek etzekien erbi-kabirik eta biderik.

Beñere aspertu gabe ariko zan eiz-kontu eta erbi-kontu. Askotan, meza emateko utzi ta igual joango zan, bi zakurrak artuta, erbiari segika, eta andik etortzean emango zuen. Besteetan, berriz, goizean goiz meza eman eta gero egun guzirako eizera igual. Esan zeikean, mezak baño, kezka geiago ematen ziotela erbiak.

Goiz batean, oitu bezela, oietik jeiki ta begiratu zuen kanpora, eta esan zuen:

– Gaur ez da erbirik izango, zakurrak ixilik daude-ta!

Joan zan bere garaiean meza ematera; baña, meza erdira iritxi zanean, an etorri zitzaion neskatxa, esanaz, zakurrak an zebiltzala zaunkaz, erbia aurrean zutela.

Ori aditu zuenean, utzi zituen danak zeuden bezela, eta meza entzuten zegoen jendeari berealaxe etorriko zala esan, aldareko arropak kendu, eskopeta artu eta joan zan korrika, zakurrak zaunkaz zebiltzan tokira.

Geroztik an omen dabil bere zakur eta guzi, erbiari segika.

Gure txiki-denboran, noiz edo noiz esaten zuten nola ikusten zuten, batzuetan leku batean eta besteetan bestean, gizon bat zakur-zaunka askoren ondotik, auei ijuka eta agintzen, bera lurretik metro bat inguru aidean korrika zebilela eta bere ondotik aize-soñu izugarri bat, trumoi eta tximixtak zituela.

Aspaldiko urteetan ez degu aditu inork ikusi duenik, eta ez dakigu seguru zer gertatu dan.⁷

Errege Salomon (Nikolas Alzola)

Errege Salomon meza ematen aidela, bi txakurrak egoten zian aldarian bi aldetan.

Eskopeta, sankristeiko atian atzian, eta «Dominus Vobiscum» egintzuan denboran erbi bat sartu zen elizeko atzetik.

Utzi zuen meza eta artu zuen eskopeta eta bi txakurrak atzetik.

Joantzen erbiyeri segi, eta Jangoikuak emantziyon penitentziya mandua zeño (edo deiño) alaxen segitzeko apaiz jantziyan meza emateko zagon bezela.

Esaten dute ibiltzen dela mendiz mendi gabian. Goierriko artzai batek ikusi zuen urrutitik inulabarrian apaiz jantziyan, ardiyekin zagola.⁸

Juanito txistrularixa (Bitoriano Gandiaga)

«Juanito txitrulari abadia.

Au zan kazarixa. Mezako garaian bi txakurrek zelan ekarri zuten erbixa

⁷ ERAUSKIN, Jose Ramon: *Aien garaia*, Auspoa liburutegia, Itzaropena, Zarautz, 1975, 313-314 orr.

⁸ ALZOLA, Nikolas: «Irugarutze.- Errege Salomon. Bi ipuin Irun'go euskararen artuak», *Gure Herria*, 1960, XXXII, 181-182 orr.

ate ondora, meza utzi ta joan zan erbixagana. Ta kondenaturik munduan dabil mendi altutik mendi altura, bera txistruka ta txakurak zaunkaka ibiltzen dia. Ta gabian orain be txitruiek eta zaunkak entzuten dia. Askotan entzun diegu mendatik gabaz datozenei: Juaniko txistrolaixak gaur be korridu dau majo.» (Agustin Beitia).

«Juaniko txistricularixa abade bat zan. Eta kazan edo eizian apesiño aundia eukana. Eta kazako txakurra eukan. Eta goiz baten mezia zelebraiten eguala txakurra etorren erbixa aurreti ta eliza aurreti pasau zan erbixa ta txakurra. Ori ikusi ebenian goikuak kastigau eben juizioko egunerarte alan ibilteko. Eta oin mundu guztian bueltaka dabil erbixa ta txakurra aurreti dituala. Ta batian emen ta bestian an txakurren zaunkia ta Juanikon txistua entzun eiten diala esaten dabe.» (Maria Igartua).

«Gure aita jauna.

Mondragoen ferixia izan ta Arozitik gora etxera etorrela ba ietargixa ederra euen ta ietargitan txakurra zaunka, kaza txakurra ikusi euen ta Juanito txistrolaixa eskopetiakin eta txakurrai txistu egiten otzain fiu ta fiu. Ori berak ikusitakua ietargitan, keixian, ietargixa altuan eguan.

Gabeko amaiketan alleau zan etxea ta dana sustauta izerditan. —Juanito dabil or kazan. Ta arek len be entzuta ei eukan baiña orduan beak be ikusi eta geo askok obserbau ei zeuen ori.» (Maria Santos Maiztegui).

«Juanito txistrolaixe gutxitan entzuten da baiña neri tokau xat entzutia. Or faten da laiño bat edo izango balitza bezelaixe. Xiiii, aiziak ataraten daun lako zaratia eruaten dau. I, au, i, au, fio, fio, entzuten da ta berealaxe pasaiten da. Abade bat izan oso kasaixa ta txakurak elizara eruan otsain erbixa eta latzarreko denporan meztian itxi eta joan ei zan kazara ta gero Jaungoikuak kastigau eben mundua mundu zan arte alaixe ibilteko». (Victoria Igartua).⁹

Mallebi'ko abadie (Jose Miguel Barandiaran)

Abade bat san Malebin kaserue. Da txakur onak eukesan. Baten Mesie selebretan eguela ekarri eutzen bere txakurrek elexien ondora erbije. Mesie bertan bera itxitae urte'eban erbije atrapetan eskupetiae artute.

Mendirik-mendi dabil oinbe gosiek amorratuten. Baten andra bat topau eban labasu'eiten; eskatu eutzen ogije, da andr'ori ogije eskuetan artutae juen san abadigañae emoten; baya abadiak ez euken aztirik artzeko: juen san aurrera gaeur arteko.

⁹ GANDIAGA, Bitoriano: «Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz», *Euskera*, 1956, 206-231 orr.

Askok esaten dabe basuaen ikasgiñan dagosenak ikusten dabela, da entzuten dabela txakurreri eiten deutzesan txistuaek, da bera dabillenaen aixiaek zarata aundiae erabilten dabela.

(Contado en 1920 por Matías de Aranaz, de Kortezubi)¹⁰

El sacerdote cazador (Holmer)

«Apaiz bat meza ematen ari zela pasatu ziren (?) zakurrak erbiaren atzetik. Apaiza ixtaria zen ta meza utzita joan zen erbiaren atzetik. Jaungoikoak kastigatu zuen. Beti dabil gelditu gabe Santa Akeda bezpera. Gabaz aritzen dira txakurrak zanga, nola baizen Jaungoikoaren kastigua ta arratsa ortan errezatu bear da. Amonak esaten gaituen gaba ortan desgrazia asko pasatzen direla.»

«Bai Zubietan apez bat meza emaiten eta zakurrak erbiarekin pasatzen ziran elizko atean. Eta apezak meza emaiten ari zelikan, utzi zuen meza ematea eta joan zen eizira ta etzen geiago agertu. Ta orain geroztikan ibiltzen omen da kastigatua bere zakurra ta eskopetarekin airean. Eta egun batean pasa omen zaion Putzu Beltza'ri buruaren gainetikan eta onek egin omen zuen burua bajatu izituta.»¹¹

Abade-txakurrak (Juan Manuel Etxebarria)

Abade bat ixin sen kasarie seguru, itzela. Da mesemoten egon san, da mesemoten daoela, meserdien, etorri sirean seguru txakurrek erbie aurreti daudela: «Wi, wau! Wi, wau!» Bateposa fuerteagoa da besteapa debilagoa auken seguru. Da, etorri, t'abadea meserdien meseari itxi t'eskopete artute erbiiltzen yoan i sen. Da gero abadea kondenaute parau sen.

Da gero, ibilte sirean abadetxakurrek (g)aubetan axea itauenean en partikular, axea t'aurie t'afruntue sanean.

Da ba, emen Ugetan egon sirean serrari betzuk serretan. Da batek, olan esauen gausandirik siñestuten olango kontuetan. Da besteak siñestutauden da yakitauden andi selan abadetxakurre(k) pasetan direan gaubean.

D'orduko gaubean esan otzien areri, siñestutesauenari, gaubiluntzan:

– Yoai ta iturrukure ekarrik.

Beste au yoan san iturrukur eske da txakurrek: «Wi, wau! Wi, wau! kaderarteti te sereti... D'ur barik, karraka, atzera txabolara yoan san seguru.

Ori, Joaniko Sabaleko defuntue dauket entzunde ixin sala.»¹²

¹⁰ BARANDIARAN, Jose Miguel: *Obras completas II*, 57-58 orr.

¹¹ HOLMER, Nils M.: *El idioma vasco hablado*, San Sebastian, 1964, 130 or.

¹² ETXEBARRIA, Juan Manuel: *Zeberio Haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Euba, Ibaizabal, 1991, 344-345 orr.

Abade ehiztaria-El cura cazador (Jose Maria Etxebarria)

(Itauna: Arkotxako ori nor san?)

Orrek sien, esateuren, o sea ke abadiak, kasan afesino andiže eukela da gusteu žakola kasan. Ta egon sala mesia esaten da txakurrek kanpotik siela, da txakurrok erbiže eroatziela eurrien artute, eurrien, da txakur-eusike, da bertan itxi mesiari da urteuela erbižen atzien abadiak. Da gero esin sala atzera mesia esateko moduen pareu. Asten sala žasten d'esin žantzi. D'orreri esatotzien «Juaniko txakurrek».

Neuk be entzun doas olako txakurren eusižek da beste askori be entzun dotziet geubien edo geuberdi inguruen edo olan dempora klarue dauenien, eusize batac lodiže eittuela da bestiak meia. Da ni baten olantxek ba ardižen serien kampotik ibiltten nitzen, ara Montorrerañño arin-arin-arin, baia emoteuren, an urretik urriñera. Da neurartien ein neuen: «Aiko, entzunde žekoat len be Joaniko txakurrek eusižek eitten deresala da orrixek ixengosak ba derrigor.»¹³

Mari Urraka (Resurrección M. Azkue)

Hona hemen Mateo Txisturen jatorria Azkuek bildu zuenez:

Olaetan uste dabenez, Mari Ufaka zazpi urte Anboton ta beste zazpi Gorbeian egoten da. Anbototik Gorbeyara doanean gorua eroaten dau gafian ameluzko zirikonaz ta bidean doiala ardazketan ekiten dotso. Soineko bat kana bi luzerakoa atzetik dingilizka eroaten dau. Trumoi ta inestu ikaragafiak izaten dira batetik bestera doanean. Gorbeiarra eldueran bunpada andi bat egiten dau. Aren lengusu Juaniko Txistu abadea da ta eizari andia.¹⁴

Mateo Txistu (Resurrección M. Azkue)

Apaiza zan gizon au ta gaiñera eizari amufatua. Bein, meza ematen ari zalarik, zakufak erbi bat aufetik zerabilten eta Eliza-ondotik igaro bear zutenean apaiz eizazaleak beren zaunkak entzun zituen eta, soineko ornamentuak kentzeko ere betarik gabe, elizatik atera ta zakufen atzetik lasterka asi zan. Geroztik or dabil nunbait Mateo Txistu, beti ibili ta ibili, bein ere gelditzen eztala. Bera urbil samar norabait doanean, iru zakufen zaunka diferenteak entzuten dira: batac *au, au, au*; besteak, *i, i, i*; besteak, *gro, gro, gro*. Mateo Txistuk bere atzetik beti ekaitza uzten du ta berak dakafen ekaitzak amabost egun gutxienez irauten du.

Bera eztu iñork bein ere ikusi.¹⁵

¹³ ETXEBARRIA, Jose Maria: «Zornotzako sineskerak eta ipuinak», *Etniker Bizkaia* 8, 1987.

¹⁴ AZKUE, Resurrección María: *Euskaleñaren Yakintza I*, 368 or.

¹⁵ AZKUE, Resurrección María: *Euskaleñaren Yakintza II*, 438 or.

Martin abade (Resurrección M. Azkue)

Tolosa aldean gizon onek Mateo Txistu dau izena, Mendaron don Klemente. ¿Nor zan bera? ¿Nongoa semez? Afasate inguruan onenbeste zêtasun eztakie. Elizgizona zala dinoe ta Lafino deritxon basefitxoan pafoku egoala. Ikaste andietako gizona zala bére zabal da inguru guzti aretan. Lufeko ikastetxêtaoai gitxi eretxita edo, deabruen artean bera ta beste lagun bik aldikada baten ikaste geiago egiten zerautsen.

Baldintasun bat ipini eutsên maisu onek: iruren arteko batek antxe euren artean betiko gelditu bearko ebala. Mutilok baietz, aintzat artu ta gogoz ekin eutsen arlo ofetan. Azken eguna eldu zanean, lafi egozan mutilok. Martinek esan eutsen:

– Zuek aúrea artu niri, neu konponduko naz Txefenegaz.

Ikaskizuna amaitu zanean Txefenek.

– ¿Nor da niretzakoa? –itandu eban.

Martinek

– Oratu neure atzekoari –erantzun eutsan.

Lagun biak urtenda gero, Martin euren atzetik bajoian ta deabruak bere atzean zerbait ikusita, ari oratu eutsan norbait zalakoan, ikasleren bat zala uste ebala. Martinen gerizea zan bere atzekoa. Deabruak oratu ta bere bizi guztirako geriza bagarik gelditu zan Martin.

Lafinon egoala bere giltzariak (otseinak) bein

– Jauna, berofek eztauko gertzarik —esan eutsan. Martinek txarzat artu ta belafondoko andi bat emon eutsan.

Deabruaren eskolatik geriza bagarik urtendakoan, Txefenek asafaturik,

– Edefa sartu dostak —erantzun eutsan—; baina eurea artu бага ezaiz geldituko. Zaldizko talde bat ekafiko dostat nik iri, lur guztiak galduko dituana.

– Baita nik bafiz —erantzun eutsan Martinek—, oinezko-taldea (infantería), agertuko joat ire kabañeria ori galtzekoa.

Afria yausi zan odeietatik (au zan Txefenen zaldizko taldea). Martin abadek konjurua eginda areka batera yaurtigi eban ari-erauntsi osoa.

Martinek Lafinon egunaren orduak zelan emon yakin ez ta zerbait egiteafen edo, eizarako zaletasun andia artu eban. Bein mezea emoten egoala, sagaraldira (kontsagrazinora) eldu zanean, txakufak intzirika erbi-atzetik eabilzala asmauta, egoana egoan lekuan itxirik txakufen atzetik erbiari yafaika asi zan. Afetzkeror dabil gelditu bagarik. Gau batzuetan bere moduko argitasun bat ikusten dogu odai-gainean eta aize-txistua lakoxea entzun be bai. Martin Abaderen txistua ta bere txakufen zaunkak izaten dira.¹⁶

¹⁶ AZKUE, Resurrección María: *Euskalefiaren Yakintza II*, 241-244 orr.
Azkueren oharra:

Véase Atafabio, en esta colección, y Vinson (pág.6.) Aun en Alemania y en diversas comarcas está muy extendida esta leyenda. En *Handwörterbuch des deutschen Aberglaubens* (Diccionario manual de la superstición alemana), tomo II, página 1675, se lee de personajes como Banadietrich, Dyterbbjemat y otros dos, los cuales, en castigo de su conducta, están condenados a cazar en el aire hasta el último día del mundo.

Abade kondenadue (Jabier Kalzakorta)

Da ori zera abadea, an beste abadea, ori abade pastore ori, ori izen zen eee... ba kazarie, kazarie erbiek eta olan kuxetan da eieuen mezemoten, da mezemoten euala, txakurra etorri eizen erbiegaz, erbie aurrean dauela etorri zen, da entzun euenean txakurrek zelan erbie dakarren, mezea emoteari itxi otzen, itxi mezemoteari eta joan zan eskopeteagaz ba erbie il eiten... da ordun ein eizen kondenau betiko... kondenau ei zen da oin eidabil orti airan, da emen gizonak zarrak askok esateben ikusi eiten eudiela.

- Zuek ikusi dozue iños?

- Guk ez dogu ikusi iños (barreak) baine, eiteuben:

Fiiiiii!

Da erbie aurretí, da emen pastoreak askok siñistu te, lañoren bat ekosiko euden olango dibujuren batzukaz....

- Or yoak, or yoak, ori zera abade kondenaduri ikustok or yoak!

Zer izen dauke abade horrek?

Abade kondenadue.

Ez dakit zer uzten, uzetik eztot iñoz entzun, abade kondenau ori famosoa izeten zan, pastoriak aaa, Maurizio Solokoa, entzutie daukezu.¹⁷

Abade kazerue (Jabier Kalzakorta)

Ori ba, kazerue ei zan baña mezie emoten euela, ba beittandu jakon e, buruen pasau ban txakurrek zaunke ziarduela da mezie emotiai itxi da, itxi mezie bertan bera da jun zan e artu eskupetie da zer eittera da gero kondenau. Oiñ baño legiek estua itxurie.

(galdera) Zer izen euken abade horrek?

(erantzuna) Zelan esaten eutzen orri? Júniko abadie.

- Gero txakur forman lañoen artien edo?

Iñoz entzun dot txakur zaunkak entzutittuela, eztakit nik, niri etxata iñox eee...

Kondenau ein zala abadioi, da, ba e gero be ibili zala abadie, gero be ibili zala txakurre: «Grin graun grin grau» da, Júniko esaten dotze orri.¹⁸

Errege Charlemañ mendiz-mendi (Jose Miguel Barandiaran)

Errege Chalrmañ mezan zagolarik, kusi omentziin eliza-atian pasatzen erbi bat.

¹⁷ Biltzailea: Jabier Kalzakorta - Biltze data: 1991ko abendua - Lekukoak: Angela Bilbao 67 urte Orozkokoa. Urigoiti auzokoaan bizi da, jaiotzez Saloakoa.

¹⁸ Biltzailea: Jabier Kalzakorta - Biltze data: 1991ko abendua - Lekukoak: Agerre baserrikoak.

Eta ihiztaria baitzen, meza utzirik atera omentzen kanpora.
Harma eta xakurra harturik, segitu omentzen erbiaren gibeletik.
Geroztik hor omendaila mendiz-mendi herri-herri punimenduz.
Oono sentitzen dira, noiztik-noizera, gauaz xakurraren erausiak.¹⁹

Juanito Txistulari (Luis Villasante)

Giza-irudimenak amaika istorio-misterio samatu ditu illargia dela ta ez dela. Illargia bete-betea ikusten denean, an alako beltzune bat agiri ohi da. Eta Euskalerriko ipuiek ara zer dioten: gizon bat dagoela an, bere sarda eskuan eta ota-sendorra bizkarrean. Apaiz eiztari bat omen da, gaiñera, an dagoena, konsagrazioko denboran erbia arrapatzeagatik, meza utzi eta eizera joan zena. Eta hori egin zuelako, Jainkoak illargira bialdu zuen. Juaniko Txistularia edo Txistrularia deitzen zaio apaiz orri Arantzazu inguru ontako erri ipuinetan.

Ara Juaniko orren istoria, Leandro Arregi jaunak oraintsu kontatu izan digun bezala. [...]

«Lenagoko denbora batian, Arabako partian, mendi ondo bateko erri batian, apaiz bat zegon, Ekun danetan eizera jun bear izaten zun bere txakurrakin. Astegunetan ere bai eta jai egunetan ere bai. Eta orduan ere jai etor zan, ta jai goizan er jun ein zan mendira. Bere txakurra artu eta meza emateko denborako etortzeko asmotan jun ein zan. Baiña txakur orrek erbia atera, ta venga ta venga bera zegon tokira ez zan etortzen, eta denbora asko pasatu ein zan. Bera larrittuta zegon, estu; ia meza emateko ordua etorritta, eta artien mendien.

Baiño utzi danai, eta or dator menditik bera errira. Erriko jende guztia eliz-ingurura juntatuta zegon, noiz apaiza etorriko. Eta ala zuzenian sartu zan elizara, eta jantzi, eta venga! altarara meza ematera. Meza ematen ari dala, beti erbia zeukan buruan. Eta etortzen da txakurra inguru samarrera «au-au-au» bere erbi orrekin, eta an zegon ernegatzen.

Da alako batian, alzar-eko denbora, meza erdiko denbora etorri zanien, or dator txakur ori, portikutik pasatzen da an inguruan, eliz inguruan, bertan erbi ori aurretik duala, ta ezin egon zan iñolaz ere. Ta buelta ein, jaso eskua eta esan zien elizako jendieri piskatxo baten egoteko, bera segittuan etorriko zala ta. Ta utzi bertanbera, ta ra! jun zan, eta baitta erbia arrapatu ere. Eta atzera etor zan.

Baiño Jaungoikuak ori egin zualako, izigarri kastigatu zuan. Esan zion: Bueno, zuk au egin dezu, baiño nik ematen dizudana bizkarrian artu eta iretargian an ibilliko zera, orain, gero eta beti, zere txakurrakin «au-au-au!» eta «fio-fio-fio» txistua juakin an ibilliko zera. Eta oin amerikauak jun diranak

¹⁹ BARANDIARAN, José Miguel de: «Materiales para un estudio del pueblo vasco en Urepel», *Anuario de Eusko-Folklore*, Tomo 31, 1982/83, 21 or.

ere zerbait aditz asitu dutela, ori notizi ori beintzat etorri da, eta itxuria orain ere Jaunito Txistulari izena duen apaiz ori an ibilliko da...»²⁰

Leandro Arregi.

(Arantzazuko Arrola baserrikoa) Magnetofonoz artua, 25-7-1969.

Mateo Txistu (Inazio M^a Atxukarro)

Esaten odei besto bat bere, abade bat bere, meza emoten egon zala, da kazan izan zala, afizino aundie eukin euela. Da txakurre berea etorri zala erbiren bategaz auzike: au, au, au, auzike. Da ordun mezea itxi de, jun zala txakurregana, da in zala kondenau, betiko kondenau. Da oin airean dabilela. Da pastoreak on amen, emen pastore batek esaten dau, il zen pastorea, askok gabeen izarrak egoten direz, lañoak ba txakurren.

Amaika aldiz entzun genduan «Mateo Txixtu» esaera.

Eiztari amorratua omen zan apaiz bat; beti bere zakur gorriakiñ, batera ta bestera, ibiltzen zana.

Goiz batez, ermita batean, meza eman bear zuan eta, eiztari purrukatua zanez, gero eizera joateko asmotan, zakurra ta su ixkillua artu ta joan zan.

Meza ematen ari dala, nun asten dan zakurra erbi arrastoan zaunkaka. Meza aurrera dijoan bezela, zaunka otsa gero ta gertuago. Ortxe, meza erdikoan, zakurra ito-zorian erbiaren atzetik ermita ondoko zelaian zear.

Apaiza eiz griñak suturik, «rau», zegona, zegon lekuan utzi ta sakristian zeukan su ixkillua artu, irten itxumustuan eleizatxotik eta zakur ondoren laixterka asi ta oraindik ez omen da gelditu ta ez omen da geldituko lurra lur dan arte. Zakurra ere, berekiñ omen dabill, zaunkaz, lauhoan laixterka. Erbia ere aurretik izango da...

Jainkoak jarritako zigorra eten eziñik omen dabill, meza, erdi emanen utzi zualako, jo batera ta jo bestera.

Esan oi zuten Mateo Txixtu inguruan igarotzen zanean, egundoko aize zurrunbilloak sorzen zituala, bazter guziak astinduaz. Erriko zakur guziak ere zaunkaz.

Ikusi ez genduan egingo baña nabaitu ta bildurtu bai beintzat.²¹

Juan Txistulari (Garbiñe Ibarra)

Ikazgintzan egon ta Juan Txistulari ikusi neban: Uzurrutzen orduantxe ni joan nintzan goizean hirurak inguruan, apur bat gora behera txondorrera, ta Angel kamañean lo egon zan, euria ta haizea sano, ta txondorra handia! Txondorra terriblea! Ta sua badauko ez badauko ikusi egin behar, joan nintzan, ta, han egoan ketan, ta «fiu, fiu» txistuka bat. «Au, au» txakurra

²⁰ VILLASANTE, Luis: «Gizona illargian», *Aranzazu*, 1969 (agosto-septiembre), 10 (250)-11 (251).

²¹ ATXUKARRO, Inazio M^a: *Irriparrezko printzak*, Sendoa, Donostia, 1982, 223-224 orr.

handik Saiberantza, bide sendea, handik txakur hori ausika, ta bestea «fiu, fiu» beheko fruntegitik joan zan bestea. Txondorrari begiratuta banator ta:

– Angel! kazariren bat dabil hor, baton bat.

– Txakurra ausika ta kazaria txistuka doa? Ta, ez dakik nor dan hori ala?

– Nik ez.

– Juan Txistulari dok hori, gizona! Juan Txistulari. Hori zan abadea, egon zan mezea emoten ta kazaria zan ta erbia etorri zan. Txakurrak ekarri eban ta mezea bertan behera itxita, ta erbia kazetan joan zan ta Jainkoak kastigau ta halan dabil seguru beti orain oraindik hor dabil!

Da Anbotoko Señorea be, ha be kastigau eban, eleizakoak joan zirean erromerian egonda, dantzan joan zirean.

– Elezakoak nortzuk dira ba?

– Eleizakoak ez dakizu zertzuk diran? Gaixorik, txarto dagonean abadeak sakristauagaz eroaten dauan komuninoa da, ta harekek dira elizakoak. Ta hareek joan zirean handik, da doanean belauniko parau behar izaten da, ta hareek parau ez, dantzan suguru, ta kastigau ta Anbotoko Señorea hor dabil bere denbora guztian, zazpi urte Mairulegorretan ta beste zazpi urte Anboton ta egiten dauz seguru. Nik hamar urte neukazanean joan zan Altundik Anbotora garretan, txatarra dariola, garretan Ama Birjinaren moduan, dana garretan, el año 17ko urtea.

– Zeuk ikusi zendun?

– Bai, nik eta askok, urrietan joan zan, urribigarrenak izan zirean, gaubean, gauba ilunduta joan zan, Altundik Anbotora joan zan, dana txatarra dariola. Ez dozue sinistuten zuek, baina hori egia da, ez dozue sinestan! Txuflatan hartzean dozue: hori da egia! Egia da, ta Juan Txistulari be egia, handik dauko rutea, seguramente Urkiolan izango zan abadea mezea emoten.²²

Juaniko Txistularia (Jabier Kalzakorta)

Abade bat kazerue zan baina mezie ematen zeuan bera elizan, elizan zauan mezie ematen, mezia erdiz-erdi zeuala bere txakurrak zaunkaz asi zien erbi ondoren laga ta mezia jun zan txakurretara, bera zer da guti eskupetia ta ba txakurretara jun zan mezia lagata. Jun zan eta akabo desaparezzitu zan etzan geixa argitxu iñora da gero andik denporalea gabaz sumatzen zian txakur-zaunkak, txakur-zaunkak gabian sumatzen ziala, gabian eta txakurra zaunka gabian ibiltzen ziala eta iñok ez euan txakurrik ikusten iñok ez euan ezer geixo ikusi baña sorgiñ sartu (sortu?) zan edo eztakigu ba zeta jun, txakurra beintzet zaunkaz, txakur-zaunkak somatzen ziela eta gizonan diarrak eta sumatzen ziela gabian baña iñok ez euan geixa ikusi abade aura.

Jakilea: Simona Manzisidor Urriaren 8a 1993.

²² IBARRA OZERIN, Garbiñe: «Ikatzaren prozesua Zeanurin», *Litterae-Vasconicae Euskeraren Iker Atalak* 5, 235-237 or.

Sorterria: Berriatua, Galtzakorta baserria.
Bildu lekua: Pikua baserria Lagamendin Motriko.

ERDARAZKO TESTUAK

Juan Iturralde y Suit da dakigunez literatur tratamendurik luzeena ematen dion idazlea baina guk hona euskarazko aho esaunden itzulpen hutsak direnak baino ez ditugu ekarriko.²³

Erdarazko testuok euskal oinarria dute baina euskarazkoa aurkitu ezean hona hemen erdarazkoa:

Abade chacurra (Ladislao de Velasco)

Quando en tempestuosa noche de invierno, recogida la familia junto a el hogar, en tanto la lluvia se desprende a torrentes y el viento huracanado produce siniestros rumores, si una violenta racha llega con estrépito, y al pasar como torbellino hace temblar el viejo caserío, las mujeres y niños murmuran: ¡Abade chacurra!

Eiztari beltza (Julio Caro Baroja)

El 24 de julio de 1931, mi vecino Faustino Irazoqui de «Trukeneña», en la calle de Itzea de Vera de Bidasoa (Navarra), me contó la historia de esta suerte:

«Un día un cura estaba diciendo misa cuando sintió que los perros ladraban fuera de la iglesia y pensó: «Mis perros andan con la liebre.» Y quitándose la casulla y dejándola encima del altar se marchó a coger la escopeta y salió al monte.

Desde entonces anda por ahí con sus perros, de los que se suelen oír los ladridos durante las noches de temporal, sin alcanzar nunca a la liebre.»

Otro vecino mío, Pedro Ozcoidi, que murió en 1937, aseguraba haber oído de joven a estos perros una noche, cerca de la frontera francesa, en la llamada regata de Inzola («Intzolakoerreka»). El mismo afirmaba que había quienes decían que el cazador no era un cura, sino el rey Salomón que también decía misa a lo que parece.

La señorita Pepita Bayle, el 12 de septiembre de 1935, me dijo que un antiguo inquilino suyo decía que el cura se convirtió en perro y que le llamaban «erregen zakurra»=el perro del rey.²⁴

²³ Iturraldearena ikusi nahi izatera: *Euska! Erria* (Tomo IV, irailetik abendura, 1881), 97-102. orr.

²⁴ *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*, «Eiztari beltza (=el cazador negro)», San Sebastián, Txertoa, 1985, 57 or.

Mateo Txistu (Juan Garmendia Larrañaga)

Un sacerdote muy aficionado a la caza celebraba misa cuando el ladrido de sus perros lebreros le anunció que le habían traído una liebre a los alrededores de la iglesia. Ante este evento el cura dejó inconclusa la misa y abandonó el altar. Cogió la escopeta que tenía en la sacristía, y dejando la huella de sus pies en el suelo del pórtico del templo salió tras la liebre, sirviéndose de la ayuda de sus perros.

Desde ese mismo instante, aquel cura, a quien conocemos en esta narración por el nombre de *Mateo Txistu*, se mueve día y noche, continuamente y sin descanso alguno, por los aires. Su presencia la detectamos por medio del ruidoso ventarrón y por el silbido peculiar emitido por el cazador. Sabemos que *Mateo Txistu* sufre más que en el infierno. Recordaremos el dicho *Ori inpernuk ere ez dik artuko* (A ese no le admitirán ni en el infierno)

En Tolosa (Barrio de Aldaba-Txiki): Fernando Aristi Garmendia —75 años— y José Aristi Garmendia —73 años— Caserío Isasti Goikoa. El 20 de noviembre 1988.

Pisti Juan (Juan Garmendia Larrañaga)

Este relato nos ofrece la originalidad de su nombre y la novedad de la conducta de su protagonista, que encuentra lugar de reposo.

Pisti Juan es una variante de *Mateo Txistu*. En él tenemos a un sacerdote cazador, que cuando celebraba la misa cotidiana reparó en una liebre. Al momento abandonó el altar, echó mano de la escopeta que guardaba en la sacristía y con sus perros salió tras la liebre.

Desde entonces, el conocido por el nombre de *Pisti Juan* anda por los aires y descansa en los extremos de los juncos, a los que deja chamuscados.

En Rentería (Barrio Zamalbide): Antonia Auzmendi Zuloaga —74 años— y Salvador Yarzabal Berra —87 años—. Caserío *Lubeltza Berri*. El 9 de abril de 1989.²⁵

Jose Miguel Barandiaranen lanean hiru hitzetan agertzen dira ehiztari beltzaren gaineko argibideak: *Salamon*, *Mateo Txistu* eta *Eiztari* hitzetan, azken honetan aurrekoaren argibide berak agertzen direnez gero lehen bi hitzetan agertzen den informazioa aldatu dugu hona.

Salamon (Jose Miguel Barandiaran)

Uno de los nombres del «cazador errante» es *Erregue Salamon* «Rey Salamón». Según ciertas versiones, este cazador no quiso detenerse para

²⁵ GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: *El pensamiento mágico vasco*, Donostia, Baroja, 1989, 59-60 orr.

dar una limosna a un pordiosero que se la pedía y al instante una nube le levantó con sus perros y lo plantó en la Luna. Allí continúa en su oficio sin descanso y continuará mientras la Luna exista (*Eskualduna*. Bayona, 11 de abril de 1913).

Cuentan en Dohozti que en ciertas noches de fuerte viento Erregue Xalamon pasa por las montañas de aquella región en compañía de sus perros. De él dicen que, asistiendo a misa en una iglesia, vio en el momento de Sanctus cómo una liebre —tal era la forma que había tomado el diablo— pasaba cerca de las puertas del templo. Dejando la misa, salió de la iglesia y fue con sus perros en persecución de la liebre. Luego se elevó misteriosamente en los aires juntamente con sus perros. Todavía continúa recorriendo los espacios sin conseguir jamás cazar la liebre.

Según la versión de Amézqueta, donde le llaman Mateo-txistu, el paso de éste va seguido de una tempestad que dura por lo menos quince días.

Bibl.: 9a (2ª. Serie, nº 173).-3 (tom. II, p. 438).

Mateo Txistu (Jose Miguel Barandiaran)

La leyenda del cazador que, en castigo a su afición desordenada, corre sin tregua ni reposo por todo el mundo, acompañado de sus perros, forma parte del inmenso ciclo de cazas aéreas y nocturnas que figuran en los relatos míticos. En Atáun le llaman *Mateo-txistu*; en Cerain, *Juanito-txistularia*; en Guesalibar, *Martin-abade*; en Dohozti, *Erregue-Xalamon*; en Oyarzun, *Salomon-apaiza* y *Prixki-Juan* en Usúrbil.

Según las variantes de tal leyenda, conocidas en Vasconia, el cazador es generalmente un cura que, dejando a medio celebrar la misa, partió con sus perros tras una liebre, y no ha vuelto ni volverá jamás de su excursión.

Nadie le ha visto todavía; pero son muchos los que aseguran haber oído en nuestros bosques y montañas su silbido y el triste y monótono aullar de sus perros.

A principios de este siglo una mujer del caserío *Tellerietxe* (Atáun) vio una noche de invierno, a la luz de la luna, la sombra que proyectaba el infortunado cura; pero ni éste ni los perros pudieron ser vistos directamente, según nos lo contaban en Atáun por los años de 1902 a 1920.

En Guesalibar (Mondragón) me decían que le cazador (*Martin-abade*), que había sido cura de Udala, anda por el mundo con sus perros; que éstos ladran constantemente. Nadie los ve; pero sí la llama que, al ladrar, lanzan de su boca los canes.

Cuentan en Placencia que Juanito-txistularia era cura de Elosua. Estaba celebrando la misa un día, cuando se le presentó a su derecha el diablo en figura de liebre. Dejando la misa al instante, siguió con sus perros tras la supuesta liebre. Dios le castigó a que anduviese eternamente cazando en incesante carrera.

En Cortézubi me contaron que el cazador errante había sido cura de Mallabia y que anda con sus perros tras una liebre, cansado de tanto andar y acosado por el hambre. Una vez halló a una mujer que cocía su hornada de pan. Le pidió un bollo. La mujer se le iba acercando con su bollo; pero el cazador no tuvo tiempo bastante para alargar su brazo y recoger el pan y se alejó de aquel lugar. - Salomon.

Bibl.: 9a (1922, pp.17 y 18).²⁶

Martin-abade (José Iñigo Irigoyen)

La leyenda de «Martin-abade» (del sacerdote Martín) tiene muchas similares en España y fuera de España; pero, tratándose de recoger folklore del Valle de Aramayona, no puede menos de citarse esta bellísima tradición, porque los ancianos de este Valle aseguran que ellos han oído muchas veces los ladridos del perro de Martín-abade.

El cual era un sacerdote, cazador empedernido. Un día, con el fin de ponerse a cazar casi desde el amanecer, fué temprano a celebrar a la iglesia de Udala, distante una hora y pico de Aramayona. Comenzó a celebrar, mientras el perro seguía en las proximidades rastros de las liebres. Al llegar al Alzar, comprendió por los ladridos del perro que éste había encontrado alguna de ellas y cegado por la apasionada afición, salió con ornamentos y todo, dejando interrumpida la Misa.

Por esta sacrilega profanación fué castigado por Dios a andar por los aires detrás de su perro, que no cesa de ladrar.

Hay ancianos que aseguran haber oído los ladridos del perro de Martín-abade, que todavía sigue cumpliendo su castigo.

Lo mismo que se oye por los aires el ladrido del perro de Martín-abade, ven muchos también a doña Urraca, llamada «Ambotoko Señorea» (la Dama de Amboto). Hablan los caseros de túneles que van desde Zalgo, actual cementerio de Ibarry antigua parroquia hasta las peñas de Ganzaga y Amboto.²⁷

Ekialdeko elizetako tradizioan Belenera zihozzen hiru erregeetariko bat bide erditan galdu omen zen orein baten bilako ehizan.²⁸

²⁶ BARANDIARAN, José Miguel de: *Obras completas I*, 77 or., 169-170 orr. eta 204 or.

²⁷ IRIGOYEN, José Iñigo: *Folklore alavés*, Vitoria, Imprenta Provincial, 1949, 137 or.

²⁸ Halaxe kontatzen digu Alvaro Cunqueirok aspaldi idatzirikiko artikulu batean. Delako artikulu hori oraintsu argitaratu da liburu batean *Papeles que fueron vida*, Tusquets 41 or.

Los magos, en las tradiciones de las iglesias orientales, fueron doce, veinte, sesenta, y en la iglesia armenia se cuenta de un mago que era gran cazador, y viendo en el desierto galopar, la gacela se fué tras ella, y aún anda corriéndola, y nunca llegó a Belen, que perdió la estrella de guía, o la estrella la perdió a él. Arrastra a la vagabundez perpetua de su caza al que da con él. Es, un poco, el mito del cazador salvaje, pirenaico.

Mateo Txistu-ren beste esaunda bat irakurri nahi izatera ikus GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: «Jentilak sorginak eta beste», *Euskal Pentsamentu Majikoa* (II), Elkar, Donostia, 60-61 orr.

2. Kastrejanako zubia

Galdetuko baligute nola sailkatu behar diren euskal ipuin eta esaundetan agertzen diren pertsonaiak estu hartuko gintuzkete, inolaz ere. Sailkapen modu bat orokerregia beharbada baina herriak berak ere egiten duena *parte txarrekoak* eta *parte onekoak* izango litzakete. Bikoizte hau era batera gaur gaurko hitzak erabiliz manikeo eta dikotomikoa izango litzateke baina hasierako sailkapen baten lehen pausua izango litzateke. Bitan banatze horrekin lotura dauka *gauetzkoak* edo *gauekoak* eta *egunezkoak* edo *egunekoak*, hortaz, argia eta iluna edo gaua eta egunargia izango litzateke batzuek eta besteak ibiltzen diren garaia. Denbora horiek markatuta daude ipuinetan beretan, esaterako, *gaua gauekoentzat* eta *eguna egunekoentzat* esaeran eta baita ipuin zein esaunden gertaeretan. Har dezagun adibide xume bat:

Ostegun Santu eguna zen artozuritzen ari zirenean, lantaldea osatuta. Gauerdia heldu zitzairen eta egarritu egin ziren, ur freskoaren beharra somatuz.

Bostehunen bat metrotara iturria aurkitzen zen, eta neska gazte ederra ausartu zen ur bila. Suila hartu ateeta egin beharrekoa egitera abiatu zen.

Baina denbora aurrera zihoan eta neska ez zen itzuli.

Honelako batean artozuritzen ari zirenean etxean soinua iritsi zitzairen teilatutik eta bai berehala ikusi ere tximiniatik behera suila urik gabe erortzen, ahots batek esandakoa entzuten zen bitartean: «Suila zuentzat eta neska ederra guretzat».²⁹

Adibide hau, esanguratsua dugu bere laburrean hainbat gauza adierazten dizkigulako. Ipuinaren garai bat ematen da hasieran Ostegun Santua, egun markatua, bildurgarrizkoa, ezbeharrak gertatzen diren eguna. (Baserri)etxe batean lanean ari dira, artozuritzen hain zuzen, ipuinak eta esaundak kontatzeko garairik egokiena eta lan horren luzea ere adierazten da *gauerdian* ere lanean ari direla markatuaz, garairik beldurgarriena horixe da, *gauetzkoak* indar betean dauden garaia. Lantaldekoak, artoxuritzea familiako guztien artean egin ohi da zahar-gazte-umeen artean eta are auzokoen laguntasunez ere, egarritu dira eta neska bat doa uretara, ausartu egiten da alegia, badaki beraz gauak berekin duen arriskua. Neskatila ez zen itzuli eta delako neskatila hori ez da nolana hikoia ederra baizik, birritan markatzen denez. Neskatila itzuli ez arren tximiniatik behera erortzen da suila. Badakigu jakin lapurrak tximiniatik behera jaisten direna, baina baita sorginak ere (parte txarrekoak) katu itxuran. Suila erori denean etxeokoe badakite gertatutako guztia, arriskuaren berri bazekiten, baina gertaera esaldi lakoniko batez markatzen da «Suila zuentzat eta neska ederra guretzat». Etxekoak

²⁹ GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: «Euskal leiendak», *Euskera*, XXXVII (2. aldia), 1992. 1, 441 or.

urik gabe gelditu dira, eta suilik gabe, suila (lurrezkoa) apurtzen baita tximiniatik erortzean, eta agian suila urez beterik erortzen bada beheko sua itzali du eta ilunetan gelditu dira arto xurritzaileak penaz eta neskatila ere agian laurdenduta, zatikatuta dago suil (lurrezkoa) bezala parte txarrekoen atzaparretan, zeren ondo markatuta gelditzen da *zuek* egunekoak direla eta *gu* (bat baino gehiago, milaka) parte txarrekoak.

Kanpai hotsa izan ohi da egunetik gauerako zein gauetik egunerako muga markatzen duena.³⁰

Beste sailkapen modu polit bat Txirritaren lobak, Ramon Erauskinek, egiten duena da, parte txarrekoak sailkatzeko, *gizonezkoak*, *andrazkoak* eta *ez batak eta ez besteak*, xomorro txiki batzuk baizik. Gizonezkoen artean intxixuak izango lirateke, hau da, gauean bide bazterretan jendea bildurtzen ibiltzen direnak.³¹ *Intxixu* hitza gaztelaniazko *hechizo* hitzaren mailegua da eta hainbat adiera ditu. Barandiarantzat³² kobazuloetan bizi den aztia da. Ramon Erauskin eta Barandiaranen testigantzetatik gainera badago Nikolas Alzola Gerediagarena, eta beronen arauera sorginekin batera sorgintegian edo akelarren (mugagabekoa da erabilera

³⁰ Hona esandakoaren argigarri hurrengo hau ere:

Cuentan en Atáun que antiguamente se reunía, todas las noches, numeroso grupo de hilanderas en el caserío *Lauzpelz* (hoy destruido). Una vez la muchacha del caserío apostó con sus compañeras a que traía agua de la fuente de *Joxintxiota* situada en el monte en que se halla el caserío Iturriotz. Y tomando una herrada se encaminó hacia la fuente, mientras las demás hilanderas la observaban desde el portal de *Lauzpelz* a la luz de la luna. De vez en cuando le gritaban las compañeras: «¿Dónde vas?», «En tal sitio» -contestaba ella, nombrando el sitio por donde iba. Pero en una de las llamadas, ella no contestó. Repetían la pregunta sus compañeras; pero ella ya no contestaba. Las hilanderas del portal se asustaron ante la idea de que algo malo había en el portal de *Lauzpelz* y dejó oír estas palabras «*Gaue gauekoentzat eta eune eunezkoentzat*» la noche para Gaueko y el día y para el de día. Y más no se supo nada de la muchacha de *Lauzpelz*. BARANDIARAN: *Obras Completas I*, 95. orr.

³¹ Oker ez banago Oiartzungo antzerki talde baten izena ere bada. Aita Zabalak ohartzen duenez Txirritak behin baino gehiagotan erabili zuen. *Intxixu batek aña malezi / bazuben Fernando zanak eta Intxixu batek esan omen du / neregatikan sorgiña*. Ohart bedi azken honetan dagoen jokoak intxixu eta sorgin hitzen artean.

³² BARANDIARAN, Jose Miguel de: *Obras completas II*, 34. or.:

Los llamados *Intxixu* de Oyarzun parecen figurar entre los que viven en las cuevas, mas esto no se halla claro todavía, *Intxixu* es considerado como de sexo masculino, es decir, brujo (Atáun).

Obras completas I, 111 or.:

Es un genio que vive en un despoblado o en cuevas. En la región de Atáun dicen que se trata de un brujo. En Oyarzun designan con este nombre ciertos seres legendarios que vivieron en las cuevas de *Arditurri* y que, según creencia popular, fueron sepultados en los cronlechs existentes en los montes de aquel pueblo. Hay que advertir, sin embargo, que los cronlechs se llaman allí *mairubaratzak* «cementeros de mairus», en Arano *jentilbaratzak* «cementeros de gentiles» y en Ainhoa *mairuilarriak* «sepulturas de mairus» - Mairu ¿La palabra *intxixu* tendrá alguna relación con la castellana «hechizo», como piensan algunos?

Horrela pentsatzen eta are segurtatzen du, besteak beste direla, Koldo Mitxelenak, FHV Bigarren argitaraldia 67 or. Oyarzun *Intxixu* 'especie de duende o trago' (hay también -n- en una variante popular asturiana.

jatorra nahiz eta akelarrean ere gaizki ez egon) agertzen ziren.³³ Sorginak gehienetan emakumezkatat hartzen dira laminak bezala. Markinako emakume batek esaten zidan laminak emakumezkoak zirela eta laminadoreak gizonezkoak, baina azken hauen berri gehiago ez dut. Sorginek eta sorginek ez direnek orraztoki batzuetan izaten zituzten jeinu txiki batzuk, gehienetan deabrutxoak edo deabrukumetzat ezagutuak.³⁴ Bizkaiko eremuan hitzik ezagunena *pamerial* da eta Gipuzkoan *gaizkin*.³⁵ *Pameri(j)alen* berri Azkuek³⁶ eta Kirikiñok³⁷ ere

³³ ALZOLA GEREDIAGA, Nikolas «Valentin Berriochoa»: «Temas mitológicos en la literatura euskérica bidasotarra actual», BRSVAP, 1967, (XXIII), 83 or.

1. A un zapatero joven le engañaron las brujas y le llevaron con ellas (al akelarre). Bailaron mucho, y le dijeron: «Ahora, a besar a Barrabás». Cuando le llegó la vez, el turno, al joven zapatero, en vez de besarle al demonio, le hizo «zazta» (le pinchó) con la lezna. Y el diablo dijo: «Ese *intxixo* tiene bigotes muy erizados».

2. Cuando se dirigía un hombre a su casa, le salieron al camino las sorgiñas y le metieron en un cercado de alambres. Allí se pusieron a bailar siete brujas, y le tuvieron al hombre todo el tiempo que les dió la gana. Luego salieron del cercado dando saltos y se fueron a la orilla del río y empezaron a lavar la ropa. Cuando el pobre hombre pudo salir del poder de las brujas, respiró tranquilamente.

³⁴ Herri askotako kontua dugu hau, Ikus esaterako Anton Erkorekaren *Etnografía de Bermeo* Atlaserako materialak VIII, 75. or.:

Las mujeres a las que se atribuía poderes especiales, como las tachadas de brujas o las adivinadoras, debían esos poderes a la posesión de los llamados *orrostokijek* u *orrostoki* (alfiletero), de forma que, en general, a estas mujeres se les decía *orrostokidun* u *orrostokidunek*.

Bermeoko idibxo edo iratxo eta prakagorrien gainean ipuin gehiago URIONDO, Bingen: «Amomaren dupiñek», *Bermeo* 1992-93, 9. Alea, 282-285 orr.

³⁵ BARANDIARAN, Jose Miguel de: *Obras completas I*:

Las extraordinarias virtudes atribuidas a las brujas, se supone que proceden, o bien de la fuerza mágica de ciertas unturas y frases, como hemos visto en el párrafo VII, o bien de ciertos animalillos u hombres minúsculos que en todo las ayudan y sirven.

Esos misteriosos seres, verdaderos genios familiares de los brujos, reciben los nombres de *Famerijelak* (Kortezubi), *Familiarrak* (Orozko, Zarauz), *Mamorroak* (íd), *Bestemutilak* (Gemika), *Prakagorri* (íd.) *Galtxagorriak* (Zarauz), *los enemigos* (Arbeiza-Navarra-), *los enemiguillos* (Añes), *Autzek* (Cenarruza), *Patuek* (Ibarruri), *Ximelgorriak* (Abadiano), *Etxejaunak* (Ithurrotz).

Los brujos los llevan consigo en una alfiletera. En Añes los llevan en el mango de una hoz. Si se rompe el mango de la hoz, desaparecen ellos.

³⁶ AZKUE, Resurrección María de: *Euskalefiaren Yakintza I*, 372 orr.:

Bizkaiko itz au erderatiko *familiars* da. Nonbait beste izen auek ere baditu *orraztokikoak* (B-mu) *orraztuntziak*. Arronan *famerialak*. (...) Norberak daukazan pamerialak saldu gura dituanak eztau erukgaitik zuriko bat baino geiago eskatu bear. Sarreran iñurriak dirudie, jain dira txikiak, urteieran barriz soldauak langoxeak, kaltza gorridunak..

Gehiago ikusi nahi izatera jo bedi aipatu lekura.

³⁷ BUSTINZA, Ebaristo «Kirikiño»: «Bizkarreko abadearen pamerialak», *Euzkadi*, 1923-VIII-16 eta *Egunekoa*, Labayru Ikastegia, Sutondoan sorta, 170-172 orr.:

Gure erriko Bizkarra basetxean (guk bertan Biskerra esaten dogu) antziñako aldi baten, batek ba daki noz, abade bat bizi ei zan.

Abade ori gizon jakintsua ei zan; asko ibillia ta asko ikusia.

Ainbat dibru txiki, lenagoko euskaldunak «pamerelak» deituten eutsienetarikoak bere oseiteintzan ei eukazan. «Pamerialok» abadeari zeatz-zeatz egiten ei eutsoen berak gura eban guztia: iñok egundo morroe zintzoagorik ez ei dau euki.

eman ziguten eta uste dugu literatura idatzian lehen aldiz *Peru Abarka*³⁸ liburuan agertzen dela. Gerora Jon Mirandek³⁹ eta abarrek ere erabiliko dute. Ohargarria litzateke *pamerijalak* izaten zituena deabruarekin hartu emanetan zegoelako seinalea zela eta garai batean Inkisiziopean jartzeko delitua.

Gaizkiñak (Jose Ramon Erauskin)

Guziak dakigu izaten dirala emakume zar batzuek auzoetako gezurrak bildu ta beste aldera eramanean, angoak onera ekarri eta famili askoren artean okasioa ta saltsa jarri, nobio asko asarretu-erazi, ezkontzak galdu eta bearbada eriotzak egin-erazi ere bai, ta batez ere gauez berandu bide-gurutzeetara eta sasi-baztarretara atera eta jendea ikaratzen ibiltzen diranak; edozein gauza txar egiteko beti pres daudenak, baña on egiteko beñere denbora edo astirik ez dutenak.

Auei sorgiñak esaten zaiote, eta beste orrelako lanetan ibiltzen diran gizonal, berriz intxoxuak.

Baña badira beste batzuek ez emakumeak eta ez gizonezkoak ez diranak, baizik xomorro txiki-txiki batzuek, asko milla alkarrekin bizitzen diranak. Auei gaizkiñak esaten diete.

Gaizkiñ abek jendeari lan askotan laguntzen diote, batez ere bestela egin ezin diran lanetan, jokuan irabazten eta abar; baña berak ere lan oien truke zerbait eskatzen dute, geroago ikusiko degun bezela.

Berak ez dute asko balio; ollo baten diruarekin erosi zeizkian, eta orratz-toki (alfiletero) txiki batean kabitzen ziran; baña, andik ateratzen ziranean, zerbait lan beti bear izaten zuten, bestela jabeari erasotzen zioten.

Bein batean, Nikolas Iribarren Xardia, Naparroa'ko Goizueta'koa, Txirritarengana bertsoak jartzeko esatera etorri zan, eta, izketan-izketan ari zirala, onela esan zion Xardiak Txirritari:

- Gaxo nebiliek!
- Zer dek, bada? -galdetu zion onek.
- Gaizkiñak dizkiat! -erantzun zion Xardiak.

Esaten dabenez, «pamerialak» beti zeozer egiten jardun bear eben, ezin ziran geldirik egon, eta euren ugazabak zeregiña emoten ez baeutsen, euren eginai geiegiaz generatuko jakozan eta ito egingo eben.

Agaitik, abadeak bear eban lana eragiten eutsenean «latiñaso» bategaz... drast!... orraztontzi baten danak sartzen ei ebazan, eta, geldi antxe! urrango baten euren Bearrizana euki arteraiño.

³⁸ MOGEL, Juan Antonio: *Peru Abarca*, (Adolfo Arejitaren edizioa, Euskal Editoreen elkarte, 140 or.):

M. Peru, ez neban uste guzurrik esaten zenkijanik. Ikusita sinistu; ta ikusita bere uestekó neuke begitazinoren bat dala. Alakorik bada, enkantubak daukaz ta *pamerijalak*, ta laster atrapauko dabe inkisizinoera eruateko.

³⁹ MIRANDE, Jon: *Haur besoetakoa*, Iruñea, Pamiela, bigarren argitarapena, 1983:

Txinpartak ke-bidean gora jauzten ziren, sorgin ongile batek deituriko pamerial alaiak iduri. Gizonak inguratu zituen begiak leihotik suaren aldera.

- Gaizkiñak?

- Bai! -erantzun zion berriz ere.

Gogoratzen naiz Txirritari entzun izan niola, nola aren gazte-denboran Ernani'n bazala zubi zar-zar bat, sorgin-zubia esaten ziotena.

Zubi ura egiteko artu zuen kontratistak, ezin zuen bukatu esandako egunerako eta esan zion bere lagun batek:

- Gaizkiñak ekarri itzazu; eta aiek egingo dizute zubia, zuk nai dezun egunerako. Frantzia'n badaude eta ollo baten diruarekin erosiko dituzu.

Frantzia'ra joan da erosi zituen, eta saldu zizkionak esan zion:

- Zuk nai dezun gau batean egingo dizute zubia, baña kondizio onetan: urrengo goizean ollarrak kukurruku jotzerako zubia egiña badago, zure anima neretzat, eta bestela berriz ezer ez.

Eta ala egin zuten tratua.

Egin zan gizon ori gaizkiñen jabe, baña ez zegoen trankil. Zubia egitea gauza ona zerizkion, baña anima galtzeak beldur ematen zion. Pensatu zuen ollar bat artu, egin bear zan zubiaren ondoan jarri eta ia bukatu zan garaian kukurruku bat jo-eraztea. Ala, zubia bukatu gabe geldituko zala, falta zan pixka berak bukatuko zuala, eta nola aiek ez baitzuten zubirik bukatzen, anima eman bearrik etzeukala.

Berak derizkion gau batean, joan da egiten asitako zubiaren ondora, saskitxo batean ollarra eta xorro eta poltxa batean gaizkiñak dituala. Exeri da ollarra zegoen saskitxoaren gañean, idiki du gaizkiñen xorroa eta an dijoaz dan-danak beren lanera.

Eskuz-esku ekartzen zuten arria, Frantzia'ko mugan dagoen Naparroa'ko mendi batetik, batek besteari esanaz:

- Aiba, Nikolas! Benga, Nikolas! Bota, Nikolas! Artu, Nikolas! Eldu, Nikolas! Jarri, Nikolas!

Egundoko martxa zeraman zubi orrek egiten, eta orduan entzun zion kontratista arrek nola elkarri esaten zioten:

- Ez gerala, ez gerala esaten dute, bañan amalau milla Nikolas emen gaituk orratik!

Eta ordu gutxian zubia ia bukatu zuten; baña, besteak pentsatua zeukan bezela, atera su saskitik ollarra, ta, ego azpian axkure egiñaz, esnaratu du, ta, bi egoekin pla-pla-pla egiñaz, or jo dio kukurruku aundi bat.

Orduan, zegoana zegoan bezela utzita, alde egin dute danak, eta urrengo egunean asi zan kontratista ori zubiak falta zuana bukatzen, bañan onek egunez egiten zuana, gabaz erori egiten zan, eta zubi ura etzan beñere bukatu.

Andik egun batzuetara billatu zuten Frantzia'ko mugan len etzan arrobi aundi bat, eta sorgin-arrobia deitu zioten.

Urte askoan egon zan zubi ura bere artan, eta, azkenik, karlisten gerra-denboran puskatu zuten.

Irakurle oietako batek pentsatuko baluke, gezurra dala edo ezjala, neri kargu artzea, errex billatuko nau. Badakite non bizi naizen. Bañan pentsa dezala ezer gutxi irabaziko duela, neronek ere erositako prezioan saltzen ditut eta.⁴⁰

Orraztokian dauden *gaizkinak*⁴¹ edo *pamerialak* lan zailak egiten dituzte eta gehienetan zubiak eraikitzen dituzte. Zergatik zubiak? Bernardo Estornes Lasak zioen lehendabiziko zubiak eraiki zirela ubera edo ibietatik igarotzeari utzi zitzaionean, hau da ibaiko ur sakonak azaltzen diren lekuneetatik jendea pasatzen ez zenean eta oholezko zubi zuzenak izango zirela hasieran.⁴² Gerora harrizko zubiak egiteko beharra etorri zenean arkudun zubiak eraiki ziren eta arkuak bera euskaldunen pentsamenduan gauza ezinezkoa zenez, nahi ta nahi ez parte txarrekoen edo deabrutxoen laguntasunez egin behar izan ziren. Horretara dator Euskal Herriko zubirik famatuena, Kastrejanakoa hegoaldean eta Ligikoa ifarraldean, gaizkinen esandekin loturik egotea. Esan beharra dago ifarraldea eta hegoaldea aipatu ditugunez gero nahiz eta izen generikoa gaizkin, pamerial eta

⁴⁰ Kontaera hau Txirritaren iloba Jose Ramon Erauskinek idatzia da eta bere osabari entzuna. Idatzizko iturria, aurreragoko Auspoako edizio solteetan eta oraintsuko *Txirrita*. *Jose Manuel Lujanbio Retegi* (Auspoako sail nagusia). 237-238 orr.

⁴¹ Pertsonaren bat gaizki sentitzen bada gaizkinak dituelako ere izan daiteke, esaterako, Juan Miguel Elorza, «Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz», *Euskera*, 1956, 225-226 orr.

Personiari be ein leitekio gaitz ori. Personiarenari gaizkiiña esaten xate (animalie begizkoa) Naparruan eguan gure amandria neska gazte zala ta an bi emakuma aserratu dia ta batai il biarra etorri ta barkaziua eske juañ zan beste sano eguan ori. Eta barkaziua eskatuta bestiak begirakuna bat ein ta ezer erantzun barik il zan andri oi. Ta gero sano eguana etziola barkatu ta burutik endreau egin zan ta iñun errendiu ezin da oian lotuta ipiñi zuen eta bentanak eta iltzez josi ta ala euzela, gizon batzuek an zain bertan, olako zaata aundi bat entzun euen. Da ogekuak: zuek esaten doze neri etzatala ezer etortzen, ta ontzi ta izara danak puskatu eiten zituen. Geo iltziakin jositako bentana oi zabaldua gelditu zan ta bost atzamar markia petxuan agertu zakon emakume orri ta orduan esaten osten: Au ikusi ezazue, nola nagoan... ta bost atzamarren markak baltz-baltzak agertu zakon petxuan. Ta geo ba: -Gaizkiiña zala ta Barriako San Bernardok eukala ortarako birtutea ori kentzeko ta ara eruan biarko zala pentsau ta bost gizonen artian artuta eruan euen San Bernardoko eleizara. Ta ara eruan ta an mezia esan da benedeziñua bota otsaiñean bost gizonak bota zituan lurrera ta sano gelditu zan. Orduantxe konturatu zan nun ete zeuan. Ta gure amona bere iloba zan ta: -I ere emen al intzan? gure amonari. Ta gonai begira jarri zanian: Au ezton ba nire gonia, au ire gona barria izango den. -Bai, alaixe da, zeuria dana txikituta zendukazun ia.

Au da gaizkiiña. Barkatu ezak emoten dauan gaitza da, gorrotuak emoten dauan gaitza da.

Horren antzerako hitza dugu gaiztorako. Norbait gaixotzen denean gaizkinak edo gaiztorakoak kendu behar dira. Mikela Elizegik, Pello Errotaren alaba hain zuzen, kontatzen duenez zakur amorratuak haginka egin omen zion bati eta salutadorea ekarri ondoren hilgo zela adierazi zion gaisoari (*Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*, Auspoa 32, 43 orr.):

Ume onek gaiztorako danak kenduta dauzka: onek ezto jango, ezto edango, ezto lorik egingo: olaxe-olaxe ilko da: gaiztorakoak kendu dizkat, bañan amasa pasia dauka.

⁴² Gaineratu beharko genuke ideia hau ez dela hain zoroa kontutan hartu eta onartzen badugu hitzaren etimologia zur+ibi>zubi, hau da, vado de madera. Ikus E.H.V.

abar izan deabrutxo guztiak berdin deitzen zirela beren artean, hegoaldean *Nikolas* edo *Mikolas* edo *Nikolastar* eta ifarraldean *Gilen* edo *Gillen*,⁴³ elkarri harria pasatzen diotenean esaten duten bezala. Hona aldatu ditugun ipuinetan ez da agertzen baina behin agindutako lana eginez gero gaizkinduna arriskuan gelditzen da eta libratzeko modu bat izaten da bere etxea galbaien ekarritako urez betetzea, hau da, gauza ezinezko bat agintzea eta gaizkinek lana burutan atera ez arren ia etxe osoa betetzen dute urez. Nikolas izena, Orixek esan zuenez, beste hizkuntza batzuetan ere erabiltzen da deabru izen bezala.⁴⁴ Kontua da lamiak ere agertzen direla gaizkinean eginkizunean Barbierrek batu eta gero idatzi zuen esaundan agertzen den bezala. Eta zubiek izan dutela halako parte txarrekoen kutsua, esaterako, Barbierrek esaten digunez lamiek Utsaleko zubian omen zuten egoitza, eta Garmendiak dioenez:

Zubia aipatu dugu, eta hau Leitzañ jaso da; gauza itxuragabe batek zubia igarotzen zuen alde batetik bestera, gauero ordu berean.

Inguruetako jende guzia bildurtuta zegoen gauza itxuragabe hura ikusirik, eta emakume bat izan zen adierazi zuena berak jakingo zuela gertakizun haren berri. Orduan, emakume horri esan zioten agindua betetzen bazuen ondo ordaindua izango zela.

Bere ordu jakinean emakumea zubira joan zen eta zubi erdian larrugorrian jarri, zutik eta burua atzera boteaz hanka tartetik aurpegia agertuz buruko ile luzeak zintzililik zituela.

Bulto itsusia heldu zen, beti bezala, eta bere aurrean gauza hura ikusirik, honela esan zuen: «Infernuko deabrue nauk, iruetaneun urte bazetit ola nabillela, baiña olakorik ez diat ikusi»

⁴³ ALZOLA, GUEREDIAGA, Nicolas: «Los "Guillenak", entes míticos de la literatura popular vasca», BRSVAP, 1960, 479-480.:

No cita don José Miguel de Barandiaran en su *Mitología Vasca* a los Guillenak, entes míticos de la literatura popular vasca registrados en algunas leyendas en la parte vasca continental, pero no en la peninsular. He tenido la suerte de recoger dos leyendas de guillenes en Irún (8-III-1959), relatadas por doña Salvadora Ribera Aramburu, de 69 años de edad, natural del caserío Erbittegi de Ventas de Irún, quien las aprendió de su madre, doña Luisa de Aramburu, natural del caserío Audele de Oyarzun. Transcribo una de dichas narraciones, respetando íntegramente el texto de la recogida, con los fonetismos y contracciones del habla popular de la relatora:

«MINAZULOAN BIZI ZIRAN GILLENAK.- Guillenak atera ziran minazoluan ondora, eguzkiya artzera, eta ulia orratutzen aittu ziran. / Joantzen Baringo neskamia, artu zuen orrasia, eta eramatzuen itxera. / Gabian jo zuten atia bi aldiz, eta esantzuten: /-Baringo neskamia, non dun nere orrazia? Ezpaldinbadun ekartzen, emango diñet ire denbora guziko ezurretako oñazia. / Eta urrengo egunian eramantzuen toki berara.

⁴⁴ Muchos son los nombres populares con que los pueblos, singularmente el nuestro designan al espíritu maligno. A los más conocidos de Teren(sic) y Tuxuri(sic), de significación desconocida, «adâr», cornudillo, «galtzagorri» y «prakagorri», el de las rojas calzas y «kaxkin», «malhechorcillo», quizá se pudiera agregar «Mikolas», Nicolás, y no sería el único pueblo que con este nombre lo designara. En Inglaterra parece que existe la denominación «Old Nick», «el viejo Nicolás» con que cariñosamente nos motejaba un discípulo de la lengua inglesa.

Etsaia bildurturik itzuli zen eta alde egin, betirako izkutatuz.⁴⁵

Hona hemen Nikolastarrak zubigile agertzen direnetako bat:

Kolegialko zubixarena (Bitoriano Gandiaga)

Oarra: batzuek Nikolastarrak diabruak dirala esaten dabe, jentillak dirala beste batzuek.

«Egun batian gizon bat errekan ur aundixakin ezin pasau ta bere asarrian sorgiñai ots egin otsan: –Eren ez ete da izango sorgiñik o diabrurik zubixa egingo dabenik? Baietz egingo dauela, goizeko iruretan ollarak jo baiño lenago. Gizon orrek goizeko iruretako eiten badaue zuixa, bere anima ta gorputza izango zala beretzako. Gero Anbotoko gaiñetik Nikolasek abrailliakin arrixa tiratu, beste Nikolasek artu. –Ahi va Nicolás. Eta bestiak: –Bota Nicolás. Eta bigarrenak irugarrenari: –Ipiñi Nicolás. Eta onek irugarrenak egite ban zubixe. Gero gizona larritu egin zan arimia agindu ebalako eta ollarrari eldu ta kukurruku kantau eragin eutsan. Eta olan salbau. Ondiño zubixak arri bat faltau eban akabauteko. Gero iru orreitatik batek beste mutil gazte bat tentatu egin eben. Mutil ori estudiantia zan ta ona. Egun baten urteneben pasiora. Gaizto orrek esanotsan: –Kanpoak ederrak daoz. –Bai. –Nik baukot zaldixak kanpo dana txipituko dabena. Eta bestiak erantzun otsan: –Nik be bai frenuak danari eusteko. Eta joan zan oera, siestara. Esanotsan kriaduari etorten bazan lañorik aguro berari ots egiteko. Kriaduak ots egin otsan: –Señorito, aguro jaiki, egualdi txarra dator. Artu liburutxo bat eskuan eta kaldera aundi bat buruan. Arrixa etorri zan. Kaldera ortara arri guztia bere frenuakin batu eben. Libruakin konjurua egin ta arri guztixa batu. Gaiztoak esaten otsan: –Itxi dak puska baten kanpoari arrixa botatzeko, besteak ezetz, ta danak kalderan batu.» (Fakunda Arregui)⁴⁶

Ligiko Zubia (Resurrección M. Azkue)

Nurk ezti ezagützen Ligiko zübia, Ibar-ixke ian? Ezteite sinets gizonaren lana dela! Nahiz lehen bazien orai beno hargin hobiak. Yakintsiek dioie Erromatarrek eginik dela Ligiko zübia. Yakintsiek erran dezela nahi diena. Nik badakit, axamari ene harzaruan entzünik, lamiñen eskietarik dügüla zübü izigarri hori. Ez uste tükhen lamiña güziak gaxto diela. Bada hetan ere orotarik, gizunetan bezala.

⁴⁵ GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan «Euskal Leindak», *Euskera*, XXXVII (2 aldia), 1992-1, 433-434 orr.

⁴⁶ GANDIAGA Bitoriano: «Arantzazuko Folklore-gaien biltzeaz», *Euskera*, 1957, 218 or.

Orai diela aspaldi Lexarantzü-mendiko lamiñek hitz artü zien Ligin, uhaitz handian, zübü baten egitia. ¡Lan gaitza, balin bazen! ¿Bena badaia lamiñek egiten ahal eztenik? Gai ülhün bat haitatü zien, ezi ezpeitie nahi so egilerik. Ixil eta zalhe lanari lothü zien, argia gabe zübiaren ürhentzeko. Zübü-arkia eraiki zien, ez bi gaintietarik batetan, gizunek bezala; bena gai gainti batetik bestialat buruz, lamiñek ohi dien bezala.

Hantik ez hürün okhin bat bazen eta bethi bezala gaiherditarik laster phiztü zien labia. Oilategitik oillar gazte bat, labeko argidüra haren ikhustez, ustez eta yadanik azkorria zela, hasi zen kükürüküz eta hegal zaflaka. Lamiñak azken harria eskietan bere lekhian ezartera zuatzen. Oillarraren kükürüküa entzün zielarik, ¡brau!, harria urthuki zien ühaitza behera, eta berak marraka ozen batekin galdü zien ülhünpian.

Geroztik nurnahik uhaitz-hura xahu denian, zubiaren egaz-zolan, zilo handi bat ikusten ahal du, lamiñen azken-harriak bethe behar zian zilua.⁴⁷

Ligi-ko Zubua (Lunes Casenave)

Lehenago, ihurk ez beit daki noiz, eginik izan zütün laminek. Gai bakoitx eginik izan zütün.

Oilarrak kantatü gabe, behar zizüen ürrentü; bena kantari hasi beit zen, harri bat ments baratü zütün. Eta ihuiz ere ez dizü harri hura bere leküan ezarri ahal izan.

Ordünko manatzea zütün: «Tin eta to».

Horik zütüzün laminen hitzak zübüa egitera zirelarik.⁴⁸

Ligi-ko Zubia (José Luis Alvarez)

Laminak eta Basajaunak gisala, Ligi-ko zubia laminek eginik duzu. Hautatu zituten gau bat ilun. Ligi-arrak ez ziren haboro fida burutzerat beren lanaren eta deitu zituzten laminak baina laminak ez zituzun dohainik lanean nahi ari, galdegin ziezun herriko neskatilarik ederrena. Abenduko gau beltz batez laminak abiatu ziren lanean. Zubia geroago gorago ari zen: laister azken arria zen ezartzeko. Neskatila haren senargeia lotsatu zen ordukoan ez zekien haboro zer egin eta orhitsu zitzaion ollategi batetara joan zen eta, «zambe», borta zabaltzen du, oilarra iratzartzen da baratetara uste ukan zuen etxekanderea zela bihiaren ematera jiten hasten da, eta bere kukurruku handieniro igortzen du. Ordukoan laminak harritu ziren debruak eraman zezan oilar

⁴⁷ AZKUE, Resurrección María: *Euskalefiaren Yakintza II*, 233 or.

⁴⁸ CASENAVE-HARIGILE, Junes: «Sineste zahar eta ez hain zahar», *Anuario de Eusko Folklore*, Tomo 35, 1988, 65 or.

madarikatu hura azken harria aurtiki zuten uhaitzealat eta hartakoz da gero Ligi-ko zubian harri bat ments.⁴⁹

Laminak (Txomin Peillen)

Laminak ere bazirela erraiten zizien; thenore batez, Bethatü zola erraiten den lekhü gortan, binban, binban harri phikatü egiten zizien.

Eta harri phikatü (harri landu) heekin zer egiten zien? Eztakit zer egiten zien. Erraiten dizie Ligiko zübü zahar ohia hek eginik izan dela? Entzütia badit, holako zerbaiten eta saihetsian harri bat ments ützi zizien; jokia egin zizien ollarri bat ments ützi zizien; jokia egin zizien ollarra goizanko kükürükia jo gabetarik behar ziela oro ürrhentü eta harri bat ments(falta) baratü ziezün, ollarrak kükürükia egin zialarik, eta bethi harri hura ments baratü dela.

Athoroko zübia hor züzün nunbait, enthelegatü düdana, Athoroko zübü hori ere hek eginik züzün, hala entzütia badit bena gero. *Zübü horik zahar tützü badizie mila urthe. Gizonak lagüntzen zitizien? Izan behar dizü. Nola ziren lamiñak, txipi ala handi? E'nakikezü ezpeitüt ikhusi sekülan. Eta gizon ala emazte?* Erdi tzimino erdi jente, eztakit nik zer bazart ziren hurak, sekülan ezit konprenitü lehen zunbat ixtoria, orai deuse eztüzü haboro.»⁵⁰

Azelaingo zubia (Resurrección M. Azkue)

Argin batek bere gain artu zuen zubi ori egiteko arazoa. Egin samar zeukanean, ¡blaut!, lur jo zuen. Bigafenez ere asi ta giltzafia ezartaufetxoan, len bazalaxe erori zan.

Orduan arginak amufatuz itz hauek esan zituen:

⁴⁹ ALVAREZ, José Luis: «Zubererazko transkribaketa bat», F.L.V. Año XII, Número 34, Enero-Abril, 1980, 29-31 or. Batuerako forma utzi dugu, hona zubereraz:

Laminak eta basayaunak gisala, Ligi-ko zübia laminek eginü tüzü haitatü züzien gai bat ülhün ligiarrak etzien haboro fida büützeat been lanaen eta deitü zütien laminak bena laminak etzütüzün dohanik lani nahi ai kalthegin tziezün herriko neskatillaik eidderrrena abentuko gai bel batez lamiñak abiatü sien lanin zübia geogo goago ai zen laster asken harria sen esarteko neskatila haen senargeia lotsatü zen ordeinkun etzekin haboo seregin eta oitü saun ollategi batetaa juntzen eta, «zambe», borta zabaltzen dü oillarra iatzartzen barateta usteükhen tzin etxekanderia zela bihiaen emaitea jiten hastenda, eta bee kükürükü handieniro igortendü ordeinkun laminak harritu sien debrik eaman lesan ollar madarikatü hua asken harria ürthüki zien ühaitzilal eta hartakoz, da, geo Ligi-ko zübin harri bat ments.

⁵⁰ PEILLEN, Txomin: *Animismua Zeberoan*, Haranburu editorea, Donostia, 1985, 88 or.

– Zubi auxe bukatua ikusteagatik, nere anima edozeifñi emango nioke.
Ufengo ařatsean deabruak lanean asi omen ziran. Arginak eta lagunak baino aldi laburago bear izan zuten ia azkenera eltzeko. Zubi ori amaitzeko zegoela deabruak gau batean kantuz ari omenziran:

Eskuz esku Labaingo afia,
ia akabatu degu Azelaingo zubia.
Ea mutilak, eun ta bat milla gaituk,
Afi baten paltan gaituk.

Arginak, bere anima aien eskuetan utzi bear zuela ikusirik, apaizarengana konjuru bila yoan zan. Apaiza etofñ konjuratzen ta deabru guzi guziak ayenatu zituen.⁵¹

Kastrajana'ko subie (León Bengoa)

Gixon batek kontatan artute ei-euken Kastrejana'ko subie eitea eta esetara esin ei-euen askendu, egunes bere bearginek eiten euena geubes bota eiten eutzien-da.

Kontatea akabetako egun bet baño es ei-sen falta, ta gixona larri ei-egoan. Eta onetan parte txarreko bat agertu ei-yakon, da subie berak ingo eutzela, esan ei-eutzen, arimea emoten ba-eutzen.

Eta bayetz agindu ei-eutzen, arimea emongo eutzela subie eitekotan.

Geue eldu zanean, ogetamairu milla Mikolas asi ei-sirean bearrean, subie eiten. Sortzi-amar arroako arriek eskus-esku erabilten ei-euriesan: gustisko indertzuek ei-siren.

Gixonak arimea galdute eukela igirri euenean abadeagana joan ei-sen konseju-bille, arimea salbetako.

Eta abadeak, Marti-ollartxu polit bategas subire joan eta Mikolasak bearrean ebixen gane-ganean paretako, esan ei-eutzen.

Eta gixona, Marti-ollar gorri-polit bet artu, ta kapan barruen burutxue agirien euela, joan ei-sen subire.

Mikolasak an ebixen gogor lanean, da, ordutxe ei-eukien subie askenduteko.

Amabiek joten asi ei-siren, da gixonak ollarrari esan ei-eutzen:

Marti-ollartxu gorrie,
Orain balie, balie;
Orain balietan espa-sara,
Joan da nire bisie.

Ollarra orduen, egoari erainda, pla-pla-pla ta kukurrukuke asi ei-sen.

Eta ollarran saratea entzun orduen, subie arri baten faltan itxite, Mikolasak tximistea lez eskapeu ei-eurien; da gixona salbeu ei-sen.

⁵¹ AZKUE, Resurrección María: *Euskalefiaren Yakintza II*, 382 or.

Kastrejana'ko subie, guzurre edo egie, Mikolasak ein ei-eurien, da akabeu barik itxi eurielako, oin arri baten faltan ei-dago.

Kastrejango zubije ezin ei eban amaittu kontratisiek obligaziñoa artu eban denporarako; amaittu orduko beti jeuzi egiten ei jakon.

Egun bet falta zanién denpobetetako, arrabijoagaz esan ei eban: «Diabruék be etxok au zubijeu amaittuten».

Etorri diabruék eta bierrien asi ziren.

Bildur aundije eukan zer jazo bier ete jakon eta artu martiko ollar⁵² bat, eroan zubijen ondora eta esan eutzan:

Martiko olartxu gorrije,

Balijeu zadikez balije,

Ezpabe joan da nire bizije.

Gabekoamabijetako txingadak asi zirienien, ollarrak kukurruku egiñ eban eta orrek kukurruku-orrek aldenduazo egiñ eutzien diabru guztijeri, zubije arri baten faltan itxirik.

Ori arrijori eziñ ei-deu iñok ipini.⁵³

Le Pont de Licq (François Cerquand)

Ligico gentec bacien aspaldian çubu baten beharrunia. Bena etcen ihour ere ausartcen lan haren hastera lekhia gaisto celacoz.

Egun batez hitzartu cien behar ciela çubu hori Lamigner eguitera eman. Deitcen dutie herrila eta erraiten dere bere ecin bestia. Lamiñec hitzemaiten dere çubiaren eguitia harri phicatus biharamen gaien oillarec khantatu beno lehen, bena galtho egunen derenaren pian. Liguarrac erraiten dere: «Cer da cien galthoua?» Lamiñec arrapostu: «Liguico nescatilaric ederrena dugu galthatcen phacutaco.»

Nahi bada phena handia eguiten ceren herritarrer nescatila eder haren galtciac, haleric ere houn hartcen die Lamiñen galthoua eta biharamen gaien horic hasten dira lanian.

Mundu oroc dakian beçala nescatila ederrec badio lekhu orotan arracasta. Liguico nescatila eder harec ere bacian bere maite khorte eguiten cerona. Maite hori, beitçakian cer çabilan, jarten da biharamen gaien Lamiñen lankhiaren khantian eta ikhousten du laxeriareki dembora erdi gabe lana bertan acabatcecoua cela. Ari cen penxamentuca, mina bihotcian, icerdi hotz batec harturic, nouiz ere gogouata jiten betçαιο gaiça bat.

Jouaiten da oillantegui baten khantila, emeki hanco bortha çabaltcen du eta bere eskiez eguiten du laur edo bost çafila, oillarc khantatu beno lehen

⁵² Biltzailearen oharra:

Martiko ollar es el gallo nacido por Marzo de un huevo puesto en el mismo mes.

⁵³ BENGÓA, León: «Creencias. Berriz (Vizcaya)», *Anuario de la sociedad de Eusko-Folklore*, 1921, 82-93 orr.

hegal khaldu emaiten tianac beçala. Oillarra iratçartcen da jauci bateki, loxaz berantu din, eta hain sarri eguiten du: Cucurucu.

Ordu cen, Lamiñec azken harria erditan gora althaturic cien, bena entçun cienian oillarraren khantoria aurthiki cien harri hora houren behera eta herox handi bateki ezcapì ciren erraiten cielaric: «Dela maradicatia oillar hori çouñec eguin beitu bere oiha thenoria beno lehen.»

Gerostic, diroie çaharrec, ez harri aurthiki hora ez besteric ezte ihourc ere lekhu huts hartan ekhura eraci ahal ukhen.⁵⁴

Transcrit de souvenir par M. Garat, de Gotein.

Les Lamignac et le Pont de Licq (François Cerquand)

Lehenago, Liguico çaharec etcien çubu bat eguiten ahal uhaïtcian. Çubu hora eguin nahi çuten gunian, bacien hirour Lamiña Guillen deitzen hirouac. Erraiten deye Liguico guiçon bati hec eguinen deyela harrizco çubu bat. Jondani Johane mespera gaian, nahi badeye eman bere arima pphacutaco. Giçon harec hitz emaiten dere arima eguiten badie çubia, ber gaian, hirour Guillenec inkantatu çutien oillarac oro, eta guero hasi cien lanian, erraiten cielaric algarrì harrien emaitian: «To! Guillen; Indac! Guillen; Hartzac! Guillen.» Çubiaren finitzeco azken harria eskian çuten, nouiz eta ere oillo coroka baten petic, arrautciaren barnetic, thicha batec kukurucu eguin beitician. Ordian hirour Guillenec errein cien: «Adio! goure phacamentia;» eta ourthouki cien escutic azken harria hourialat. Gueroztic harri bat menx umen du çubu harec.⁵⁵

Récité par Mme Engrace Carricart, de Musculdy, transcrit par M. Laxague.-Dialecte Souletin.

Laustaneko Jauregia (Jean Barbier)

Orai duela aspaldi, aspaldi, Laustaneko Jaunak, bere jauregia tcharregi kausiturik, jauregi berri bat egin zezoten galdatu omen zioten Laminerì.

Laminek baietz: gogotik eginen zutela, eta gau-erdiz geroztikako lehen oilar-kantua gabe oraino, baldin eta Jaunak bere arima emaiten bazioten saritzat. Eta Laustaneko Jaunak baietz hitzeman zioten.

Laminek gau hartan berean hasi zuten beren lana, eta Arradoiko harri eder gorri batzu pullikichko lanthurik, harri hek batek bertzeari, bichi bichia

⁵⁴ CERQUAND, François: «Légendes et récits populaires su Pays Basque par M. CERQUAND, Inspecteur de l'Académie de Bordeaux» in *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau*, 1874-1875 (VIII), 282 or.

⁵⁵ CERQUAND, François: «Légendes et récits populaires du Pays Basque par M. Cerquand, Inspecteur de l'Académie de Bordeaux» in *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau*, 1875-1876 (IX), 254-255 orr.

emaiten zituzten, ahapetik elgarri erranez: «To, Gillen!-Harzak, Gillen!» Eta lana bazoan, bazoan karraskan.

Laustaneko Jauna olategiko zurubi kaskotik Lamineri beha zagon, halako puska ilhun zerbait eskuan.

Hor, laminek eskuetan hartu zuten azken harria: «To, Gillen!... Harzak, Gillen!... Azkena duk, Gillen!...»

Ordu berean, Laustaneko Jaunak ichtupa mustuka bati su emanik, argi handi bat eraiki zen bet-betan, oilartegiaren aintzinean, eta oilar gazte bat, iziturik, ustez eta iguzkia aintzindu zitzaion egun hartan, kukurukua eta hegalez zaflaka eman zen.

Azken Laminak, jadanik eskuetan zuen azken harria firrindilaka arthiki zuen ur-handiko osinera, marraka samin batean: «Madarikatu oilarra!» eta, bere lagunekin suntsitu zen bera osinean.

Harri hura nehork egundaino ezin athera du osinetik; han da bethi ur zola zolan, Laminek aztaparrez daukatela, eta Laustaneko jauregiak harri bat eskas izan du bethiko demboretan.⁵⁶

Kastroko Zubia (Jabier Kalzakorta)

Kastroko subixe emendik gosetik eruten sittuesala arrixek eitteko sera eñ ebela tratue gosien ollarrak jo orduko baietz akabau Kastroko subixe ta da baietz da eñ ddabe posture da ba Oistik arrixek ee.. serera Kastrora da ba ollarrai kukurruku erañdde esin itxi se ostien akabau bieurien itxurie ta da askenenguek erun eiseban eun arroako porrie, kojue eun arroako porrie ta arrixe lepuen da bestiek estakit selanguek erungo sittuen, da arrixe askenengo ipintten dauela ollarrak ispillu aurrien ipini ta kukurruku erañ da ollarrak kukurruku eibanien axe arri bat falta, da, a arrixe geixau e.. beti a arrixe ipini ta jausi eitten dala...

Berri emailea: Balentina Aresti.

Lekua: jaiotzez Egurbide baserrikoa, San Antonio auzoa (Zornotza) eta Frantzesena baserrira ezkondua, San Antonio auzoa (Zornotza).

Biltze data: 1993 ekainaren 17a.

Berri emailearen urteak: 64 urte.

Kastrejanako Zubia (Jabier Kalzakorta)

Ori aitzute deuket, entzunde dauket euki, ori lamiñek edo lamiñek baño geau demoniñoak eñe zalako kontue egoan entzukerea lenago denporetan, Kastrejanako zubie eiten egozala da baton batek esan be einoala mutillen batek urrean esauala:

⁵⁶ BARBIER, Jean: *Légendes Basques*, Librairie Delagrave de Paris 1931, 25 or.

- Ez dok agertuko demoniñorik au eingo duenik zubial falta (?) egozala ta da puntuko agertu yakola baten batek Sasolatik (?).

- Nik zubie eingot baña gero nire urteak yakin biozuz zenbat daukedazen ezpabere neuk eroango zatut.

Gero mutilori olan triste paretan zala da andra batek esautzela:

- Zer pasetan yatzu?

- Zer pasau? auxe kontue esan neban da agertu ein yaten da.. yakiten ezpozu berak eroango nauela.

- Neuk yakingot esaotzela-andreak

- Nundi etorten die goxean bera aiten orreik demoniok? -esaotzela.

- Andixeik bendiko bideti etorten die goxetan eguzkien urteiran.

- Bueno ori neuk yakingot -esaotzela.

Da esan da ein, esan da ein yakiten egoan andreori arentzako mutilentzako yakiten egoan andrea parau beratxoagoan, bise-bisean (?) bide bidean parau zala, billosik konpleto! da begire, ezpiti begire ankartetik beti begire. Da demoniñook betozela arkaleri esaotziela demoniñook:

- Zer yaok or?

Da bestiak esaotzela.

- Etxakiat, mille ta zortzireun urte bayukazat ta beste olangorik etxuat ikusi bein oindo.

(Da) esautzela mutil orreri andreorrek urteak yakieuzela gero etorri yakola preguntez yakin dozan urteak esautzela ta:

- Bai, zenbet?

- Milla ta zortzireun urte. Nik etxauket geyagorik esan deustenak(?) baña esanda yoan zala.

Orrek lenauko kontuek ya aiztu ein dire oñ guztiz.

Kastrejanako Zubia (Jabier Kalzakorta)

Esakerea da Kastrejanako zubie akabau barik, sorginek pasau ziraala gaubeko amabietan edo, gaubez eiten ei eurien ori zubiori, laminek edo sorginek edo eztakipa batenbat sartu zen da agaiti esakerea da Kastrejanako zubie sorginek pasau zirean da ladrilu baten faltan dauela axe ladrilue kolokau baino lenago, akabau baino lenago pasau zirean laminek edo sorginek edo... ori be entzunde deuket baine. (Bitoria Arretxe, Zeanurikoa)

Kastrejanako Zubia (Jabier Kalzakorta)

Orrek sittuasan, suan, e... bata suan kontratistie, ta bestie suan diabrué. Diabruék nai isetejuan ee arimak beregandu kontratiste batek -au pasautekuok e!- Gaur be antxe egongo da ganera neuk etxakixat nun dauen be baña, Castrejana.

- Castrejana badakik nun dauen?

- Bai, subi bat da an famosue esta?

– Bai.

Axe subixe eitten jebillan ya plasue bete einbijakuan da... estu jauan da.. agertu jakok diabruue goisalde baten da, bestiek bere buruko miñas aixe amaittu esiñik.

– Se paseta jatzu gisona?

(ta)

– Plasuen artute dauket auxe subisau eitteko da plasue betebijate ta esinddot amaittu.

Alako errosaido txarrik ta, bueno esan jotzen e.. ori e neuk amaittukot.

– Selan amaittu biostepa?

– Ba, seu iltten sarenien, seure arimie emoidesu neuri da amaittute daukesu.

– Ori baño espada euko juau ba!

– Tire ba!

Konformaittuk. Ekitze bierrien da.. bat jeukan kojue da, gabien amabixetan ollarrak joten dabenien amaittute egonbidau. Axe kont(r)atue dauket eiñdde ta.

Bestiorrek ekijeztan ta bajiarduan Oistik, Oisen atatejuen arrixe, Oisarrixe, ori dok kristelarrixe, Oisen artuteben ta andixeik ekartejuen arixe ta aretxas amaittu biben. Aor e amabicek jo jittuen da etzuan allegau kojue besteik danak ekarritte TAK! ipiñi sittuesan arrixek baña bat es.

– Orrek *biergiñek ser sien diebruek?*

– Bai diabruan biergiñek sittuasan.

E, a.. arrixe ipini eijuen ondo lasaute ta bidan moduen baña bixamonien be a bein egoten eisuan. Ontxe be palta ei dok ak arreik, esatejuek nik etxaisat nun dauen, Kastrejanako subixe esatejuek.

Azelaingo Zubi (Joaquin Larreta)

*«Eskutik eskura
Labaindik arriya
Agiñ Azelaingo
Zubi-zar erdiya.»*

Nere erritarretan iñor guchi izango da iñoiz ere entzun bagerik nola deabrubak egin zuben, lengo denboretan, Azelaingo zubi zarraren erdiya; Labaindik eskutik eskura arriya, Akelarreko eun milla sorgiñen laguntzarekin ekarrita.

Baita ere badakite geyenak nola, zubiya egiñazi zubenak, bere anima deabrubaren atzapar zorrotzetatik atera zuben, ollarrari kukurruku egin azita, zubiya bukatutzeko arri bat jartzia baizik palta etzanean.

Oraindik ere zubipean ageri da utzik arriyaren lekuba, ikusi eta sinistu nai dubenarentzat. Au guziz jakiña dala, batez ere mariñol tartean, ikusi nuben aurtengo udan bertan, naiz jakin lendandik ere; bada Ondarrabiako

mariñel D. N.ek egin ziran galde, ni zubi artan askotan gertatzen nitzala jakiniñ, ia egiya zan zubi ura deabrubak sorgiñekin egin zubenean jarri gabe utzitako arriyaren utzunea agerizala; edo utzune au gerratean putzura botatako zubiyaeren zatiyaen zegoen.

Ez da bada, au gauza jakiña guztiyentzat izanik, zubi ontako gertakizunak izkribuz ezartzea nere asmua, naiz lan kaskar onen itz-azalkai jarri Azelaingo zubiyaeren gañeko esaera, anitz zabalduba. Bakarrik jartzen ditut itz oyek aurretik, ipui onek beste, nere chiki denboran ikasi nuben bat oroi azi didalako, izanik batak besteaeren antz aundiya.

Nai nuke bada ikusi, oroitzen naizen gure itzkuntz ederrean izkribuz ezartzeko albanuke, naiz jakin lendandik nere argaltasuna gai ontarako, Bizkaiko Kadagua deritzon errekaeren gañean dagon (edo obeto esateko zeon, bada lengo gerratean purrukatu zuten au ere) Alonsotegiko zubiyaeren eginkisun eta egilleen gañean, orain dala urte asko, bizkaitar batek esan zizkidan pasarteak.

Alonsotegiko Zubia (Joaquin Larreta)

Kadagua deritzon errekaeren eskerreko aldetik bizi zan, nere ipuia gertatu emen zan denboran, neskacha gazte, Alonsotegiko gustiak diran beziñ, eder eta liraiñ bat, zeñek amorio aundiz maite zuben eskuirontz bere etxea zeukan mutill bikain bulardetsubat. Neskachak, zeñari ezan oi zioten Mari-Iñasi, zuen egunero, Altamirako mendira igo eta an gaztaña zar aundi baten ondotik, Begoñako Ama Birjiñari erregu, bere guraso eta maite José-Iñasio gatik, egiteko oitura.

Egun ayetan juaten zen gastandira besteetan baño goizago, eta bai ere egiten zuben bere otoitza iñoiz baño jayera aundiguarekin; bada etzuben arkitzen bestietan bezin maitatia bere biotzeko kutuna.

Ara nun lagun-urkuak, José Iñasioren zoriona ezin eramanik, zerbait oni esan da, zayon burutaratzen neskachak beste bat maite duben zalantza, eta bere idurimenduban milla gauza naspillatu eta gero, oso etzirik, prestatzen dan urez atzerrira biyaramonean joateko asmoan. Albiste onekin oso noziturik Mari-Iñasi gaisoa, eta nola mitill ura lengo zentzura itzuli eta burutaratu zitzaizkan enurak kendu jakin gabe, berezitu zuben, gazte gararidun ura, gabeko keda jotzen duen ordurako, len aipatu dedan gaztaña zarraren ondora; an sinistu azitzeko asman, len esandako itzak, ez losinchak baizik maitetasun egiazkuarenak zirala.

Baño egun guziyaen zeruba oso goibeldurik arizuben ebiya marra marra, eta erreka, besteetan ain kaskar ura, gora zijoan eta etzeon iñolaz ere orduban arri batetik bestera jausika, beste egunetan bezela, igarotzerik alde batetik bestera neska gasoa, bada ujola edo ubalde arrekin denak estaliyak zeuden. ¿Zer egin orduban?

Jo zuben anima eskillā, eta andik ordu guchiren epean bear zuben Mari-Iñasik egin, len aipatu dedan bezela, berak berezitu zuben lekuban, bestela etzuben geyago ikusiko bere biotza baño maiteago zuben mutill ura, bada urrengo egun sentiyā bazijuan, errira geyago ez biurtzeko asmuan.

An zeon putzu onduan Mari-Iñasi gasoa bere begi besteetan ain alai eder eta orduban zeruba bezin goibel, ayetatik malkoa ugari zeriyoła, bazan guchienaz ordu erdi bat, eta ezdakit zenbat denbora igaroko ote zuben oraindik ala, bada biotza zauritzen zion erreka urez bete arrek, bere soñu eta zurrubillo ayekin, zeñen tartean iruritzen zitzayon iya ituan ikusten zubela bere Jose-Iñasio, itsasoko bagen tartean bezela; ezpazuben itzumustu gizon edo galai gazte batek. Onek esan ziyon leunki erderaz, bada izanik zana ezin zitekian mintzo gure itzkuntz pare gabeā, egingo ziyola zubi bat, bere beriala keda jo baño lenago juateko beste aldera, ollarrak kukurruku egiten bear zuben denbora baño laburragoan, Mari-Iñasik ordeñeta ill eta geroko anima ematen baziyon.

Mari-Iñasik, oso posturik, bere biotzeko maitea ikusteko asmuan, agindu zion bayez beriala; baño gero, ikusirik zer zor aundi ikaragarria artzen zuben bere gain, naizuben desegin aginduba, eta estuasun arretan egin zion erregu Begoñako Ama euskaldun guztienari, eta onek entzun zion, gero ikusiko dan bezela; bada beti prest da, beste ama guztiyak bezela, bere seme-alabak biotzez eskatzen dioten guztia emateko.

Asi zan gizon zuhur antz ura qere zubiya egiten eta neskachak, oso estutu eta arriturik, ikusten zuben nola iya bukatuba zeukan, esaten beardan epea baño laburragoan. Etzuben arribat baizik palta, zeña zan zubiyaen giltza. Arkaitz aundi bat besarkaturik, bazijuan bukatzera; baño ara nun, bitartean, beste aldetik agertzen dan gizon bat, zeñek eskuban zekarren bordoi edo makilla geatzen zan zuluā sarturik, etziyon utzi zubiya giltzatzen egilleari. Onek orduban eldu zion, arriya utzirik, ausarki, makilla ateratzeko asmuan, keñu ikaragarribat egin eta itz igigarriak esanez.

Ala zebiltzala egin zuben ausoko ollarrak kukurruku eta juan zan igesi, oso lotzaturik, zubiya egin nai zuben galai ura. Besteak puskatu zuben orduban bordoi, len ain gogor eta zekon ura, eta bere lekuban zubiyaen giltza ipiñiyaz, esan ziyon neskachari:

Gaztea Ama Birjiñak entzun du zure erreguba eta, bere babesian zure arima arturik, bialdu nau zuri laguntzera trantze estu onetan; zuaz lasterka gastandira, bada ordu erdi onetan zure maitatia ichogiten daukazu, eta ez iñoiz sinistu itz-leunkari yekin erderaz datorkizunari.

Au esanik, igo zan zerura, laño zuri distiari batean bildunik gizon miragarri ura.

Neskacha abiyatu zan korrika gastandi aldera zubitik barrena, Ama Birjiñari eskerrak eman eta animentzat aita gure bat esanaz jayera aundiarekin, bada ordubanchen jotzen zuben Elizako eskillak keda.

Esan bezela, gastandian billatu zuben José-Iñasio, luze irichiz eta keskas beterik. Onek sinistu zion esandako guztiya pozez beterik eta andik piska batera biak biurtu ziran beñere baño alai eta estizugo bata besteei itzegiñez, ain arrigarri egindako zubi artatik barrena, aurrena, biak Mari-Iñasiren echera eta José-Iñasiren echera eta José-Iñasio gero, beranducho, berera, esatera gurasoari, biyamonean onek urez jua bearrian, naizutela biak aita-amen baimenarekin alkarrekin jua, andik denbora guchi barru, Elizara betiko batu eta geyago alkarren zalantzik ez izateko... ¿Badakizute orain zein zan Alonsotegiko zubiaren egillea? Deabruba, ollarrak kantu egiteko denbora baño laburragon bukatu nai zubena, eta berriz San José ber bera, ari eraotzi eta gero zubiya giltzatu zubena.⁵⁷

Eiheraberriko Zubi zaharra (Pierre Duny)

Orain duela bospasei ehun urthe, Donibane-Garaziko Eiheraberri-aldea, deitzen zuten *Hegitoa*, eta han etzen zubirik ez etcherik, bainan iratzetak eta oihañak.

Donibandarrek etzuten harrizko zubi bakar bat bezik errobiaren gainetik pasatzeko: eliza-dorre peko hua. Alta, garaziko Agotek aspaldi nahi zuten egin, hor nunbait, bigarren zubi bat. Batzu, ahalge baiziren karriketako jende trufatzailen aintzinetik bethi borchaz ibiltziaz. Bestek aldiz, behar zutela hego aldetik elizarat joateko bide hun bat bederen. Eta kasik oro harginak baiziren, bichtan zen lan errecha zutela zubi baten egitea.

Hautatu zuten azkenian leku hun bat, Hegitoako aidachkan, zeren han Errobia sartzan baita doi-doia bi harri muturren artetik. Eta uda astelhen batez, goizian-goizik, lotu ziren lanari. Orgez, mandoz, astoz, ekarri zituzten Arradoi mendiko harri gorri ederrenak, eta ur bazterrian metaka botatu. Han, harri-pikatzaliak ari ziren ukaldika, mortero-egiliak nahaska, harginak aldiz zartaka... eta lana bazoan karraskan.

Bizkitartean, Donibaneko karrikatarrak, bethi irriz eta gachtakerika ari ziren Agoten kontra... Gaicho Agot kachko-arinak!... Zinezko zozoak!... Batere etzakiten beharbada Hegitoako osin gaitzare bazterrian, herriko sorgin guziek zutela beren Akelarrea... Korrontadorreko latsari chahar batek ahatik, hargin bati salhatu zakon beharrirat, erranez sekulan etzutela zubia bururatuko, debria ukanik ere. Eta arratsalde bero batez, ur bazterretik oihuka eman zuen zuhur-hitz pollit hori:

*Hegitoako errekan,
Sorgin guziak kurrinkan,
Osin beltzaren bazterrian,
irakoitziako gau-erdian.*

⁵⁷ LARRETA ARZAC, Joaquín: «Irakurgaya Alonsotegiko Zubia», *Euskal-Erria*, Tomo V, Enero a Marzo de 1882, 129-131 or.

Egia erten zuen zorigaitzez atso zahar harek. Irakoitziako gau-erdian, herriko sorginak oro zoko hartarat jin ziren orroaz, kechatiak, aferatiak, eta ichtantian zernahi erranka Agoten alderat:

– Hauche da Agot beharri-motzurdiak!... Beste zubi bat behar!... Eta elizarat joaiteko alaintso!... Funtsik gabeko jende tzar ausartak!...

Hortan, izigarriko kalapitak lantegietan eginik, bazter guziak zintzikatu zituzten, eta han bildiak ziren tresnak oro, gain-beiti osinan aurtiki. Biharamunian, Agot gaichoen harritzia!... Iduri zien ur handiak, bere bidetik atheratuz geroz, dena errotik chahutu zuela.

Uroski, Agoten artean bazen gizon perestu eta jakintsun bat, *Pettan-Hargina* deitzen zutena. Espainian ere ibilia zen omen anitz urthez, lan eder batzuen egiteko eliza nausietan. Eta fama handia bazuen Garaziko herrian.

– Ez da sekulan etsitu behar, erran zuen Agot harrek bere laguneri. Berriz lotuko zirezte lanari, hortzez eta haginez. Bichtan da debrukeri zombait hemen badugula. Bainan nik badakit oraikoan zer egin, eta debriak ikusi beharko du geroztik enekin.

Beste aste bat bururatu zen. Agotak bethi lanian, jeusik ez bazen gertatu bezala. Irakoitziako gauan, *Pettan-Hargina* etchetik atheratu zen ichil-ichila, oilhar eder bat galtzarpian gordeturik, eta brichtez joan zen Hegitoari buruz. Han, ziminoa bezain arin, igan zen haritz ostodun baten gainerat, eta bere oilharra zangoetik estekatu zen polliki adar baten puntan.

Hantik laster, Garaziko izkilek gau-erdiko hamabi ukaldiak jotzen zituzten burrunbaka, noiz eta ere alchatu baizen ilhun beltzian holako huchtu izigarri bat, haize hegoa heldu balitz bezala... Ichtantian, errobiaren bazterrerat jin ziren zirurikan zernahi jende, menditik, oihanetik, uretik, airetik eta nunnahitik. Berrehun sorgin segurik baziren hor, denak lasterka, jauzika, itzuliphurdika, eta gero tirahala jantzan. Zombait irrintzinaka artzen ziren, kantu ikharagarri hau emanik:

*Trinkun trankun!
Mendian ilhun,
Nehori gau hun!
Tirripirt tarrapart!
Bethi zirt edo zart...
Leher eta zapart!*

*Higi hadi
Da gau-erdi...
Alch iphurdi!*

*Jo pilota!
hor Agota
Ureat bota!...*

Eta aditu nahiz besterik, Pettan Agotak inharrosi hun bat eman zakon oilharrari. Hau, zanpez iartzatu zen eta chutitu adarraren gainean sorginen azantza intzunik. Ordian, ustez eta langiliak hor zirela, eta ichtantian argia zabalduko zela, hegalak jo zituen azkarki zaflaka, kukuruku gaitz bat emanik... Oilhar kantua aditu zeneko, sorginak oro arrunt asaldatiak suntsitu ziren airez-aire marraka handi batian, beren gachtakeri guziak utzirik.

Aste guziez, Pettan-Harginak oilharrarekin hala-hala egiten baizuen, azkenian Agotek bururatu zuten gustian Hegitoako zubia. Eta hantik berehala, Donibaneko Jaun Erretorak ederki benedikatu zuen.

Sorginek hustu zituzten ordian leku horiek sekulakotz. Orai, mendietan dute beren *Akelarrea*, Ezterenzubiko errobi bazterrian, huntz-tegi zoko beltz izigarri batian.⁵⁸

El Puente de Zubieta (Orixe)

La leyenda vasca es la del puente de Zubieta, pueblecito del Goierri nabarro. Como lo dice el mismo pueblo, en él tiene que haber algún puente, no sé si será grande, hermoso, románico o diabólico. Es tradición, según Galarza, conservada en todo aquel pueblo, cuando menos, que los habitantes de Zubieta (Los Puentes), necesitaban hacer un puente para pasar el río. Daban manos a la obra; el puente estaba tan casi terminado, que no le faltaba más que la última piedra que poner. Pero, fatalidad o arte diabólica, el caso era que al poner la última piedra toda la construcción se derribaba, sin quedar piedra sobre piedra. Una y otra y muchas veces acudieron a su invicta constancia los infortunados habitantes, hasta que hastiados por tanta contrariedad, decidieron tomar una determinación definitiva. Hicieron pacto con el demonio de que le entregarían sus almas si él se comprometía a terminarles el puente de modo que no se derrumbara. El puente, para que la leyenda sea más verosímil, se hizo de noche, y en una sola noche. Llegó una innumerable turba de demonios cornudillos y de calzas rojas, y se coloca en fila desde la cantera hasta el río. Empieza la actividad, arrancando y labrando piedras unos, y trasladándose de mano las piedras labradas al son del siguiente estribillo:

*To Mikolas,
Ekatzak, Mikolas,
Emen ba gaituk
Amalau mila Mikolas.
Toma allá Nicolas,
Da acá Nikolás,*

⁵⁸ DUNY PETRE, Pierre: «Eiheraberriko zubi zaharra», *Gure Almanaka*, 1959, 33-36 orr.

*Aquí somos cuando menos
Catorce mil de nombre Nicolás.*

El puente quedó bien terminado y consolidado, y desde entonces no ha debido vacilar ni en la guerra de Napoleón. No podemos presentar su fotografía; pero desde luego comprenderá el lector que será un puente soberbio, el mejor, sin género de duda, de todo el País Vasco. Con solo una piedra que pusiesen, eran ya catorce mil las piedras labradas de que constaría el puente. Si el puente costó una media noche, calcúlese la mole orgullosa del puente de Zubieta. No consta, o al menos no me lo comunicó Galarza, a qué hora comenzaron su labor. Es creíble que no la comenzaran hasta después del toque del «Angelus», hora en que aún las brujas tienen su potestad. La hora del cese o la terminación debió ser algo antes de las doce de la media noche, que es la hora de disolverse los espíritus en sus conventículos terrenos y encarcelarse en los subterráneos.⁵⁹

El puente de Acelain (Juan Garmendia)

Un cantero empezó a construir un puente sobre un río llamado Acelain (En realidad Acelain era el nombre de un palacio medieval, próximo al río Oría a su paso por el barrio de Soravilla, de Andoain, palacio que nos llegó identificado con la familia de los Larreta). Pero el trabajo del cantero lo destruía el agua. Al ver esto, el hombre montó en cólera y exclamó: «¡Para hacer este puente no me ayudarán aunque sea los demonios del infierno!» (Zubi au eitten ez ote dittea lagunduko infernuko demonioak benik!)

Pronto se le presentó un diablo y le dijo: «A cambio de tu alma, te haré el puente antes de que cante el gallo» (Zure animaren truke, egiñen dizut ollarrak kukurruku jo baiño leen). Al oír esto, el cantero le respondió: «De acuerdo, mi alma será para el diablo del infierno si el puente lo termináis antes del canto del gallo» (Bai, konforme, ollarrak kukurruku jo baiño leenago bukatzen baduzue zubiya, nere anima infernuko demonioarentzat).

Catorce mil diablos de nombre Micolás vinieron del infierno para hacer el puente. (Dicen que en el infierno los de nombre Micolás son los menos, aunque en este caso parezca todo lo contrario). (Según me dijeron en Rentería, estos demonios se llamaban Domingo, y los así llamados eran los menos numerosos en el infierno).

Al comenzar el trabajo, los demonios se expresaban de esta forma: «La piedra de mano en mano desde Larrún; pronto haremos el puente de Acelain» (Eskutik eskura Larrundik arrie, laister egiñen diagu Azelaingo zubie).

⁵⁹ ORMAETXEA, Nicolás «Orixe»: «Nombres del diablo», *Euskal Esnalea*, 21-XII-1930, eta *Idazlan Guztiak. Artikulu eta Saiakerak III*, Donostia, Etor, 1991, 1.113-1.114 orr.

Con gran celeridad emprendieron su labor, y no tardó en configurarse el puente. Al contemplar la obra se asustó el cantero, pensando que la rematarían antes de que cantase el gallo, lo cual traía consigo la condenación de su alma.

Así las cosas, una mujer se dirigió al cantero para decirle que metiese al ave un poco de sal por el trasero, y que pronto ésta cantaría. El cantero hizo lo recomendado por la mujer, y no se hizo esperar el canto del gallo.

Al escuchar la intervención del ave, los Micolás del infierno dejaron el puente tal como estaba y se alejaron.

A este puente le faltaba una piedra para quedar terminado, y hoy es el día en que sigue de esta forma. Se trata de la piedra que los canteros colocaban de día, y les retiraban de noche.⁶⁰

Erdal herrietan ere aurki daiteke horrelako esaunda harrigarrik, esaterako, Segovia-ko acueductoa dela honako esaunda hau:

El Acueducto de Segovia (Juan García Atienza)

Cuentan que, en lo alto de la ciudad, en una de las casas que miran desde arriba hacia la plaza de Azoguejo, vivía en tiempos remotos que la memoria ha olvidado un importante señor rodeado de criados, entre los cuales servía una muchacha que tenía como misión la de traer agua para la mansión. Cada día tenía que atravesar muchas veces la plaza y remontar la cuesta siguiente, recoger dos cántaras de agua del río y regresar cargada con ellas. Poco a poco, a lo largo de días y días de repetir la misma faena, la muchacha fue agotándose de cansancio, hasta que llegó un momento en que sintió que las fuerzas le fallarían definitivamente y no podría seguir cumpliendo con su trabajo. Sin poder elegir ante la perspectiva de perder el empleo o de morir agotada, se sentó una tarde al borde de la cuesta y, desesperada de su suerte, invocó al diablo, prometiendo entregarse a él si le echaba una mano.

Naturalmente, como suele suceder en estos casos, el diablo en persona se presentó inmediatamente ante ella, vestido de un modo que no ofreció dudas a la que le había invocado y dispuesto a firmar el pacto que la muchacha le había propuesto con el pensamiento. Feliz de poder encontrar una víctima, le prometió que haría venir el agua hasta el borde de la casa de su señor en una noche, pero que ella, en cambio, le haría allí mismo donación de su alma mediante la firma de un pergamino que signaría con su propia sangre. La muchacha reaccionó y, al firmar, impuso como condición que, fuera cual fuera el modo que el diablo emplease para cumplir su parte,

⁶⁰ GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: *El pensamiento mágico vasco*, Donostia, Editorial Baroja, 52-53 orr.

la tarea estaría terminada antes de la salida del sol. El diablo no dudó, porque estaba convencido de que mil diablos más habrían de venir en su ayuda. Y así fue.

Por la noche, cuando ya todo el mundo se había acostado en Segovia, se desencadenó una tormenta increíble. Al menos eso creyeron los segovianos, aunque, en realidad, aquel apocalipsis de rayos y centellas había sido provocado por un auténtico ejército de demonios y trasgos que, bajo la dirección del diablo, se habían puesto a la tarea de tallar piedras, reventar canteras, cavar zanjas y levantar a toda prisa las impresionantes pilastras de piedra que, sin cal ni mortero, formarían los arcos sobre los que pasaría la acequia que habría de traer el agua desde el lejano arroyo Acebeda.

La muchacha, que no había podido conciliar el sueño y era la única que conocía la razón de aquel tumulto tempestario, veía desde su ventana cómo la obra avanzaba diabólicamente y cómo, si todo aquello llegaba a buen fin, su alma estaría perdida. Arrepentida ya de su pacto, comenzó a rogar a los cielos que vinieran en su ayuda, pero nadie parecía escucharla: la plaza de Azoguejo presentaba ya la impresionante perspectiva de la obra titánica de piedra que los demonios estaban terminando de levantar y el diablo, dando órdenes y profiriendo gritos de mando, colaboraba en aquel sarao trayendo por los aires las piedras más pesadas como si fueran plumas y colocándolas con toda exactitud en los lugares precisos. Las horas pasaban y el impresionante acueducto estaba ya casi concluido. En realidad, apenas faltaba colocar una piedra en la pilastra central, que remataría aquella obra que, de haber sido hecha por los hombres, habría tardado muchos años en ser levantada.

Ya venía el diablo cargado con aquella última piedra desde la lejana cantera cuando, de pronto, cantó el gallo de la mañana. El diablo se detuvo apenas un segundo en el aire, sorprendido ante aquel canto que le pareció a destiempo. Pero ese segundo bastó y, cuando el rey de los infiernos aún no había alcanzado el lugar donde tenía que colocar su piedra, el primer rayo de sol asomó por el horizonte. Había perdido su apuesta.

Cuando los segovianos se levantaron aquella mañana vieron el monumento ya en su sitio y nadie comprendió por qué estaba allí. Sólo la muchacha, asustada aún por el destino que estuvo a punto de cumplirse, corrió a la catedral y contó al primer sacerdote que encontró en su camino todo cuanto había pasado. Pronto, la ciudad entera supo de aquel prodigio. Y en acción de gracias, llevaron en procesión hasta el acueducto una imagen de la Virgen y otra de san Esteban, que era el patrón de los monederos segovianos, y las colocaron, una a cada lado, en el hueco dejado por la piedra que el diablo no había tenido ocasión de colocar para rematar su titánica obra. Allí siguen las imágenes, protegiendo el diabólico acueducto que, desde entonces, cumplió fielmente con su tarea de traer hasta la ciudad el agua

que tanto necesitaba, ahorrando el trabajo de tantos aguadores que, como la muchacha que realizó el pacto, pudieron desde entonces cumplir tareas mas llevaderas.⁶¹

3. Martiko Oilarra

Esaunda hauetako gertariak aztertzen baditugu laster konturatzen gara gauza antzerakoak kontatzen direla Euskal Herriko bazter guztietan zein atzerrietan. Atal honen hasieran parte onekoen eta parte txarrekoen berri eman dugu, antzeratsu hitz egitea litzateke Bitoriano Gandiagaren antzera beste sailkapen bat egingo bagenu, hots, bildurgarriak eta bildurgarrien kontrakoak. Bildurgarrien sailean sorginak, Anbotoko Señorea, argiak, deabruak, nikolastarrak, jentilak, Juanito Txistularia, su-txakurrak sartuko lirateke eta bildurgarrien kontrakoan sailean Jesusen izena, gurutzea, letaniak, Ama Birjina, kutunak. Guk dauzkagun esaunda hauetan beldurgarriak gilenak badira zein izango litzateke beldurgarrien kontrakoa? Oilarra duda gabe, eta oilar hori esaunda batzuetan martioilarra izango litzateke. Zer da martioilarra? Martioilarra Bizkaiko lurretan, Arratia aldean, martian egindako arraultzatik martian bertan sortzen den oilarra dugu, hau dugu oilarrik onena. Metafora moduan ere erabiltzen da Sopelako euskeran mutil ederra adierazteko. Martioilarra gehitxoago ere zehazten bada martioilartxo gorria izango da. Mitxelenak esan ohi zuen formula errimatuak hitza forma zaharrean gordetzeko zorro edo bidea zela, hain zuzen sorgin ipuinetan agertzen den «Andre Garazi / ekatzu nire orrazi / bestela egingo dot / zeu eta zeure askazi» horretaz ari zen. Askazi hitza Gorbeia inguruko ipuinetan ere agertzen da baina formula horretatik kanpora ez du bizirik, ekialdeko euskalkietakoa da bere erabilera arruntean.⁶² Ez ote dezakegu gauza bera esan «Marti-ollartxu gorrie/

⁶¹ GARCIA ATIENZA, Juan: *Guía de Leyendas Españolas*, Colección Guías de la España insólita, Barcelona, Editorial Ariel, 1985.

⁶² MITXELENA, Koldo: «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», III, 1971, 149-169 orr.

Un ejemplo que debería ser clásico entre nosotros es el de la palabra *askazi*, 'pariente' atestiguada directamente tan sólo en dialectos orientales, con bastantes derivados: *asczazunte*(=*askazkünte*) 'parentesco' está ya en Belapeyre (1969), I, p. 63. Con todo la palabra ha reaparecido muy lejos de aquellos dialectos, en Ataun entre otros lugares, como puede verse en J. M. de Barandiarán, *Mitología Vasca*, Madrid 1960, p. 136, con bibliografía, en una acepción que acaso se acerque en una fórmula rimada.

Hitz horrezaz *Orotariko euskal hiztegiak* dakartzan adibideez eta azalpenez gain ez ahantz Azkueren beste aipamen hau («Lamiak Euskalerrian» in *Euskera*, 1927, VIII urtea I-II, 100-101 orr.):

Eusko Folk-lore ardurapean artua duen nere adiskide Barandiaren-ek ere askazi entzun du azkuzi-ren orde. Nere iztegian Naparroa ta Zuberuko askazi erderazko «pariente» bezela ageri da. Otzandinon ere itz ori entzun dut, baina beste bi zentzun onezaz: «simiente» ta gainera «doctrina, enseñanza». Iztegia argitaratuta gero uri orretan erderazko «casta» bezela entzun dut.

orain balie, balie / orain balieta espasera / joan da nire bisie» delakoaz? Guk hemen jarritakoaz gainera Azkuek ere bildu zituen antzeko formulak eta guztiak Bizkaikoak dira.⁶³ Baina, ipuin bila bestetan ibiltzen bagara beste muturrean ere Aezkeran ere antzeko bildurgarrien kontrako etxaberea agertuko zaigu:

Martxoko ilabetean etxetik abreen edanaztera estudiante bat atra ze. Begi-uridin ta bilagorri ze estudiante gura. Edangiotik itzulita etxera eldu zenean, beldurtu ze, eilalamiak arrapatuko otezuten; eta oilarrak kantatu ezkeros eilalamiak etzakikiola eskua ezari bāitzākie, erran zue:

Martxoko oilarra ¡otoi! balia dakidala.

Oilarrak ordu berean kantatu zue ta eilalamiak, aserre gorritan suturik, erran zue:

Madarikatuko altzaio oilar orri mia, orrengatik galdu bāitut estudiante bilagorria.⁶⁴

Gehiegizko arreta beharrik ez dugu bai Bizkaiko esaundetan zein Aezkoakoan formula bera eta osagai beretsuak dituela konturatzeko. Aezkoakoan kasu estudiantea bera da ilegorria eta eilalamiaren erantzuna ere errimatua da. Azkenik esan beharra dago delako esaundak izan dituela saio literario bat baino gehiago.⁶⁵

4. San Martin eta Deabrua

Lehenagokoek esaten dute San Martin (txiki) izan zela gizonen artean lehen nekazaria. Gari hazia eta arto hazia deabruari edo basajaunei ohostu eta gizon artera berak ekarri zuen lehenengoz. Zerra eta errota ardatza ere nola egiten zen basajaunengandik jakin omen zuen. San Martin bitartekaria da, zubi lanak egiten ditu basajaunen edo Deabruaren eta gizonen artean. Antzerako zerbait

⁶³ AZKUE: *Euskalefiaren Yakintza I*, Espasa-Calpe, 1945, 110 or.

a) Martiko oilartto gorria, izan zakidaz balia. «Aun entzunda oilarrak kukurruku egiten dau ta praka-gorriak inesi doaz guztiak.»

b) «Marti-oilartto gorria: oraintxe nigāz akordetan ezpazara, badoa nire biziā.» Au esan ebana galduko zan, Prakagorriak eroango eban, oilarrak yo ezpaleu.

⁶⁴ AZKUE: «Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzera», *Euskera*, 1927, 207-208 orr. eta baita «Lamiak Euskalerrian», *Euskera*, 1927, 98 orr.

⁶⁵ Guk behintzat ezagutzen ditugunetan, IMANOL, *Elias Amuko zubia*, Azpeitiako udala, 1989. Hona zer dioen hitzaurreak:

Kondaira edo ipuinak dioenez, Amuko zubiaren eraiketa sorgin eta kristauen arteko lehia datza. Betidanik entzuna dugu historia hori eta betitik Amuko zubiari lotu. Nahiz eta gaur egun bi harri falta bukatzeko, ipuinak dioen bezala sorginak lehia galdu zuten, oilarrak «kukurruku» egitean azken harria ipini gabe zegoelako. Zergaitik falta zaion bigarren harria? Ziuraski, denboraren poderioz eroriko zen, denbora eta uraren eraginez.

gertatzen da Prometeoren mitoarekin. Prometeok⁶⁶ sua ohostu omen zion Zeus Jainkoari eta mundu honetara ekarri zuen. Ez naiz adituek bestetan esandakoak hemen berresaten ariko. Lehen eskuko liburuak eta artikulua Barandiaran⁶⁷ eta Satrustegiren⁶⁸ lanak ditugu. Liburu honetan San Martinen⁶⁹ berri gehiago ere ematen zaizkigu 2.2 eta 21.4 ataletan. Inoiz edo behin San Martinen ordez San Pedro ere agertu daiteke gari hazi lapur. Zilegi badakit hona hemen esandako testigantzez gainera neronek bildutako bestetxo bat:

Nik e... diabru bet, da garixe diabru bakarrrik eraittebala da esautzo diabruari San Pedrok señek salto andixaeu eñ sapata aundixek jantzi San Pedrok da... diabru bixek San Pedrok gari sera sertzzen eiseban, gari pilloa pilloik aundixena garixe sera bakarrrik olan sartu daitten ee sapatetan, bestiek urriñau da bestiek atza be axe ganetik beera. Sapatok kargau kargau ditu da ba eñ dabe bestiek irabasi. Gero San Pedrok nos eraitten dau eseban jakin garixe da (badoa) bentanapera, badoa bentanapien da diabru ee:

⁶⁶ Hemen mitologia hiztegiak zein sinbolo hiztegiak ikus daitezke. Hona hemen zenbait PEREZ-RIOJA, J.A. *Diccionario de Símbolos y Mitos*, Madrid, Tecnos, 1988. CHEVALIER, Jean; GHEERBRANT, Alain: *Diccionario de los Símbolos*, Barcelona, Herder, 1991.

⁶⁷ BARANDIARAN, Jose Miguel de: «Diccionario ilustrado de mitología vasca» *Obras completas I*, 204-204 or. Erdaraz ematen dituen mitoen berriak euskaraz non aurkitu ere badakar.

⁶⁸ SATRUSTEGI, J. M.: *Herri jakintza*, Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalaren *Egutegia*, 85-86 orr. eta «Julian Alustiza-Lihoaren penak eta nekeak», RIEV, 1984, Urtarrila-Ekaina, 116 or. Lan hauen laburpen eta iruzkin ederra ikus ALUSTIZA, Julian «Aiztiri»: *Euskal Baserriaren inguruan*, Jakin argitaldaria, 1985, 99-101 orr.

⁶⁹ Artoa, garia eta abarrak ereiteko San Martin eta Deabru edo Basajaunen esaundak agertzen ez badira herriak egutegi bat markatzen du erretrauen bidez, edo nahiago bada, garai bateko bizibidea eta kultura erretrau eta formula eginetan islatzen da neurri apal batean. Esaterako Azkuek egindako erretrauen sailkapenean santuek nola markatzen duten ereintza, uzta eta denpora aldaketak eta abar ikusteko ohart bedi sailkapeneko lehen atalaz «Proverbios personales en que se habla de Dios y de los santos». Guri dagokigunez erretrauok liburu honetan ere agertzen dira «San Yurgi, artoak ereiteko goxegi» «San Martin, artoak ereiñik balesos». Azkeneko erretrauean, jakina, berez hoskidetasuna gordetzeko «San Markos artoak ereiñik balesos» behar luke. Erretrauek nola markatzen duten nekazarien egutegi zaharra ikusteko azterketa polita da Julian Alustiza «Aiztiri»-rena *Euskal baserriaren inguruan*. Badago erretrau bat San Martin-i buruzkoa. Hona hemen: San Martin, bearrak bear eragin. San Martin: la necesidad obliga a trabajar (B-Elorr), Azkuek E.Y. III 35 orr. eta baita Candido Izagirrek ere: San Martiñ, biarra biarrak eragiñ (Murgia). «San Martiñ, biarren biarrak eraiñ: lanean derrigorrak eragiñ» (Araoz) IZAGIRRE, Cándido: *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes* 1970 207 or. Hiru erretrauetan bat datoz osagarririk garrantzitsuenak San Martin eta hitz joko esanguratsua lehen be(h)ar necesidad eta bigarren be(h)ar trabajo. Baina *Peru Abarca* (1881) liburuan agertzen den beste batekin alderatzen badugu «Ce langintza zamargin, bizarrak bizarra eragin» ikusten dugu zamargin Azkuek bere hiztegian dionaren arauera «melenero, operario que hace frontales para los bueyes» baldin bada, itzulpena «¡Qué oficio el de melenero! la barba produce o causa barba» erretrau zentzugabea litzateke. Baina kontua besterik da Azkuek hona nola itzultzen duen ¡qué oficio el de hacer melenas! la necesidad hace trabajar. Zer gertatu ote da, erretrau beraren aldakiak ote dira? Zein da zaharrago? Testigantzen arauera Mogelena da baina hori pisuzko arrazoi ote da erabat zaharragoa dela esateko? Testigantza ugariagoak mende honetakoak ditugu eta esankizuna garbiago gainera. Zergatik itzuli zuen Azkuek Mogelen erretrauaren bigarren zatia, berak bildutakoa balitz bezala? Lehenaren esankizuna ulertzen ez zuelako edo jatorrizkoa bestea zela uste zuelako?

– Niri eruste garixe ostu es baia nos eraitten dan estaki, se a semendixen eraitten da.

Serak diabruak serien da bestiek entzun. Da se eñ ddau serape garixori da claro semendixen erañ ddau ta urtetzo. (San Antonio auzoan, Zornotzan batua)

San Martin (Bitoriano Gandiaga)

Deabruai Samartiñek artua artu otsen. Arto pillua eukain deabruak. Eta Samartiñek gura eben artua artu eitia eurak akordau barik. Eta Samartiñek jantzi zituan zapatak, nasaixak. Diabruak tontuak baina Samartin ori be etzan.

Apostua egin euen arto pillia zeñiek pasau saltuan. Ta diabruak pasau eiteuen eta Samartiñek erdira salto eiteuen zapata naseixakin ta geo artua ein an zapatetan ta zapatak bete zituanian alto, beak ezin euela geiago ta. Geo Samartiñek ezekixen artua noiz ereiten zan. Ba Samartin kontuan egoten zan deabruak noiz ereiteuen artua. Ta diabruak kantau eiteuen: «Elorritxua lorán dago, artua ereiten giro dago». Ta Samartin orduan enterau zan artua noiz erein bear zan. Ta gero berak erein euen ta gero andik zabaldu zan. Izena andik dauko artuak: artua. Au ezta ostua, artua baiño». (Ignacio Erostarbe)⁷⁰

San Martin eta Deabrua (Iñazio Atxukarro)

Lengo zaarretatik entzun oi genduan sarritan ipui au:

Gari-jotze ondoren, gari pillá baten inguruan, antxe gertatu omen ziran nunbait San Martiñ eta deabrua; bai apustu egiñ ere gari pillá ori pasa baietz salto eginda.

Deabruak egiñ du lenengo saltoa: gari txondarra pasa ta aurrera, «ja, ja, ja! Egiñ zak orain ik», esanaz.

Martiñek bazekian zer egiñ. Oñetako luze ta zabalak zebilzkian eta ziñatu ondoren egiten du indar guztiz salto, itxuraz, eta or sartzen da «blasta» gari pillaren erdi-erdian iztarretaraño gure Martiñ.

Deabruaren poza; ler egiñ bear duala parrez;

–Makal astaputza! –zion Martiñi.

Au ixilik.

Berriz ere egiñ dute, ta bai bapo gariz bete ere oiñetakoak Martiñek. Zaldi gañera igo da ta aurrea. Deabrua atzetik siñuka.

Martiñek gari mordoxka polita arrapatu zuan oiñetakoetan. Deabrua azkarra izango da, baño an gelditu izango zan, bere baitan zerbait egiñ zualakoan.

Baño garia noiz eregiñ ez zekian Martiñ deunak. Orotu zan deabruak abestu oi zuala:

⁷⁰ GANDIAGA, Bitoriano: «Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz», *Euskera*, 1956, 231-232 or.

*Ostroak lurrera, garia lurrera;
Ostro erortzea, gari ereitea.*

Ala ekarri omen zuan Euskalerrira garalea ta bere garaiari landuta zegoen Ataungo soro-zelai batean, gauetz, «rasta, rasta» zabaldu omen zuan. Zaarrak esan oi zutenez, bai uzta galanta jaso ere. Ataundarrak zer belar ote zan ibilli baziren ere, burutu ta eldu zanean, ebaki, jaso, jo ta pillatu egiñ zuten.

Txoriek ere laixter an eman omen zioten janaririk onena garia zala. Andik zabaldu omen zan inguru ta urrutietara ale zoragarri au.

Esan oi da antziñ antziñatik, ataundarra soro-zelai ortantxe jaso zutela geroxeago, ermo ermo, an arkitzen dan Martiñ Deunaren eleiza eder ura.⁷¹

5. Aita-semeak

Euskaldunok baditugu esker txarra adierazten dituzten esaera eta kontaerak. Esaera munduan nork ez du ezagutzen harako *ondo eginaren pagua, ate osteko palua* hura. Horixe da sarri-sarri entzun ohi den esaera ezagun bat. Kontaera munduan beharbada oso ezagunak diren hiru gailenduko nituzke. Batetik pertsonen animaliangana duten esker txarra eta pertsonen pertsonenganakoa. Lehen sailekoa dugu 1.14-Astoa, *txakurra, katua eta oilarra*⁷² kontaera bikaina. Bigarren sailekoa semeak aitagana duen esker dongea erakusten duena da (3.3 *Aita baztertuarena eta 2.3-Aita asilora eroan-damutua*). Bateko zein besteko kontaerak nahikoa erraz aurki daitezke testu idatzietan zein ezpainetatik harako kontaeretan. Hona hemen nik bildutako batzu:

Aita zaharra ospitalera eraman nahi zuenekoa (Jabier Kalzakorta)

Eroatea zerera, eroauan ee olango ospital batera residentzi batera aite lepoan eroauan aite da gero kantza izen aite eroaten da parau zen deskantzetan olango mune gane baten, orma gane baten itxieuan aite deskantzetako ta aitek esautzen semeari:

– Ene semea, ementxe orma ganean eee itxi noan neupe neure aite deskantzetako. Ta semeak esautzen gero:

– Ala aite guazen etzerantza, goazen etzerantza!

Aurrerantza barik, gero atzera eruauan semea, beren aite be, esautzela an eroan zerean da, ba bueno ba Miserikordira ta:

⁷¹ ATXUKARRO, Iñazio M.: *Irriparezko printzak*, Donostia, Sendoa argitaldaria, 379-380 orr.

⁷² Honezaz badago ipuin bilketa eta azterketa sistematikoa: ETXEBARRIA, Igone: «Herri-ipuinen baten aldaerak eta azterketa», *Euskera*, 1992, 1, 37. liburukia (2.aldia), 507-530 orr.

- Ementxe mune ganean deskantzau daigun da gero aitek esautzen aiteperak eroanak semeak:

- Ene, neupe neure aite ementxe deskantzauazo nountzen, da.

Orduen aite goazen etzerantza!

(Bitori Arretxe, Zeanurikoa)

Markiñan bertan gertatutakoa (Jabier Kalzakorta)

Ugarten, Ugarteko saarrak saartu sienien ba, ba esin leikesela e mantenido te ospittela eruen da artu lepuen ta bajoeroiek ospittela, Ugarte urtenda a subire Ugarteko subire ba jutalditxue gison aundixe ei suan de pisue aundixe ta ba antxe katigu gatuok eta bajatu lepotik beera ta jarritte paraittuk antxe ta:

- Banaroiek pa ik Ospittala! (ta)

- Bai!

- Neupe aitte sanai amentxe emon najautzan atzena!

- Eee? egixe da ori? (tte)

- Bai!

- Neurie be ikusteko egongo nas ba! (da)

Artu lepuen da atza etxa erun ei juan axe ikusitte an damutu ta etxa erun ei juan atzera. Ori Ugarten pasau ei suan.

(Zipriano Bilbaori jaso, Axpe baserrikoa, Atxondo auzoa, Markina)

Alargun bati semeak egin nahi ziona (Jabier Kalzakorta)

Aite alargun bet, eukezan seme bi, eta be tire batape nai izeban etzia ta besta be bai! Eta esatotzen aitek:

- Ez! neu bizi nazen artean neuria! ez emondakoan gero or aitzuten da ta!

Da:

- Ez ba aite zu ondo izengo zara eta neuri emoistezu. Neuk be ontxe ezkondu biadot, ba neuri emoistezu etziori.

Gero ondo izetekoan aitorrek lagatzo etziori, seme oneri eta claro urtea yoan urtea paseu aitzu zan aitek zelan emotzan da erren orrepe desprezioan aitori, semiape kontizu yaten euen lekuan be estorbu, umiari be estorbu te, aitori bota botaka da ene ba kurtzea euken aitorrek da alakon baten akordau yakon e ba:

- Abadeagana yoan biot, abadeari esplikau biotzet zer pase(u) yaten niri.

Badoa abadeagana ta dinotzo:

- Jaune nik dekot bizimodue!

- Zer ba?

- Ba batape enau ikusi gure, jaten be eztostie emoten paluaz eztostie joten baie beste guztiek eitostiez!

- Caramba baia dana emon zendun ala?

Baiba ondo izengo nile da ta dana emon neban!

- Bueno, bueno!

Orrek lenau badakizu, orrek amaseiko ontzak egotezien ba, urrezkoak ziren da orrek eiteurien txingadea bueno, da abadeak esautzen:

- Bueno, ori neuk arreglaukotzut konpondukotzut bai zur egon biozu eee! Badaukezu baulik kuartuen?

- (Da) bai!

- Ai ba onexek amaseikoak dozena bi da gabian eurek oira juten direnean, banan banan bota, txanga! txanga! txanga! ta orren otzak bizkortuko dau semea ta errene be! eta benga kontau orrek olan ee amar egunean ta amabosten baten edo olan, olan kontau eurek oian dauezenean da.

Esan da egin gizonorrek. Badoa etzera da gau orren (?)ba:

- Bator au ba, au non egon ete da? Au agure zar au monsegeran (?monsergan) au ezetako gauze ezta ta! eztakit zer ta badakit nor bueno gizon ori badoa kuarture da senar-emazteak oira yuan zienian or asten da:

Txanga, txanga, txanga zarratia ta.

- Ño —dintzo gizonak emaztiari— gure aitek zerbait badau ondiño, ezuekalakoan ezre e(g)on gara, da asko deuko eee! or zarata asko da! aiteri ondo esan beayako ee!

Urrengo gosean bator da:

- Egunon aita! Au armosoa, zure armosoa or!

Berea baño obea aitana, aitori alan jaten be edarto.

- Aiba orrek erropa zikinok kendizuz aite! Parau zaitte majo-majorik!

Da, ja! aitori pozik ba gero andik egunekarren ostabe:

- Txan, txan! zaratea eta:

- Ña! gure aitek zeozer badeu ba!

Da egun baten dintzo:

- Aita, an kuartuen zer zarata ibiltan dozu?

- Zer ibilikopa amaseikoak bueltaka!

- A ondiño zerbait badozu orduen?

- Bai orixe bai zer ba, ai norberantzat eztana iñontzat be ez da.

- Da norentzat dozuz orrepa?

- Azkenerarten onduen esaten dauenantzat.

Da bueno aitori or ebillen, batak ondo da besteak obeto, baie abadeak emotzen giltza paparretik eskegite lotute erabilteko. Da gero ba denporeagaz esautzen ba:

- Bueno arek ekarrizuz oñ ona!

Da eroatzo amaseikoak abadeari, ta abadeak amotzo olako taket luze bat lodi lodi bet. Baie eskriture bat einde batute papelori, taketa papelagaz ta dintzo:

- Au ontxe sartizu au barruen eta giltze amen barruen kolkooan. Mutillope estu arte ba makal eta batak ee agarretotzen samatik, ilten egoala ta, besteak

ee! orrei geldi ondio bizirik dau te!. Besteak aaa, joaten zanean besteak eta aitek e:

– Geldi ondino emen nau be-aitepe.

Alango baten e il zan aitori, eta bata ta besteak biek kordelori kenduten aiteri. Zabaldu de bien artean:

– Bueno erdi bana ein biyuk ori!

– Da bueno, bai neuk euki yuat, aite!

– Ezteukok ardure, biotzat ori erdibana!

Zabaldu daure, baulori da: —Ño! Taket lodi bat, papela:

– Ta eskriturea izengok norentzat dozaken amaseikook.

Koiten deure asten direz irakurten, daa... «nik ein doten bierra eiten dauen gurasoari euki ta dana emon lenengo eiten dauenari onetxaz makilla onegaz lepoan emon, emon, emonak ein!»

Aita alaba batzuen ichtorioa (Mayi Ariztia)

Behin bazien aita alaba batzuek aisean bizi zirenak. Alaba esposarazi zuen etchean, denetaz ondoko egin zuen, zituen guziez, esposatzean berean. Gero etzuten ongi tratatzen berak bezala, bakarrik jan eta hola, ez segurki platik hoberenetan. Aldi bat erran zion bere adichkide batek, ordukotz zerbeit aditua baitzuen: «Ongi tratatzen haute, ba?» –«Bai, bai, arras ongi: oilo'ta oilchko'ta nahi dutan bezala.» –«Ba, ezagun tuk, ezagun tuk, ikuten daoizkit oilo lumak ere, hire chenila hortan» (Ahi zortak bazituen, bere paltoko aintzineko aldian...). Orduan, nigarra eskapatu zitzaion eta aitortu zion bere lagunari. Erran zion: «Ba, arrimatuko diat, nik, hori, aise!» –«Egiten bahu, ba...». –«Ator, hek kanpoan diren batez; emanen daoiat zaku bat bortz liberako eta erranen daoiat zer egin!...» Erran bezala egin: hek kanpoan zien batean, badoa eta ekartzen du bere zakua, bortz liberakoz bethea. Hasten da hek ganbaran zien batean, hura ondoko ganbaratik, bere adichkideak erran bezala, zakua bortz liberakoz bethea bere malan eman'ta, hura eskuz «parra, parra», ibiltzen, bortz liberako guziak arrotzen. Alabak lehenik sumatzen du bere ganbaratik, eta erraten dio bere senarrari: «Gure aitak, dirua badu oraino... Behazu, gure aita diru arrotzen hari da... Behar ginuke ongi tratatu; bertzenaz bertze norbeiti emanen diozka!!...» –«Bai, bai» erraten dio senarrak...

Handik laster, erraten diote aitari «Aita, hobe duzu gurekin eman mainean gurekin janen duzu!» Eta paratu zuten berenkin, jan eta edan, nahi zuen bezala. Bere adichkideari erran zion gero: «Hik errana gertatu zaitak, nahi bezala paratu naitek heien mainean, ederki azten naitek.» –«Aah, erraten naoian, nik... dirua sumatzearekin...» Dirua tumatu zion bere adichkideari hek han etzien batean: «To, egin diat nere afera; orai tumatzen daoizkiat...»

Gizon hari hiltzeko tenorea etorri zitzaionean, aintzinetik paper bat eman zuen bere malan: «Nihor ez dadila ogerat gabe biluz!!... Ni hala egin nintzen, maluruski.»

Hura hil zenean, ustez eta zer nahi diru atchemanen zuten malan, paper hura atcheman zuten.

(Manech Lamothek errana, 74 urthetan. Otsailaren 11an 1934).⁷³

6. Txorien inguruko esaunda etiologikoak

Julian Alustizak, Aitzirik, badu txorien gaineko ipuin ederrik bildurik. Bere *Euskal baserriaren inguruan*⁷⁴ liburuan sailkapen nagusi bat egiten du «txori onak» eta «txori gaiztoak». Onak txantxangorria, usoa,... eta gaiztoak bela, okila,... lirateke eta esandakoaren adibide gisa hiru ipuintxo dakartza:

Bela, okila. Gehienetan Jesus, San Pedro eta Ama Birjina agertzen zaizkigu esaundetan eta txorien gaur eguneko jokabidearen arrazoia ematen zaigu.⁷⁵

Honatz okilarena:

Gure Jainkoak txori eta hegazti guztiak iturri bat egitera bidali omen zituen. Baina okilak berak etzuela iturri beharrik eta ez jun egin zuen. Eta orain euria egiten doonen arbola hostotik behera ttanttaka datorren ura edatera behartua dago. Horregatik, okila «kil-kil-kil» ari denean, esan ohi da: «Okila ari dek ur eske».⁷⁶

Baina beharbada zorigarriena txantxangorriarena date, has gaitezen Azkuegan-dik:

«Andra Maria Kalbarioko mendian semearen eriotze-bitartean negarrez zegoela, altzoa zikindu omenzion txepetxak eta txindorriak berealaxe zikin hura kendu omenzuen, eta orduan Yesusen odol-txorta erori zitzakon paporat. Hartako du izentzat papo-gorria».

«Txepetxak andra Mariari altzoan kaka egin eutsan ta txantxangorriak garbitu»⁷⁷

Eta segi dezagun Aitzirik bildutakoarekin:

⁷³ ARIZTIA, Mayi: «Leyendas laburdinas», *Anuario de Eusko Folklore*, 1934, 114-115 orr.

⁷⁴ ALUSTIZA, Julian «Aitziri»: *Euskal baserriaren inguruan*, Jakin, 1985, 203-212 orr.

⁷⁵ Honen gainean badago liburu interesgarri bat KIRK, G. S.: *El mito: su significado y funciones en las diversas culturas*, Barcelona, Barral, 1973, 297-306 or. Liburu honen berri, eta iruzkin laburra honako artikuluan aurkitu dugu CAMARENA LAUCIRICA, Julio: «Las peculiaridades de la cuentística vasca», *Euskera*, 1992, 1 (2. aldia) 409 or.

⁷⁶ Interesgarria da ohartzea, eta hemen nabarmen ikus daiteke, zein lotura hertsia duten esaunda eta ipuinek errefrau eta esaerekin. Kasurik gehienetan esaera gordetzen da baina ipuin edo esaundaren hondar bat bezala. Ezaguna da, esaterako, lehorte handia dagoenean «okila ur eske dago» esaera (Markinaldean behintzat beste leku askotan bezala ezaguna), edo basoetan halako hots betibatekoa aditzen denean (ohart bedi bide batez okilak kil-kil-kil egiten duela, hots, zentzu etiologikoa bikoitza izango litzateke alde horretatik) «hor dabil okila ur eske» esaera.

⁷⁷ AZKUE, Resurrección María de: *Euskalefiaren Yakintza I*, 114 or.

«Behin baten Ama Birjiñari zikiña zerbait sartu omen zikon begiin, eta txantxangorriik bere papar gorrikin argi egiten ziola, txepetxak atera omen zion zikiñe begitik. Baino buztanikarea etorri gero eta bere isats luzeekin emendau egin zion argia txantxangorriari. Horregatik esaten zuten gure zaharrek: txantxangorriik eta txepetxak ez dirala galdu behar. Buztanikarak bai: «Kendu, kendu aurretik txori gaizto hori: Ama Birjiñari argie emendau ziolako.»

Eta ordutik bildurrez eta ikaraz ibiltzeko kastigue daukela buztanikarek, esan ohi da. Baino txantxangorriik eta txepetxak ez dira galdu behar...» (Joakina Alustiza, *Aztiria*).⁷⁸

Nekez aurkituko dugu hain esaunda ederrik. Jaun Manuk liburu honetan agertzen digunak ere edertasun handia du. Zilegi balekit aldatuko dut hona behinola esaunda eder izango zen hondar-mondarren bat:

Zapuek eiotzen txize Ama Birjiña altzore a. Txantxangorrixek garbittu da orduen gatuk jakola papar gorrixoi inoz entzun dot nik. (Geriagan Mallabian batutakoa)

Badago Arrati aldean esaera bat «belea baltzago esta ingo»⁷⁹ esaera hori liburu honetan behin baino gehiagotan agertzen da, esaera horrek aurrerago «okila ari dek ur eske» bezala esaunda bati lotua dago:

Behin batez San Pedro eta gure Jinkoa, eguraldi bero bat zelarik, ura edaten hasi omen ziren mendiko errekatxo batean, eta belazarrak zer asmatuko?, eta bere hanka gorrikin ur hura barrastu eta zikindu egin omen zuen goraxegoan. Geroztik zigortua dago belazarra: Uzta eta Abuztua urik edan gabe eman behar; horregatik erabiltzen omen dute (beleek) hainbeste istilu eta karraka hilabete horietan: egarri direlako aurki».⁸⁰

Badago txorien arteko ipuintxo bat askotan esaera ere bihurtu dena, hots, txepetxak arranoak edo buetreak baino gorago egin zuela. Esaera honetan aditzera ematen da txoririk txikienak, txepetxak, txoririk handienari, arranoari, irabazi ziola. Hona kontatera:

⁷⁸ ALUSTIZA, Julian «Aztiri» aip. liburutik 204-205 orr. eta baita «kontu-kontari, txantxangorria» in *Goiz-Argi*, 196.

⁷⁹ Esaera hau aspalditxo azaldu zuen Kirikiñok bere artikulu batean «Euskaldun utsen esakunak» *Euzkadi* 1923-II-1 eta baita *Egunekoa*, Labayru Ikastegia, 1984, 157-158 orr.:

Bein Elorrion, geure adiskide maite baten ama, euri-zaparradeak arrapau eban bidean eta busti eban; eta ebexerantza arin-arin joiala igaro zan aberats-etxe baten atarte aurretik, eta etxe aretan otsein egoan elorrioar neskatilla batek, didar ein eutson:

– Ene, itxaron egizu piska baten ta guardasol bat atarako deutsut.

– Ez egin atera, itxi eion, bustita naiagon ba ta, *Beleak etxaukon geiago baltzituteko bildurrik*.

⁸⁰ ALUSTIZA, Julian «Aztiri» aip. liburutik 206 or.

Buetreak esan zion txepetxari:

– Ik daukak egotzarrak! I lañoak baiño gorago be joango intzake.

Txepetxak erantzun zion: –Gura dok aposte zein goragon joan?

Ala gertatuziran, eta buetreak esan zion txepetxari:

– Ik urten aurretik. Ta txepetxa poliki-poliki buetrearen egoko luma baten gainean jarri zan, eta besteak etzion igarri. Buetre ori joan da joan da joan. Kantzau zanean, esan zion: –Nun aiz ba? Txepetxak gora salto eginda esan zion: –Ni bañoiak. Oraingo kantzau aiz? Jarraitu, gura badok.

Buetreak esan zion: –Naikoa diagu, irabazi dok apostie.

Txepetxak esan zion: –Txikiari burla egiten berriz ez adi asi. Jaungoikoak guri ere laguntzen ziguk, iri bezalaxe. Aor ire aunditasuna ze txiki gelditu dan.⁸¹

7. Hiru alaba jostun titilipatala

Gauza ezaguna da ipuin miresgarrietan askotan aita batek edo aita-ama batzuek hiru seme edo hiru alaba izan ohi dituztela. Gainera ipuinaren hasera formulistikoa izan ohi da:

«Aita batek bazituen hiru seme...»

«Aita-ama batzuek bazituzten hiru alaba...»

Baina badago bestelako ipuin bat ere miresgarria ez dena barregarria baizik eta horretan hiru alaba jostun totelan ixtorio barregarria kondatu ohi da:

Iru alaba zizi-pozo (Graziano Anduaga)

Iru alaba zizi-pozo eukazan ama batek. Nundi edo andi ama onek lortu eban euretariko batentzako bizi lagungai, senargaia. Lenengoz bigirara etorri bear eban egunean, amak agindu au emon eutsen irurai:

– Gero... isilik egongo zaree gero, neuk zeuen orde berba egingo dot eta.

Supazterrean goruetan asita egozala eldu zan mutila ta zizi-pozoen orde amak txirri txirri ziarduan barriketan. Luzarotxo onelantxe yoian bigiraa aurrera.

Alango baten alaba batari aria eten ddakan eta:

– I, nezkato —esan eutsan urren eukan aitzäari—, aliak put egin ddoztana.

Bigarrenak:

– Izilik, amak izilik egoteko ezan ddona-ta.

Iruarrenak:

– Amak orixe esan ddona, baia zuek berbaz ta berbaz.

Senargaia etxaken geiago agertu.⁸²

⁸¹ ANDUAGA, Graziano: *Aitonaren uzta*, Zarautz'en, Itxaropena Argitaldaria, 1961, 55-56 orr.

⁸² AZKUE: *Euskalefiaren Yakintza II*, 411 or.

Hiru neskatcha motelen ichtorioa (Mayi Ariztia)

Etche batean, baziren hiru neskatcha; hiruak iruten haritzen ziren.
Hetarik batek bazuen gizon gaia.
Gaten zitzaion ikusterat.
Hiruak aitzen ziren ichil ichila lanean.
Etzuten hitzik egiten.
Gizon gai harrek pentsatu zuen behar zituela zelatatu.
Hetarik bati, hautsi zitzaion aria.
Erran zuen: «Nere ariak egin din «tin, tan».
Bertzeak egin zion: «Ton, ton, toropila zan!» (koropila zan)
Eta, gero, hirugarrenak erran zuen: «Ni, titila egon, nik itain tenala,» (ni
ichil ichila egon, nik izanen senharra).
Orduan, mutilak erran zioten kanpotik: «Hiruak motelak zaizte, eta!!!»
Eta, neska harrek erran zion;
«Bai, eta hi ere otela (okerra)!»
Gachiocha Etcheberry, Saratarrak errana, 18 urthetan, 1925 an.⁸³

Hona Iurretan batutako ipuin bat (Jabier Kalzakorta)

Bein baten zien ama ta iru alaba, amak topautzezan nobixuek, amak
nobixuek topautzezan da etxien ba juntie einbiben ezautu ta alkar ezautu ta
einbiben bañe titilipatalie euken da amak esatzen bueno:
- Zuek, neuk berba eingot, da zuek isilik egon.
Neskok an euezan isilik da batek esatzen katue do pasau zan da:
- Zapi katuai! Zapi katuai!
Da bestiek esatzen e, bigarrenak e:
- Ori atioi itxi!
Da a atie itxitxe:
- I amak itilik egoteko esan deun!
Bestiek atza, da aor ba irurek isilik egotekuen irurek berbe iben, da
nobixuek igerri zelan titilipatalie euken.

Iru alaba tetelak (Aita Donostia)

Ama alargun batek zituen iru alaba tetelak. Eta maingu batek pretenditzen
zuen eskontza andregaiteko. Eta amak, yakirik motelak zirela, erran zaben:
«Nobioa etorriko dun gaur eta zagote ixil-ixile.»
Iruak yostunek, dendariek zirela. Ala etorri zan nobioa. Eta nobioa an
zagola, autsi zitzaion aria. Eta orduen mintzatu zen bat erten zuela. «Tilt,
ari au zamule eun.»

⁸³ ARIZTIA, Mayi: *Gure Herria*, 1936, 213 or.

Bertzia/k/ erantzun zion: «¿Tontoropile zan?»

Irugarrenak berriz: «Amak ola elan? Tili-tile egoten danak biletzen zenal.»
(Baztango Garzain herriko serorak emana)

Eta orduen mintzatu zen bat erten zuela: «Til, tal, alia.»

«Tontolopila, Maria.»

«Ni egon titila; amak etan betala, nik itan tenala.»

Eta gero mutilak erran zion amari: «Oyek iruak tetelak dituzu.»

Ta berak erantzun zion: «Bai, ta i antotela» (Ankatotela).

(Paula Elizalde herri berekoak emandako beste aldakia)

Ta batek erantzun zion: «Eta ik betoter» (begi-oker). Eta orratza sartu omen zion eta lehertu.⁸⁴

(Martinto Miarrizkoak kontatutako aldaera)⁸⁵

Iru alaba (Jabier Kalzakorta)

Ama batek eukezan iru alaba, da irurek eukien miñean faltea, berbaz ezta ta amak esautzien ee ba alaba bategana nobioa zan etorteko ezta, ta nobioa zan etorteko ta esautzen:

– Neuk solora yoan bear dot bearren baie nobioa datorrenean zuek ez berbarik ein, neuk natorrenean neuk eingot berba ezta–Amorrek esautzen da.

Neskatxik, iru alabak eukezan sutondoan, batzuk goruetan arie eiten, beste batzuk puntue eiten, kaltzerdiek iten, sutondoan, da nobioa etorri zen, ta nobioa etorri zanean, sutondoan ezarrite sukaldean da esautzen ee batak esauan:

– Ariek ee tilin eta tolon in yustenaa!

Irurek eukien faltea. Bigarrenak esautzen:

– Aaa tolontile emoiona arieri!

– Amak isilitoteko esan baia isiliton ezin.

(Bitoria Arretxe, Zeanurikoa)

Ama batek iru jostun (Jabier Kalzakorta)

Ama batek iru jostun euki zituzan, da, klaro, orreri ba nobio bat eroatzen etzera ia zein gustetan jakon da esotzien amak; irurek zien mutuek edo olakoak tartajoak eta esotzen:

– Mutil bat dator amen oñ, da zuek josten polito-polito ekin bururik altzau barik!

– Bai, bai, bai!

⁸⁴ Azken esaldia erdaraz ematen du «y le metió la aguja por el ojo, reventándoselo» beraz itzulpena gurea da.

⁸⁵ DONOSTIA, P.: «Cuentos populares breves»; EA, 1928, 38-44/94-99/143-49 orr.; EA, 1929, 368-376 orr. eta *Obras completas del P. Donostia*, Tomo I, 131-155 orr.

- Da ia zin koiten zaituen..., da berbarik pez ee!

(ta) ez!

Or dator mutil ori te iru neskok josten:

- Talan!-Batek

- Aaa! Aliapotura.

Hirugarrenak:

- Amak etun etan itilik egoteko!

Irurek nobio barik lotu zien.

(Maria Undabarrena, Torre baserrikoa, Larrabetzu)

Harrigarria gerta dakiguke ipuin bera leku batean zein bestean aldakuntza handirik gabe aurkitzea. Gehienetan beti izaten dira hiru alaba total batetik, eta ama aholkularia eta kortejante hankaokerra bestetik. Beti izan ohi da barre ipuin bat eta laburtasun horretan alaba totalen esanean aurkitu nahi da grazia. Ba dago beste elementu bateratzaile bat: hiru alabak beti agertzen dute toteltasuna hari kontuan, beti apurtzen zaie haria, horrexegatik dira jostunak edo gorulak edo hariginak.⁸⁶ Harrigarriago izango da beharbada *tirt hariak tirt eten* esamolde-tik *tirtarixa* hitza ateratzea Kandido Izaguirreren⁸⁷ arauera. Hala ere Markinan batu dut ipuin hau aldaera luzeago batean. Aldaera honetan hiru ahizpa totalak Peru eta Mariaren alabak dira:

Peru eta Maria (Jabier Kalzakorta)

Peruk (j)ekusan iru alaba, iru alaba eukasan da, batak esajeutzan e bestiai, jeukan, ataixen jeuken esegitte busterrixe jeuken esegitte busterrixe, beien jeuan vete a saber noskue euren umetakue kumie beien jeuan da antxe begire bajauk eta negarres neskasar bat:

- Seri negar eittotzesu? (te)

- Seri negar esatosu? Emen egon balitz ume txikixe, ori busterrixoi jausi gana, se pasauko jakon umiai? Il ein bier!

- Ori ba! (ta)

⁸⁶ San Antonio auzoko andre batek hariginak zirela esan zidan, hona esandakoa:

Iru aitzak, iru -nik orretara dauket- ibiltten ei sien da batek nobixue etorritte, nobixue ta, sera apurtu.

- Titila tta tatala- beti amak

- Esaut isilikon da segitzeko bierrari-

Atzera arepe apurtu ta:

- Titili ta tatala. (San Antonio, Zorrontza)

⁸⁷ IZAGUIRRE, Kandido A.: «Oñatiko liñagiñ-iztegitxo», *Euskera*, 1956, 181 or.

Tirtarixa. «Ari onek tirtarixak, tirtari-unaak, dako» =Ariaren «miar-mankaak» edo «me-unaak»; andik, biurtuezkero, «tir» eteten zan aria. Itz onek badu Oñatín ere «iru aizpa titilitotola, asma-eziña eukaiñen, ipuiña: Tirtarixa tirteten...»

Zoritxarez ez dugu delako ipuin hori Kandido Izaguirreren izkribuetan aurkitu.

Negarres. Bigarrena etorri ta bigarrenape axe. Irugarrenape esan jotzek da irurek negarres. Etorriok Peru artajorran isenda etorriok Peru ta:

- Se eitten sas or?

- Se eitten esatosu?

- Au e kumiau ikostosu? (te)

- Baii.

Ori bustarrixoi goixen? (ta)

- Baiii!

- Ori jausi isen balitz onen gana ta amen ume txikixe euki, se pasauko jakon orri?

- A iru soro!, a iru soro!. A beste iru topetaitudan seuen modukuek.

Da urten dau, artu makillie ta urten dau. Etxe baten ee einddau eupadie ta alako makillotzik! alakoik!

- Se ete da?

Astik pes ak berie. Sabaldutze atie ta braustiau mando sarra ta.

- Segaittik jotok?

- Segaittik esatok?

- An eskillaburuen jaukat ipinitte bitxue (?) ta mando sarrai nai juat aretxen jana, jateko ta etxok nai eskillaretan gora.

- Ia ekarrixok a e ganbelaka pintxue a eskillara barrera ia jaten daben emen. Ekarri jeutsek ta ederto jan.

- Ba soro bat topau juat! Beste bat ia topetotan!

Urtejok domekie suan da meseta jun nai tte sapatak esin sartu da jutun duan eskillareta gora ta TA! saltetan juan da jotejuan sapatie baña esin sartu isejuan sapatie ankan!

- Se dabik?

- Se dabil, mesie pasau bijatak eta sapatak esin jittuat sartu.

- Ia sillan jarritte ia euk eskuas sarten dittuan.

Koño! asiok sillan jarritte sinttak soltaute, edarto sartu. Aor ba!

- Au jakin banajuan len enajuan ainbeste salto ingo!

Topau jittuk. Irugarrena urtejok irugarrenak artajorran jabillan, artajorran espanien jeukan kurzelo bat.

- Ser?

- Kurselue, espanien aretxen argittasunas ikustejuan, euskixe edarra.

- Setako daukek ori kurseluoi or e espanien?

- Ba artajorran ikusteko.

- Ia ori kendute ikusten duan aprobaik!

Koño kendu a ta keie be gitxia ta:

- Bai obetua.

Iru, iru topau dittule ta jun dok.

- Esarie sourek suek bakarrik, geixa be topau dittuas da posarren.

Esautzen ba ekarteko ba nekesarren erun jotzek erun jittusak.

- Batek esajeutzan e, neskasarrak batek esajetzan se:
- I mutil!
 - Ser?
 - Ikusiok ori tatapilluori ikusiok or?
 - Bai
 - Ori neuk eidekueok ba!
- Bat sorue. Bestie neskasarrak esajeutzan se:
- Oriok ume tentela esaten:
- Oriok amatetena, oriok amatetena.
- Irugarrenak be selebrie dok (jostorratza ta arixeok seoser ba, baña esijatak akordau akordau paso emon bijotzau) batak esan jotzan, batak:
- Arixe etetatan
 - Batilloton esajeutzan bestiek.
 - I esan ba tetena—Irugarrenak.
- (Zipriano Bilbao, Axpe baserrikoa, Markina)

8. Lanbreabeko laminak

Badira liburu honetan hainbat kontakizun laminei buruzkoak. Pozgarria da benetan Azkuek⁸⁸ orain dela hirurogei urte bildutakoak oraintsu batean berriz ere bilduak izatea. Guk hemen ez dugu gauza berririk esango. Joko txiki bat eskeintzen dugu Arratia aldean lamina konturik ezagunena dauala Lanbreabekoa dateke. Horren berri ematen du liburu honetako kontakizun batek, nik neure aldetik, aita Lino Akesoloren lamina kontua aldatu dut hona eta oraintsu jasotako aldaera berri bat:

Lamiñek (Lino Akesolo)

Lanbreabe'ko lamiñek eta euren atzera-aurre/r/ak bala-bala ebildiezan zarrak euren agoetan. Lamiñik, geuk lez oiñ, beso ta ganetiko gorputzen sentzunek eukiarren, etxure bildurgarrizkoak ei-ziran; baye neu nago, guzti-guztiak bildurgarrizko motzak be etzireala izango. Ta ona zegaiti. Zarrak eurek esana da, lamiñe batek Lanbreabe'ko errotan ezkon-geye eukala. Au egie izatekotan, ¿zelan ixen leiteke Lanbreabe'ko errotako iñok, alango motz eta bildurgarrizko bat ezkongeztat artu?

Lanbreabe'ko Zubietati Muñegirantza doyan errekan, ezker aldeati, Zubietati lasterrean, erreka-ertz-ertzean errenkadan dagozan atx-bitarteak eta atxuloak lamiñek egiñek ei-dire, eta euriekaz da eguraldi txarrakaz euren barruen

⁸⁸ Lamien gainean dauden azkerketa interesgarrietakoak AZKUE: «Lamiak Euskalerrian» in *Euskera*, 1927, VIII urtea, I-II zenbakia, 91-115 orr. ERKOREKA, Anton: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* VIII (1976), 309-365, X (1978), 451-491, XI (1979).

sartute egoten ei-zirean. Atx-zulo oneitati apur bat gorago, Lamiñe-posu deritxon lekue dago, eta onen aldamen bietan dagozan atx-ganeetan, eguzkie zanean, euren bearlekuetan agiri ei-zirean, uleak orraztuten, bogadea zabaldu-ten, eta olango bearretan. Uleen ardura andie eukien, antza, ta atx-gane orreitan urrezko orrasiekaz uleak orraztu ta uleak orraztu sarri ikusten ei-eudiezan, baita ixera zuri ederrak zabalduen be. Eguzki-sarraieran ainbeste ixera eder intxaur-azal baten sartuten ikustea ei-zen gauzerik ikusgarriena ta arritutekoena. Atxinekoen bat, Barrenkaleko kalean amalau atzo tronpeta yoten motreli baten ganean ikusi zituala-ta, guztiz arriturik gelditu ei-zan. Ba, zer eretxiko ete eutsan, ainbeste ixera, sorgin-ixerak ezpazirean, intxaur-azal baten sartuten ikusi balitu?

Sorgin ixerak be etzirean urrean; ze, Lanbreabe'ko andra batek ixera eder bat kendu ei-eutsien bein, ta andra orri baketan ez ei-eutsien isten, beti euren ixera orren eske ta eske. Gabaz ateko giltze-zuloti, eta egunez solora agertuten zaneko, an ei-zirean sorgiñok ekin da ekin: «Non dozu gure ixerea» ta «non dozu gure ixerea», gau ta egun ixildu barik, ixera zorioneko ori atzera emon arte.

Eriotzeak bildur andie emoten ei-eutsien, Ipiñe'n baten bat ilten zanean, baterik bestera garrasike asten ei-zirean, ziñaudiela: «Lanbreabe'ko etzanderea, Ipiñeko min-dinguinek (kanpak) asi dire-ta gertau egixu anda iserea». Oin irurogei urte edo bear bada geyorarte, ilek etzituezan atauteetan obiratuten; parroki bakotxak bere andak eukiten zituen eta eurotan eroaten eudiezan ilek guztiek obetegire. Ilen etzekoak isera eder bat zabaltzen eutsien ganean anda orreri ta bere ganean iminten eudien ile; ta gorpue bein lurperatu orduen, auzoko andra batek batu ta biribiltzen oan isera ori ta ilen etzera biurtuten oan. Isera onexeri esaten yakon anda-iserea. Ta orti dator laminek, baten bat ilten zaneko garrasike esaten eudien ori: «Lanbreabe'ko etzanderea, gertau anda-iserea».

Laminok guztiz ezne-zaleak be ba-eizirean: goxean goxeti asten ei-zirean Lanbreabe'ko auzoan aterik ate ezne-eske, ta ezpanetara urreratu orduko irunsten ei-eudien katillukadea.

Ixildu barik beti ezne-eske ebizela-ta, Lanbreabe'tarrok bete-beteen asperturik ei-eukiezan, eta zeozer asmau bear zala-ta ei-ebizen auzokoak, ezne-zale gogaikarriok ateetati uxatuteko. Ta ona zelan etorri yakien orretarako argie: domeka baten bertako auntz-dun bat, goxean goxeti bere auntzek mendire eroanda gero, ba-eyetorren etzerantza bizkor-bizkor, mezara orduko etzean goxari-iski bet artezako asmoz; sartu da, eznea egozi dau ta bleu egingo ete yakon ardureaz zurrutada baten irunsi gure dau dana. Irikiten egon eznea, ta apur bet egoan sartzean oaneko, ago guztie kiskeldu bear eutson ta ixerrak ikusiazoten eutsezan. ¡Mutil aren estutasun eta larriek, mezarako belu egiten yakola-ta, zurrutada ezne ori artu eziñik! Orduentxe gomutaun yakon lamiñek be zurrutada baten botaten audiela katillukada eznea euren

barrure ta, eureri esteak kiskelduteko eznea irikiten emotea ixengo litzekela onena.

Domeka atan berean, arrastien, auzoko etzeko andra guztiek bat einde aru ei-eudien asmoa, laminek ezne-eske etozanean, dana irikiten emoteko. Esan da egin. Astelen goxean, beti lez, goxeti asi ei-zirean lamiñok aterik ate ezne-eske. Etzeko andrak ordureko maskillukada ederrak ei-eukiezan laratzuetan irikiten. Lamiñek ezne-katilluek artu zituezanean, katillu orrei ezpanak erekutsi orduko, euren urdalletan eukien ezne irikiñe. Ta jan ei-zirean garrasiek! Ezne goriek barruek erreta miñen miñez, lurrean sakea artute, goragoratan ei-ebizen buruekaz goiko ageak yoten eudiezala. Ta azkenez be, erdi illean arin bai arin euren atx-zuloetara ein ei-eudien ta bertan ondatu ei-zirean betiko. Arik geyo ez ei-deude urten, eta ona urrengorik urrengora ondatu ta egundo geyo ez ei-de ixen euren barririk.

Lamiñok onan ondatu zituezanean, errotako ezkontza ori ei barik gelditu bazan be, Lambreabe tarrok sekuleko bakea ta poza ixen ei-eudien, auzo ta inguruek be guztiz garbiturik gelditu zirealako.

Ezta ixen ordurik ona lamiñon barririk; bakarrik gelditu yakuz egoten ei-zirean atx-zuloak, eguzkie artzean egoten zirean atxak, eta buruz bera uretan murgilduten ziran pozu edo osiñe.⁸⁹

Lanbreabeko sorgiñak (Jabier Kalzakorta)

Lanbreabeko errota bat dau ezta or Undurran, errota bat dau da lenagoko denporetan orra yuaten ei zirian, an erroten azpian dau erreka aundi bat ezta? da bogadea yoten, bogadea esaten yako erropea astoan artu ta eroaten eieuren erropea be ara erre kara.

– *Eta bogadea yo esaten zan?*

– Bai bogadea bogadea.

– *Eta ori noz eiten zan illean bein edo?*

Bogadea eiteurien ee oñ ee beitu labadorak eta dauzen moduan ezta, labadoreak eta olango tineju aundi bet egoten i zen, nik eztot ezautu baña gure amak eta esateurien tineju aundie bet ta an eiten euriezan illebeteko erropak edo an egosi eiteuriezan, egosi ta botaten euriezan surteko autze, surteko autze boteutzien ona be asko etorten zan surteko autzetan!! olan eralgi eiteurien ta surteko autze ta gero, botaten eutzezan usaña euki daien ona erropeak eriñotza, eriñotza olango orriek bogadeari da gero bogadea yoten zian(?), ba erre kara yoaten zirian ba an korrontean ee ba zertuten, erropea eroaten eurien urrien oten ziran baserriek astoan erropea ara erre kaldera, da an erre kan, Lanbreabeko erre kan esateurien egoten ziela sorginek ta eguerdiko amabietan yoaten zirian orraztuten, eruten eurien

⁸⁹ AKESOLO, Lino: *Ipiña ta Ipiña'tarren barri*, 1958, 28-30 orr. Simeon Angoitia Uriartek iasotako oharrekin Lino Akesolok eaindako testua duau.

urregorizko orrazie, da claro yoan zan Lanbreabeko etzanderea bogadea yoten aurek orraztuten zireanean orripen baten ee gordeten eurien orrazie, ba Lanbreabeko ba errotako etzandereak topaioan orrazie da artu ta etzera eroaneuan orrazie, sorginena da gaubeko amabietan: DAUN, DAUN, DAUN, DAUN, DAUN yo otzien atea Lanbreabeko etzandereari.

- Nor da? (ta)...

Sorginek kanpoti:

- Lanbreabeko etzanderea

ekazu nire orrazia

ezpabere nik ingo dot zure askazia.

Sorginek esautzen kanpoti. Da gizonak esautzen:

- Emoiozu e zeraa.

Ta aterautzen a orrazie pañelu zuri baten, atea zabaldu utzienean, pañelu zurie dana erre iutzen, baie artutzen ezta pañelu onantxe, antxe atean esateurien urteetan be an egoten zala atean yo euazan bost atzamarrak sorginek atea erre iuan, da esautzen atzenean:

- Emen etzean ezta faltako koxoa edo gexoa.

An egundo ez izen pasau (faltau?) ba koxoa edo gexoa, ezirean faltau an etzean.

Laminak erreka bazterretan uleak orrazten (Jabier Kalzakorta)

Ori bestetara. Nik eee errekan ibiltten siela ta orrasixe astute itxi da jun de ausoko bat da topau dau orrasixe ta artu orrasixe ta erun dau etxera da gaubien jun xako ate joka:

- Nor da? (ta)

- Orrasi edo bisi.

An barruen dauenari esautzela:

- Orrasixe edo bisixe.

Atepetik emotzela orrasixori, nik olan ori olan entzunde deuket.

9. Garia eta artoa

Liburu honetan, beharbada, dagoen etnotestu eta kontraera interesgarrienetako bat (2.5 *Garia eta artoa berbaz*) dateke. Ba dira hor, han, hemen antzerako testuak baina laburregiak dira, ia esaera mundura mugatzen diren elkarrizketa lakonikoak dira. Liburu honetakoak, ordea, aberatsa dira alde guztietatik: artoak zein gariak ereiten den unetik uzta garaia bitarteko lan guztiak aipatzen dituzte.

Gariak esan zion artoari: A, a, artua, artua, bai janari bastua! Ni nagon lekuan, i beti sobratua.

Artuak erantzun zion: A, a gariya, gariya, ori dok arrokeriya! I jaten auenak muturra zuriya; ni jaten nabena arpegi gorriya.

Artua len emen zintzo jaten zan, baina orain artua jateari itzi xako. Aurki, olan bagoiaz, ogiaren lekuan bizkotxo eskatuko dabe gaurko gazteak.⁹⁰

Zerbaitengatik esan oi da gariak esan izandu zuela mundu guztian etzala bera baño belar obeagorik; eta artoak erantzun ziola:

– Baño ni naizen tokian ez dago goserik.⁹¹

Azken hitza

Beldur naiz esku artean duzun ipuin eta etno-testu eder hauen atariko hau ez ote den luzeegia. Gure helburua Euskal Herri osoko ipuinek Gorbeia magaletan ere kontatu izan direla azaltzea izan da. Horretarako lau-bost eredu hartu eta adibideez hornitu ditugu irakurleari osotasun bat eskeini nahirik. Adibide gehiago ere aukera zitezkeen eta are eredu gehiago ere, baina zertarako luzatu? Egiteko hori nekagarria litzateke eta egiteko nekagarriak ipuinen pertsonaien suntsigarri izan ohi dira. Esandakoaren harian zilegi balekit kontatuko dut Gorbeia inguruko kontaera bat:

Behin abade bat bizi omen zen kriada batekin. Abadekriadak bazekien bere nagusiak burkopean kajatxi batean hainbat deabru txiki gordetzen zituela. Deabru txikiok kajatxia edo sorgin bola zabaltzen zuenaren aginduetara jartzen ziren, baina lana agintzen ezeze berriro ere deabruok sartzen jakin beharra zegoen. Goiz batez abadekriadak, jakinminak zulaturik, kajatxia zabaldu eta deabru txiki edo pamerial guztiak hasi zitzaizkion lan eske. Abadekriadak bere etxeko lanak agindu zizkien eta baita deabruok egin ere. Hurrengo zer agindu ez zekiela lan zail bat agindu zien: etxeko ontziak urez betetzea baina errekatik galbaitetan ura garraituz. Ipuin batean etxeko ontziak eta etxea bera ere urez betetzen dute. Beste aldaera batzuetan deabruak lanean etsirik, ura galbehean behera galtzen dela oharturik, betiko aldentzen dira begien bistatik. Baina beste ipuin batean berehalakoan betetzen dute etxea urez eta horretarako trikimailu batez baliatzen dira: galbahe-sarea bustinez estaltzea. Azken aldaera honetan abadekriadak lan zailago bat agintzen die: ardi lanabeltzak edo kapabeltzak zuritzea. Azkena denok asmatzen dugu: deabru txikiok lanaren ezina ikusirik betiko suntsitzen dira.

⁹⁰ ANDUAGA, Graziano: *Aitonaren uzta*, Aita Villasantek prestatutako edizioa, Kuliska sorta, 105-106 orr. Julian Alustizak ere batu du Gesaltzako aitonak dioena, hona nola hasten den alala (*Euskal baserriaren inguruan*, Jakin argitaletxea, 1985, 101 or.):

Bada esaera zahar bat, artoaren garrantzia ondo baino hobeto adierazten duena. Gariak harro asko esaten omen zion artoari: Mundu guztian ez zegok ni baino hoberik! eta artoak apalki erantzuten aldamenetik: Ni nagon tokian / ez dago goserik!

⁹¹ ERAUSKIN LUJANBIO, Jose Ramon: *Aien garaia*, Auspoa liburategia, 1975, 75 or.

Aitor dut niri neuri ere antzerako zerbaite gertatu zaidala hitzurre honekin. Azkenean ezin burutu dudan lan ezinbestekoa eskuetaratu zait, ipuinen euskararen berri ematea, hain zuzen. Ipuinok irakurtzean berehalakoan ohartzen gara bada-goela euskaran bertan ere halako altxor ezezagun bat, are bizkaieuskera bera ere ondo ezagutzen dutenak hitzean hitzean topo egin eta miraz geldituko dira. Liburu honetan alde batetik euskara ahalik eta modurik berezkoenean eman nahi izan da, ipuin-kontalariaren hizkera paperera aldatu nahi izan du liburuginak ahalik eta zehatzen, fonetika arauak zuzen markatuaz eta testuak zuzen traskribatuaz. Bestetik ezpainetik harako ipuinak hobeto ulertzeko testu bixki bat dugu *literario-etimologikoa* egileak dioenez. Bigarren testu bixki hau ez da literarioa lehenaren azalgarri baizik. Hemen, forma literarioa eban baldin bada, *euan* agertuko zaigu, Bizkaiko literaturan batez ere eskuma agertzen bada hemen *esko*.. Esan beharrik ez dago, beraz, liburu hau euskaldun irakurle trebatuari eskeinia dagoela eta ez hasi-masietan dagoenari. Ipuinak erraztu balira edo eredu literarioan jarri balira ipuinen kalterako izango litzateke. Liburu honen beraren egileak erraztasunak eskuera jarri nahi izan ditu eta horrexegatik liburu-sarreran hainbat giltza ematen ditu lege fonetikoaren gainean. Irakurleak lege fonetikoetatik harago joan nahi balu eta arlo morfologikoetan eta sintaktikoetan sartu, egilearen beraren tesi-lana⁹² izango litzateke bide-erakusle.

Jabier Kalzakorta
Markina, 1994.eko azaroan

⁹² ETXEBARRIA, J. M.: *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*, Euba, Ibaizabal, 1991.

SARRERA

Hamazortzi urte luze joan dira han Derioko Seminarioan, Labayruko buru den Ander Manterolak On Jose Migel Barandiaranen Bizkaiko Etniker taldekidetzatza eskeini ondoren pozarren eta denodutsu onartu nuenetik.

Nire neure auzo eta lagun izan nuen Simon Goyoagak (g. b.) kontatu zizkidan lehenengo mitologia-ipunak Ander Manterolari jakin erazo nizkionean hauxe esan zidan Zeanuriko euskera bizi bizian: «i yoai te grabayosak ipuiñok ni neuk lagundukostat sintia transkribitan».

Ez nuen euki ez orpoetan harrik horri beharleku horri heltzeko eta hasi nintzen, ekin nion eta gaur be badaragoiot Gorbeia inguruetakoko ipuin edo eta esaundak batzen.

Bizi bizian jasotako ipuin edo eta esaundok Etniker aldizkarian argitaratzen gabiltza apurka-apurka, baina batu be zenbat gura eta harexenbeste egin dudanez, liburu baten bildu eta argitaratzea erabaki dut.

Metodologia eta erizpidearen ubidetik, helburu orokor bikoitza aipatu nahi nuke etorkizuneko euskera eta euskal kulturaren aberasbidean.

Helburu bikoitz hori, Etnografia eta Linguistika biak bata bestearen osagarri izatean legoke.

Linguistikaren aldetik askotan kritikatu izan da autore baten edo besteren zehaztasun eza, batetik ondo jaso ez duelako, bestetik jasokeran zeozer aldatzearririk.

Nire oraingo lan honetan disziplina biak zaindu gura izan ditut eta aikor ba hamazortzi urteotan jaso dudanez ipuin edo eta esaunda mordo hau etno-testo zein Bizkaiera literaio-etimologikoan. Bizkaiera diot, horkoxe euskalki horrexetakoak direlako etno-testoak. Euskera batuaz imintea be posible da baina bariante bezala, ez bait dira sistema berekoak. Eta gainera, zer da batua? Gorbeia inguruko euskal altxorretik ez ote du zer harturik zelango halango batua horrek? Hobe ez! Alborikara baino ez bada ere, eransketa bi be egin dizkiot honi behar honi argitasuna eta zabalkundea kontutan izanik.

Lan honen azken aldean hiztegi bat agertzen da. Berri-emaileentzat ezagunak diren hitz asko eta asko ez dira hain ulerterrezak gaurko irakurle askorentzat, horregatik orain arteko euskal hiztegiak osoena erabili dut, A. Lino Akesolorena (D.R.A.E) hain zuzen eta hor ere jaso ez diren hitzezko zerrenda luze hori egin etorkizuneko hiztegiak behar izan diren argazteko euskera idatziak ez bait du jaso euskeraren izate osoa.

Beste alde batetik, izenburuak eta gunaren laburpena gazteleraz ere ematen da, R. M. Azkue eta J. M. Barandiaranen antzera Euskaditik kanpora ere ezagutu ditezten gure izaeraren edertasunak.

Beste barik, aikomenzan Gorbeiarik harako mito-ipuin, esaunda edo eta antzerakook. Irakurri, gozatu eta zabaldu bihotz-begiak herriaren jakintza norberaganatuz, euskal izakeraren hageak bizirik iraun dezan etorkizunean.

Nik neuk eragon diot eta bariot alor emankor honi, hik heuk, zuk zeuk eta berorrek be, egin beste hainbeste berri-emaile edo batzaile bezala bakoitzaren herri eta lurraldeetan etorkizuneko «ldatz» eta «Mintz» egunean eguneangotuta baina batera bizi ditezten zabaltasunezko batasunean.

Juan Manuel Etxebarria Ayesta
Zeberio 1994

ETNO-TESTOON IRAKURKETA ERRAZTUZ

Euskalki, azpieuskalki eta aldakien herri-erabileraren ekonomia, eufonia eta transmisio ohitura ezezagunak direnean bidezko deritzat errez-bide gisan biderdi egiteari era bateko edo besteko bitargiak zabalduz.

Honen liburu honen haronakoan Etno-testoon transkribapen fonologikoaren ondoan euren Bizkaieraren eredu literario-etimologikoa eskeintzen da sinkronia-diakroniak aztertu ahal izateko.¹

Era bietara eskeini arren, etno-testo ulerkaitzetan argitasun gisako parentesi batzuk agertzen dira. Parentesi horietakoa ez da entzuten grabaketan.

Etno-testook jaso diren lurralderako baliagarri den taula fonologiko eta fonetiko-a be eskeintzen da hots mota guztien berri emoteko etno-testo guztiak fonetikatzea luzeegi litzatekelako.

Taula fonetiko honen barruan «y» grekoz transkribatzen den hotsak aipamen berezi bat behar du.

Etno-testoak fonologia mailan transkribatu direnez, aipatu berri dugun hots hori «y» grekoz agertzen da baina hots hori ez da berdin ahozkatzen herri batzuetatik besteetara. Esate baterako, Zeberion, Arratian etab. sabaikoago egiten da, Zaratamon, Arrigorriagan etab. aurreratuago.

Fonologia mailak bere mugak ditu eta zehatzago jokatu nahi denean ez dago besterik fonetikara jotea baino.

Etno-testoon irakurketa errazte bide honetan, kontsonante multzoak ditugu sekulako adapo. Horregatik Zeberioko adibide biziak bitarteko aikomenzan argigarri lez kontsonante multzook ahozkatzeko bide eginak. Hauek ondoriook Zeberion ezeze haragoan be emoten dira kasuren baten arean aldatu arren.

¹ Literario-Etimologikoaren helburua, ez da proto-Bizkaiera edo eta gaurko Bizkaiera batu-arautua ematea, etno-testo fonologikoaren argigarri izatea baino. Horregatik, argitasun bidean, bertsiio literario-etimologikoan ere, «ñ» eta «el» hotsen grafia, zaindu egin da kasu askotan, izan ere, Gorbeia inguruan oraindino hots hauk alternantzia daudelako. Alde batetik: *mutila, opila, zila, buruko mina, bardina, mandazaina*, baina bestetik: *alioa, tella, milla, oiñez, miña* (ahoko), *señorea*, etab... etab...

KONTSONANTE MULTZOEN AHOZKERA

Hitz egiten dugunean, «Kanpo Sandhi» edo «Grupo Foniko»en bidez egiten dugu eta era horretara kontsonanteen elkar-joteak sortzea guztiz bidezko da herri-hizkuntzaren eufonia, ekonomia eta artikulazio ohitura bitarteko direlarik.

Izan ere, ez da bat ere erraza «Grupo Foniko» edo osterantzeko kontsonante elkarte batzuk ahozkatzea eta horregatik herriak, berezko fonetika legeak jarraituz, erreztu egin du kontsonanteon ahozkerara.

Hiztun bakoitza aparteko mundu bat da eta beste hiztunekin bateratsu hitz egin arren, beti dira bata bestearengandiko aldakuntzak.

Gainera, hiztun bakoitzarengan ere, bizitzako egoera guztiak ez dira berdinak, eta egoera batean egon edo beste batean egon «Grupo Foniko» berbera ez da berdin-berdin ahozkatzen.²

Nire aldetik, Zeberioako euskeran aurkitu ditudan «Kontsonante Multzo»en ahozkerara jasoten saiatu naiz, euretariko batzuk, aurrerago aipatu ditudan faktoreen arabera, beti berdin ahozkatzen ez direlarik.

Metodologiari dagokionez, era askotara azter daiteke «Kontsonante Multzo»en ahozkerara. Nik jarraitu dudana bidea hau da: Ahots-Moldeari dagokion sailkapena hartu eta euretariko kontsonante bakoitza herrian erabilten diren beste kontsonante posible guztiekin elkar-jo erazo banan-banan eta alfabetikoki herriko hiztunengandik jasotako adibideak bitarteko direla.

Argi-bide bezala, komilla artean doan fonologia mailako herri-adibide bakoitzak, literatura mailako bere parea darama gainean, «Kontsonante Multzo»en jatorria ikusi eta ondorioak aterateko.

1. Leherkari gorrak

1.1. «-p»

Ez da erreza azken posizioan «p» bat aurkitzea «eup!» edo ez bada.

1.2. «-t + b-» = «-p-»

- 1) bat bai
«bapai»
- 2) bat bakarrik
«bapakarrik»
- 3) ez dakit buruz
«estakipurus»

«-t + d-» = «-t-»

- 1) bat dator
«batator»
- 2) ontzat dauka
«ontzatauko»
- 3) ez dakit dana
«estakitana»

² Adibideak amaigabeak dira baina hona hemen bat edo beste. «EGON» hiru eratara entzun daiteke: «egon»; «eon» edo «on». «EGIN» berdin: «egin»; «ein» edo «in». Egia esateko hizkuntza biziak nasai jokatzen du jokatu ere.

«-t + f-» = «-f-»

- 1) bat falta da
«bafaltada»
- 2) ontzat firmauko dot
«ontzafirmaukot»
- 3) ez jat falta
«etxafalta»

«-t + g-» = «-k-»

- 1) bat gara
«bakara»
- 2) zeuretzat gorde
«sautzakorde»
- 3) ez jat gustatu
«etxakustau»

«-t + j-» = «-j-»

- 1) zenbat jan dozak?...
bat jauna «sainbetxando-
sak?...
bajaune»
- 2) zelan hartu dok ba?
ontzat jauna
«zelan artu opa?
ontzajaune»
- 3) baso bat Juani dotean
«baso bajueneri dotean»

«-t + k-» = «-k-»

- 1) bat karran doa
«bakarrandoa»
- 2) zeuretzat katea hori
«sautzakate ori»
- 3) ez jat katigatu
«etxakatigitu»

«-t + l-» = «-l-»

- 1) nik badaukat laguna
«nipaukolagune»
- 2) solo bat landu
«solobalandu»
- 3) ez jat loditu
«etxaloditu»

«-t + m-» = «-m-»

- 1) emon dot mosua
«emondomosue»
- 2) neuretzat madaria
«nautzamadarie»
- 3) ez jat mobidu
«etxamogidu»

«-t + n-» = «-n-»

- 1) ekarri dot narra
«ekarrionarra»
- 2) beretzat nabil
«beretzanabil»
- 3) ez dot neurtu
[estonaurtu]

«-t + p-» = «-p-»

- 1) bat parean dago
«baparean dao»
- 2) heuretzat porruak
«autzaporruek»
- 3) ez jat paratu
«etxaparau»

«-t + s-» = «-s-»

- 1) jan dot sagarra
«yandosagarra»
- 2) heuretzat sagardoa
«autzasagardagoa»
- 3) ez jat sugertatu
«etxasugertau»

«-t + tx-» = «-tx-»

- 1) nik badaukat txakurra
«nipaukotxakurre»
- 2) merketzat txarria
«merketzatxarrie»
- 3) ez dot txarrik esan
«estotxarrikesan»

«-t + x-» = «-x-»

- 1) nik badaukat xaxarea
«nipaucoxaxarea»
- 2) heuretzat xaxara hori
«autxaxaxarori»
- 3) etorri jat xaxarea
«etorri xaxaxarea»

«t + y» = «tx»

- 1) bat jan dau
«batxandau»
- 2) esantzat joan da
«esantzatxoan da»
- 3) ez dakit jaten
«estakitxaten»

«t + z» = «z» («s» ahozkatzen da)

- 1) entzun dot zurea
«entzundosurea»
- 2) beretzat zan
«bertzasan»
- 3) ez jat zabaldu
«etxasabaldu»

Ondorioak:

a) «t» fonemak «b-; g-; y-» jotean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: «p; -k; -tx» hain zuzen.

Fonema berrion izateari buruz, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gorturik.

b) «t + d» kasuan, biak ditugu Ahoskune berekoak eta elkar-jotean gorra nagusitzen da.

d) «t + y» kasuan, gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, «t» galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

Baliteke «t» hori galdu ez egitea intensitatearen arabera, baina orduan leherkari gorraren eraginezko eten bat sortuko litzateke eta datorren fonema³ hitz hasieran balego bezala hartu behar da. Dena den, herria beti doa errezero eta galtzea da errezeroa.

1.3. «k + b» = «p»

- 1) nik badakit
«nipakit»
- 2) biderik bide
«bideripide»
- 3) etorri dok ba!
«etorriopa!»

«k + d» = «t»

- 1) geuk dakigu
«gautakiu»
- 2) eurak dabilz
«auretabis»
- 3) gastatu jok dirua
«gastauyotirue»

«k + f» = «f»

- 1) hark falta dau
«afaltadau»
- 2) ez dok falta
«estofalta»
- 3) gauzarik fazilena
«gausarifasilena»

«k + g» = «k»

- 1) hark garoaz
«akaroas»
- 2) gazterik gangartu
«gasterikangartu»
- 3) hortik goaz
«ortikoas»

³ Herri-hizketa bizian ez da errezero eten hori aurkitzea, gehienetan «astirik» ez daukagulako jatorrizko ahozkeraren egiteko.

«k + j» = «-j»

- 1) hark jentilak
«ajentilek»
- 2) hik Juan jo dok
«ijoanyook»
- 3) etorri egin dok Jose
«etorriindojose»

«k + l» = «-l»

- 1) neuk lagunduko deusat
«naulagundukotzet»
- 2) ez egin surik labe aurrean
«esinsurilaburrean»
- 3) ardurak lagunduko deusatu
«arduralagundukotzu»

«k + m» = «-m»

- 1) hik musean ez dakik
«imusean estakik»
- 2) goizerik mar-mar
«goxerimarmar»
- 3) jan dok morokila
«yandomorokile»

«k + n» = «-n»

- 1) pozik naukazu
«posinaukosu»
- 2) nik neuk bai
«ninaupai»
- 3) gaixokarik nabil
«gaxokarinabil»

«k + ñ» = «-ñ»

- 1) pozik ñabiltzu
«posiñabiltzu»
- 2) goizerik natortzu
«goxeriñatortzu»
- 3) astibarik nagok
«astibariñaok»

«k + p» = «-p»

- 1) nik polito jan dot
«nipolito yandot»
- 2) zeuok pasatu
«sauopasau»
- 3) ez nok paratu
«enoparau»

«k + s» = «-s»

- 1) barruzkiak samur dagoz
«barruskiesamurdaos»
- 2) ebagi dok sasirik?
«ebagiosasirik?»
- 3) hik sua egik!
«isueik!»

«k + t» = «-t»

- 1) hark taukia darabil
«ataukie darabil»
- 2) urliak taketak egin jozak
«urlietaketakiniosak»
- 3) erein dok tomatea ez dok
«erain dotomatea estok?»

«k + tx» = «-tx»

- 1) hark txakurra daroa
«atxakurre daro»
- 2) goizerik txantxetan
«goxeritxantxetan»
- 3) uxatu dok txoria?
«uxatuotxorie?»

«k + x» = «-x»

- 1) hark xaxarea dauka
«axaxarea dauko»
- 2) hori dok xaxarea!
«orioxaxarea»
- 3) jan egik xaxaraz
«yaxaxaras»

«k + y» = «-y»

- 1) berak jan dau
«beratxandau»
- 2) ez dok jan
«estotxan»
- 3) pozik joan da
«positxoan da»

«k + z» = «-z» («s» ahozkatzen da)

- 1) pozik zatoz
«posisatos»
- 2) zeuok zarie
«sauosarie»
- 3) bota dok zozoa?
«botososoaa?»

Ondorioak

a) «-k» fonemak «b-; d-; y-» jotean, fonema berri bat sortzen da bakoitzarekin: «-p-; -t-; -tx-» hain zuzen.

Fonema berrion izatea dela eta, Ahoskunea bigarren fonemarena da baina Ahots-Moldekoaren eraginez gortutakoa.

b) «-k + g-» kasuan, biak dira Ahoskune berekoak eta elkarjotean gorra nagusitzen da.

d) «-k + y-» kasuan gortzetik aparte, Ahoskunea ere zertxobait aldatzen da sabai-aurrerantz.

e) Beste kasu guztietan, «-t»rekin gertatu den bezalaxe, «-k» galdu egiten da jarraian datorren fonema nagusituz.

«-k» galdu ez egite bat balitz, «-t»ren arrazoi berberetatik litzateke.

1.4. «-k + -» (azken posizioan)

a) «-k» plurala zein ergatiboa, azken posizioan agertzen denean bokale berri bat sortzen da, gehienetan «-k» horren aurrekoa lakoa eta era horretara ez da galtzen «-k» hori:⁴

«nik i... »

«onek e... »

«guk u... »

«gixonok o... »

b) Deklinabideko ablatibo kasuan azkeneko «-k» askotan entzun ere ez da egiten:

«Bilboti nator»

«soas emeti»

«etorri munati»

Bokale bat sortuz gero, «-k» hori entzuten da:

«basotik i... sasio dao ugeri»

Esana egia bada ere, batzuetan, eta batez ere belaunaldi gaztearen artean, azentu edo eta ahokera intensitatearen arabera, beste era batera bideratzea ere posible da aipatutako kontsonante elkarte batzuk behintzat. Adibidez:

«badbai»	[baɖ̪baj]	lit. bat bai
«nigbai»	[nig̪baj]	lit. nik bai
«badsan»	[baɖ̪san]	lit. bat zan
«sugsauk»	[ʃug̪sɔuk]	lit. zuk zeuk
«nignauk»	[nignɔuk]	lit. nik neuk

⁴ Gehienetan, azken bokalea errepikatzen da errezena bera delako baina beste batzuetan aldatu ere egiten da: «nik e... »; «suk e... »; «ak e... », etab.

Adibideok entzun entzuten dira baina ez da inondik ere Zeberrioko joera nagusia.

Azken adibideok berriz aipatuz, T. Navarro Tomás datorkit gogora, «Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica» delakoan egiten duen transkripsio fonetikoan agertzen dira aipatu diren bezalako kasuak.⁵

Fonema hau ez da oso ugaria azken posizioetan eta gainera ez du ahozkatze arazorik beste kontsonanteekin elkar-jotzean.

2. Frikari-xistukariak

2.1. «-s»

2.2. «-z» («s» bezala ahozkatzen da)

(E)Z «-z + b-» = «-zp-»

- 1) ez badator
«espadator»
- 2) ez bedi esan
«espei esan»
- 3) ez baletor
«espaletor»

«-z + d-» = «-zt-»

- 1) ez dator
«estator»
- 2) ez dakit
«estakit»
- 3) ez deitsu egin
«estotzu in»

«-z + g-» = «-zk-»

- 1) ez gara
«eskara»
- 2) ez gabilz
«eskabis»
- 3) ez gaitu
«eskatu»

«-z + l-» = «-l-»

- 1) ez leuskio
«elauskio»
- 2) ez leuke
«elauke»
- 3) horrek egingo ez leukenik!
«orrekingo elaukenik!»

«-z + ll-» = «-ll-»

- 1) ez liatak
«ellatak»
- 2) ez liako
«ellako»
- 3) ez liat gustatuko
«ellatagustauko»

«-z + n-» = «-n-»

- 1) ez noa
«enoa»
- 2) ez nabil
«enabil»
- 3) ez naukazu pozik
«enaukasu pozik»

⁵ T. NAVARRO TOMÁS, «Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica» in *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. San Sebastián, 1923, 49 or.

«-z + ñ» = «-ñ-»

- 1) ez nioak
«eñoak»
- 2) ez noatzu
«eñoatzu»
- 3) ez nabik ondo
«eñabikondo»

«-z + s-» = «-s-»

- 1) ez sagurik
«esagurik»
- 2) ez sagarrik
«esagarrik»
- 3) ez sasirik ez otarik
«esasirik es otarik»

«-z + x-» = «-x-»

- 1) ez xaxararik
«exaxararik»

Oharra: Zeberion ez dago beste adibide argirik, Euskal Herrian zehar bai, adierazkortasunezko sabaiketak bitarteko direlarik.

«-z + y-» = «-tx-»

- 1) ez jatok
«etxatok»
- 2) ez jakiat ba
«etxakiapa»
- 3) ez jautsat ezer egin
«etxotzat eser in»

«-z + z-» = «-z/-tz-»

- 1) ez zan etorri
«esan etorri» (gehientsuenok)
«etzan etorri» (adinekoek)
- 2) ez zinean joan
«etzinean joan»
- 3) ez zaitut ikusi
«etzatutikusi»

Ondorioak:

Herriko adibideetan ikusi ahal izan dugunez, baditugu fenomeno aipagarri batzuk (E)Z proklitikoaren «-Z» dela eta.

a) Alde batetik goian aipatu dugun «-Z» horrek gortu egin ditu hurrengo «b-; d-; g-; y-» fonemak «-p-; -t-; -k-; -tx-» bihurtuz.

b) «-z + z-» kasuan, gaur egun adinekoren bat ez bada Goi-Hobietakoa egiten dugu Bizkar-Hobietakoa egin beharrean.

d) Beste kasuetan leherkari gorra ez badira «-z» galdu egiten da hurrengo datorren fonema nagusituz.

e) Gorketa egin ez egitea ere posible da eta gazteengan entzun ere egiten da. Adib: «ežgoaš» [ežgoaš] lit. ez goaz; etab.

2.3. Orain arte esandakoa egia bada ere, badira gorketarik gertatzen ez diren «Grupo Fonikoak»

- a) ez behar = «esbear» [ežbéaɾ]
- b) ez gauza = «esgausa» [ežgáusa]

d) ez jakin = «esyakin» [ežýákin]

e) ez lan = «eslan» [ežlán]

Gortu ez egitearen arrazoia zabala litzateke baina hipotesi gisa baino ez bada ere, gorketa gehientsuenak aditz jokatuan gertatu dira eta beste kasuok ez dira erabilera berdinekoak. Eta gainera nere ustez kronologiarekin loturik dago gortzea edo ez gortzea geroago ere ikusiko dugun bezala.

2.4. (-z) instrumentala hartzen badugu ez dugu gorketarik aurkitzen normalean.

a) berez badabil = «beresbadabil» [berežbáðabil]

b) berez dator = «beresdator» [bereždátot̃]

d) berez goaz = «beresgoas» [berežgoás]

e) oinez jatok = «oñesyatok» [oņežýátok]

f) buruz dakit = «burusdakit» [buružđákit]

Dena dela eta kronologia kontutan harturik kasu batzuetan agertzen da gorketa, esate baterako «-Z GERO» kasuan:

- joanez gero = «yoaneskero»

- etorritz gero = «etorri eskero»

Kasu berean eta esakuna eginetan ere agertzen da gorketa hori:

- «arreskero»

- «oneskero»

3. Afrikariak

3.1. «-tx + b-» = «-sb-»

1) apatx barrua

«apasbarrue»

2) apatx burua

«apasburue»

3) gatx barik

«gasbarik»

«-tx + f-» = «-sf-»

1) apatx formea

«apasformea»

2) gatx fazilera

«gasfasilera»

3) apatx fuertea

«apasfuertea»

«-tx + d-» = «-sd-»

1) apatx dandarras

«apasdandarras»

2) gatx daukat

«gasdaukat»

3) gatx dago

«gasdao»

«-tx + g-» = «-sg-»

1) apatx ganea

«apasganea»

2) apatx garbia

«apasgarbie»

3) gatx gogorra

«gasgogorra»

«-tx + ...etab. etab... » = «-s + beste kontsonentea»

Ikusten denez, «-tx» afrikaria «-s» frikarira pasatzen da. Hurrengo kontsonantea ozena baldin bada ozendu egiten da, bestela gor jarraitzen du.

3.2. «-tz»

«-tz + b-» = «-sb-»

- 1) gatz bakoa
«gasbakoa»
- 2) hotz bakoa
«osbakoa»
- 3) berakatz burua
«berakasburue»

«-tz + d-» = «-sd-»

- 1) gatz dirua
«gasdirue»
- 2) hotz dabil
«osdabil»
- 3) berakatz dariola
«berakasdariola»

«-tz + f-» = «-sf-»

- 1) gatz faltea
«gasfaltea»
- 2) hotz faltan
«osfaltan»
- 3) berakatz fuertea
«berakasfuertea»

«-tz + g-» = «-sg-»

- 1) gatz garaue
«gasgaraue»
- 2) hotz gara
«osgara»
- 3) berakatz garaue
«berakasgaraue»

«-tz + ...etab. etab... » = «-s» + hurrengo konts.)

Kasu honetan ere «-tz» afrikaria «-s» frikarira pasatzen da. Ozen edo gorra izatea jarraian doan kontsonanteak dakarkio.

4. Sudurkariak

«-n + b-» = «-nb-»... Fonetikan [-mb-]

- 1) zain bako
«sanbako» [sambáko]
- 2) hagin bako
«aginbako»
- 3) jan barik
«yanbarik»

«-n + m-» = «-m-»

- 1) ahal dan moduan
«aldamoduen»
- 2) goian mirua jagok
«goiemirue yaok»
- 3) jan merkea
«yamerkea»

«-n + z-» = «-(-)s-»

- 1) egiten zan
«itesan»
- 2) joaten zan
«yoatesan»
- 3) egiten zirean
«itesirean»

«-n + n-» = «-n-»

- 1) ahal dan neurrian
«aldanaurien»
- 2) aurren nabo gitxi
«aurrenabogitxi»
- 3) lehen neu joan nok
«lenauyoanok»

«-nb-» elkartzean eta biak ozenak izan arren, esakuna zahar eginetan bigarrena gortu egiten da:

zain bedar = «sanpedar» [šampeďař]

agin bide = «aginpide» [agimpide]

ezkon barri = «eskonparri» [eškompáři]

ezagun bide = «esaupide» [ešaupide]

«-n + m-» = «-m-» egitea bidezko da eta «-n + n-» asimilatzea ere bai.

Kasu honetan be, «n»ri deusala jarraian kontsonante gor bat badago, «n» hori galtzeko joera daukagu (Ikus 6)

Adibidez:

egoten zan > «otesan»

monjea > «mojea»

etab...

5. Albokariak

«-l + l-» = «-l-»

1) mutil luzea

«mutilusea»

2) mutil-lagune

«mutilagune»

3) burtzil laburra

«burtzilaburre»

Asimilazio hau kenduz gero ez dago beste problema handirik esakuna eginen bat edo beste ez bada: adibidez:

ibilbide = «ibilpide»

Dena dela, kasu honetan be, «l» baten jarraian fonema gor bat datorrenean, «l» hori galtzeko joera dago. (Ikus 4)

Adibidez: dabilz > «dabis»

«darabilt > da(r)abit»

6. Dardarkariak

«-r»ren jarraian kontsonante ozen bat baldin badago errez galtzen da dardarkaria; eta gorra badatorkio errezago. (Ikus 2; 3; 6)

1) behar da = «beada»

2) ur bidea = «ubidea»

3) akersolo = «akesolo»

- 4) dakarzu = «dakasu»
- 5) dakargu = «dakagu»
- 6) daroardie = «darodie»
- 7) dakart = «dakat»
- 8) merzedez = «mesedes»

Esakuna eginetan gortzeraino ere heltzen da dardarkariaren hurrengo kontsonante ozena:

- burdi bide = «burpide»
- arbide = «arpide»

7. Kontsonante bikoitzak

7.1. «-st»

«-st + b-» = «-sb-»

- 1) bost bider
«bosbider»
- 2) bost baso
«bosbaso»
- 3) bost barku
«bosbarku»

«-st + f-» = «-sf-»

- 1) bost firu
«bosfiru»
- 2) bost falta
«bosfalta»
- 3) bost farmazia
«bosfarmasia»

«-st + d-» = «-sd-»

- 1) bost doaz
«bosdoas»
- 2) bost datoz
«bosdatos»
- 3) bost dozena
«bosdosena»

«-st + g-» = «-sg-»

- 1) bost goas
«gosgoas»
- 2) bost gara
«bosgara»
- 3) bost ganadu
«bosganadu»

«-st + etab. etab... » = «-s + beste kontsonantea»

Kasu honetan leherkari gorra galtzen da eta ozen-gor arazoa hurrengo fonemak eragiten du.

Bizkaieraz, ZER-NORI-NORK aditz-erroa «EUTSI»tik hartzen da eta berez «-ts»z bukatu behar luke baina metatesi bidez «-ST» egiten du.

Dena den, aditz horren lehen pertsonan «-ST» azken posizioa bada, ahozkatu egiten da baina sarritan hobeto ahozkatzeko edo, bokale bat agertzen da azken «-T» horri deusala:

- ekarri deust
- «ekarrioste»

7.2. «-rt»

«-rt + b-» = «-rp-»

- 1) bart bai
«barpai»
- 2) bart bakarrik
«barkarrik»
- 3) bart bakean egon gara
«barkapean on gara»

«-rt + g-» = «-rk-»

- 1) bart goizetik
«barkoizetik»
- 2) bart kantzatuta
«barkantzaute»
- 3) bart kontuz
«barkontuz»

«-rt + ...etab. etab... » = ...

«-rt + d-» = «-rt-»

- 1) bart danok
«bartanok»
- 2) bart dirua galdu dot
«bartirue galduot»
- 3) bart dana beharrean
«bartanabearrean»

Kasu honetan, «-R-» gorde egiten da eta «-T-» fonemak beste kontsonante ezberdinekin jotean aurrean aipatu dudan 1.2. apartaduaren antzera jokatzen du.

7.3. «-rk»

«-rk + b-» = «-p-»

- 1) inork badaki?
«iñopádaki»
- 2) nork batu dau?
«nopatu dau»
- 3) zerk bizi dau?
«sepidau»

«-rk + g-» = «-k-»

- 1) nork garoaz?
«nokaroas?»
- 2) nork galdu jok?
«nokalduyok»
- 3) zerk galdu jok?
«sekalduyok»

«-rk + ...etab. etab...»

«-rk + d-» = «-t-»

- 1) nork dauka?
«notauko?»
- 2) nork daki?
«notaki»
- 3) zerk daragoio?
«setaragoyo»

Bikote honetan «-R-» galtzen da eta «-K-» fonema beste fonema ezberdinekin elkar jotean aurrerao aipatu duzun 1.3. apartadukoaren antzera jokatzen du.

7.4. «-lz»

Kasu hau aditzean aurkitzen dugu eta Zeberrioko euskeran «L» galtzen da eta «Z» bakarrik ahozkatu Goi-Hobietakoa eginaz.

Adibidez:

«sabis» lit. zr. zabilz lit. zabiltz

«gabis» lit. zr. gabilz lit. gabiltz

«dabis» lit. zr. dabilz lit. dabiltz

7.5. «-lk-»

Kasu hau sugertatzen denean ere, kontsonante ozena galdu egiten da.

Adibidez:

«ñabiko» lit. niabilko

«sabikos» lit. zabilkoz

7.6. «-rs-» lit. -rz-

«-ns-» lit. -nz-

Kasu hauetan ere kontsonante ozenak galdurik aurkitzen ditugu lehen kasua bigarrena baino argiagoa delarik.

Adibidez:

«dakasu» lit. dakarzu

«ekasu» lit. ekarri egizu

«otesan» lit. egoten zan

«itesaindun» lit. egiten zendun

Jasoak jasota eta joera nagusi bezala harturik ondorio hau atera genezake azken adibideotatik: kontsonante elkarte hauetan bigarrena nagusitzen dela, alde batetik posizioaren arabera eta bestetik elkarteko ozena, hemen aurrekoa, errezago galtzen delako.

Orokorki aipatuz, beti goaz berdiner; hiztunak badaki zer behar duen aurrekoak ulertzeko eta logika osoz gordetzen ditu behar dituen fonemak behar duena adierazteko.

8. Idazkera ≠ Ahozkerak

Herrian egin ditudan grabaketetan adinekoak izan dira nire berri-emaileak eta argi dago «belarria» dena euren ahozkeraren oinarri.⁶

⁶ Ikus berri-emaileen batez-besteko adina euskeran analfabetoak direla ikusteko.

Baina adinekoak ez direnak eta batez ere gazteak alfabetatzen hasi diren neurrian ahozkerak aldatzen hasi dira idazten den fonema bakoitzari bere hotsa emanez.⁷

Idazten den bezala ahozkatzeak bere arriskuak ditu batez ere Fonetika arloan. Har dezagun adibidez:

Lit. ez dakit

Fonol. «estakit»

Fonet. [estákit]

Literaturarako onartu ditugun fonemak idazten diren bezala ahozkatzen baditugu, Fonetika mailan asko aldatzen direla ikus genezake:

Lit. ez dakit

Fonet. [ezdákít]

Ikusten dugunez, ahozkerak jatorrean edo herrikoian Literatura mailako «-z + d-» Goi-Hobietako Frikari Gorra eta Hortzetako Leherkari Gorra bihurtu dira.

Baina idazten den bezala ahozkatuz gero, «-z» Goi-Hobietako Frikari Ozena da eta «d-» Hortzetako Frikari Ozena.

Beste adibide asko har genitzake jasotako guztiaren arabera baina ez nuke nahi lan hau amaitu Ergatiboaren kasua aipatu gabe.

Beste fonema batzuk ere bai, baina Ergatiboaren ahozkerak ez da bat ere erreza «Grupo Foniko»aren barruan ez bada.

Euskera, atzizkibidezko hizkuntza bat dugunez gero sarri gertatzen dira ergatibo eta guztizko fonema multzoak.

Herriak ez daki ez gramatikarik ez fonetkarik baina logika onez bideratu du ergatiboaren ahozkerak Ergatiboa bera galdu gabe.

Gaur ostera, batez ere gaztetxuak edo ikasten ari direnak herriak galtzen duen fonema gordetzen eta herriak gordetzen duena galtzen hasi dira baina hori ez da legezko. Konpara ditzagun adibideok:

Herriak: Nork daki hori? = «notaki ori?»

Gaurkoak!: Nork daki hori? = «nor daki ori?»

Hiztunon ohitura beti errezerak joatea da eta gaurko batzuk errezerak jo dute baina oker.

Beste alde batetik, eta hau azento edo entonazioarekin loturik doa, fonema guztiak ahozkatzen hasten bagara, herri-entonazioa aldatzen dugu eta hemen ere herri-bidetik urrundu egiten gara.

Beste hizkuntza batzuetan oso normala da idazkerak eta ahozkerak bereiztea, frantsesa eta ingelesa adibidez.

Euskeraren kasuan, itxaso zabal eta sakon bat dugu ahozkeraren mundu hau, baina nire ustez, ahal den neurrian errespetatu egin beharko litzateke

⁷ Irakaskuntza eta komunikabideetan ahalegin handia egin behar litzateke arlo honetan euskeraren erabilera erreztuteko.

jatorrizko ahozkeraren berezko laburketa bidez egin diren Grupo Foniko asko eta asko gogorregi egingo liratekelako literatura mailan ahozkatzean.

Hizkuntzaren prozesua Psiko-Fisiologikoa da eta bokale kordetan hasi eta ezpainerainoko guztiak zerikusi handia du gure hizkuntza mintzatuan. Horregatik ba, prozesu honen arabera, herriak bide zati bat behintzat eginik dauka eta bide horretan atzerakada fonetiko bat egiteak ez ete du mintzairaren bidea okertuko?

Hizkuntza komunikatzeko da eta gehienbat ahoz komunikatzen gara. Horregatik ba, euskera biziak iraungo badu, ahozkoa eta literaturazkoa, biak dira beharrezko bata bestearen osagarri.⁸

⁸ Bizkaiko hainbat herritan eman dut bide honen berri eta joera hau zabal dabilela esango nuke, «j» ozena edo gorra kenduz gero.

ZEBERIOKO FONEMA KONTSONANTIKOAK

AHOSKUNEA (-KO)

	Ezpainetako	Ezpain-hortzetako	Hortzetako	Bakar-hobietako	Goi-hobietako	Sabatuar eta sabaiko	Beloko	Glotsko
Leherkari Gorrak	p		t				k	
Leherkari Ozenak	b		d				g	
Sudurkariak	m				n	ñ		
Frikariak		f				y	(i)	
Frikariak Txistukariak					s	x		
Alfrikariak				tz		tx		
Saiheskariak					l	ll		
Dardarkari bak.					r			
Dardarkari esk.					rr			

AHOTS MOLDEA (-KARI)

TAULA FONETIKO-FILOLOGIKOA

	Ezpainetako		Ezpain-hortzetako	Hortzetako		Bizkar-hobietako	Goi-hobietako		Kalkuninalak irauliak	Sabai-aurreko		Sabaiako	Beloko		Ubulako	Glotisko	
	p	b		t	d		n	ɲ		ɲ	ɲ		ɲ	ɲ		ɲ	ɲ
Leherkariak																	
Sudurkariak																	
Arnasakariak																	
Frikariak																	
Frikari bist.																	
Afrikariak																	
Saioheskariak																	
Dardarhari bak.																	
Dardarhari ask.																	
- = GORRA																	
+ = OZENA																	

ETNO-IPUIN ETA ESAUNDAK

BERTSIO FONOLOGIKOA

1.1. Itargia-eguzkia eta mundua

Aldi beten, nosik ona estakigule, eguskie t' itargie andra-gixonak i sirean, da, Martiko idergibarriko gaulendien eguskie sartzamendire nos elduko daeola, badiñotzo eguskiek arrokeris beterik:

Ikustona Mundue, egunean baño egunean ederrago!

Bai, ikusiko etxoapa!

Ba, ori edertasun ori naure argi ta beroari esker dona gero!

Bai, eta ni naure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak etxopalio esetarako!

Ori entzun botzen ba se, asarratuten yako eguskie, artzean dau esku biepete txinger gori bere barruti ta plast! arpegi arpegire bototzesan txingerrok itargieri eta erreunes bete bekokitik okotzerañoko gustie. Untxe t'untxe be esaun daus aik erreunak, aitutea baño estao itargieri iderghi betea danean.

Baye, eguskie ain ikustauen berde, bildursartu inde egoan itargie eta karran asi yakon sein eguskiek e bearrestanen bat in.Eguskie orduen atzerikara gañetu

BERTSIO LITERARIO-ETIMOLOGIKOA

Aldi baten, nozik ona ez dakigula, eguzkia eta itargia andra-gizonak ei ziran, eta, Martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartzamendira noiz elduko dagoala, badiñotso eguzkiak arrokeriz beterik:

Ikusten dona Mundua, egunean baño egunean ederrago!

Bai, ikusiko ez joat ba!

Ba, ori edertasun ori neure argi eta beroari esker dona gero!

Bai, eta nire neure gaubetako iñontzari, ala, iñontzak ez jok balio ezertarako!

Ori entzun ba eutsan ba ze, aserretuten jako eguzkia, artzean dau esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi aurpegira bota eutsazan txingerrok itargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerañoko guztia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz areek erreunak, aitutea baño ez dago itargiari iderghi betea danean.

Baia, eguzkia ain ikusten euan berde, bildursartu eginda egoan itargia eta karran asi jakon zein eguzkiak e bear ez danaren bat egin. Eguzkia orduan atzeri-

yakon mirue arrari letxe eta odolak ur eiteko gitxien faltan.

Yoan da yoan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, ta ilbera gustien erago-yon eguskiek itargie kuxetan.

Itargien arnasestue eta magalotza iños ikusi bakoak sirean eta bere burue olan ikusirik badiño berekitan: gesubeten gainetu bea yatak eguski armin kokorio ori, baya etxok o berea ingo lelengoa!

Eguskie orpoetan ar bari(k)tx(y)oakon atzerikara eta ogeta sortzigarren egunean ie ie kuxau inik aukela, estotzo itargiek e bere burua gordetan!

Eguskiek orduen, susien, aurreak artutzesan da egunetxoan egunek etorri, itargie atzerikara ikustauen eta badiño bere artean: burue non gorde yostan baño estok orrek andra galerorrek!

Orduen, atzera in esin auen les, arin eragoyon eragon be itargie barriri atzerikara kuxetako d, orretarako denodu gustiegas eta inisitue baño arinago ibilite be, beste ogeta sortzi egun bear ixin ausen, baye itargiek ostera be bere burue gorde, batepaki non!...

Gaur be undiño or yabikus eguski-itargiok bata bestearen atzean, egunes beroa ta gaubes iñontza dariola.

1.2. Gaueko argi ibiltaria

Martin Astondoa ixin sen e albañil bat, da obra bat akabau Dimen da, etorri sen Billarora. Billaron bixi sen eta kamiños Iorreti bueltea in barik, etorri sen basos, San Roketi gora. Eta segitotzen argi betek eskoi alderditi.

kara gainetu jakon mirua arrari letxe eta odolak ur egiteko gitxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, ilgora, idergi bete, eta ilbera guztian eragoion eguzkiak itargia kogi(du)etan. (gast. cogiendo)

Itargiaren arnasestua eta magalotsa iñoiz ikusi bakoak ziran eta bere burua olan ikusirik badiño berekitan: gesu baten gainetu bear jatak eguzki armin kokorio ori, baia ez jok o berea egingo lelenengoa!

Eguzkia orpoetan ar barik joakon atzerikara eta ogeita zortzigarren egunean ia ia kogidu eginik eukala, ez deutso itargiak e bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak artu eutsazan eta egunak joan egunak etorri, itargia atzerikara ikusten euan eta badiño bere artean: burua non gorde jaustan baiño ez dok orrek andra galera orrek!

Orduan, atzera egin ezin euan lez, arin eragoion eragon be itargia barriri atzerikara kogiduteko eta, orretarako denodu guztiagaz eta inizitua baiño arinago ibilita be, beste ogeita zortzi egun bear izan euazan, baia itargiak ostera be bere burua gorde, batek badaki non!...

Gaur be oraindiño or jabilkuz eguzki-itargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gauez iñontza dariola.

Martin Astondoa izan zan e albañil bat, eta obra bat akabau Diman eta, etorri zan Billarora. Billaron bizi zan eta kamiños Igorretik bueltea egin barik, etorri zan basoz, San Roketik gora. Eta segi(du)etan eutsan argi batek eskoe alderditik.

Da Billaron elexaurreti bueltea in barik, ba, yoan san elesportaleti artes, da, elesportalean agartu yakon barrerandi bet, d'esin pasau, t'atzera buelta in bear.

Ta bueltea in auen orduen atzera yoan san Dimerara, d'argiek bardin segitotzen eskerretik orduen. D'atzera Iyorreti bueltea in, da kamiñios, oñes, sartu sen Billarora elesportalera eldu barik. Da yoan san bere etzera.

1.3. Muskerrari bildurra

Bildurre beti ixin dotzu muskerrari da auki be in in bear se entzuten gainduse-nak entzunde e(s) san gitxiagorako.

Aituek eta esatoskun batzutan samara itauela sailtu da besto batzutan ankati be igoyal goatu te soltau ixin arik eta sasperriten kanpayatxo arteño.

Onek (g)ure amak e baten Larramendiko basoan ida batzean gaosela ida aspelari aspiti goatu otzenez da muskerra esku artean kuxau, onepota yoan grillistue, gorputzean be pipiladurea urtenda egoan.

Gaur u surok o in estauela eser iten esatosue baye ni nauk egun argis apartau gurago ta doasela auren bideti.

Sapoape, txarratirelakoan tragau te sotzean eskegiten gaindusen, gaur barres es i daurie kalterik iten, notxakin orri(k) kontuok.

1.4. Larrabotiko abemariak

Gaubiluntzetan, or o aimareak ingu-

Eta Billaron eleiz aurretik bueltea egin barik, ba, joan zan elezportaletik artez, eta, elezportalean agertu jakon barrera andi bat, eta ezin pasadu, eta atzera buelta egin bear.

Eta bueltea egin euan orduan atzera joan zan Dimara, eta argiak bardin segiduten eutsan ezkerretik orduan. Eta atzera Igorretik bueltea egin, eta kamiñoz, oiñez, sartu zan Billarora elezportalera eldu barik. Eta joan zan bere etxera.

Bildurra beti izan deutsugu muskerrari eta euki be egin egin bear ze entzuten genduzanak entzunda ez zan gitxiagorako.

Aituak eta esaten euskun batzutan samara egiten euala saltu eta beste batzutan ankatik be igual goratu eta soltadu ezin arik eta zazpi erritan kanpaiak jo arteraiño.

Onek gure amak e baten Larramendiko basoan ida batzean gagozala ida aspelari azpitik goratu eutsanean eta muskerra esku artean kogidu, onek bota joan grillistua, gorputzean be pipiladurea urtenda egoan.

Gaur u zuok o egin ez dauala ezer egiten esaten dozue baia nik neuk egun argiz apartadu gurago eta doazela euren bidetik.

Sapoak be, txarrak diralakoan tragadu eta zotzean eskegiten genduzan, gaur barriz ez ei daudie kalterik egiten, nok jakin orreek kontuok.

Gaubiluntzetan, or o abemariak ingu-

ruen, karrakaldoak ikusteire etze inguruti te orduen esaten du Larrabotiko aimareatirela.

Fijo estakipaye, antza Larrabotin es i de iñongo aimarearik entzuten, iñongo kanpaiotzik eta orduen, tertzio orretan karrakaldoatosen letxe, orrik i dire ango aimareak. Larraboti isin be basoan barrure dao, uin kamiñoa be badauko baye eta erris Artea partea da.

1.5. Azagarria eta txakurra

Baten ba, an tejamana bastarrean txakolin da sagardo barrikak edo upelak ote sirean da batzuk u etexureko ure artzeako erabilten sirean.

Da ba olango gaube erresu beten, idergeri beteà ixin i sen ixin be, ba aimareatxo ta urrin barik, asagarien bat ebilen seguru tejamana ta ollategien arrimuen, busten ori arro-arro dauela uskaie agirien, da ba ullorik ikusi es edo ta labe ganera in i auen sailtu te, estau ukusten ba upel baten talo eder bat!

D'ene, sailtu in labe ganeti te birriten pentzau barik i PLAST! barrika-urera yausi sen da es talo es talondoko.

Aalegin gustiek ite i ausen urtetako baye esin seguru, d'urrumape gero tandiangoak iten i ausen da, ba, alangonbaten txakur ausiepe entzun sirean da ango txakur malesi bako bape gañetu yakon ondora ser dan edo estan yakin gurean.

Asagariak aginotzean eragoion da txakur orrepe an seoser daoelakoan edo badoa ta non diñotzon asagariak:

-I, ator, talo eder batxaok emen d'erdie yan yoat eta itzako be bayaok, sailtu ik ona barrure t'ikusikok selango tripekadea!

ruan, kakarraldoak ikusten dira etxe ingurutik eta orduan esaten dogu Larrabotiko abemariak dirala.

Fijo ez dakit baia, antza Larrabotin ez ei da iñongo abemariarik entzuten, iñongo kanpaiotsik eta orduan, tertzio orretan kakarraldoak datozen letxe, orreek ei dira ango abemariak. Larraboti izan be basoan barrura dago, orain kamiñoa be badauka baia eta erriz Artea partea da.

Baten ba, an tejamana bazterrean txakolin eta sagardo barrikak edo upelak egoten ziran eta batzuk u etexureko ura artzeako erabilten ziran.

Eta ba olango gau errasu baten, idergeri beteà izan ei zan izan be, ba abemariak jo eta urrin barik, azagariren bat ebilen seguru tejamana eta ollategian arrimuan, buzten ori arro-arro dauala uzkaia agirian, eta ba ollorik ikusi ez edo eta labe ganera egin ei euan saltu eta, ez dau ikusten ba upel baten talo eder bat!

Eta ene, saltu egin labe ganetik eta birritan pentzadu barik i PLAST! barrika-urera jausi zan eta ez talo ez talondoko.

Aalegin guztiak egiten ei euazan urtetako baia ezin seguru, eta urrumak be geroago eta andiangoak egiten ei euazan eta, ba, alangoren baten txakur aausiak be entzun ziran eta ango txakur malezia bako bat be gainetu jakon ondora zer dan edo ez dan yakin gurean.

Azagariak aginotzean eragoion eta txakur orrek be an zeozer dagoalakoan edo badoa eta non diñotzon azagariak:

-I, ator, talo eder bat jagok emen eta erdia jan joat eta iretzako be bajagok,

Txakur orrek e sailtu in i auen da ur txirripistadartean asagarie kanpora ta bera barruen lotu, kokorioa alangoa. Da gero es talorik es eser. Txakur ori urrungo goxean atera i audien lau ankan oteko gausestala anka puntak a kiputute gustis otzan otzagas.

1.6. Martxanderak

Selan esangotzupa nik, orrik i martxanderak andraskoak ixite sirean de emen Arratien feriek ite sirean da orrik i ba ollo, ollasko, ollanda ollar d'arraztat eta saltzean ibilte sirean gusurre t'abarra dariola.

D'aurek es audiesan etzean asten en jeneral, emeti, etzerik etze ibilte sirean erosten gero ferien saltzeako.

Arrautzak eta batzeako, otzarakas etorte sirean da emen dosenerdi or besterdi ba bete itaudien.

Gupe, saltzean gauntzesan, egoanean yakine, se batzutan olla-lokeari esarteko imini bea yakosela edo yan be in bea sireala edo kareatan sartu, ba sarriten eskaunken auki be .

A! ori kareatan sartzea diñostesu? Ba bai, or o udebarrien arrautza ugeriago oten san da ba saldu in bearrean kareatan santzean gaindusen urterako edo gitxiago yayoten direanerako ser yan aukiteko.

Suk u estaikitxakingosun baye lenago karobietan karea iten gaindun, bai, in sulo batzuk kontra-terrenoan da sulo bat kanpora dauela, da gero karea-arriekas arketa bat in de goraiño bete karearriekas. Gero bean otegurrekas da su bisie in

saltu egik ona barrura eta ikusiko dok zelango tripekadea!

Txakur orrek e saltu egin ei euan eta ur txirripistada artean azagaria kanpora eta bera barruan lotu, kokorioa alangoa. Eta gero ez talorik ez ezer. Txakur ori urrungo goizean atera ei eudien lau ankan egoteko gauza ez dala anka puntak a kipututa guztiz otzaren otzagaz.

Zelan esango deusut ba nik, orreek i martxanderak andrazkoak izaten ziran eta emen Arratian feriak egiten ziran eta orreek i ba ollo, ollasko, ollanda ollar eta arrautzat eta saltzen ibiltzen ziran guzurrira eta abarra dariola.

Eta eurak ez eudiezan etxean asten en jeneral, emetik, etxerik etxe ibiltzen ziran erosten gero ferian saltzeko.

Arrautzak eta batzeko, otzarakas etorten ziran eta emen dozenerdi or beste erdi ba bete egiten eudien.

Guk be, saltzen geuntsazan, egoanean jakina, ze batzutan olla-lokeari ezarteko imini bear jakozala edo jan be egin bear zirala edo kareatan sartu, ba sarritan ez geunkan euki be.

A! ori kareatan sartzea diñostazu? Ba bai, or o udabarrian arrautza ugariago egoten zan eta ba saldu egin bearrean kareatan sartzan genduzan urterako edo gitxiago jaioten diranerako zer jan eukiteko.

Zuk u ez daikit jakingo dozun baia leenago karobietan karea egiten gendun, bai, egin zulo batzuk kontra-terrenoan eta zulo bat kanpora dauala, eta gero karea-arriekaz arketa bat egin eta goraiño

de dana surituten sanean karea biurtuten san.

Gero ori kare ori solorako ta ixiten san, gause askotarako. Da ba olango kare bisie autz inde botaten gaindun bidoi batera da ure ganeti dala an barruen arrautzak e kontus kontus sartu d'an kontzerbetan yakusen.

Txarrena, ba, sarriten bapaño geao apurtu be iten yakun aterakeran, baye tire, esegoan beste modurik eta konformau in bear.

Karea ostaintxean, karabi frantzesatan be iten san, orritan beste sistema bat erabiltesan, sera, kapa bat arri te kapa bat iketz edo egur d'olan, da ba ines ines yoate sana bieti atera ite san baye etzan ain karea garbie, iketz edo egur errean idurie nastaute aukitauen da. Solorako es auen inporta. Baye arrautzak sartzeako ta orretarako karea garbie bear ixite san.

Oin i estu iten baye karabi suloak etze inguru gustietan daos, ortxe daukosus untxe be Kurtzebarriko kurban edo Isisi ganeko jitanuen lekuen ikusi gure bosus, frantzes gure bosu an daukosu Etzebarri t'Albitzu bitartean, piñudien.

1.7. Bedeinkaziñoak

Lenao dana san bereinkasiñoa, edosein lekuteti ikusten sirean parte txarrekoak eta.

Danakas eñatzu akordau be ingo baye aikomensan banaka batzuk baligo botzue.

Berinkasiño batzuk u abadeak botatausen. Esaterako batzutan abadea soloa(k)-p(b)ereinkituten ibilte san tontorri(k) ton-

bete karearriekaz. Gero beean otegurrekaz eta su bizia egin eta dana zurituten zanean karea biurtuten zan.

Gero ori kare ori solorako eta izaten zan, gauza askotarako. Eta ba olango kare bizia auts eginda botaten gendun bidoi batera eta ura ganetik dala an barruan arrautzak e kontuz kontuz sartu eta an kontzerbetan jakuzan.

Txarrena, ba, sarritan bat baño geiago apurtu be egiten jakun aterakeran, baia tira, ez egoan beste modurik eta konformadu egin bear.

Karea osterantzean, karobi frantzesetan be egiten zan, orreitan beste sistema bat erabilten zan, zera, kapa bat arri eta kapa bat ikatz edo egur eta olan, eta ba eginaz eginaz joaten zana beetik atera egiten zan baia ez zan ain karea garbia, ikatz edo egur errearen iduria naastaduta eukiten euan eta. solorako ez euan inporta. Baia arrautzak sartzeko eta orretarako karea garbia bear izaten zan.

Orain i ez dogu egiten baia karobi zuloak etxe inguru guztietan dagoz, ortxe daukazuz oraintxe be Kurtzebarriko kurban edo Isasi ganeko jitanuen lekuan ikusi gura badozuz, frantzes gure badozu an daukazu Etzebarri eta Albitzu bitartean, piñudian.

Leenago dana zan bedeinkaziñoa, edozein lekutatik ikusten ziran parte txarrekoak eta.

Danakaz ez niatzu akordadu be egingo baia aikomenzan banaka batzuk balio ba deutsue.

Bedeinkaziño batzuk u abadeak botaten euazan. Esaterako batzutan abadea

tor d'on badaos ipuinepe deabruenak, ori Juanita ausokoape kontautzu, eñoatzu barriro kontetan.

Berinkituten elexara be eroaten gaindusen San blasetan eskapulario, yanari t'olangoak, kandelape bai. Gero Erramu egunean ereñotza, Santa Kurtzetan arantzak eta olango gausak.

Setako sirean? ba bitixu, ure edaten bagaindun «Jesus» esanasoten auskuen, elexan egurdiko amabietxo eskero, soloan egonda be txapela kendu t'angelus erresau, iluntzean aimareak, elexakoak a paseta sireanean belaunikotu. D'untxe akordau yat, ba baten bat seguru elexakoak a pasau te es i sen belaunikotu te kondenau in i sen lepoan ekarren karga ta gusti, itargien i dao kondenaute.

Arrausi iten danean be kurtzeak in bea dire agoan, domistiku in orduen «domistiku» esan beada.

Odaiek indertzu daragoionean, kandela berinkitue ixitu bea da ta ereños bereinkitue erre surten.

Txal ba(t)tx(y)ayo t'urrungo barikuen kandelanegar berinkituegas lepoan iru kurtze iten yakosan odaien gaxorako.

Baten bat ilten danean be kandela berinkitue t'ereños berinkitue iminten yakos begiran daoen bitartean.

Geao be ongo dires baye danakas akordetan be esta fasile, baye gaur baño siñismen geao egoan gure denporan, oin u errosarioripe estosue erresetan surok.

Gure denporan, mesatik aparte, nobenak, mayatzeko lorak,errogatibak, ejersioak, paskoaskoagas betetea, konfesau, gure jaune artzeako barauritxoan bear eta estal(t) seinbe(t)k(g)ausa geao.

soloak bedeinkatuten ibiltan zan tontorrik tontor eta egon badagoz ipuinak be deabruarenak, ori Juanita auzokoak be kontadu deutsu, ez nioatzu barriro kontetan.

Bedeinkatuten eleizara be eroaten genduzan San Blasetan eskapulario, janari eta olangoak, kandelak be bai. Gero Erramu egunean ereñotza, Santa Kurtzetan arantzak eta olango gauzak.

Zertarako ziran? ba begiratu egizu, ura edaten bagendun «Jesus» esanazoten euskuen, eleizan eguerdiko amabiak jo ezkerro, soloan egonda be txapela kendu eta angelus errezadu, iluntzean abemariak, eleizakoak a pasetan ziranean belaunikotu. Eta oraintxe akordadu jat, ba baten bat seguru eleizakoak a pasadu eta ez ei zan belaunikotu eta kondenadu egin ei zan lepoan ekarren karga eta guzti, itargian ei dago kondenaduta.

Aarrausi egiten danean be kurtzeak egin bear dira aoan, doministikun egin orduan «domistiku» esan bear da.

Odeiak indartsu daragoionean, kandela bedeinkatua izitu bear da eta ereñotz bedeinkatua erre surten.

Txaal bat jαιο eta urrengo barikuan kandelanegar bedeinkatuagaz lepoan iru kurtze egiten jakozan odeiaren gaixorako.

Baten bat ilten danean be kandela bedeinkatua eta ereñotz bedeinkatua iminten jakoz begiran dagoen bitartean.

Geiago be egongo dira baia danakaz akordetan be ez da fazila, baia gaur baño siñismen geiago egoan gure denporan, orain u errosariorik be ez dozue errezetan zuok.

Gure denporan, mezatik aparte, nobenak, maiatzeko lorak,errogatibak, ejerzizioak, paskoazkoagaz betetea, konfesadu, gure jauna artzeako baraurik joan bear eta ez dakit zeinbat gauza geiago.

Parte bateti aitute penea da onikausok (g)altzea baya on iteko gaurbe badao lekue in gure bada mesara ta yoan es arren be.

Ai! ori arantzana setako? Ba, or Santa Kurtzetan arantzak edo elorriek berinkituten sirean elexan da gero olango erromatxu bakotxa solo bakotxean sartu soloa berinkitu te koxitza ona artzeako. Erromatxu bakotxari kurtzetxu bet iten yakon, San Juan aratxari moduen. Polite ixiten san ori, erri gustie arantzas beterik elexan.

Ai, etxoisu, beste istori bepe bayator(t) k(g)ogora, serana, gariak e selan kentzean direan, gariak e gorputzekoak, es soloakoak.

Ba olan e batzuk u gari asko aukiten daurie arpegi, esku edo beste edosein lekuten. Da ba asko gixon edo andra or ibilten da medikurik mediku edo kuranderuekas gariok osatuten. Baye ni nauk e badakit i beste erremedio bat eta iños probau be in dot eta ondo urten.

Ba ori erremedioa auxe yatzu: iguskiek erre bako si-bedar bat artu, ukutu aregas osatu gure dan garie, saurea edo beste batena, da gero in erresu bet eta sekretoan enterrau ainbaten si-bedar ori, da osatu iten i de. Oin, esta bape fasile iguskiek erre bako si-bedar punta ba(t) topetea, geyenak erreta oten dire.

Gero beste bat e, je-je-je! ba begiko txindorra ta eperdiko saldarra yakingosu segaiti agartuten direan esta? Ba baten bateri eperdie ikusi otzesuleko, orduen ba erremedioa eperdirik es ikustea. Ba au dala ta estakisu suk selango lotzarie pasetan gaindun begiko txindor eta eperdiko saldarragas !Bagenkien ori gusurre dana baye!

Parte batetik adituta penea da oneek gauzok galtzea baia on egiteko gaur be badago lekua egin gura bada mezara eta joan ez arren be.

Ai! ori arantzena zertarako? Ba, or Santa Kurtzetan arantzak edo elorriak bedeinkatuten ziran eleizan eta gero olango erromatxu bakotxa solo bakotxean sartu soloa bedeinkatu eta kogitza ona artzeko. Erromatxu bakotxari kurtzetxu bat egiten jakon, San Juan aritzari moduan. Polita izaten zan ori, erri guztia arantzaz beterik eleizan.

Ai, itxaron egizu, beste istoria bat be badatort gogora, zerarena, gariak e zelan kentzen diran, gariak e gorputzekoak, ez solokoak.

Ba olan e batzuk u gari asko eukiten daudie aurpegi, esku edo beste edozein lekutan. Eta ba asko gizon edo andra or ibilten da medikurik mediku edo kuranderuekaz gariok osatuten. Baia nik neuk e badakit i beste erremedio bat eta iñoiz probadu be egin dot eta ondo urten.

Ba ori erremedioa auxe jatzu: eguzkiak erre bako ziri-bedar bat artu, ikutu aregaz osatu gura dan garia, zeurea edo beste batena, eta gero egin errezu bat eta sekretoan enterradu ainbaten ziri-bedar ori, eta osatu egiten ei da. Orain, ez da bat be fazila eguzkiak erre bako ziri-bedar punta bat topetea, geienak erreta egoten dira.

Gero beste bat e, je-je-je! ba begiko txindorra eta eperdiko zaldarra jakingo dozu zergaitik agertuten diran ezta? Ba bateren bateri eperdia ikusi deutzazulako, orduan ba erremedioa eperdirik ez ikustea. Ba au dala eta ez dakizu zuk zelango lotsaria pasetan gendun begiko txindor eta eperdiko zaldarragaz! Bagenkian ori guzurra dana baia!

Lentxuago arantzan berinkasiñoa aititu otzut u baye arantzea edo askotan baso larrosea ixiten san, ba estzemea edo ori narru-asaleko gaxoa kentzeako, ba esan dotzudena, or arantza edo baso larrosan eskegiten sirean amabi barakarro t'auki sikitu arte.

Gero sorginkeriepe ite sirean besto batzutan. Ba bitixu, baten kontau osten Simon defuntuek e ba odaie berde ebilen baten, entzutea daukola ta, etxakon besterik akordau an tejamana sarrean topau auen kirikiñolas bat artu te suteko lebean sartzea baño, odaie kalmetako ona dala ta.

Da, kirikiñolatz ori an itxite yoan san seguru ganaduek gobernetan da ba andik lasterrera etzeko gustiek e usainke, se atz edo kirezta e daoen, da ba sabaltan daurie txapako labe ori te an seoser kiskeldute. Se ete dan, es ete dan, da alangonbaten bator Simon da ene! b'auxe t'auxetarako in dot, diseke-tako, baye gustis erre yata. D'an akabau sirean kirezta. Akordau be iñon danik i gixonari e!

Estakipa au gurixin dosun, berinkasiñoakas asi ñatzu te uin erremedioakas akabau. Lastimea, ni nauk u kontu asko dakides baye akordau es.

Untxe be, auxe albo-agin onen tabarrea dala ta beste kontu bepe bururatu yat, ori sagusarrana.

Ba ume bateri esne-agin betxausten yakonean etxe edo tejamana edo txabola bateko tellature bota bea da agin ori ta kanta ba(t) kantau sagusarrari barri bet ekarteko. Kantea auxe da, ori saupe yakingosu, akordau etzara ingo baye solisoli kantetan sauntzen su(k) saupe sagusarrari txikiten:

Leentxuago arantzen bedeinkaziñoa aitatu deutsut u baia arantzea edo askotan baso larrosea izaten zan, ba eszemea edo ori narru-azaleko gaxoa kentzeko, ba esan deuntsudana, or arantza edo baso larrosan eskegiten ziran amabi barakarro eta euki sikatu arte.

Gero sorginkeriak be egiten ziran beste batzutan. Ba begiratu egizu, baten kontadu eustan Simon defuntuak e ba odeia berde ebilen baten, entzutea daukala eta, ez jakon besterik akordadu an tejamana zaarrean topadu euan kirikiñolatz bat artu eta sueteko lebean sartzea baño, odeia kalmetako ona dala eta.

Eta, kirikiñolatz ori an itxita joan zan seguru ganaduak gobernetan eta ba andik lasterrera etzeko guztiak e usainka, ze ats edo kirats e dagoan, eta ba zabaltan daudie txapako labe ori eta an zeozer kiskalduta. Zer ete dan, ez ete dan, eta alangoren baten badator Simon eta ene! ba auxe eta auxetarako egin dot, diseke-tako, baia guztiz erre jat. Eta an akabadu ziran kiratsok. Akordadu be iñon danik i gixonari e!

Ez dakit ba au gura izan dozun, bedeinkaziñoekaz asi niatzu eta orain erremedioekaz akabadu. Lastimea, nik neuk u kontu asko dakidaz baia akordadu ez.

Oraintxe be, auxe albo-agin onen tabarrea dala eta beste kontu bat be bururatu jat, ori saguzarrarena.

Ba ume bateri esne-agin bat jausten jakonean etxe edo tejamana edo txabola bateko tellatura bota bear da agin ori eta kanta bat kantadu saguzarrari barri bat ekarteko. Kantea auxe da, ori zeuk be jakingo dozu, akordadu ez zara egingo baia zoli-zoli kantetan zeuntsan zuk zeuk be saguzarrari txikitan:

«Sagusarra
autzi agin sarra
ekartesposu barrie
sagusarra buruandie»

«Saguzarra
eutsi agin zaarra
ekarten ez badozu barria
saguzarra buru andia»

1.8. Azeguna

Gaur aseguneri etxako inportantzi andirik emoten baye lenaoko denporatan d'uin be bai askok, inportantzi andie emoten yakon.

Inportantzie auken bates be, txarrie ilteko, asiek eraiteko eta arbola(k)p(b)otateko.

Txarrie ilteko asegune, lelengo egun otza ta gero idergieri beituden yakon. Asegunik onenak ilberako urrungo egune eta sar-barri artea, sar-barri artea da sarra akabau da barrie asten dan egune. Menguanteak a danak onak, menguanteari «ilbera» esaten yako. Idergie barris asten dan orduen «ilgora». Ilberan odola motelago oten da.

Arbolapotateko asegune, neguen ilberan. Ilberan arbolak ur gitxiago daukie eta sitze gitxiago gañetuten yakie.

Altzak a botateko asegunik onena maiatzeko idergi barrien. Orduen ebagikoak es i ditu zitzepe yaten, ori i sen ona errotarrientzat eta.

Asiek eraiteko asegune ilberan, eta gitxiago silduten dire eta gitxiago garatu, ori gauk ukusten du.

Ilberan iten dauen edurre esoa eta ugerie isiten da eta idergi barrikoa ostera sikuagoa eta otzagoo, ilberakoo baño gasginagoa.

1.9. Gizonaren edadea

Askotan esaten gauntzen sarrari ia gi-

Gaur azegunari ez jako inportantzia andirik emoten baia leenagoko denporatan eta orain be bai askok, inportantzia andia emoten jakon.

Inportantzia eukan batez be, txarria ilteko, aziak ereiteko eta arbolak podetateko.

Txarria ilteko azeguna, leenengo egun otza eta gero idergieri begituden jakon. Azegunik onenak ilberako urrungo eguna eta zaar-barri artea, zaar-barri artea eta zaarra akabau da barria asten dan eguna. Menguanteak a danak onak, menguanteari «ilbera» esaten jako. Idergia barriz asten dan orduan «ilgora». Ilberan odola motelago egoten da.

Arbolak botateko azeguna, neguan ilberan. Ilberan arbolak ur gitxiago daukie eta sitsa gitxiago gaiñetuten jakie.

Altzak a botateko azegunik onena maiatzeko idergi barrien. Orduan ebagitakoak ez ei ditu sitsak be jaten, ori ei zan ona errotarrientzat eta.

Aziak ereiteko azeguna ilberan, eta gitxiago zilduten dira eta gitxiago garatu, ori geuk ikusten dogu.

Ilberan egiten dauan edurra ezoa eta ugaria izaten da eta idergi barrikoa ostera sikuagoa eta otzagoo, ilberakoo baño gazginagoa.

Askotan esaten geuntsan zaarrei ia gi-

sonak a seinbet urte bisi direan, da auxe arantzuten oskuen: «Gizonak, iru saldialdi; saldiak, iru txakurraldi; txakurrak, iru esialdi; esiek, iru urte».

Kontuek atetea baño estaukosu: esiek iru urteko bisie badauko, txakurrek e bedratziko, saldiek ogeta saspikoa, da gixonak e larogeta batekoa.

1.10. Gorrotobako haserreak

Asarrea goraberan ser dakitzuden? Ba, ausonatan naikoa san asto batek artaburu be(t)tx(y)atea edo olloak auso-koan galondoan sartzea edo basoan auntzek arbolan baten asala suritea ba asarratuteko, da es berbakas bakarrik, iños onik i bero antzak a lepora be bai gañetu deskuidau eskero.

Baye, amigo de Dios! etzean baten esbearren bat edo ilte bat e sugertetan sanean, orduen lelengo be igoal laguntan edo errosarioa errestan, edo lorra iten.

Bitixu norañokoa san au kontu au, ba baten or bateri, usena enoatzu esaten, gitxiena da ta, baltzitu arteñokoak emon otziesan karlistak eta gaulendien katuke ta al da(n) moduen allegau sen etzera.

Da klaro, oiratu audien da medikuari esaten be bildur, da ba ogetaka egunek in ausen oiti yagi barik odol malauriek garbitu, odol batuak argitu ta sayetz apurtuek osatu arteño.

Da ba alangonbaten, bera yo audienetariko bat il in sen da ori gison ori yoan in sen entierrez, d'ori bakarrik es, mesea atera be bai genero.

Da, ba orduen beste bere nasionalista lagun betek esan i otzen:

– I, urlie, ixena enoatzu esaten ondiño-karren familie bisi dau te, entierrez yoa-

zonak a zeinbat urte bizi diran, eta auxe arantzuten euskuen: «Gizonak, iru zaldialdi; zaldiak, iru txakurraldi; txakurrak, iru esialdi; esiak, iru urte».

Kontuak ateratea baño ez daukazu: esiak iru urtetako bizia badauko, txakurrak e bedratziko, zaldiak ogeita zazpi-koa, eta gizonak e larogeta batetako.

Aserreen gorabeeran zer dakitzudan? Ba, auzonetan naikoa zan asto batek artaburu bat jatea edo olloak auzokoaren galondoan sartzea edo basoan auntzak arbolaren baten azala zuritutea ba aserretuteko, eta ez berbekaz bakarrik, iñoiz oneek i bero antzak a lepora be bai gañetu deskuidadu ezkerro.

Baia, amigo de Dios! etxeren baten ezbearren bat edo ilte bat e sugertetan zanean, orduan leenengo be igual laguntan edo errosarioa errezetan, edo lorra egiten.

Begiratu egizu norañokoa zan au kontu au, ba baten or bateri, izena ez noatzu esaten, gitxiena da eta, baltzitu arteraiño-koak emon eutsiezan karlistak eta gaulendien katuka eta al dan moduan allegadu zan etxera.

Eta klaro, oeratu eudien eta medikuari esaten be bildur, eta ba ogeitaka egunak egin euazan oetik jagi barik odol malauriak garbitu, odol batuak argitu eta saietz apurtuak osatu arteraiño.

Eta ba alangoren baten, bera jo eudienetariko bat il egin zan eta ori gizon ori joan egin zan entierrez, eta ori bakarrik ez, mezea atera be bai genero.

Eta, ba orduan beste bere nazionalista lagun batek esan ei eutsan:

teagas be naiko in dok eta mesea be atera in dotzepa?

- Bai, ara, -erantzun i otzen-, personea il baten baño estok iten bai, te, ni nau goiti beiti estaiela auki beste mundureko bidean enberasurik. Asarrea do(k)p(b)at eta gorrotoa beste bat, mendiek etxauriek aukiten batabestearen bearrisanik, gixonak ostera bai, se ingotzepa, danak orrilangoak ixin eskero bixi be esingo gaintikosak ein, yosteko be ariek e orratzapaño luseagoak isin beayok, ara-ara, daoela seruen, oin i gausak a kanbiau in dosak eta danak emoten yostiek erresoia. Etxoat es ondo pasau baye tire, esakereatiñok: «egiek (g)usurreri yarrite etxoten dotzela», d'alantxi dok isin be. Baye, gorroto-rik es, orixe bai esetz, lenao moro!

Bai gizona, orixe in auen seguru. D'olango kontuek asko pasau dire, oin danakas akordetan be estao fasil, baye, tire, isentasiñorako beste kontautzut.

1.11. Santa Agedak

One(k) sante onek inder andie auki dau gure errien, usedioa ba alosokoa, bates be umeak eta kintoak, aurrerantzako kinto-lagunek.

Goxean goxeti urtetaudien, geienetan elbarrenetik eta gorantza gorantza etorte sirean.

Da gero ba or egurdartekoa in orduen baskaldu itaurien baten baten etzean, ostera be ekiteko arrasti gustien ergoieneraño allegau arte.

- I, urlia, izena ez noatzu esaten orain-diñokarren familia bizi dau eta, entierrura joateagaz be naiko egin dok eta mezea be atera egin deutsak ba?

- Bai, ara, -erantzun ei eutsan-, perso-nea il baten baño ez dok egiten bai, eta, ni neu goiti beiti ez dagiala euki beste mundurako bidean enberazurik. Aserrea dok bat eta gorrotoa beste bat, mendiak ez jaudiek eukiten batak bestearen bearrizanik, gizonak ostera bai, ze egingo deutsak ba, danak orreek langoak izan ezker o bizi be ezingo gaintikozak egin, josteko be ariak e orratzak baño luzeagoak izan bear jok, ara-ara, dagoala zeruan, orain i gauzak a kanbiadu egin dozak eta danak emoten jaustiek errezoia. Ez joat ez ondo pasadu baia tira, esakereak diñok: «egiak guzurrari jarrita itxaroten deutsal», eta alantxe dok izan be. Baia, gorroto-rik ez, orixe bai ezetz, leenago moro!

Bai gizona, orixe egin euan seguru. Eta olango kontuak asko pasadu dira, orain danekaz akordetan be ez dago fasil, baia, tira, izentaziñorako beste kontadu deutsut.

Onek santa onek indar andia euki dau gure errian, usadioa ba alosokoa, batez be umeak eta kintoak, aurrerantzako kinto-lagunak.

Goizean goizetik urtetan eudien, geienetan elbarrenetik eta gorantza gorantza etorten ziran.

Eta gero ba or egurdartekoa egin orduan baskaldu egiten eurien baten baten etxean, ostera be ekiteko arrasti guztian ergoieneraño allegadu arte.

Santageda, isin, sesailean bostean da baye kantau lauen iten da. Elixan be kanpabuelatoko ta gusti yoten oskuesan.

Da ba kantoreak a aurrezdiak aukiesan auren makillak eta prest. Al auenak gorostiskoa, besto batzuk gastañaskoa be bai, yakine, sainbet eta egur gogorragoa obeto, bakixu, orrik i kintoak a sasoya aukien ba makala! Batzuk u txilinepe imintiotziesan edo kaskabelak. Aurepe dotore planteta sirean atxineko burrugas, abarka-medien, garrikoa, samako pañelue, txapela, patxadas atondute.

Da, ba, or ibiltan yakusen etzerik etze, dirue, solomoa, arrautzak, lukainkak, edo batepaki se batzean gero errepartoa iteko.

Gaur u errespetoa be lardangañe galdu de baye orduen e begoan bai on be errespetoa. Bitixu, ba, etze baten ateatxoten situesanean, kantore aurrelariak e beti esatauen:

– Santageda kantau ala erresau ingu?

Da, ba, etze bakotxean a segun selan daosen, ba erresetako be igoal esaotzien, bates be il-barrien bat edo egon eskero, edo etzean baten ba(t)k(g)axorik. Da kantau sain erresau, aginaldoa bardine isiten san. Otzarape politek eroaten audiesan, simentzeskoak edo siekas inekoak.

Kantea lusea ixiten san. Santagedan bisitzea dana kantetan san, es uingo moduen, oin i gente asko bai baye kantea laburre, d'askotan Santagedan bisitzea barik i beste seoser be igoal.

Oin, len be, Santagedan bisitzatik aparte, ite sirean in beste kanta batzuk. Esate baterako, ba, aginaldoa be ba alosokoa isin daiten, ba, selango etzea alango bertzoa botatauriaren asikeran. Yakine, etze bakotxean nor san estimeduena, ba arexeri. Batzuetan, etzeko usabari, beste ba-

Santa Ageda, izan, zezeilean bostean da baia kantadu lauan egiten da. Eleizan be kanpabuelatoko eta guzti jotan euskuezan.

Eta ba kantoreak a aurrezdiak eukiezan euren makillak eta prest. Aal euanak gorroztizkoa, beste batzuk gaatañazkoa be bai, jakina, zeinbet eta egur gogorragoa obeto, badakizu, orreek i kintoak a sasoiak eukien ba makala! Batzuk u txilina be iminten eutsiezan edo kaskabelak. Eurak be dotore plantetan ziran antxinako burrugaz, abarka-medien, garrikoa, samako pañelua, txapela, patxadaz atonduta.

Eta, ba, or ibiltan jakuzan etzerik etxe, dirua, solomoa, arrautzak, lukainkak, edo batek badaki zer batzen gero errepartoa egiteko.

Gaur u errespetoa be lardangaiña galdu da baia orduan e baegoan bai egon be errespetoa. Begiratu egizu, ba, etxe baten ateak jotan zituezan, kantore aurrelariak e beti esaten euan:

– Santa Ageda kantadu ala errezadu egingo dogu?

Eta, ba, etxe bakotxean a segun zelan dagozan, ba errezetako be igual esaten eutsien, batez be il-barriren bat edo egon ezkerro, edo etxean bateren bat gaixorik. Eta kantadu zein errezadu, aginaldoa bardina izaten zan. Otzarak be politak eroaten eudiezan, zimentzeskoak edo ziriekaz eginekoak.

Kantea luzea izaten zan. Santa Agedaren bizitzea dana kantaetan zan, ez oraingo moduan, orain i gente asko bai baia kantea laburra, eta askotan Santa Agedaren bizitzea barik i beste zeozer be igual.

Orain, leen be, Santa Agedaren bizitzatik aparte, egiten ziran egin beste kanta batzuk. Esate baterako, ba, aginaldoa be

tzuetan etzeko andreari, edo egon esketiño eskon edadeko alabeari, edo semeari, edo umeari. Agintarieri be bai, alkateari, edo abadeari.

Bates beste danak emotaudien seoser, baye seken antzape ote sirean da kantau es iteko esan barik i lelengo kantaso ta gero eser emon es.

Orduen, kantoreak aurepe aukitauden auren bengantzaxue, beren beregiko kanta bat edo bi aukitaudiesan olango kasuetarako.

Bata auxe da:

«Erbie dago asatzen
erbikumea babatzen
etxonetako usaba jaune
samarañoako kakatzen»

Eta bestea:

«Belea dabil atxean
berentza(t) sori gatxean
arantza baltza sartuko al yako
atzeko sulo baltzean»

D'olantxe ixiten san. Kintoak a gaubiluntza edo gaulendien ibilte sirean da gero afarie itaurien.

Diruegas ba, errepartoa, asko be etzan ixiten da. Gero ba, untzuago, nosago asi sirean naupe estakit ondo, baye dirue limosna iteko be emotaudien, edo errien ume edo sarrentzako seoser iteko.

Oin eskolumeapakarri(k)tx(y)abikus. Or Arratian badao usedioa oindo be, koru andie ibiltien da, ori su(k) saupe badakixu, ainbet urte ibili sara ta or koruen. Orre(k) koru orrek atzeratuentzat a batzean dau. Da domekas yausi eskero San Mamesen be kantetan dau intermedioan, bai, bear ona iten dau orre(k) koru orrek, olango laguntasune ondo etorriko yakie orriri gixajoori, sano gaosenok o sarriten kexau iten gara baye guk u Jangoikoari egune(k)

ba alosokoa izan daiten, ba, zelango etxea alango bertzoa botaten eudien asikeran. Jakina, etxe bakotxean nor zan estimaduen, ba arexeri. Batzuetan, etzeko ugazabari, beste batzuetan etzeko andreari, edo egon ezketiño ezkon edadeko alabeari, edo semeari, edo umeari. Agintarieri be bai, alkateari, edo abadeari.

Bataz beste danak emoten eudien zeozer, baia zeken antzak be egoten ziran eta kantadu ez egiteko esan barik i leenengo kanta erazo eta gero ezer emon ez.

Orduan, kantoreak eurak be eukiten eudien euren bengantzaxua, beren beregiko kanta bat edo bi eukiten eudiezan olango kasuetarako.

Bata auxe da: «Erbia dago azatzen
erbikumea babatzen
etxe onetako ugazaba jauna
samarañoako kakatzen»

Eta bestea: «Belea dabil aitzean
berarentzat zori gatzean
arantza baltza sartuko al jako
atzeko zulo baltzean»

Eta olantxe izaten zan. Kintoak a gaubiluntza edo gaulendien ibiltien ziran eta gero afaria egiten eudien.

Diruagaz ba, errepartoa, asko be ez zan izaten eta. Gero ba, oraintsuago, noizago asi ziran neuk be ez dakit ondo, baia dirua limosna egiteko be emoten eudien, edo errian ume edo zaarrentzako zeozer egiteko.

Orain eskolumeak bakarrik dabilkuz. Or Arratian badago usadioa oraindino be, koru andia ibiltien da, ori zuk zeuk be badakizu, ainbat urte ibili zara eta or koruan. Orrek koru orrek atzeratuentzat a batzen dau. Eta domekaz yausi ezkerro San Mamesen be kantaetan dau interme-

t(d)aukosan ordu gustietan eskerrak emoten on bea gaunke asbegiek ondo gaunkesala yayo gaintzesalako.

Da, ba olangoxe kontuek...

dioan, bai, bear ona egiten dau orrek koru orrek, olango laguntasuna ondo etorriko jakie orrei gixajooi, sano gagozanok o sarritan kejadu egiten gara baia guk u Jaungoikoari egunak daukazan ordu guztietan eskerrak emoten egon bear geunke azbegiak ondo geunkazala jαιο gintzazalako.

Eta, ba olangoxe kontuak.

1.12. Bidaztiak

Gure gaste denporan, da ie ie untzurarte, ba bidaskiek e pausuko topetan gaindusen, or bideapetean, etzerik etze.

Bidaskie ba edosin da, baye batzuk u fijoak ixiten sirean da bakotxa bere tertzioan agartuten san emeti paraje onetati.

Batzuk u errikoa(k)tx(y)atzusen baye besto batzuk u albo-errietakoak eta batzuk u urrinekoak, seinde, orrik i pelegriñoak, edo bayeruek edo migeleruek esaterako.

Aitearen da semearen!, danan barri gurosule? b'orduen bauku sati beterako bidaskion kontuekas.

Asteko, gure bosu, euleak edo euleruek aittikus. Emeti Seanistar bat eta Seberio bertako bat ibiltan sirean, ba liño denporan, liño bearrak inde gero, ba liño-firusko arilek e pisure artzean audiesan. Saldi edo mandoagas etorte sirean da auren otzarok o bete arte etzerik etze ibiltan yakusen. Gero andik i denporeakarrenean, barriro etorte sirean baye oingoan misasko ixerea edo beste klase bateko telea inde. Da, kobrau es aurien iten diruegas, seinde, gaur erosten da(n) moduen, espabere se, aurek e lotuten sirean onenbeste edo arenbeste firuges edo arilegas, errotariet arto edo gariegas iten dauen letxe.

Gure gazte denporan, eta ia ia oraintsurarte, ba bidazkiak e pausuko topaetan genduzan, or bideak betean, etxerik etxe.

Bidazkia ba edozein da, baia batzuk u fijoak izaten ziran eta bakotxa bere tertzioan agertuten zan emetik paraje onetatik.

Batzuk u errikoak jatzuzan baia beste batzuk u albo-errietakoak eta batzuk u urrunekoak, zeinda, orreek i peregrinoak, edo baieruak edo mieleruak esaterako.

Aitearen eta semearen!, danan barri gura dozula? ba orduan badaukagu zati baterako bidazkion kontuekaz.

Asteko, gura badozu, euleak edo euleruak aitatuko doguz. Emetik Zeanistar bat eta Zeberio bertako bat ibiltan ziran, ba liño denporan, liño bearrak eginda gero, ba liño-firuzko arilak e pisura artzen eudiezan. Zaldi edo mandoagaz etorten ziran eta euren otzarok o bete arte etxerik etxe ibiltan jakuzan. Gero andik i denporeakarrenean, barriro etorten ziran baia oraingoan misezko izarea edo beste klase bateko telea eginda. Eta, kobradu ez eudien egiten diruagaz, zeinda, gaur erosten dan moduan, ezpabere ze, eurak e lotuten ziran onenbeste edo

Gero ba, ermandadakoak. Emen gure parajea, ergoienen, amabi etze gara da ermandadea iten gaindun.

Etze bakotxeko usaba edo errentorea bada, ganaduen yaubea, ba San Justoko ermita-portalean batuten ginean urtean bein.

Sure aitite Frantziskok o artzeausen kartak eta batekurrea toketan yakona, presidentea ixiten san, gero beste kartaATEGAS, mayordomoa eta beste biges beste lagun bi. D'au, urtean-urtean.

Da gero ba ileko lelengo domekan errekorridue iteurien, kortarik korta. Da ba korta bakotxean, orrik i laurok eta etzeko usaba oten sirean da ilero-ilero bai gustiek e tasau, danan konformidade-agas.

Da, ba, gero, egunen baten, baten bateri baien bat a tragau edo maltratau eskero, edo baien batek e txala galdu esketiño, ba juntau iten sirean da kaltean kostue danan arte satitu te kitutu.

Beste batzuetan, etze-erreana batzean etorten sirean. Ni nau be ibilite nao orretan.

Ba, bakixu, lengo baserriek e sarrape bai te, gariak eta beder sikue be kamaran, kortan aspigarrie eta idea, ta ba, agaiti orregaiti sarri erretan sirean etzeak eta goxeti gaubera esebe barik i lotuten sirean ango etzekoak.

Orduen, erriko gasteak eta, arkal artu, te etze erreana batzean yoaten gintzesan etzerik etze. Da genteak estau seoser emon barik itxiten. Beste erri betekoa bada be bardin emoten yakie, se esebesan lotutea gausa tristea yatzu gero!

Da ba, daneri(k)p(b)atzean da. Dirue, yanarie, erropak, tresnak, muebleak, eta batzuk u ardi edo txarri edo beste anima-

arenbeste firugaz edo arilegaz, errotariak arto edo gariagaz egiten dauan letxe.

Gero ba, ermandadakoak. Emen gure parajea, ergoienen, amabi etxe gara eta ermandadea egiten gendun.

Etxe bakotxeko ugazaba edo errentorea bada, ganaduen jaubea, ba San Justoko ermita-portalean batuten ginean urtean bein.

Zure aitita Frantziskok o artzen euazan kartak eta bateko urrea tokaetan jakona, presidentea izaten zan, gero beste kartaATEGAZ, mayordomoa eta beste bigaz beste lagun bi. Eta au, urtean-urtean.

Eta gero ba ileko leenengo domekan errekorridua egiten eudien, kortarik korta. Eta ba korta bakotxean, orreek i laurok eta etxeko ugazaba egoten ziran eta ilero-ilero bei guztiak e tasadu, danan konformidadeagaz.

Eta, ba, gero, egunen baten, bateren bateri beiren bat a tragadu edo maltratadu ezkeru, edo beien batek e txala galdu ezketiño, ba juntadu egiten ziran eta kaltearen kostua danan arte zatitu eta kitutu.

Beste batzuetan, etxe-errearena batzen etorten ziran. Ni neu be ibilita nago orretan.

Ba, badakizu, leengo baserriak e zaararak be bai eta, gariak eta bedar sikua be kamaran, kortan azpigarria eta idea, eta ba, agaitik orregaitik sarri erretan ziran etxeak eta goizetik gaubera ezebe barik i lotuten ziran ango etzekoak.

Orduan, erriko gazteak eta, arkal artu, eta etxe-errearena batzen joaten gintzazan etxerik etxe. Eta genteak ez dau zeozer emon barik itxiten. Beste erri betekoa bada be bardin emoten jakie, ze ezebezean lotutea gauza tristea yatzu gero!

Eta ba, danerik batzen da. Dirua, jana-

lien bat edo beste bebai. Besto batzuk u ageana, au sera yatzu, etze barrie iteko sutunik i daosen aratzak emon, beadaue-
nean bota ta age edo solibak iteko etze barrireko.

Eskekoak a barres, eskandalue ibiltan san lenao, baye ori, eskekoana ama(k) kontautzu lentxuago or kontue erratuena batzean ibilisanan kontuen.

Jitanuek ixiten sirean besto batzuk. Orrik i karro ta gusti etorte sirean da Seberion auren lekuek aukitaudiesan gaubeiteko. Bat ementxe dao, Isisin, undiño be an dao sinpresa, arbolea ederra, t'antxe itaudien lo, ori su saupe bakixu, makina ba(t)p(b)ildur pasausue surok eskolarantzean da, esta baietz? Uin orreri leku orreri «jitanuen lekue» gaituten dotzu danok.

Bayeruek e orti Galisi aldeti edo etorte sirean, da ba gurean itaudien lo, ostatue eskatuten oskuen da ba gero bija gustietan gurera.

Onik i, ba mandoakas etorte sirean da bakixu, gari bearrak eta iteko ba bayak eta galbayak auki bear dire ta onik i bates be bayak itauriesan. Etze bakotxean selango naurrikoa alangoxea. Urune aspiran eralgiten san da ba klaro, aspirape etzirean danapardinek, eta ganera, bayaren telea edo sarea be etzan bardine, tela batzuk u seagoak sirean urune finago eralgiteko, tela fineti eralgi eskero urun se-sea atetan san d'ori sen onena ogi surireko. Gero ba tremesa iteko urune esan ain sea, saiegas nastaute. Agaiti eseuken ain kolore surie. Guk u ogi surie gaunken onenentzat eta oin bitu, oin i bestea i de ohea, saiegas nastaukoa.

Da, ba, gaube in orduen, emotoskuen dirue edo bayarik i bear ixin eskero baya

ria, erropak, tresnak, muebleak, eta batzuk u ardi edo txarri edo beste animaliren bat edo beste be bai. Beste batzuk u agearena, au zera jatzu, etxe barria egiteko zutunik i dagozan aritzak emon, bear dauanean bota eta age edo zolibak egiteko etxe barrirako.

Eskekoak a barriz, eskandalua ibiltan zan leenago, baia ori, eskekoarena amak kontadu deutsu leentxuago or kontu erratuarena batzen ibili zanaren kontuan.

Jitanuak izaten ziran beste batzuk. Orreek i karro eta guzti etorten ziran eta Zeberion euren lekuak eukiten eudiezan gaua egiteko. Bat ementxe dago, Isasin, oraindiño be an dago zipresa, arbolea ederra, eta antxe egiten eudien lo, ori zuk zeuk be badakizu, makina bat bildur pasau dozue zuok eskolarantzean eta, ez da baietz? Orain orreri leku orreri «jitanuen lekue» deituten deutsagu danok.

Baieruak e ortik Galizia aldetik edo etorten ziran, eta ba gurean egiten eudien lo, ostatua eskatuten euskuen eta ba gero bija guztietan gurera.

Oneek i, ba mandoekaz etorten ziran eta badakizu, gari bearrak eta egiteko ba baeak eta galbaeak euki bear dira eta oneek i batez be baeak egiten eudiezan. Etxe bakotxean zelango neurrikoa alangoxea. Uruna azpiran eralgiten zan eta ba klaro, azpirak be ez ziran danak bardinak, eta ganera, baearen telea edo sarea be ez zan bardina, tela batzuk u zeeagoak ziran uruna finago eralgiteko, tela finetik eralgi ezkeru urun zee-zee ateraten zan eta ori zan onena ogi zurirako. Gero ba tremesa egiteko uruna ez zan ain zeea, zaiagaz naastaduta. Aregaitik ez eukan ain kolore zuria. Guk u ogi zuria geunkan

truke, ta ba olan ixiten san. Guri grasie itoskun auren berbaikuneak.

Pasigerak ixiten sirean beste batzuk. Orrik i montañesak ixiten sirean, andras-koak. Eta erropa sarrak eta lana sarra batutaurien. Lepoti kubanu andi betegas ibiltan sirean da kilo erropea edo lanea txakurrandi bet edo iru txiki pagetan audien. Dirue guresauenari orras batzuk edo titera edo olango balio gitxiko seosegas pagetotzien.

Legoak ixiten sirean beste batzuk. Orrik i ba komentoatati etorte sirean limosnea batzean, da dirue etzanean ba gari edo artoa be igoal, bakixu ba, komentoko agoape bete beasirean da. Orrik i erresau itaurien, estampak emon be bai. Batzuk morroskoak ederrak sirean.

Fraileak a, orrik i mesakoape etorte sirean baye es eskean, mutiko topetan baiño, auren komentorako. Emeti asko yoaten sirean, akabau gitxik.

Frailea, kategorikoa, Aite Patxi defuntue. Ak a makina bat a mesa emon dau Seberioko etzeatan, sarrari, da bideak oiñes be itausen baye edadekoa san da ba kantzau be bai, te autoesto itauen, baye yakiten gaindun, areri parau eskero da komertasiñoa parau, errosarioa errestan asten yakun da geratu bes. Oiñes yoanda be igoal, ni nau baten Barañara yoan naintzen laguntan da bidean iru errosario edo erresau gaindusen. Batzuk u burlesar be ekitotzien, baya a beti berera, gizon sintzoagorik! Seruripadao, Aite Patxi an dauku!

Martxanderape ibilte sirean , baye au kontu au kontaute daukotzut u lentxuago baten, or kuxaute daukostesu or aparatuen.

Tratanteak e, ganadu erosten etorten sirean, batzuetan mataderorako baye

onenentzat eta orain begiratu, orain i bestea ei da ohea, zaiagaz naastadutakoa.

Eta, ba, gaua egin orduan, emoten euskuen dirua edo baerik i bear izan ezkeru baea truke, eta ba olan izaten zan. Guri grazia egiten euskun euren berbaikuneak.

Pasigerak izaten ziran beste batzuk. Orreek i montañesak izaten ziran, andraz-koak. Eta erropa zaarrak eta lana zaarra batuten eudien. Lepotik kubanu andi battegaz ibiltan ziran eta kilo erropea edo lanea txakurrandi bat edo iru txiki pagetan eudien. Dirua gura ez euanari orratz batzuk edo ditare edo olango balio gitxiko zeozegaz pagaetan eutsien.

Legoak izaten ziran beste batzuk. Orreek i ba komentoetatik etorten ziran limosnea batzen, eta dirua ez zanean ba gari edo artoa be igual, badakizu ba, komentoko agoak be bete bear ziran eta. Orreek i erreza du egiten eudien, estampak emon be bai. Batzuk morroskoak ederrak ziran.

Fraileak a, orreek i mezakoak be etorten ziran baia ez eskean, mutiko topetan baiño, euren komentorako. Emetik asko joaten ziran, akabadu gitxik.

Frailea, kategoriakoa, Aita Patxi defuntua. Ak a makina bat a meza emon dau Zeberioko etxeetan, zaarrei, eta bideak oiñez be egiten euazan baia edadekoa zan eta ba kantzadu be bai, eta auto estop egiten euan, baia jakiten gendun, ari paradu ezkeru eta komertaziñoa paradu, errosarioa errezetan asten jakun eta geratu be ez. Oiñez joanda be igual, ni neu baten Barañara joan nintzan laguntan eta bidean iru errosario edo erreza du genduzan. Batzuk u burlesar be ekiten eutsien, baia a beti berera, gizon zintzoagorik! Zerurik badago, Aita Patxi an daukagu!

gaietan auren erosi te beste batzuri ferietan saltzeako.

Bates be txalak erostaudiesan, t'orrik begipixuen erosten sirean, au da, begis ite san tratue, begi ona aukitauden. Gaupe seguruen yokatuten gaindun, da tratanteak etorri baño len pisu erromanakas pisitute aukiten gaindun da ba gero auren eretxie entzun orduen konformau edo es iten gaindun. Tratanteak okerratire gero! Baye gau be sur, iños olangon bat etorri eskero «urliek onexenbeste opatu osku» esaten gauntzen ia yausten dan, baye nok arrapau orrik?

Gero, ilteko ganadue sanean, ba batzutan bisipixuen iten san tratue, au da, bisirik i pisitu edo ba beste batzutan kanalean, an mataderoan.

Da geao sesangotzupa, afiladoreape atorte sirean, parageruepe bai, migele-
ruepe bai estie ta gastaya ta saltzean, da ba, estaipa nik i, ia ber, etxoisu, iños-iños pelegriñoak eta be ikusius emeti.

Pelegriñoak a nire aldien gitxi pasau dire, lenago entzuteak a ba asko ibilte sireala.

Gure etzera bi biderres etorri dires. Lelengos gixon bi, txarto yantzite. Batak a samatik i dingiliske auken errosario modure itzesoko txirlakas inde kollarra, barrenean kurtze bat eta besteak esebes. Batak a yana eskatu auen da besteak ure. Esan audien Konpostelara doasela.

Besto baten, beste bat agartu yakun, a be txarto yantzite, d'eskatu auen ure, ak osteria itzesoko bitxoakas ineko pitxer bat auken aldean.

Baye badiñotzut e, au aitxine ixin sen, nau be osta-osta akordetan nas. Aistu etxatas in se ain ixin sirean bidaski selebreak!

Martxanderak be ibiltan ziran, baia au kontu au kontaduta daukotsut u leentxua-
go baten, or kogiduta daukostezu or aparatuan.

Tratanteak e, ganadu erosten etorten ziran, batzuetan mataderorako baia geie-
netan eurak erosi eta beste batzuei ferie-
tan saltzeko.

Batez be txaalak erosten eudiezan, eta oreiek begipisuan erosten ziran, au da, begiz egiten zan tratua, begi ona eukiten euden. Geuk be seguruan jokatuten gendun, eta tratanteak etorri baiño leen pisu erromanakaz pisatuta eukiten gendun eta ba gero euren eritzia entzun orduan konfor-
madu edo ez egiten gendun. Tratanteak okerrak dira gero!Baia geu be zuur, iñoiz olangoren bat etorri ezkeru «urliak onexen-
beste opatu deusku» esaten geuntsan ia jausten dan, baia nok arrapadu orreek?

Gero, ilteko ganadua zanean, ba batzutan bizipisuan egiten zan tratua, au da, bizirik i pisatu edo ba beste batzuetan kanalean, an mataderoan.

Eta geiago zer esango deusut ba, afile-
doreak be etorten ziran, paragueroak be bai, mieleruak be bai ezta eta gaztaia eta saltzen, eta ba, ez dakit ba nik i, ia ber, itxaron egizu, iñoiz-iñoiz peregrinoak eta be ikusi doguz emetik.

Peregrinoak a nire aldian gitxi pasadu dira, leenago entzuteak a ba asko ibiltan zirala.

Gure etxera bi biderrez etorri dira. Lee-
nengoz gizon bi, txarto jantzita. Batak a samatik i dingilizka eukan errosario modura itsasoko txirlekas eginda kollarra, barrene-
an kurutze bat eta besteak ezer be ez. Batak a yana eskatu euan eta besteak ura. Esan eudien Konpostelara doazela.

Ail, d'onipe bai, serak, serorak. Sero-
rea etorte san batzean. Elexarako amarre-
nak eta asken antzean beretzape batzean
auen. Lenao, elixeari pagau in bear ixiten
yakosan «amarrenak» espabere il-kanpari-
pe yo bes d'olangoak.

Bueno ba, ekitaldi bepe in dotzu bai,
te itxi degutzun bidaski kontuori te ba
yan daigun gasigarri apur bet eta ogi
altzi bet eta edabe apur bet, ese onik i
kontuok espabere akaberaripe estaukie
ta!

1.13. Patakon lapurra

Or o Bidebietatik i San Migelera bitar-
tean Gastañabaltzeko errebuelta dao
f'ondoan Bidebietako mataderoa.

Da ba usedioa sana letxe ba genteak
a ganadue eroatauen ilten mataderora ta
ba yakine, gero diruegas etzera.

B'olango egunen baten gixon bateri
Patakon lapur famatuak urten otzon bi-
derdire or Gastañabaltzeko kurban d'altoa
bota:

- Soltaik ori garriko ori te botaise(k)-
t(d)iruok!

Da ba gixonak a esotu in auen da
garrikoa soltetan daoela yausi yakosan
diruok o sorure, selaire.

- Ekasak, arin, Patakonek etxok etxo-
ten!

Beste baten, beste bat agertu jakun,
a be txarto jantzita, eta eskatu euan ura,
ak ostera itsasoko bitxoekaz egineko pi-
txer bat eukan aldean.

Baia badiñotsut e, au antxina izan zan,
neu be ozta-ozta akordetan naz. Aaztu
ez jataz egin ze ain izan ziran bidazki
zelebreak!

Ail, eta oneek be bai, zerak, serorak.
Serorea etorten zan batzen. Eleizarako
amarrenak eta azken antzean beretzat be
batzen euan. Leenago, eleizeari pagadu
egin bear izaten jakozan «amarrenak» ezpa-
bere il-kanpairik be jo be ez eta olangoak.

Bueno ba, ekitaldi bat be egin deutsagu
bai, eta itxi deigutsun bidazki kontuoi eta
ba jan daigun gazigarri apur bat eta ogi
altzi bat eta edabe apur bat, eze oneek
i kontuok ezpabere akaberarik be ez dau-
kie eta!

Or o Bidebietatik i San Migelera bitar-
tean Gaztañabaltzeko errebuelta dago
eta ondoan Bidebietako mataderoa.

Eta ba usadioa zana letxe ba genteak
a ganadua eroaten euan ilten mataderora
eta ba jakina, gero diruagaz etxera.

Ba olango egunen baten gizon bati
Patakon lapur famatuak urten eutsan bi-
derdira or Gaztañabaltzeko kurban eta
altoa bota:

- Soltadu egik ori garriko ori eta bota
egizak orrek diruok!

Eta ba gixonak a ezagutu egin euan
eta garrikoa soltetan dagoala jausi jako-
zan diruok o zorura, zelaira.

- Ekarri egizak, arin, Patakonek ez jok
itxaroten!

– Makurtu te artisek auk!, -esan i otzen gixonak-.

Orduen Patakon makurtu sen diruok o kuxetako, baye orduen, gixonak a fraka barruen badaespada gordeta auken si-porra edo maillu txikerra artzean dau te, di-dau! yo buru-buruen Patakon ori kokote buruen d'an garbitu i auen seguru.

– Makurtu eta artu egizak euk!, -esan ei eutsan gizonak-.

Orduan Patakon makurtu zan diruok o kogiduteko, baia orduan, gizonak a fraka barruan badaezpada gordeta eukan ziri-porra edo maillu txikerra artzen dau eta, di-dau! jo buru-buruan Patakon ori kokote buruan eta an garbitu ei euan seguru.

1.14. Astoa, txakurra, katua eta oilarra

Or estaipa non be, ainbaten ixingo san, astoan bat i egoan deslai, adinon, da ba muna bastarrrik muna bastar ebilen seguru esetako gausestala.

Da ba ibilien baten bat a beti topetan da ta ba asto orrepe txakur galgu bet topau i auen da:

– Se itok emen feturorretan, alborantza inean, yausi inik?

– Se ingo yoapa, bein gausestandu es-kero enayuekure d'andafuerasko yantzie emon yaustiek, au dok ixitekoa, ondo inen pague atostaien palue!

– Tiauk u mutil, ni nau be an por an ñabik eta goixan, selanbeist i bixieri auzingo yotzuk eta.

Da ba yoan sirean biepietara, itxure kuitiduen baie tire belea baltzago estala ingo ta ba aurrera.

Arrasti erdirantz, an a pagadui beteko txorbel artean itxun in sirean biek eta astoak astinaldi betzuk emon be bai.

Seinakio daosela, norantz artu esta-kiela, katu bet ikusi audien pago baten adapoan miau baten, da badiñotzo as-toak:

– I, se iten dona or miauka, katarran bateri geike ala?

Or ez dakit ba non be, ainbaten izango zan, astoren bat ei egoan deslai, adinon, eta ba muna bazterrik muna bazter ebilen seguru ezertarako gauza ez dala.

Eta ba ibilian bateren bat a beti topetan da eta ba asto orrek be txakur galgu bat topadu ei euan eta:

– Zer egiten dok emen fetura orretan, alborantz einean, jausi eginik?

– Zer egingo joat ba, bein gauzeztandu ezkerro ez naiuek gura eta andafuerazko jantzia emon jaustiek, au dok izatekoa, ondo eginaren pagua ate ostean palua!

– Tiauk u mutil, ni neu be an por an niabilk eta goiazan, zelanbeist i biziari eutsingo jeutsaguk eta.

Eta ba joan zirean biak bietara, itxura koitaduan baie tira belea baltzago ez dala egingo eta ba aurrera.

Arrasti erdirantz, an a pagadui batetako txorbel artean etxun egin ziran biak eta astoak astinaldi batzuk emon be bai.

Zeinakio dagozala, norantz artu ez da-kiela, katu bat ikusi eudien pago baten adapoan miau baten, eta badiñotzo as-toak:

– I, zer egiten dona or miauka, katarraren bati deika ala?

– Bai sera!, saguripe etxoat arrapetan bai, te suelea emon yostiek etzean edo ogeto esanda, gosea emoten ixin yostiek eta urten in bear mundurik aramayo bixiko banok

Ator, etorri ai gauges, miau-gedarrori itxite, da au txakur au goiti beiti ixingo as, se sartzaroan norbere buruen yaube ixitea be estokitxi, d'etxoat a pentzetan pleitu-intzigurik aukiko dosuenik. Goixan!

Da ba yoan sirean irurek iruretara nondikure t'andixik. Bata bestean arrimuen begiepe alimau in yakiesan.

Allegau sirean propitario baten etze ondora be ta ba an a, ollar mardo eta gargartzu bet ikusi audien ollategien be kabitan estala artega be artega, bateko kukurukua, besteko alanbradurea pasau gureko egaska-dea, soratu es bestean i egoan ollar ori, d'orretara badiñotzo astoak:

– Se jangoiko pasetan yatzu ba ollarra ain artega oteko?

– Se pasau diñostesue? Ba etzi sortzi Sandonietire, emeko yayek eta daoeneko lapiko ta kasulotza barruntetan dot eta emen etxonago ta txarrago nao se nire atzena olango kasulan baten ixingo da, ai ene! Biripoape irikin iten doste. Erdusie laguntan!

Orduen astoak ostikada bidiruges arrate bat in otzen ollategiko alanbradureari te an eroan audien auren ankartean ostandute ollar ori.

Da gero ba an estaipa non be, dana be kontue ixingo da baie, gau beranduen argie ikusten i audien da txokaute egosan seguru. Arrimau sirean da ollarrak sorotz in i otzien arbolan baten ganetik eta ene!, lapurrek!

Orduen, paretan dices astoa aspian,

– Bai zera!, sagurik be ez joat arrapetan bai, eta suelea emon jaustiek etxean edo obeto esanda, gosea emoten izan jaustiek eta urten egin bear mundurik aramaio biziko banok!

Ator, etorri adi geugaz, miau-gedarroi itxita, eta au txakur au goiti beiti izango az, ze zaartzaroan norbere buruaren jabe izatea be ez dok gitxi, eta ez joat a pentsetan pleitu-intzigurik eukiko dozuenik. Goiazan!

Eta ba joan ziran irurak iruretara nondik gura eta andixek. Bata bestean arrimuan begiak be alimau egin jakiezan.

Allegadu zirean propitario baten etxe ondora be eta ba an a, ollar mardo eta gargartsu bat ikusi eudien ollategian be kabitan ez dala artega be artega, bateko kukurukua, besteko alanbradurea pasadu gurako egazkadea, zoratu ez bestean ei egoan ollar ori, eta orretara badiñotso astoak:

– Zer jaungoiko pasetan jatzu ba ollarra ain artega egoteko?

– Zer pasadu diñostazue? Ba etzi zortzi Sandoniak dira, emeko jaiak eta dagoeneko lapiko eta kazulaotsa barruntetan dot eta emen itxaronago eta txarrago nago ze nire atzena olango kasularen baten izango da, ai ene! Biripoak be irakin egiten deust. Erdusie laguntan!

Orduan astoak ostikada bidirugaz arrate bat egin eutsan ollategiko alanbradureari eta an eroan eudien euren ankartean ostanduta ollar ori.

Eta gero ba an ez dakit ba non be, dana be kontua izango da baia, gau beranduan argia ikusten ei eudien eta txokaduta egozan seguru. Arrimadu ziran eta ollarrak sorots egin ei eutsien arbolaren baten ganetik eta ene!, lapurrek!

txakurre ganean, katue ganeragoan da ollarra ganerengo ta asten dire bata arrantza, bestea ausi, bestea miau ta ollarra kukurrukuotzean, laster eskapaurien urrean lapurrok orpoetan ar barik.

Da gero se pasau sen? Ba ollarra suteko bentanan parau sen, katue supastarrean, txakurre tranpako atostaien da astoa kortako ate ostaien.

Lapurrok o luse eretxite egosan da alangon baten aurretako bat arrimau i sen ilunetan da ba supastarrera eldu sanean ilinti edo txingerran batalakoan botaten dotzo eskue ta katuek erpaka in i otzen. Gixon ori karran asi sen da suteti kortara bitartean a txakurrek ausike d'askenean kortako atostaien astoak unbardinke ostikada endemoniño bat, eta ondiño ollarrak a kukurruku iten i otzen suteko bentana barrutik.

Lapur ori yoan san lagunokana ta ser? da, ai enetxue! Sutean, supastarrean sorgin betek txatxamarka in yostek, tranpako atostaien gixon batek kutxilloa sartu, kortako ate ostaien monstrooak estakeagas yo t'undiño suteko bentanati jueza entzuten ixin yoat esaten: «Ekarri ona, ekarri ona, nautominauko yoat eta»

Bueno, au kontue dana yakingosu esta! Kontau klase askotara ingo da, ni nauk u onan auki ot entzunde. Oin, gero diruekas se pasau sen estakitzut esaten, kontuetan edosein gause pasau be iten da ta. Alantxik artu in be in bear!

2.1. Gaueko arimak Santa Kurtzen

Uin kontaukotzut ser pasau yakon bate-

Orduan, paretan dira astoa azpian, txakurra ganean, katua ganeragoan eta ollarra ganerengo eta asten dira bata arrantza, bestea aausi, bestea miau eta ollarra kukurrukuotsean, laster eskapadu eudien urrean lapurrok orpoetan ar barik.

Eta gero zer pasadu zan? Ba ollarra suteko bentanan paradu zan, katua supazterrean, txakurra tranpako ate ostean eta astoa kortako ate ostean.

Lapurrok o luze eritxita egozan eta alangoren baten eurretako bat arrimau ei zan ilunetan eta ba supazterrera eldu zanean ilinti edo txingerraren bat dalakotan botaten deutso eskua eta katuak erpaka egin ei eutsan. Gizon ori karran asi zan eta sutetik kortara bitartean a txakurrak aausika eta azkenean kortako ate ostean astoak unbardinka ostikada endemoniño bat, eta oraindiño ollarrak a kukurruku egiten ei eutsan suteko bentana barrutik.

Lapur ori joan zan lagunokana eta zer? eta, ai enetxua! Sutean, supazterrean sorgin batek txatxamarka egin jaustak, tranpako ate ostean gizon batek kutxilloa sartu, kortako ate ostean monstrooak estakeagaz jo eta oraindiño suteko bentanatik jueza entzuten izan joat esaten: «Ekarri ona, ekarri ona, neuk dominaduko joat eta»

Bueno, au kontua dana jakingo dozu ezta! Kontadu klase askotara egingo da, nik neuk u onan euki dot entzunda. Orain, gero diruekaz zer pasadu zan ez dakitsut esaten, kontuetan edozein gauza pasadu be egiten da eta. Alantxek artu egin be egin bear!

Orain kontaduko deutsut zer pasadu

ri: Zeberiko Santa Kurtzen andra bat il sen da itxurea auki auen promesa, seoser promesan bat. Da gero urtetan otzien etzekoari ba leku askoan, da egun beten yoan san abadeagana pregunte etxeko andrea, ba a ber ser ein leion edo ba, selan urtetan dauen ba, amak edo estait nor ixingo san.

Da, abadeak esanotzen ba: «Esaiosua ia ser deseetan jakon»

Da preguntau otzen da esanotzen: «promesa bat itxi dauela kunplidu barik, urli elexan mesa bat entzuteko...»

Da yoan san androri kunpliduten promesori da mesea akabau sen orduen eskatutzen pañelu bet emoteko, ba agur iteko.

D'an pañeluen amar atzamarrak, ba erreta, erre marka itxi otzen pañeluen.

jakon bati: Zeberiko Santa Kurtzen andra bat il zan eta itxurea euki euan promesa, zeoser promesaren bat. Eta gero urtetan eutsien etxekoei ba leku askotan, eta egun baten joan zan abadeagana pregunte etxeko andrea, ba a ber zer egin leion edo ba, zelan urtetan deuan ba, amak edo ez dakit nor izango zan.

Eta, abadeak esan eutsen ba: «Esan egiozu ia zer deseetan jakon»

Eta preguntau eutsan eta esan eutsan: «promesa bat itxi dauela kunplidu barik, urli eleizan meza bat entzuteko...»

Eta joan zan andra ori kunpliduten promesa ori eta mezea akabau zan orduan eskatu eutsan pañelu bat emoteko, ba agur egiteko.

Eta an pañeluan amar atzamarrak, ba erreta, erre marka itxi eutsan pañeluan.

2.2. Deabruari Samartinen hamabi egiak

Esaten daurie ba atxine onik i baragarri antzak esireala gausonape ta ba batzutan abadean esana in barik i maldasiñokaka be aste sireala.

Da baten seguru or estaipa nope arimea ofresidu i otzen deabrueri galondo bearrak iteko baye damutu in i sen da orres ganera Samartinen amabi egiak esan bear seguru te asi i sen:

Samartin esai(k)p(b)at.

Gure Jaune bera dopat bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaipi.

Erromako altarapi, gure Jaune beda dopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaik iru.

Iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Esaten daudie ba antxina oneek i barre-garri antzak ez zirala gauza onak be eta ba batzutan abadearen esana egin barik i maldaziñoka be asten zirala.

Eta baten seguru or ez dakit ba nok be arimea ofrezidu ei eutsan deabrueri galondo bearrak egiteko baia damutu egin ei zan eta orrez ganera Samartinen amabi egiak esan bear seguru eta asi ei zan:

Samartin esan egik bat.

Gure Jauna bera dok bat berak salbauko gaiosak.

Samartin esan egik bi.

Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiosak.

Samartin esan egik iru.

Iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiosak.

Samartin esaik lau.

Lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaipost.

Jesukristoren bos llagapost, lau ebangeliteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esai(k) sai.

Sai seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esai(k) sasp.

Saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esai(k) sortzi.

Sortziretire seruek, saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaipedratzi.

Bedratzi ordenamintuek, sortziretire seruek, saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaik amar.

Amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek, sortziretire seruek, saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau,

Samartin esan egik lau.

Lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna beradok bat, berak salbaduko gaiosak.

Samartin esan egik bost.

Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna beradok bat, berak salbaduko gaiosak.

Samartin esan egik sei.

Sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna beradok bat, berak salbaduko gaiosak.

Samartin esan egik zazpi.

Zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna beradok bat, berak salbaduko gaiosak.

Samartin esan egik zortzi.

Zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna beradok bat, berak salbaduko gaiosak.

Samartin esan egik bedratzi.

Bedratzi ordenamintuek, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna beradok bat, berak salbaduko gaiosak.

Samartin esan egik amar.

Amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau

iru trinidadēak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaik amaka.

Amaka milleangeruek, amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek, sortziretire seruek, saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadēak iru, Erromako altarapi, gure Jaune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaik amabi.

Amabi apostoluek, amaka milleangeruek, amar mandamintuek, bedratzi ordenamintuek, sortziretire seruek, saspi sakramentuek, sei seruko isarra(k) sai, Jesukristoren bos llagapost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadēak iru, Erromako altarapi, gure Jeune beradopat, bera(k) salbauko gaiosak.

Samartin esaik amairu.

Etxaok amairu, ollarraxoten yo(k) munduen, angerutxuek seruen!

2.3. Aita asilora eroan-damutua

Sartzarua onena ixinde be sartzarua da bai ta batzutan sarrak okerrak direlako, beste batzuen gasteak auren biosgogorretirelako ba sarriten bapaño geaok aurkitu dau bere burua asiloan edo lenago ospite-la esaten yakon etxean.

Baten be seguru, gixon sekenan batek e bere aite artu lepoan da ba asilora bidea artu i auen.

Yoan san bideripide txit erdi bera be in barik aiteri da alangonbaten an a bidekurtzeroran bateko arri nausi beten yarritea pentzauen.

ebangelisteak lau, iru trinidadēak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbaduko gaiozak.

Samartin esan egik amaika.

Amaika milla angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadēak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbaduko gaiozak.

Samartin esan egik amabi.

Amabi apostoluak, amaika milla angeruak, amar mandamentuak, bedratzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruak, zazpi sakramentuak, sei zeruko izarrak sei, Jesukristoren bost llagak bost, lau ebangelisteak lau, iru trinidadēak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbaduko gaiozak.

Samartin esan egik amairu.

Ez jagok amairu, ollarrak joten jok munduan, angerutxuak zeruan!

Zaartzarua onena izanda be zaartzarua da bai eta batzutan zaarrak okerrak diralako, beste batzuetan gazteak eurak biotz gogorak diralako ba sarritan bat baño geiagok aurkitu dau bere burua asiloan edo leenago ospitala esaten jakon etxean.

Baten be seguru, gizon zekenen batek e bere aita artu lepoan eta ba asilora bidea artu ei euan.

Joan zan biderik bide txit erdi bera be egin barik aitari eta alangoren baten an a bidekurtzeroren bateko arri nagusi baten jarritea pentsadu euan.

Parau sirean ba deskantzu apur bet artzean, ixilik, bata besteari aitu be in barik sein atzera in.

Baye alangonbaten semeak ixin auen erremediau te adikuna bapota iotzen aite-ri da begi bietati negarrinpullue dariola i egoan seguru da badiñotzo:

– Seri iten dotzo ba negar beorrek un tertzio onetan?

– Ba semetxue, seri ingo yotzapa, ni naure aite asilora ekarri ñoanean ementxe bertan, berpetan esarri nintzoan deskantzu apur bet artzeako!

Semeak orriperbok entzun situenean artu barrien barris aite lepoan da es i auen iños etzerako bidea arinago in. An akabau sirean asiloko bijok.

Paradu ziran ba deskantsu apur bat artzen, ixilik, bata besteari aitu be egin barik zein atzera egin.

Baia alangoren baten semeak ezin euan erremediadu eta adikuna bat bota ei eutsan aitari eta begi bietatik negarrinpullua dariola ei egoan seguru eta badiñotzo:

– Zeri egiten deutso ba negar berorrek orain tertzio onetan?

– Ba semetxua, zeri egingo jautsat ba, nire neure aita asilora ekarri nioanean ementxe bertan, berpetan ezarri nintzoan deskantsu apur bat artzeako!

Semeak orreek berbok entzun zituanean artu barrien barriz aita lepoan eta ez ei euan iñoiz etxerako bidea arinago egin. An akabadu ziran asiloko biajeok.

2.4. Begizkoa

Ba baten Satamon (Zaratamo), an krida onintzen lekuen, lenago bakisu, gure denporan eskolara barik krida botaten ginduzen txakur bigaiti edo askotan mantenitalde esta, da ba ni be umea undiño, Satamon nengoan krida, ondo estimedu on be ganera, se bitixu, untxe t'untxe be ango etzeko kuartu betek e nire ixena daukola esan osten ondiño atxine estala ango nire usandra defuntean alabeak.

Da esaten ibili ñatzune, ori begiskoana, ba an ondoko etzeko ume bat a txartotxaro parau sen da ba ser ete dan edo estan da an ebisen begizkoa ixingo dauela, estauela, da ba, atzanean disponidu audien ba ia begizkoa nopototzen yakitea.

D'orretarako artu sartan bat eta plomoa eta be suko su bisien urtu aurien plomo ori te ba gero botaurien ur otzera

Ba baten Zaratamon , an kriada egon nintzan lekuan, leenago badakizu, gure denporan eskolara barik kriada botaten ginduzen txakur bigaitik edo askotan mantenitalde ezta, eta ba ni be umea oraindiño, Zaratamon nengoan kriada, ondo estimadu egon be ganera, ze begiratu egizu, oraintxe eta oraintxe be ango etzeko kuartu batek e nire izena daukala esan eustan oraindiño antxina ez dala ango nire ugazabandre defuntearen alabeak.

Eta esaten ibili niatzuna, ori begizkoarena, ba an ondoko etzeko ume bat a txarto-txarto paradu zen eta ba zer ete dan edo ez dan eta an ebilzan begizkoa izango dauala , ez dauala, eta ba, atzanean disponidu eudien ba ia begizkoa nok bota deutsan jakitea.

ta an iñon diren figurak urtetaurien da gero ba disponitzailleak an ebisen auren kontuokas ia ba gixoneskoa ala andraskoa dan dañino ori yakiten.

Ni nauk orduen enaunken gaurko argitasune baye gero yakin nauen beningitise auki auela ak umeak.

Au begiskoana sabal ibili de gure errietan. Lenago sinistu be edosin gause ite san da.

Santikituenan antzean, an be itzelesko berbak esataudiesan batzuk. Aikas berbakas da kurtzeakas da ni nauk estakit eser lograuuko san baye gitxienez biurruna lekuek igurdi iten sirean da ak igurdialdiek mesede baño es otzen ingo ango emengo erasoari.

Santigitue iteko be ixilean ibilte sian, estari antzean ibilte sirean sorginkeritzek aukien askok eta bates be elexastiku antzak.

Su(k) saupe suk eroan saindun amama ixilean Arteara santigituena iten, ako belaun buruko erasoa edo biurrunea in auenean.

– Bai,(neure berbak), makina bat aiena in oskun belaun burue igurditen eragoionean ango errementarien ondoko etzeko andreak.

2.5. Garia eta artoa berbaz

Baten seguru, gariak es i auken gausonik i bere burutxu ori altzau bearran altzau bearragas da alangonbaten nori? te badiñotzo artoari:

– I, emen labrantza gustiti nau nok

Eta orretarako artu sarten bat eta plomoa eta beesuko su bizian urtu eudien plomo ori eta ba gero bota eudien ur otzetara eta an iñon diran figurak urtetan eudien eta gero ba disponitzailleak an ebilzan euren kontuokaz ia ba gizonezkoa ala andrazkoa dan dañino ori jakiten.

Nik neuk orduan ez neunkan gaurko argitasuna baia gero jakin neuan meningitisa euki euela ak umeak.

Au begizkoarena zabal ibili da gure errietan. Leenago sinestu be edozein gauza egiten zan eta.

Zaintiratuenaren antzean, an be itzelesko berbak esaten eudiezan batzuk. Areekaz berbekaz eta kurtzeekaz eta nik neuk ez dakit ezer lograduko zan baia gitxienez biurrune lekuak igurdi egiten ziran eta ak igurdialdiak mesede baño ez eutsan egingo ango emengo erasoari.

Zaintiratua egiteko be ixilean ibiltan ziran, estari antzean ibiltan ziran sorginkeritzat eukien askok eta batez be eleizastiku antzak.

Zuk zeuk be zuk eroan zendun amama ixilean Arteara zaintiratuarena egiten, ako belaun buruko erasoa edo biurrunea egin euanean.

– Bai,(neure berbak), makina bat aiena egin euskun belaun burue igurditen eragoionean ango errementariaren ondoko etzeko andreak.

Baten seguru, gariak ez ei eukan gauza onik i bere burutxu ori altzadu bearraren altzadu bearragas eta alangoren baten nori? Eta badiñotso artoari:

– I, emen labrantza guztitik neu nok

bedarrik onena, segaiti se, bitik, ni nauri eskerrak a yan iten yo(k)tx(y)an one(k) jente onek.

Lelengo,soloko bedarrak udelandu, gero era dan tresneagas lurre arakatu, sokil-mokilek austu ta dana presprest itxi eraitzarako.

Gero asiterako itxiko galgarauek artu, bota ures beteko sin betera, galgarau tximelak apartau, beratu orduen ure kendu, kareagas nastu te solora.

Soloan a gero ba ereiten asi orduko asatzak iminten yauriesak nondik erain yakiteko ta ba antxe itxiten naiyuek arik eta erne arteño.

Erne orduen, mokil-austeko esin leik atxurrik sartu t'orregaitiño txilindroiagas iten yostiesak atzeraurrera batzuk al dala itaurreko barik sein ernaroa arpelik (g)aldu sapol sapol inde.

Gero ba a(n) ñaok o solo geienetan ogiterako baye beste solo batzuetan galberderako be bai, ganaduek berdean yateko.

Maiatz ingururaskero burue iten yatak eta bagilean, segun goxetikoa edo belukoa, eldues ñoak.

Eldu orduen ebagi iten nayuek e ba batzutan igitiegas eta beste batzuetan kodañeagas.

Gero zoruan, galondoan, sabal-sabal in da solo arloa ebagi akabau in orduen ba sartu urean aurreko urtean yoko galtzapulla batzuk u beratuteko ta aurekas iten yauriesak estukinek eta eskutak iten asi eskus joteko badok, eta makina-trilladorea badok o karga andiangoak.

Bein eskutak in orduen mutxurioak iten asten yatasak a buruek gorantza direla t'andik i lasterrera edo igoal e urrungo egunean metatu iten naiyuek.

bedarrik onena, zegaitik ze, begiratu egik. niri neuri eskerrak a jan egiten jok jan onek gente onek.

Leenengo,soloko bedarrak udelandu, gero era dan tresneagas lurre arakatu, zokil-mokilak austu eta dana presprest itxi ereitzarako.

Gero aziterako itxiko galgarauek artu, bota urez betetako zin batera, galgarau tximelak apartadu, beratu orduan ura kendu, kareagas nastu eta solora.

Soloan a gero ba ereiten asi orduko azatzak iminten jaudiezak nondik erein jakiteko eta ba antxe itxiten najuek arik eta erne arteraiño.

Erne orduan, mokil-austeko ezin leik atxurrik sartu eta orregaitiño txilindroiagas egiten jaustiezak atzeraurrera batzuk aal dala itaurreko barik zein ernaroa alpeirik galdu zapal zapal eginda.

Gero ba an niagok o solo geienetan ogiterako baia beste solo batzuetan galberderako be bai, ganaduak berdean jateko.

Maiatz ingururazkero burua egiten jatak eta bagilean, segun goizetikoa edo belukoa, elduaz nioak.

Eldu orduan ebagi egiten najuek e ba batzutan igitaiagaz eta beste batzuetan kodañeagaz.

Gero zoruan, galondoan, zabal-zabal egin eta solo arloa ebagi akabadu egin orduan ba sartu uretan aurreko urtean jotako galtzapolla batzuk u beratuteko eta eurekaz egiten jauriezak estukinak eta eskutak egiten asi eskuz joteko badok, eta makina-trilladorea badok o karga andiangoak.

Bein eskutak egin orduan mutxurioak egiten asten jatazak a buruak gorantza dirala eta andik i lasterrera edo igual e urrungo egunean metatu egiten najuek.

San Inasio aurretik al dala, olango egun bero baten, kanikuleagas, sabaldu barriro gari-metok eta gari-yoten asten yatasak eskutok o garanduteko.

Orretarako, artzean yuesak arri-losak eta aspian trongo bat edo beste arribet (d)ala aurberan iminten yauriesak eta gero gari-yoten, batzuk akarreaon eta besto batzuk u yoten, sasoi oneko gisonak.

Gariotxoorden, lenago artzeagas airean, geroago ba galbayagas edo eskusko makineagas d'uin trilladoreagas ba garbitu iten naiuek. Galgaraue, anegaka sakuetara, galtzue edo agotza kamara edo tejamanara, galautze kortara ganadueri aspiek iteko eta galondoan lotu direan galburuek olloantzako.

D'oin yatok onena, orrikas anega garioakas, urterako ogie iten yaustiek. Artu sorroka eta errotara eroan. An io eta eralgi. Urun eralgibikoagas ogien in da baten eralgiegas tremesa. D'ogiek es bat, askos geao. Aspiran sabaldu gari urune, bota gatzure ta lebadurea, igurdi ondo, satiek in d'itxi ondo yagiten, yagi bi badire obeto. Gero orregas in ogi nausiek asterako, edo pamitxak, edo paskoatan morrokotak, edo momentorako talo yagiek... Au gusti au labean. Otakas berotu labea da templea arturduen barrure ogiok.

Artoak a esin auen agoantau geao ta berape bere burue gitxiagotzat es aukenes badiñotzo:

I, ik i au t'ori te bestea diñok, baye ni ñaoen lekuen be etxaok (g)oserik e! Et'espabere bitik ia labesuen ire aurretik i nor doan labera barrure, nau, ta ganera nau(k) tenpletan doa(t)k(g)anera iri labea d'ondo goso yaten nayuek urdai erreagas da gaubetan artosopan, da... eta es ori bakarrik, ire galtzue sein agotza latzatosak

San Inazio aurretik aal dala, olango egun bero baten, kanikulegaz, zabaldu barriro gari-metok eta gari-joten asten jatazak eskutok o garanduteko.

Orretarako, artzen juezak arri-losak eta azpian tronko bat edo beste arri bat dala aurberan iminten jaudiezak eta gero gari-joten, batzuk akarreaon eta beste batzuk u joten, sasoi oneko gizonak.

Gariok jo orduan, leenago artzeagas airean, geroago ba galbaeagaz edo eskusko makineagaz eta orain trilladoreagas ba garbitu egiten naiuek. Galgaraua, anegaka zakuetara, galtzua edo agotza kamara edo tejamanara, galautsa kortara ganaduei azpiak egiteko eta galondoan lotu diran galburuak olloentzako.

Eta orain jatok onena, orreekaz anega garioakaz, urterako ogia egiten jaustiek. Artu zorroka eta errotara eroan. An io eta eralgi. Urun eralgibikoagaz ogiak egin eta baten eralgiagaz tremesa. Eta ogiak ez bat, askoz geiago. Azpiran zabaldu gari uruna, bota gatzura eta lebadurea, igurdi ondo, zatiak egin eta itxi ondo jagiten, jagi bi badira obeto. Gero orregaz egin ogi nagusiak asterako, edo pamitxak, edo paskoetan morrokotak, edo momentorako talo jagiak... Au guzti au labean. Otekaz berotu labea eta templea artu orduan barrura ogiok.

Artoak a ezin euan aguantadu geiago eta berak be bere burua gitxiagotzat ez eukanez badiñotso:

I, ik i au eta ori eta bestea diñok, baia ni niagoan lekuan be ez jagok goserik e! Eta ezpabere begiratu egik ia labesuen ire aurretik i nor doan labera barrura, neu, eta ganera neuk tenpletan deuat ganera iri labea eta ondo gozo jaten najuek urdai erreagaz eta gaubetan artosopan, eta... eta ez ori bakarrik, ire

biepe ta galautze setan esanipes, baye nire garbea ta kanile berdetan da eldu orduen artaburuek suritu te aikas kapaxakas seinbekausa, danape yan goso-goso eta finenakas a selango lastamarrak iten yauriesan gero lo iteko, eta yaukanak a tabakorrie erretako be papel ordes gastu gitxiago aukiteko, se pentzetopa?

Ni naupe ganeko burue yaukoadan, da nire buru ederrakas yaten asi baño len labigerra iten yaustiek eta gero eroan errotara urun ona atetako. Errotarie be sur ote soan da nire labigerreko arturuneti ire gariuruneti baño pitantza andiango gordetan yoan beretzat io alde.

Gero ganeko arto, opil, talo eta morokil gosoak iten yuesan ni nauges, se pentzetan dopa?

Eta ganera ollo ta txarrientzape banok o yakie, da gero a selango arrautza ta txarriki gosoatxaten yuesan...

Da ba pasaudiesan diskutiok eta trebituok eta beste egun beten artoa gañetu i yakon gariari t'esan:

- Ik i au t'ori te bestea baye ni nau i baño adiango ta buru obeagokoa nok, i nire ondoan merro, txankerre, kokoterre bapaño es as!

- I, entzuistek, -erantzu otzen gariak-, txikie ta merroa noala sein enoala, baye mayetzean buru ixiten nok eta ni nautzat galtzue edo agotza baño buru ona aukitea do(k) lelengo, t'ori banok, eta ire lasto lerdan da kankalloak etxaustek ikerarik iten.

Olan ebisen seguru gari-artook. Artes egie esateko biepe ondo yatorkus baserri-reko, gaur u misketute sarriten yan guresik oten gara baye!

galtzua zein agotza latzak dozak biak be eta galautsa zertan esanik be ez, baia nire garbea eta kanila berdetan eta eldu orduan artaburuak zuritu eta areikaz kapaxakaz zeinbat gauza, danak be jan gozo-gozo eta finenekaz a zelango lastamarrak egiten jaudiezan gero lo egiteko, eta jaukanak a tabakorria erretako be papel ordeztu gastu gitxiago aukiteko, zer pentzetan dok ba?

Nik neuk be ganeko burua jaukadan, eta nire buru ederrekaz jaten asi baño leen labigerra egiten jaustiek eta gero eroan errotara urun ona aterateko. Errotaria be zuur egoten zoan eta nire labigerreko arturunetik ire gari-urunetik baño pitantza andiango gordetan joan beretzat io alde.

Gero ganeko arto, opil, talo eta morokil gozoak egiten juezan ni neugaz, zer pentsetan dok ba?

Eta ganera ollo eta txarrientzat be banok o jakia, eta gero a zelango arrautza eta txarriki gozoak jaten juezan.

Eta ba pasadu eudiezan diskutiok eta trebituok eta beste egun baten artoa gañetu ei yakon gariari eta esan:

- Ik i au eta ori eta bestea baia ni neu i baño adiango eta buru obeagokoa nok, i nire ondoan merro, txankerre, kokoterre bat baño ez aiz!

- I, entzun egistak, -erantzun eutsan gariak-, txikia eta merroa noala zein ez noala, baia maiatzean buru izaten nok eta niretzat neuretzat galtzua edo agotza baño buru ona aukitea dok leenengo, eta ori banok, eta ire lasto lerdan eta kankalloak ez jaustak ikerarik egiten.

Olan ebilzan seguru gari-artook. Artez egia esateko biak be ondo jatorkuz baserri-rirako, gaur u mizketuta sarritan jan gura ezik egoten gara baia!

2.6. Saldaingo txakurrarena

Baten e, Saldainen, Saldain bakixu non daoen esta? Ba, an seguru txakurren bat i egoan da goseak irrintzaka seguru, te ba oindo etzan baskariko tertzioa ta berekitan esan i auen:

– Emen Saldainen ondiño lapikokoak itarin yaosak eta Uriondora yoan bear yoat ia an se topetan yoadan, an a ordureko sukutute ongosak eta lapikokook.

Da ba yoan san beresiri(k)p(b)eresi te ba Uriondora allegau sanean ser? da ba an e danapaskaldute es ausen ba topau!

D'orduen e bustena atzeko ankartean sartute bere burueri esan i otzen:

– Oin eperdie(n) mun iok, urrungoan epe apur bekeao auki beako yoat espabere gaurkoa pasauko yatak, nipai in yoadala kokoriokerie, ganeko susterbakoa noan.

D'orixe pasau i akon seguru, te ba gaur be baten bateri olango paseetan yakonean: «Saldaingo txakurrena pasau yako» esaten du.

Ori, Domartiek esan dotzune, Ellakuriko txakurrena, Billaron pasau i sen. Ango txakurre Billaroko mojetara yoan i sen, aik i goxeti baskaiten dauriela ta. Baye baskaldute topau i ausen da bueltarako Ellakurin be baskaldute.

Joanito Sasolakoak esaten dau Ellakuriti mojetara barik i Gorbaye ondoko etze batera yoan sala, ta bardin pasau yakola. Bakixu, onikontuok era askotara kontetan dire ta ba, atzenean dana txakur amesa!

Baten e, Saldainen, Saldain badakizu non dagoan ezta? Ba, an seguru txakurren bat ei egoan eta goseak irrintzaka seguru, eta ba oraindiño ez zan bazkariko tertzioa eta berekitan esan ei euan:

– Emen Saldainen oraindiño lapikokoak itarin jagozak eta Uriondora joan bear joat ia an zer topetan joadan, an a ordurako zukututa egongo dozak eta lapikokook.

Eta ba joan zan beresirik beresi eta ba Uriondora allegadu zanean zer? Eta ba an e danak bazkalduta ez euazan ba topadu!

Eta orduan e buztana atzeko ankartean sartuta bere buruari esan ei eutsan:

– Orain eperdian mun egiok, urrungoan epe apur bat geiago euki bearko joat ezpabere gaurkoa pasaduko jatak, nik bai egin joadala kokoriokeria, ganeko susterbakoa nokan.

Eta orixe pasadu ei jakon seguru, eta ba gaur be baten bati olango zeozer pasetan jakonean: «Saldaingo txakurrena pasadu jako» esaten dogu.

Ori Don Martinek esan deutsuna, Ellakuriko txakurrarena, Billaron pasadu ei zan. Ango txakurra Billaroko monjetara joan ei zan areek i goizetik bazkaiten daudiela eta. Baia bazkalduta topadu ei euazan eta bueltarako Ellakurin be bazkalduta.

Juanito Sarasolakoak esaten dau Ellakuritik monjetara barik i Gorbeia ondoko etxe batera joan zala eta bardin pasadu yakola. Badakizu, oneek kontuok era askotara kontetan dira eta, ba, atzenean dana txakur amesa!

2.7. Zozoa, errekatxoria eta txindorra

Ba baten pasausen, ba usedioa egoan leenago, untzurarte, ni naure gogoaldien esese saurean be esotu ixingosu te, ba errogatibak iteko usedioa bai sikitea edo bai uriolak ote sireanean sikan.

Onen antzekoa baye prososiño barik i lenao abadeak soloak eta be berinkituten ausen parte txarrekoan kontra.

Da ba olango errogatiba egun beten seguru bayoyasan seguru Andramarire batean erresau bestean kantau.

D'alangonbaten an sasitza batetik urten da sosoan batek kaka in i otzen Amabirjinean mantu surieri. Kapea ederra seguru, suri surie, magal barrenetan puntillasko aginadura ta gusti.

Da ba seguru, amabirjinearen andariok o errekatxarkoan bape pasau beaudien da andik ebilen errekatxori betek e bere busten ikerea urean busti te sosoak ineko kakori garbitu in i auen seguru.

Da gero ba goratxugora allegau sireanean, andariok aldatu te atan daosela non datorren txindor bat eta errekatxorien garbikusie sikitu!

D'orregatik edo ni nauk estakipa, sosoak estau iños arpegirik emoten, beti dabil or sasiperi(k) sasipe da kantetan dauenean be abitik urrin daoenean iten dau.

B'ori kaka inekoori marti-sosoan bat edo beste soso lumorrastubakoan bat ixingo yatzun, kontau olan iten daurie sikan.

Ba baten pasadu zen, ba usadioa egoan leenago, oraintsurarte, nire neure gogoaldian ezeze zeurean be ezagutu izango dozu, ba errogatibak egiteko usadioa bai sikitea edo bai uriolak egoten ziranean sikan.

Onen antzekoa baia prosoziño barik i leenago abadeak soloak eta be bedeinkatuten euazan parte txarrekoen kontra.

Eta ba olango errogatiba egun baten seguru bajoiazan seguru Andramarira batean errezadu bestean kantadu.

Eta alangoren baten an sasitza batetik urten eta zozoren batek kaka egin ei eutsan Amabirjinearen mantu zuriari. Kapea ederra seguru, zuri zuria, magal barrenetan puntillazko aginadura eta guzti.

Eta ba seguru, amabirjinearen andariok o errekatxarkoren bat be pasadu bear eudien eta andik ebilen errekatxori batek e bere buztan ikerea uretan busti eta zozoak egineko kakori garbitu egin ei euan seguru.

Eta gero ba goratxugora allegadu ziranean, andariok aldatu eta aretan dagozala non datorren txindor bat eta errekatxorien garbikuzia sikatu!

Eta orregaitik edo nik neuk ez dakit ba, zozoak ez dau iñoiz aurpegirik emoten, beti dabil or sasiperik sasipe eta kantetan dauanean be abiatik urrun dagoanean egiten dau.

Ba ori kaka egineko ori marti-zozoren bat edo beste zozo lumorrastubakoren bat izango jatzun, kontadu olan egiten daudie sikan.

2.8. Txirritxirria eta iñorria

Ori txirritxirrien kontue aitearen da semearen! batepaki sainbepider erabili un, uda partea danean en partikular biri(k)p(b)aten daragoiou esakera orreri: «iñorriena iten gabis».

Baye kontue onan da, osoan esan gurotzut. Segun itxurea, ba uda partean da udagoiengan be bai, ba iñorrie bear da bear ibilten da, bateko asiepatu, beste-ko bedar sikuek eta ganetiko beste estakipa sainbekausa.

Girgillue barres, txirri te txirri denpora gustian, kukue letxe, bearrik in barik, sotzalbo bes. Gutzako umeontzako entrenimintue ixiten san girgilluek arrapatutea. Orretarako si-bedarrak erabilten gaindusen eta ai(k) naiko ixiten es sireanean mutikoak, neskapebai, txixe iten gauntzen sulora ta txirritxirriek abantean urtetauen kanpora. Aitek eta kontus ibilteko esatoskun, subeak eta ausike in esiteko.

Da ba olan seguru, bata bearren jaunekobean da bestea leposuri kanpoederran antzean.

Udagoiena be eldu sen seguru te girgillue triste, yatekorik es da kantetako umoreripes.

Iñorrie ostera, bere iñorrimendien ondoan arrautzak in d'esarten da batuko asieri begie yan da kanpora atetan bustirik egosanak gero sikitu orduen barru barruen gordetako.

Girgillue ixilik, ukusi ukustauen bestea baye nor yoan oin yana eske iñorrieri inek inde?

Negue be allegau sen da ba girgilluek esin auen geao agoantau da esa eskuen auken les, imini kuitidu arpegi bet eta orra or non yoakon iñorriari ateatxoten:

Ori txirritxirriaren kontua aitearen eta semearen! batek badaki zeinbat bider erabili dogun, uda partea danean en partikular birik baten daragoiou esakera orri: «iñorriarena egiten gabilz».

Baia kontua onan da, osoan esan gura deutsut. Segun itxurea, ba uda partean eta udagoiengan be bai, ba iñorria bear eta bear ibilten da, bateko aziak batu, besteko bedar sikuak eta ganetiko beste ez dakit ba zeinbet gauza.

Girgillua barrez, txirri eta txirri denpora guztian, kukua letxe, bearrik egin barik, zotzalbo be ez. Guretzako umeontzako entrenimintua izaten zan girgilluak arrapatutea. Orretarako ziri-bedarrak erabilten genduzan eta aik naiko izaten ez ziranean mutikoak, neskak bebai, txixa egiten geuntsan zulora eta txirritxirriak abantean urtetan euan kanpora. Aitak eta kontuz ibilteko esaten euskun, subeak eta ahausika egin ez egiteko.

Eta ba olan seguru, bata bearren jaunekobean eta bestea lepozuri kanpoederraren antzean.

Udagoiena be eldu zan seguru eta girgillua triste, jatekorik ez eta kantetako umorerik be ez.

Iñorria ostera, bere iñorrimendiaren ondoan arrautzak egin eta ezarten eta batutako aziei begia jan eta kanpora ateraetan bustirik egozanak gero sikatu orduan barru barruan gordetako.

Girgillua ixilik, ikusi ikusten euan bestea baia nor joan orain jana eske iñorriari eginak eginda?

Negua be allegadu zan eta ba girgilluak ezin euan geiago agoantadu eta eza eskuan eukan lez, imini kuitadu aurpegi

- Tan,tan!
- Nor da?
- Txiritxirrie!
- Se(k) sakas ba ona tertzio onetan?
- Goseak, gosakilik nao, konortea be galdu inik!

- B'ara, udan txir-txir da neguen eskean, sutzako estao eser guretzean!

D'alan emon i otzen seguru andafuerasko yantzie iñorriek girgillueri, da gupe, girgilluen antzera dabilenari sarri esan dotzu ori atzenekoori:

«udan txir-txir da neguen eskean sutzako estao eser guretzean»

bat eta orra or non doakon iñorriari ateak joten:

- Tan, tan!

- Nor da?

- Txiritxirria!

- Zek zakarz ba ona tertzio onetan?

- Goseak, goseakilik nago, konortea be galdu eginik!

- Ba ara, udan txir-txir eta neguan eskean, zuretzako ez dago ezer gure etxean!

Eta alan emon ei eutsan seguru andafuerazko jantzia iñorriak girgilluari, eta guk be, girgilluaren antzera dabilenari sarri esan deutzagu ori atzeneko ori:

«udan txir-txir eta neguan eskean zuretzako ez dago ezer gure etxean»

2.9. Eskekoa kontu erratuarena batzean

Gaur be, eskekorik esta falta batesbe uri bastarretan baye lenao gure ume denporan eskeko asko ebilen etzerik etze, gerrostaien bakixu, ser yan askoripe etze-goan da, asko euskaldun be etze barik eta errukarri aurkitu sen gerrostean.

D'era askotako eskekoak ebisen emeti, batzuk u erdeldunek, besto batzuk auskeldunek eta auren artean batzuk asto, mando edo karroagas be bai baie gaienak oiñeskoak.

D'esan dotzutena, ba, etzerik etze etosan da eskatu baño lenao errestan aste sirean, pater noster bat edo abe marie bat. Eta ba limosnea edo yanarie emoten yakien, bakotxaperak al dauena. Se etzeatan be es egoan ser yan asko, ba bitixu baten gure ama defunteari, sure amamari, olango eskeko erdeldun bet etorri jakon da limosnea eskatu otzenean esan i otzen:

Gaur be, eskekorik ez da falta batezbe uri bazterretan baia leenago gure ume denporan eskeko asko ebilen etzerik etxe, gerra ostean badakizu, zer jan askorik be ez egoan eta, asko euskaldun be etxe barik eta errukarri aurkitu zan gerrostean.

Eta era askotako eskekoak ebilzan emetik, batzuk u erdeldunak, beste batzuk euskaldunak eta euren artean batzuk asto, mando edo karroagaz be bai baie geienak oiñezkoak.

Eta esan deutzadana, ba, etzerik etxe etorzan eta eskatu baño leenago erreze-tan asten ziran, pater noster bat edo abe maria bat. Eta ba limosnea edo janaria emoten jakien, bakotxak berak aal dauana. Ze etxeetan be ez egoan zer jan asko, ba begiratu egizu baten gure ama defunteari, zure amamari, olango eskeko erdaldun bat etorri jakon eta limosnea

«bastante pobre tenemos aqui», auki be bai, etze bete ume gintzesan da isin be.

Auskaldunepe basirean banaka bat, emekoak sein gipuzkoarrak. Bat errikoa be auki gairdun da or ospitalean bixi sen gaubetan d'egunes etzerik etze.

Orrek erriko orrek eskatu esese erreka-du be itauen, sutxakingosu erreka-du itea ser dan esta? Ba urlieri eskontzea prepara- rau edo bidean imini. Eta ostaintzeko erreka- duepe itauriesan, se lenao kotxeripe etzegoan da familiek sabal egoneskero ondo etorte san olango bat arkalen barri emoteko.

Ostaintzeko eskekoak e lo iteko etze sañaladuek aukite auriesan, yakitauden se etzekok emotauen ostatue, kortan edo teja- manako bedartzan. Gure etzean be makina bat eskeko(k) lo in ixingo dau, se ingo sauntzien ba! Uin, ori bai, tabakorrie ta metxeru edo mistoak sutean itxiasoten gauntzen sein korteak edo temejaneak sue artu, d'urrungo egunean barriro emon.

D'uin kontaukotzut u kontu erratuena batzean etorri sanana. Nongoa sanik ixin naisu esan baye arenbatekoa ixingo san.

Ba, seguru, gixon ori be eskean etorren da ba es eukan itxura txarripe ta esan i otzen baten batek:

- Suk u ser batzean dosu ba orregas itxura orregaz?

- Ba ni nauk u kontu erratuena batzean dot.

- Da ser jatzu ba ori? -esan i otzen-

- Ori? ba, aitixu, onenbeste diru naun- ken aurreratute sartzarorako ta onenbeste urte bixiko naintzelakotan nengoan. Or- duen urtean urtean gastau in dot ni naure kotejasiñoa , baye urte geao bisi nes d'uin eskean yoan bear, kontu erratuena

eskatu eutsanean esan ei eutsan: «basta- te pobre tenemos aqui», euki be bai, etxe bete ume gintzasan eta izan be.

Euskaldunak be baziran banaka bat, emekoak zein gipuzkoarrak. Bat errikoa be euki gairdun eta or ospitalean bizi zan gaubetan eta egunez etxerik etxe.

Orrek erriko orrek eskatu ezeze erreka- du be iten euan, zuk jakingo dozu erreka- du egitea zer dan ezta? Ba urliri ezkontzea prepara- du edo bidean imini. Eta osteran- tzeko erreka- duak be egiten eudiezan, ze leenago kotxerik be ez egoan eta familiak zabal egon ezkeron ondo etorten zan olan- go bat alkarren barri emoteko.

Osterantzeko eskekoak e lo egiteko etxe seiñaladuak eukiten eudiezan, jakiten eudien ze etzekok emoten euan ostatua, kortan edo tejamanako bedartzan. Gure etxean be makina bat eskekok lo egin izango dau, zer egingo zeuntsien ba! Orain, ori bai, tabakorria eta metxeru edo mistoak sutean itxiazoten geuntsan zein korteak edo temejaneak sua artu, eta urrengo egunean barriro emon.

Eta orain kontaduko deusut u kontu erratuarena batzen etorri zanarena. Non- goa zanik ezin neizu esan baia arenbate- koa izango zan.

Ba, seguru, gizon ori be eskean etorren eta ba ez eukan itxura txarrik be eta esan ei eutsan baten batek:

- Suk u zer batzen dozu ba orregaz itxura orregaz?

- Ba nik neuk u kontu erratuarena batzen dot.

- Eta zer jatzu ba ori? -esan ei eutsan-

- Ori? ba, aditu egizu, onenbeste diru neunkan aurreratuta zaartzarorako eta onenbeste urte biziko nintzalakotan nen-

batzean, meresidu esto(t)p(b)aye, uskeritxubepaño espada be emongo basaust!

Ba, olantxik emon i ausen bere askeneko egunek, agaitik i aukiek (g)justiek estire yan bear, geroko be seoser itxi bea da, baten batzuk u bestera be pentzetan daurie gero, ostaikoari sorrak itxitea dala onena, se arean itxi eskero askotan liorako baño esta ixiten da. Sorrak a kanpaia(k) pagetan dituela esaten daurie beste batzuk.

Ni nauk u estokure eselango sorrik. Gure aite defuntuek esatauen sorrik onena baño arkienik txarrena ohea isiten dala, eta ni nau be orretan nao, gaubean lo nasai itealangorik estao, es or asko(n) moduen fraketan kabidu esinde lorik in isinik auren sorro(k)t(d)irela t'estirela, setan estala burueri lorra emoten, konformidadea gausandie da ba! estosu pentzetan?

2.10. Txakurra eta katua pleituan

Onin ganean se esangotzupa? Ba, txakurrek eta katuek etze baten bisi bear d'esin konpondu.

Au kontu au aspaldikoa yatzu seguru, da nik entzutea dauket e ba ain aukien seguru apartakera txarra ba esbaien edo pleituen asi i sirean estait nos be.

An estaipa se trebitu pasauko udien baye askenean katuek esan i otzen abogadueri:

– Bueno, emen estao konpontarik eta lotu daitela txakure asurrokas da ni nau

goan. Orduan urtean urtean gastadu egin dot nire neure kotejaziñoa, baia urte geiago bizi naz eta orain eskean joan bear, kontu erratuarena batzen, merezidu ez dot baia, uskeritxu bat baiño ez bada be emongo bazeust!

Ba, olantxik emon ei euazan bere azkeneko egunak, agaitik i eukiak guztiak ez dira jan bear, geroko be zeozer itxi bear da, baten batzuk u bestera be pentsetan daudie gero, ostaikoei zorrak itxitea dala onena, ze arean itxi ezkeri askotan liorako baiño ez da izaten eta. Zorrak a kanpaiak pagaetan dituela esaten daudie beste batzuk.

Nik neuk u ez dot gura ezerlango zorrik. Gure aita defuntuak esaten euan zorrik onena baiño arkienik txarrena ohea izaten dala, eta ni neu be orretan nago, gaubean lo nasai egitealangorik ez dago, ez or askoren moduan fraketan kabidu ezinda lorik egin ezinik euren zorrok dirala eta ez dirala, zertan ez dala buruari lorra emoten, konformidadea gauza andia da ba! ez dozu pentsetan?

Oneen ganean zer esango deusut ba? Ba, txakurak eta katuak etxe baten bizi bear eta ezin konpondu.

Au kontu au aspaldikoa jatzu seguru, eta nik entzutea daukat e ba ain aukien seguru apartakera txarra ba ezbaian edo pleituan asi ei ziran estakit noiz be.

An ez dakit ba zer trebitu pasaduko eudien baia azkenean katuak esan ei eutsan abogaduari:

– Bueno, emen ez dago konpontarik eta lotu daitela txakurra azurrokaz eta ni

etzekoandrea deskiuduekas konformauko ñatzue!

D'alantxik in i audien. Da nik estaipaie, katurik mantzoenape akordatzakoan ingotzu berean bat.

Oin kontaukotzut u fetxori bet. Ba baten seguru, gixonen batek sardina sar bi i aukesan besuko txinger ganetan erretan da aspirara ogiten doala estotzo katuek e bat artu te kamarako goitegire eskapetan!

Oño!, esan da, atzerikara yoan yakon gixon ori aspirapalua eskuetan dauela. Katuek e tellapeko erresumara igun otzen da gixon ori aspirapalu orregas etxoten daoela yan in auen rau-rau sardina sar ori. Gixonak iten i auen ba: «Emen etxongoutza(t)p(b)a, i(k)t(d)aukosak artzeako narukoak!».

Katue ostandu in yakon an estarian da egonak egon inde esan i auen gixon orrek: «Gero be arrapauko yoat eta bañoak a beste sardina sarra gustis erre baño len yaten».

Badoa ta, gixona kamaran etxoten egoan interan, estotzo ba bigarrena be eroan da yaten! A bai egoala mutile! Katuen barririk estakit arean baye esan ondo ibiliko. Ikustosunes, katuek e andrazkoari esese gixoneskoari be ederrak enpleetan dotzies!

2.11. Salomonen amenazua

Au ser au nori entzunde daukotzedan be estakit, ara, aiteri te entzunde, ba baten seguru Salomonek e bere ama i auken gaixorik, txarto, t'antza esauen gure il yakon da ba orduen amenasaute aukesan danak esanes: «ni naure ama il

neu etzekoandrearen deskiuduekaz konformaduko niatzue!

Eta alantxik egin ei eudien. Eta nik ez dakit baia, katurik mantsoenak be akordatzakoan egingo deutsu berearen bat.

Orain kontaduko deutsut u fetxoria bat. Ba baten seguru, gizonen batek sardina zaar bi ei eukazan beesuko txinger ganetan erretan eta azpirara ogiten doala ez deutso katuak e bat artu eta kamarako goitegira eskapetan!

Oño!, esan eta, atzerikara joan jakon gizon ori azpirapalua eskuetan dauela. Katuak e tellapeko erresumara igon eutsan eta gizon ori azpirapalu orregaz itxaroten dagoala jan egin euan rau-rau sardina zaar ori. Gizonak egiten ei euan ba: «Emen itxarongo eutsat ba, ik daukazak artzeako narukoak!».

Katua ostendu egin jakon an estarian eta egonak egon eginda esan ei euan gizon orrek: «Gero be arrapaduko joat eta bañoak a beste sardina zaarra guztiz erre baiño leen jaten».

Badoa eta, gizona kamaran itxaroten egoan interan, ez deutso ba bigarrena be eroan eta jaten! A bai egoala mutila! Katuaren barririk ez dakit arean baia ez zan ondo ibiliko. Ikusten dozunez, katuak e andrazkoari ezeze gizonezkoei be ederrak enpleetan deutsiez!

Au zer au nori entzunda daukatsadan be ez dakit, ara, aitari eta entzunda, ba baten seguru Salomonek e bere ama ei eukan gaixorik, txarto, eta antza ez euan gura il jakon eta ba orduan amenazadute eukazan danak esanaz: «nire neure ama

in yatala errekaduegas datorrena il in got».

Da ba il yakon amori baye iñok es i auken adorerik errekadu ori eroateko sein Salomonek atzena emon.

Da ba, selan estakitzu(t)p(b)aye, andik ebilen auskeldunen batek esan iotzien besteari:

– Ori esatea baño espok o nauk ingo yoat!

Da yoan i sen auskaldun ori te bape ikera barik i yo Salomonen ateok eta badiñotzo:

– Egun on daukola beorrek!

– Ser beostek nor asen beist?

– «Martilbera, ateste il barri, Salomonen ama, es gose es egarri»

– Orduen il in dok? -esan i otzen Salomonek-

– Ik auk igirri ok!

D'es i otzen eser in, yakine, esan be es otzen in de.

2.12. Gabonetako kontuak

Gabon inguruen? aitearen da semearen! makina bat e kontu, siñeskera ta sarraparra inguruetan!

Gaur u gauzak asko kanbiau dire baie uintzurarte ekarri u agea da ontxe ta untxe be badaragoiu kontuokas, batzukes beintzet.

Ba lenao, gabon ingurue allegetan saanean, gabonkariak ekarten asten gaintzesan. Gausa asko etzean gaunken baie gosogausak eta erosi iten gaindusen. Txarrie be gabon aurretuxen ilten gaindun. Intxaurrek eta urritxape gordeta aukiten gaindusen. Da, intxaurrek ondo estimadu gordetan gaindusen sakutotxu beten da kamako goitegien eskegi sein

il egin jatala errekaduagaz datorrena il egingo dot».

Eta ba il jakon ama ori baia iñok ez ei eukan adorerik errekadu ori eroateko zein Salomonek atzena emon.

Eta ba, zelan ez dakitsut baia, andik ebilen euskaldunen batek esan ei eutsien besteei:

– Ori esatea baiño ez badok o neuk egingo joat!

Eta joan ei zan euskaldun ori eta bat be ikara barik i jo Salomonen ateok eta badiñotzo:

– Egun on daukola berorrek!

– Zer bear dostek nor azan beist?

– «Martilbera, atezte il barri, Salomonen ama, ez gose ez egarri»

– Orduan il egin dok?-esan ei eutsan Salomonek-

– Ik euk igarri dok!

Eta ez ei eutsan ezer egin, jakina, esan be ez eutsan egin eta.

umeatxan. Bitixu noraiñokoa san au kontu au, intxaurre ondoa etze inguruen ote san da bete beterikanera, baye umeakas esin gausonik in. D'ordu en usedio bat egoten san, sera, ba, intxaurre elduten asten danean ganeko mintze arrankaldu iten yako da aren mintzen mantxea lejiape estau kentzean. Da mutikoak a, suropebai, or ibiltzen sintzien eskuekordetan sein intxaurmantxeruek eskuek ebagi. D'eskerrak a bildur orreri, ostaintxean erdietan, intxaur barik i lotuko gaintzesan, gabonetan intxaur saltzea iteko edo urte barri t'apalasio egunean aginaldoa emoteko.

Gero ba bakixu, lenao familiepe andiek ixiten sirean da eskontan sireanean da umeak auki, ba, etzekadak iten sirean da nok o bete aien gustien tripesorriek!

Orregaitik i usedio batek urten auen, gabon-otzareanak. Ori sen ba, seme edo alaba bakotxak amari otzarea ekartea gabon-yayek ospatuteko. D'an otzaran ba baserriko esgausak ekarte sirean, ba, orio, asukera, gosoak eta olangoak. Suope ekarten dauskusue, supe ganeko otzarea akarten dauskusun, txanpan-kajea ta ganetikoak!

Gero ba Gabon gaubean, gu gau siñesmenekoakara da bakisu, undiño be errosarioa erresau iten du afari aurretik.

D'estot esan, baye, eskonduek e satitu iten dire, gabon gaube bateanean ineske-ro, gabonsarrak a besteanean iten dauries, sauk iten dosu(n) moduen.

Gero ba, Gabon gaubeko afarien, oin len baño geao yaten da eta bariadugo. Len ba orio-asea, karakolak, makallago apur bet eta intxaursaltza edo beste go-soan bat. Gaur ostera genero geao yaten du, mariskoa ta ganetikoak, eta gero or

umeak jan. Begiratu egizu noraiñokoa zan au kontu au, intxaur-ondoa etxe inguruan egoten zan eta bete beterik ganera, baia umeekaz ezin gauza onik egin. Eta orduan usadio bat egoten zan, zera, ba, intxaurra elduten asten danean ganeko mintza arrankaldu egiten jako eta aren mintzaren mantxea lejiak be ez dau kentzen. Eta mutikoak a, zuok be bai, or ibiltzen zintzien eskuak gordetan zein intxaurmantxeruek eskuak ebagi. Eta esker-rak a bildur orri, osterantzean erdietan, intxaur barik i lotuko gintzazan, gabonetan intxaur saltzea egiteko edo urte barri eta apalazio egunean aginaldoa emoteko.

Gero ba badakizu, leenago familiak be andiak izaten ziran eta ezkontan ziranean eta umeak euki, ba, etzekadak egiten ziran eta nok o bete aien guztien tripazorriak!

Orregaitik i usadio batek urten euan, gabon-otzarearenak. Ori zan ba, seme edo alaba bakotxak amari otzarea ekartea gabon-jaiak ospatuteko. Eta an otzaran ba baserriko ezgauzak ekarten ziran, ba, orio, azukera, gozoak eta olangoak. Zuok be ekarten deuskuzue, zuk be ganeko otzarea akarten deuskuzun, txanpan-kajea eta ganetikoak!

Gero ba Gabon gaubean, gu geu siñesmenekoak gara eta badakizu, oraindiño be errosarioa errezadu egiten dogu afari aurretik.

Eta ez dot esan, baia, ezkonduak e zatitu egiten dira, gabon gauda batearenean egin ezkerro, gabonzaarrak a bestearenean egiten daudiez, zeuk egiten dozun moduan.

Gero ba, Gabon gaueko afarian, orain leen baño geiigo jaten da eta bariadugo. Leen ba orio-azea, karakolak, maka-

gabis axatute edo biotzerreagas urdailleari autziten.

Gaur u labesue iteari be itxi in dotzu baye untzurarte etzeko ogie t'artoa erretan ixin du ta afari aurrean ogie ebaten asi baño len ogieri kurtze bat iten yakon kutxilloagas bedinkituteko ta gero lelengo ogi-kuskurreri mosue emon da gorde mantelpean, setako? ta txakur amurrutuentzat. Untzurarte, selaien edo soruen topetan gaindun ogi satieri be mosue emoten gauntzen.

D'au esta gabonetakoa baye untxe akordau yata, ba eskekoan ogie be ona i de berba iten ikisteko. Supe yanda daukosu eskekoan ogie, txikiten eskatu in gauntzen da eskeko bateri, d'etakit oregaiti ala segaiti baye arin etorri saintzen berbara.

Ori suena? Ba, guk u atxine kendu gaindun besue. Len sue iten gaindun baye guk u badaespada beti amatau u sue uira yoatorduen.

Gero Natibete egune, andie ixiten san da ba esakereatiñoanes, «natibete bete bete, San Esteban txokolate», txokolatea artzean gaindun mesara yoan baño iru ordu lenago gero gure Jaune artu al ixiteko. Iru ordu oin, gure sarrak a barauritxoan bear ixitauden, d'a bai ixiten i sen tripetako orrootza!

Gero iñosente egunean be iten gaindusen astakeri betzuk. Baye etzean gogor iten euskuen da galdues yoan da usedio ori. Iñosentadeagas naste auxe kantetan gaindun: «iñosente, kokosente, lleva la carga y no lo siente».

Gabonsarretan gero, ba yanak antzera. Ai, etxoisu, asean kantea estotzu(t) kan-tau:

llao apur bat eta intxaursaltza edo beste gozoren bat. Gaur ostera genero geiago jaten dogu, mariskoa eta ganetikoak, eta gero or gabilz aizetuta edo biotzerreagaz urdailleari eutsiten.

Gaur u labesua egiteari be itxi egin deuntsagu baia oraintsurarte etzeko ogia eta artoa erretan izan dogu eta afari aurrean ogia ebagiten asi baño leen ogiari kurutze bat egiten jakon kutxilloagaz bedeinkatuteko eta gero leenengo ogi-kuzkurrari mosua emon eta gorde mantelpean, zertarako? Eta txakur amurrutuentzat. Oraintsurarte, zelaian edo zoruan topetan gendun ogi zatiari be mosua emoten geuntsan.

Eta au ez da gabonetakoa baia oraintxe akordadu jat, ba eskekoen ogia be ona ei da berba egiten ikasteko. Zuk be janda daukazu eskekoen ogia, txikitan eskatu egin geuntsan eta eskeko bati, eta ez dakit orregaitik ala zergaitik baia arin etorri zintzan berbara.

Ori suarena? Ba, guk u antxina kendu gendun beesua. Leen sua egiten gendun baia guk u badaezpada beti amatadu dogu sua oera joatorduan.

Gero Natibete eguna, andia izaten zan eta ba esakereak diñoanez, «natibete bete bete, San Esteban txokolate», txokolatea artzen gendun mezara joan baño iru ordu leenago gero gure Jauna artu aal izateko. Iru ordu orain, gure zaarrak a baraurik joan bear izaten eudien, eta a bai izaten ei zan tripetako orrootsa!

Gero iñosente egunean be egiten genduzan astakeria batzuk, baia etxean gogor egiten euskuen eta galduaz joan da usedio ori. Iñosentadeagaz naaste auxe kantetan gendun: «iñosente, kokosente, lleva la carga y no lo siente».

«Aite Joaniko, seme Periko
ser daukasu afaiteko
orio-asa goso gosoa
opil beroagas yateko»

Da ba afaldu te gero, kartetan, len etzegoan telebisiñorik d'olangorik. Edan be gaitxuago iten san, batzuk u beres be egarribereak edo sama-sikuek ixiten dire ta olango egunetan katutu iten dire asko, d'altzaurduen komediek! albora-kargeagas eskusaure barik i beste edosein koarture be igoal, baye, tire, olango egunetan txartzape estire artzean. Urrungo goxean ixiten dire kontuek. Bepuruek edo betxintak astun, da deskuidetan basara agobixerakas, yakatzu, d'umore txarrean.

Uin i bateko bolanderatireala besteko amabietako matzak, aldatu in dire usedioak baye lenao Gabonsar gaubeko amabietan, orrik i mutil gastelo edo eskondu barri antzape, arteape artu esinik edo, soro be bai te, ba, astakeriak iten urtetauden amabi-amabietan. Antza orduko legeak es i auen sigortuten tertzio orretako astakeririk.

Eta ba, se itaudien? Ba, bedar-metan ardatz-agea edo barandea apurtu, soloko latak atera, burdiek balkoietatik eskegi t'olangoak.

Baten gure Linok eta erejiek in otziesan Larraganekoari, ba gaubean arran batzuk artu te arranotzean solorik solo, da besteok saldiek edo biorratirealakoa loripe es i aurién in saldiok o topau esinik.

Da besto baten, Uriondoko Asentzio ermitako kanpai-kateati i lotu aurién asto bat eta bedar sikue imini metro pare batera, da astoa bedar sikue yaten mogitan san baktxean, yakine, esin auen

Gabonzaarretan gero, ba janak antzera. Ai, itxaron egizu, azearen kantea ez deusut kantadu:

«Aita Joaniko, seme Periko
zer daukazu afariteko
orio-aza gozo gozoa
opil beroagaz jateko»

Eta ba afaldu eta gero, kartetan, leen ez egoan telebisiñorik eta olangorik. Edan be geitxuago egiten zan, batzuk u berez be egarribereak edo sama-sikuak izaten dira eta olango egunetan katutu egiten dira asko, eta altzadu orduan komediak! albora-kargeagaz eskusadura barik i beste edozein kuartura be igual, baia, tira, olango egunetan txartzat be ez dira artzen. Urrungo goizean izaten dira kontuak. Bepuruak edo betxintak astun, eta deskuidetan bazara aobizarrekaz, jakatsu, eta umore txarrean.

Orain i bateko bolanderak direala besteko amabietako maatsak, aldatu egin dira usadioak baia leenago Gabonzaar gaubeko amabietan, orreek i mutil gaztelo edo ezkondu barri antzak be, arteak be artu ezinik edo, zoro be bai eta, ba, astakeriak egiten urtetan euden amabi-amabietan. Antza orduko legeak ez ei euan zigortuten tertzio orretako astakeriarik.

Eta ba, zer egiten eudien? Ba, bedar-meten ardatz-agea edo barandea apurtu, soloko latak atera, burdiak balkoietatik eskegi eta olangoak.

Baten gure Linok eta erejiak egin eutsiezan Larraganekoei, ba gaubean arran batzuk artu eta arranotsean solorik solo, eta besteok zaldiak edo biorrak diralaktan lorik be ez ei eudien egin zaldio o topadu ezinik.

Eta beste baten, Uriondoko Azentsio ermitako kanpai-kateatik i lotu eudien

kuxau te kanpaiotzalangoa atera i auen. Ausona gustie lorik in barik esese ulleape artestute on i sen seguru egune argitu te fetxorie ikusi arte.

Gero ba beste yai andi bi daos, urte barri t'erregen. Urte barrietan ba umeak ibiltan sirean etzerik etze urtebarri eskatuten:

«Urte barri,
txarri belarri,
daukonak estaukonari
nik estaukot eta niri»

Da ba seosertxu eteraten san, diru apurtxu bet, intxaurrek, urritxak, maspasak edo olango beste edozein txutxeri. Urtebarri, andraskoari eskatuten yakien.

Erregenetan, apalazio eskatuten san:

«Apalasio saldune
iru erregen egure
iru erregenetik sotzak eta paluek
Martin Antonion kontuek
Martin Antoniori eroan dotzos
iru ullanda katuek
orrik asurrok batu esinde
a(k)t(d)arabisen sailtuek
sailtu te sailtu katuek»

Apalasio gixoneskoari eskatuten yakien.

Erregenetan, ba, gaur umeak sainbekure t'arexenbeste jugete daukie baye len etzan oten da gitxiges edo esebesagas konformau bear, esebesa begireko da ona baye!

D'estaipa geao ser kontau. Oin i Olenzero be esotu u, seingotzu ba, mundue aurrera doa ta ametidu in beakus moda barriepe! Lengoa larra san batera, t'uin estakipa larra es ete dan bestera! Ni naure eretxi beten, lengo umeak a gitxiagogas posago bisi gaintzesan gaurkoak

asto bat eta bedar sikua imini metro pare batetara, eta astoa bedar sikua jaten mogiduetan zan bakotxean, jakina, ezin euan kogidu eta kanpaiotsalangoa atera ei euan. Auzona guztia lorik egin barik ezeze ulleak be arteztuta egon ei zan seguru eguna argitu eta fetxoria ikusi arte.

Gero ba beste jai andi bi dagoz, urte barri eta erregen. Urte barrietan ba umeak ibiltan ziran etxerik etxe urtebarri eskatuten:

«Urte barri,
txarri belarri,
daukanak ez daukanari
nik ez daukat eta niri»

Eta ba zeozertxu eteraten zan, diru apurtxu bat, intxaurrak, urretxak, maaspasak edo olango beste edozein txutxeria. Urtebarri, andrazkoei eskatuten jakien.

Erregenetan, apalazio eskatuten zan:

«Apalazio zalduna
iru erregen egura
iru erregenetik sotzak eta paluak
Martin Antoniorentzako kontuak
Martin Antoniori eroan deutsoz
iru ollanda katuek
orreek azurrok batu ezinda
ak darabilzan saltuak
saltu eta saltu katuek»

Apalazio gizonezkoei eskatuten jakien.

Erregenetan, ba, gaur umeak zeinbat gura eta arexenbeste jugete daukie baia leen ez zan egoten eta gitxigaz edo ezebezagaz konformadu bear, ezebeza begirako da ona baia!

Eta ez dakit ba geiago zer kontadu. Orain i Olentzero be ezagutu dogu, zer egingo deusagu ba, mundua aurrera doa eta ametidu egin bearko doguz moda barriak be! Lengoa larra zan batera,

a gaurko larragas baño, larra txarra dala esaten daurie , da seosegaitik esango da, esteretxasu?

eta orain ez dakit ba larra ez ete dan bestera! Nire neure eritzi baten, leengo umeak a gitxiagogaz pozago bizi gintzazan gaurkoak a gaurko larragaz baño, larra txarra dala esaten daudie, eta zeozergaitik esango da, ez deritzazu?

2.13. Beleak beti bere haitzera

Belak emen e askarrie, ba or ibilten yakus etze inguruti baye auren abie non daoen edosinek estaki gero! Orrik i ondorantza arrimau eskero fit! iten daurie da auren atxera yo. Gero au kontu au esakera moduen be asko darabiu, «beleapeti bere atxera». D'au esaten da ba, supakixu, baserrietako semalabak eskondu iteire baye asarrean bat espadao bitartean danatxoten daurie etzera amari titi apur bet edaten, d'ordu en esaten da ori esakerori.

Gero belea beste kasu beten be aittuten da, norbera edo beste bat a biosbertute daoenean en partikular d'ordu en auxe esaten du: «belea baltzago esta ingo». Orrek esan gure dotzu gausa(k) txarrago etxatzusela yoango d'alimue artzeako.

Gero, geao se esangotzupa, a bai, belean kantape badaos, etxoixu, baten bat etorriko ya(t)k(g)ogora, a bai, auxe berberau:

Belea dabil atxean
berentza(t) sori gatxean
arantza baltza sartuko al yako
atzeko sulo baltzean.

Edo beste au be kantetosku en gure aitek eta an supastarrean negu partean bates be, astitzu oten sirean da.

Belak emen e azkarria, ba or ibilten jakuz etxe ingurutik baia euren abia non dagoen edozeinek ez daki gero! Orreek i ondorantz arrimadu ezker o fit! egiten daudie eta euren aitzera jo. Gero au kontu au esakera moduan be asko darabilgu, «beleak beti bere aitzera». Eta au esaten da ba, zuk badakizu, baserrietako semealabak ezkondu egiten dira baia aserrenen bat ez badago bitartean danak jot en daudie etxera amari titi apur bat edaten, eta ordu en esaten da ori esakera ori.

Gero belea beste kasu baten be aittuten da, norbera edo beste bat a biosbertuta dagoanean en partikular eta ordu en auxe esaten dogu: «belea baltzago ez da egingo». Orrek esan gura deustu gauzak txarrago ez jatzuzala joango eta alimua artzeako.

Gero, geiago zer esango deustut ba, a bai, belearen kantak be badagoz, itxaron egizu, bateren bat etorriko jat gogora, a bai, auxe berberau:

Belea dabil aitzean
berarentzat zori gatxean
arantza baltza sartuko al jako
atzeko zulo baltzean.

Edo beste au be kantetan euskuen gure aitak eta an supazterrean negu partean batez be, astitsu egoten ziran eta.

Bela, bela jauna
non dok aite jaune?
Artoa ereiten
Artoa setako?
olloarentzako
Olloa setako?
arrauntzak iteko
Arrauntza(k) setako?
abadeantzako
Abadea setako?
mesea emoteko
Mesea setako?
Purgatorioko arimentzako.

Bela, bela jauna
non dok aita jauna?
Artoa ereiten
Artoa zertarako?
olloarentzako
Olloa zertarako?
arrauntzak egiteko
Arrauntzak zertarako?
abadearentzako
Abadea zertarako?
mezea emoteko
Mezea zertarako?
Purgatorioko arimentzako.

2.14. Burdiak be untatuz gero irrintzarik ez

Burdiak e oin danape arpelitaos. Asko etzetan erre be in ditues da txerrinkakas maiek in, sera, burtzile erdibitu te seosen ganean lotu te maiek in.

Lenago ostera burdie gausa grandea yatzun, solo sein basorako, bateko satzak atetako, besteko egurre ekarteko eta semendinguruen idatarako.

Sarri askotan urlie ikusi es arren, burdi txerrinkan irrintzati yakiten gaidun nor nondi dabilen.

Burdiak irrintzak askarriek iten situesan. Etzean urtekeran botaten gauntzen orio gardamutue, koipe sie edo urdai asalagas igurdi aldi bet estaien irrintzarik in baye apur bet ibili orduen irrintza baten barrien barris. D'irrintzea es bakarrik burtzilek, galgeape bai. Da galgeak asko sufrituau da itzekarratu bebai, arrankaldu, d'orregaitik esaten da beste esakerabape: «egur eskarmentadue sugin ona».

D'or semendinguruen, idebaten yoaten san mundu gustie. Entzutea dauket e or

Burdiak e orain danak be alperrik dagoz. Asko etxetan erre be egin dituez eta txerrinkekaz maaiak egin, zera, burtzila erdibitu eta zeozen ganean lotu eta maaiak egin.

Leenago ostera burdia gauza grandea jatzun, solo zein basorako, bateko satsak aterateko, besteko egurra ekarteko eta zemendi inguruan idatarako.

Sarri askotan urlia ikusi ez arren, burdi txerrinken irrintzatik jakiten gendun nor nondik dabilen.

Burdiak irrintzak azkarriak egiten zituezan. Etxean urtekeran botaten geuntsan orio gardamutua, koipe zia edo urdai azalagaz igurdi aldi bat ez dagian irrintzarik egin baia apur bat ibili orduan irrintza baten barrien barriz. Eta irrintzea ez bakarrik burtzilak, galgeak be bai. Eta galgeak asko sufriduten euan eta itzekarratu be bai, arrankaldu, eta orregaitik esaten da beste esakera bat be: «egur eskarmentadua sugin ona».

Eta or zemendi inguruan, idebaten joa-

erribasoetan egun señaladuen baten iten sala errepartoa, d'orretarako egune argiturduen igitie lelengo sartzean auenantzatz iten sala aurretisik i markauko arloa. Da klaro, errentore askok auren usabapafio anak agiltxuago aukiten audesan da orpoetan ar barik plantau ida arloan.

Da ba esaten ibili niatzune, ida-akarreo a iteko, lelengo idak e kargatu edo aspelak inde burpide ondoatara ekarte sirean. Narrean be bai, edo lepos be bai. Narrak es pentzau oingoak, kia, aratx errama sabal batzuk artu t'antxe, bein yausi, bein altzau, bein ida susterrakas bernak odola dariola imini.

Da gero ba akarreo a. Dana san burdi irrintzea. Da bakes ibili eskero posik!. Sainbepider pasau ete yaku, sera, burdie iruli da barrakak in bidean, kargea yausi, iñon direanak.

Yoan be gero, askotan infernuko leku-raño yoaten gaintzesan burkada bat idagaiti te pasau bear olangoak. Kontuak ataraxus, Elexurreako basora yoaten gaintzesanean, bakean ibilite be goxaldean urten arantza d'igurdartean bija bat inesker o posik. A(k)p(b)e balioko auen seoser gaurko moduen orduek pagau esketiño e?

Da ba orti atera u au esakera au, «burdiepe untau eskero irrintzarik es». Da ba au errentorean agoan da sarri ibili u, usaba edo usandrea edo usama posik aukiteko untau in bear, baye es urdai asalagas, ostaintxeko generoakas da norbere bearrapafio usabanak lenago ines.

Eta gaur be ser?, untau esik i ser? askotan su sau baño gausestanan bat aurrerago plantau t'agintan asi edo beste kontu au, selan da ba? a bai: «munduen beti arpelikald u, itzesoko aurie, urrineko egur igerra ta pobrean erresoia».

ten zan mundu guztia. Entzutea daukat e or erribasoetan egun señaladuren baten egiten zala errepartoa, eta orretarako eguna argitu orduan igitaia leenengo sartzen euanarentzat izaten zala aurretizik i markadutako arloa. Eta klaro, errentore askok euren ugazabak baiño anak agiltxuago eukiten eudiezan eta orpoetan ar barik plantadu ida arloan.

Eta ba esaten ibili niatzuna, ida-akarreo a egiteko, leenengo idak e kargatu edo aspelak eginda burpide ondoetara ekarten ziran. Narrean be bai, edo lepoz be bai. Narrak ez pentzadu oraingoak, kia, aritz errama zabal batzuk artu eta antxe, bein jausi, bein altzadu, bein ida susterrekaz bernak odola dariola imini.

Eta gero ba akarreo a. Dana zan burdi irrintzea. Eta bakez ibili ezker o pozik!. Zeinbat bider pasadu ete jaku, zera, burdia irauli eta barrakak egin bidean, kargea jausi, iñon diranak.

Joan be gero, askotan infernuko leku-raño joaten gintzazan burkada bat idagaitik eta pasadu bear olangoak. Kontuak atera egizuz, Elexurreako basora joaten gintzazanean, bakean ibilita be goizaldean urten arantz eta egurdartean biaje bat egin ezker o pozik. Ak be balioko euan zeozer gaurko moduan orduak pagadu ezketiño e?

Eta ba ortik atera dogu au esakera au, «burdiak be untadu ezker o irrintzarik ez». Eta ba au errentorearen aoan eta sarri ibili dogu, ugazaba edo ugazabandrea edo uzama pozik eukiteko untadu egin bear, baia ez urdai azalagaz, osterantzeko generoekaz eta norbere bearrak baiño ugazabarenak leenago eginaz.

Eta gaur be zer?, untadu ezik i zer? askotan zu zeu baiño gauzeztanaren bat aurrerago plantadu eta agintan asi edo

Bueno, estakit askenean naste bat ar-mau estautzudan, baye bai, olantxik i bisi ginean, sotzalbo in barik on bearrean, fin-fin yokatute, ostantxean a goseatxan!

beste kontu au, zelan eta ba? a bai,: «munduan beti alperrik galdu, itxasoko euria, urruneko egur igerra eta pobrearen errezoia».

Bueno, ez dakit azkenean naaste bat armadu ez deutsudan, baia bai, olantxik i bizi ginean, zotzalbo egin barik egon bearrean, fin-fin jokatuta, osterantzean a goseak jan!

2.15. Haltzaren ondoan haltza erne

Ba, gure birraitite, baragarri antza san, bromistea, beti ebilen burlesar, da bakixu, olangoak a errien be selebreak ixiten dire ta.

Baten ba gure aitite, ba, ya eskon-edadera etorri sanean ba eskontzea pre-peretan asi yakosan.

Da, lenago, usedioa egoan ba errekadu itea edo gurasoak aurek tratetea semalabantzako eskontzea, auren dote ta olangoak.

Da gure birraitite be yoan san seguru Argiñaora gure amama ixingo sanan aite-gana eskontza-tratua edo konpontan.

Da ba asi sirean berbas da ba dana san atxakie, bateko altzan ondoan altza ermetan dala, besteko sasbako ereitzea ta pobrean eskontzea bardine(k)t(d)ireala, gero ba ezkonparriten galbayan be ure ekarten dala ta gero bein eskonduskero erradan bes da olango teklakas ei eragoion Argiñaokoak.

Da ba gure birraititepe ba esauen etzera esku utzitzoan gure ta berape ba esatotzen ba itzesoa be eskontzea(k) lotu auela, semea estala aitelango baragarrie, eskontan badire laratzuek esotuko dauela egunerokoan, denporeak agertuko dauela

Ba, gure birraitita, barregarri antza zan, bromistea, beti ebilen burlazar, eta bada-kizu, olangoak a errian be selebreak izaten dira eta.

Baten ba gure aitita, ba, ya ezkon-edadera etorri zanean ba ezkontzea pre-paretan asi jakozan.

Eta, leenago, usadioa egoan ba errekadu egitea edo gurasoak eurak tratatea semalabantzako ezkontzea, euren dote eta olangoak.

Eta gure birraitita be joan zan seguru Argiñaora gure amama izango zanaren aitagana ezkontza-tratua edo konpontan.

Eta ba asi ziran berbaz eta ba dana zan atxakia, bateko altzaren ondoan altza ermetan dala, besteko satsbako ereitzea eta pobrearen ezkontzea bardinak dirala, gero ba ezkonparritan galbaean be ura ekarten dala eta gero bein ezkondu ezkerro erradan be ez eta olango teklekaz ei eragoion Argiñaokoak.

Eta ba gure birraititak be ba ez euan etxera esku utsik joan gura eta berak be ba esaten euisan ba itsasoa be ezkontzeak lotu euala, semea ez dala aitalango barregarria, ezkontan badira laratzuek ezagutuko dauela egunerokoan, denporeak ager-

edurre mendien, erriko sesanan ganean barres, estan bedarra beres igertuko dala, egiek (g)usurreri beti yarrite etxoten doztzela... d'estaipa seinbe(t)k(g)ausa geao esan otzesan.

Gausea da se, aurrera in audiela eskontzorregas da ba gasteope in aurien auren aronakoa ta eskondu sirean, da bitixu, gure aituek e gixon modeloak urtauen. Esakerape beti estire betetan, gaienetan bai e, ori kasu beterako, ser ikusi a ikisi edo umean sentzune etzean entzune, olangoak sobra be betetan dires.

Eskontza kontuen besterantza be sugerretetan da, batzutan errekadu auso-ausokoari in, gurixine auki t'esin lograu eskontzea. Olango kasuetan sera esaten du, auxe: «ukondoa ur baye esin mosurik emon».

Gero sarri pasau yakie, neskatoari bates be, itxi t'itxi in de gero neskasartu da gero ba bakixu, udagoieneko loreak a inder gitxi aukiten dau da lagunabarra topetan komediek aukiten ditues. Oin, emen Uriondon, neskak a miruek arra letxe eroan dauries, sure aite be beitu nondik asite etorri sen ni topetan!

2.16. Errekadu-kontuak

Bueno, errekadu itea ser dan yakin ingosu suk esta? Ba lenao t'uinbe estu galdu usedio ori, eskontzedadea allegetan sanean ba askok es auken lagunabarra topetako eraripe, ta, ba, errekadu ite san.

Batzutan, lagun bet edo senitarteko bat ixiten san, baye besto batzuetan eskekoape igoyal, etzerik etze ibilite sirean les, ba,

tuko dauala edurra mendian, erriko zer esanen ganean barrez, ez dan bedarra berez igertuko dala, egiak guzurrari beti jarrita itxaroten deutsalala. Eta ez dakit ba zeinbat gauza geiago esan eutsazan.

Gauzea da ze, aurrera egin eudiela ezkontza orregaz eta ba gazteok be egin eudien euren aronakoa eta ezkondu ziran, eta begiratu egizu, gure aituek e gizon modeloak urten euan. Esakerak be beti ez dira betetan, geienetan bai e, ori kasu baterako, zer ikusi a ikasi edo umearen zentzuna etxean entzuna, olangoak sobra be betetan dira.

Ezkontza kontuan besterantz be sugerretetan da, batzutan errekadu auzo-uzokoari egin, guraizana euki eta ezin logradu ezkontzea. Olango kasuetan zera esaten dogu, auxe: «ukondoa ur baia ezin mosurik emon».

Gero sarri pasadu jakie, neskatoei bates be, itxi eta itxi egin eta gero neska zaartu eta gero ba badakizu, udagoieneko loreak a indar gitxi eukiten dau eta lagunabarra topetan komediak eukiten dituez. Orain, emen Uriondon, neskak a miruak arra letxe eroan daudiez, zure aita be begiratu nondik asita etorri zan ni topetan!

Bueno, errekadu egitea zer dan yakin egingo dozu zuk ezta? Ba leenago eta orain be ez dogu galdu usadio ori, ezkontzedadea allegetan zanean ba askok ez eukan lagunabarra topetako erarik be, eta, ba, errekadu egiten zan.

Batzutan, lagun bat edo senitarteko bat izaten zan, baia beste batzuetan eskekoak

andi gusurre t'orti abarra, ba banaka bat imintaurien estegu bidean.

Errekadu kontuetan isturipe selebreak a pasetan sirean. Untxe danakas akordetea be esta fasile baye bidiru kontaukotzudes.

Baten joan i sen mutil bet errekadu iten lagun betentzat eta ba neskean etzera allegau sanean, ondo baño ogeto artuudien da iños es lako merindafarie be atera ta ba egon d'egon, etxako mutile bera gustetan neskatxieri! Da ba bie(k) plantau sirean eskontako. Bestea parau yakon paretakoa! garbitu inik ixin auen lelengotan, baye tire gero besto bategas eskondu sen d'aistu yakon a afruntue, ostaintxean, batepaki se trebituk urtengo auen arkalen artean!

Beste errekadu antzeko bat ixiten san ba neska bat nobitzet artzeako, ba neska mutil bien artean ume ba(t)p(b)esoetan artzea, d'orixe san naiko erri gustiek e parejatzat artzeako. D'or ibilte sirean sur, umerik non yayoko ba aitbitxi-amabitxiek ixiteko.

D'au be gause polite, ba baten estaipa nor be, errentea pagetan joan i sen da ba usaborren etzean krida gaste bat i egoan besuen, aureri eperdie emonda, ba, talaburriñan taloak erretan.

Usaborrek e tardau iten i auen ipusterriko edeak soltetan da ba errentore orrek e talo usainera edo badiñotzo krideari:

- Nik i suk erreko taloa(k)tx(y)ango naunkes ba!

- Ni nauk u suri erre be bai! -erantzun i otzen-.

Da beitu gausak a selan, sertu, ba eskondu in sirean seguru.

D'olangoak? sainpekure t'arexen beste, makina bat a fetxori ta denodu batean bestean!

be igual, etxerik etxe ibilten ziran lez, ba, andik guzurra eta ortik abarra, ba banaka bat iminten eudien eztegu bidean.

Errekadu kontuetan istoriak be zelebreak a pasetan ziran. Oraintxe danekaz akordetea be ez da fazila baia bi edo iru kontauko deutsudaz.

Baten joan ei zan mutil bat errekadu egiten lagun batentzat eta ba neskearen etxera allegadu zanean, ondo baiño obeto artu eudien eta iñoiz ez lako merindafaria be atera eta ba egon eta egon, ez jako mutila bera gustetan neskatxiari! Eta ba biak plantadu ziran ezkontako. Bestea paradu jakon paretakoa! garbitu eginik izan euan leenengotan, baia tira gero beste bategaz ezkondu zan eta aaztu jakon a afruntua, osterantzean, batek badaki zer trebituk urtengo euan alkarren artean!

Beste errekadu antzeko bat izaten zan ba neska bat nobiatzat artzeko, ba neska mutil bien artean ume bat besoetan artzea, eta orixe zan naiko erri guztiak e parejatzat artzeko. Eta or ibilten ziran zuur, umerik non jaioko ba aitabitxi-amabitxiak izateko.

Eta au be gauza polita, ba baten ez dakit ba nor be, errentea pagetan joan ei zan eta ba ugazaba orren etxean krida gazte bat ei egoan beesuan, eurei eperdia emonda, ba, talaburriñan taloak erretan.

Ugazaba orrek e tardadu egiten ei euan ipuztariko edeak soltetan eta ba errentore orrek e talo usainera edo badiñotso krideari:

- Nik i zuk erretako taloak jango naunkes ba!

- Nik neuk u zuri erre be bai! -erantzun ei eutsan-.

Eta begiratu gauzak a zelan, zertu, ba ezkondu egin ziran seguru.

Gero beste batzuetan bestera be suger-tetan san, urliek aberatzago bategaitik edo itxi te eskontzea lotu. Orduen batzuk u joan bertzolari betegana, eskribidu bertzotan sugertau yakona da gero Urkiolan da saldu itaudiesan bertzo-papelak eta asko(k)p(b)urus ikisi be bai, d'olango gau-sakas kreitue galtzean san askotan, orrik kontuok o erlestarra edo kurebioan ausi-gie(k)p(b)año min geao iten dau sarriten, gero denporeagas aistu iten dire baye.

Eta olangoak? zeinbat gura eta arexen beste, makina bat a fetxoria eta denodu batean bestean!

Gero beste batzuetan bestera be suger-tetan zan, urliak aberatsago bategaitik edo itxi eta ezkontzea lotu. Orduan batzuk u joan bertzolari betegana, eskribidu bertzotan sugertadu jakona eta gero Urkiolan eta saldu egiten eudiezan bertzo-papelak eta askok buruz ikasi be bai, eta olango gauzekaz kreditua galtzen zan askotan, orreek kontuok o erleztarra edo kurebioen aausigiak baiño min geiago egiten dau sarritan, gero denporeagaz aaztu egiten dira baia.

2.17. Untze joak karu urten

Bueno, onik i kontuok ixilean aukiteko obeatire baye ain insistidostesu asko ta ba ie ke ta eskontza bearran barri yakin-gosuneskero, ba kontau ingotzudes olango ixileko kontu betzuk. Orrek aitek e barre iten dau orti bastarreti, baye tire orrek e bario kartetan da guk u kontau degusen ba kontuok.

Ba, uin dala denporatxue, urlie, Arratiar bat, usenik enoatzu esaten, segaiti se ba undiño bera bixi de ta, da ganera nor dan yakitea gitxienea da.

Ba esaten ibili ñatzu(n) moduen, ba neskamutil bik eskondu in bear aurien da ba elexara arrimau sireanean, an i egoan andrasko bat ume yaso besoatan dala da nor ete dan es ete dan, da ba alangonbaten arrimau yakon eskondu bear auen mutileri ta ser? da ba ia akordetan dan ako soldadu on sanean selan da setan ibili sen!

Da ba eskongai orren aite be gañetu

Bueno, oneek i kontuok ixilean eukiteko obeak dira baia ain insistidu deustazu asko eta ba ia ke eta ezkontza bearren barri jakingo dozun ezkerro, ba kontadu egingo deustudaz olango ixileko kontu batzuk. Orrek aitik e barre egiten dau ortik bazterretik, baia tira orrek e bario kartetan eta guk u kontadu daiguzan ba kontuok.

Ba, orain dala denporatxua, urlia, Arratiar bat, usenik ez noatsu esaten, zergaitik ze ba oraindiño bera bizi da eta, eta ganera nor dan jakitea gitxienea da.

Ba esaten ibili niatzun moduan, ba neskamutil bik ezkondu egin bear eudien eta ba eleizara arrimadu ziranean, an ei egoan andrazko bat ume jazoa besoetan dala eta nor ete dan ez ete dan, eta ba alangoren baten arrimadu jakon ezkondu bear euan mutileri eta zer? Eta ba ia akordetan dan ako soldadu egon zanean zelan eta zetan ibili zan!

yakien da ba ia se pasetan dan, da ba, semeak a:

– Aite, ba, soldadiskan lelokeri asko iten dire ta ba, bai, ibili naintzen neskato onegas, baye ni nauk u txotxoka in arrik i geaope igoal yokotzen narrue, notxakin?

– Notxakin diñostek? -esaten i otzen aitek odolak ur iteko moduen-, bakik i selango trebitue imini ostan, desde luego, gixonari sentzune potroatara bajatu eske-ro etxaok sereginik. Un se ingo yoapanik? Ik in dostek itekoa, kokorio pitxin luse orrek! An ibiliko intzen i potroboltzak a tximortu arte ta ixorrabari itxiko aindun nor dan beist neskato ori! Tiraupa, sikanerak iñok etxok esango, orretarako, sererako, balio estoanik, mekasuen sotz!

Da ba gero kontu ori tratauden seguru te ba aitorrek esan i otzen umedun neskato orri:

– Ik aupe ondo auki dona ba ire uso ori gordetako, baya, tire, lotzarie goiti beiti aurrera in beada ta, a ber, sainbet (d)a eskatuten dosune ori untze yoori kitututeko?

D'estaipa sainbet ixingo san baye, benipinean diru ederrak pagau bear i ausen urlien aitorrek.

Da gero sarri kontetauen lagun artean da ba: «semean untzeyoak karu urten yostan».

Bueno, itxi degutzun oniri kontu ori bai! se pasetan dodan lotzarie es ta txikerra gero!

Gure bosu, kontuokas akabetako, daragoiun komertasiñoko esakera batzuk u kontauko tzudes.

Bakisu andreari mun iteko saintzuk u direan iru lekuri onenak? Onixik: begie,

Eta ba ezkongai orren aita be gainetu jakien eta ba ia zer pasetan dan, eta ba, semeak a:

– Aita, ba, soldadizkan lelokeria asko egiten dira eta ba, bai, ibili nintzan neskato onegaz, baia nik neuk u txotxoka egin arrik i geiagok be igual joko eutsan narua, nok jakin?

– Nok jakin diñostak? -esaten ei eutsan aitik odolak ur egiteko moduan-, badakik i zelango trebitua imini deustan, desde luego, gixonari zentzuna potroetara bajatu ezkerro ez jagok zereginik. Orain zer egingo joat ba nik? Ik egin deustak egitekoa, kokorio pitxin luse orrek! An ibiliko intzan i potroboltzak a tximortu arte eta ixorrabari itxiko endun nor dan beist neskato ori! Tirauk ba, sikanerak iñok ez jok esango, orretarako, zererako, balio ez doanik, mekasuen sotz!

Eta ba gero kontu ori tratadu eudien seguru eta ba aita orrek esan ei eutsan umedun neskato orri:

– Ik euk be ondo euki dona ba ire uso ori gordetako, baia, tira, lotsaria goiti beiti aurrera egin bear da ta, a ber, zeinbat da eskatuten dozuna ori untze jo ori kitututeko?

Eta ez dakit ba zeinbat izango zan baia, beinik beinean diru ederrak pagadu bear ei euazan urliarenn aita orrek.

Eta gero sarri kontetan euan lagun artean eta ba: «semearen untze-joak karu urten jaustan».

Bueno, itxi deigutsun onei kontu oi bai! ze pasetan dodan lotsaria ez da txikerra gero!

Gure badozu, kontuokas akabetako, daragoiogun komertasiñoko esakera batzuk u kontaduko deutsudaz.

Badakizu andreari mun egiteko zein-

agoa eta usoa! Barre itosu? D'esaten daurie, usoa, deskuidu beten, daoen lekuen barik bekokien balego, iñor enemorau bes traste ori ukusikera!

Gero, onik i tabernako naskatxieri te be esaten yakie: «bidertzeko aratxak eta tabernako naskatxiek e sarri s̄irrie t'aparajue»!

Gero onik i tabernatako kontuek, edan-edan in orduen, batak andie botaten badau besteak a andiagoo, seinek (g)eaoka. Ta ba onik i fanfarroiak esaten daurie: «eltxoari aidean doala be ingo ñauskiok o narruten». Da gero ba bein katutu eskero, faltetan be igoal asten dire ta bateko urlien andrea aregas dabilela, besteana besteagas da olango susterbakokeriek. Olangonbaten, enoatzu ixena esaten, baye, urliek ederra kontestau otzen beste urlieri. Batak esan otzen ba se:

– I, ire andrea urli lekuteko gixonagas yabik!

– Ba, bitiok, -erantzun i otzen-, ni nauri bear yoadana emoten yostek eta ganetikoagas berak agintan yok!

Bueno, ungoxean bai, itxi degutzun komertasiño oneri. Untzurarte onik (g)ausok o kontau be ixin leikeasen in, kontetea be pekatue san, gaur u grasiek estaoela lengorik, uin i abadeape estautzie mirarik iten onango kontuek konteteari, batzuk barre be majo iten daurie, uin, kontetea da gausa bat eta itea beste bat, se gaur be txarto daoena txarto dao, gaur u estakipa lar es ete dan pasau jentea bestera, yakine, askori kupoa denporea baño lenago betetan yakie ta gero estao diburtzio ta pestekerie baño besterik. Artes dabilena esta iños damutuko, d'es auki iños artes ibilienan damurik, oker dabilena lentxuago edo gerotxuago

tzuk u diran iru lekurik onenak? Oneexek: begia, aoa eta usoa! Barre egiten dozu? Eta esaten daudie, usoa, deskuidu baten, dagoan lekuan barik bekokian balego, iñor enemoradu be ez traste ori ikusikera!

Gero, oneek i tabernako naskatxiei eta be esaten jakie: «bide ertzeko aritzak eta tabernako naskatxiak e sarri zirria eta aparajua»!

Gero oneek i tabernetako kontuak, edan-edan egin orduan, batak andia botaten badau besteak a andiagoo, zeinek geiagoka. Eta ba oneek i fanfarroiak esaten daudie: «eltxoari aidean doala be egingo nieuskiok o narrutan». Eta gero ba bein katutu ezkerro, faltetan be igual asten dira eta bateko urliarene andrea aregaz dabilela, bestearena besteagaz eta olango susterbakokeriak. Olangoren baten, ez noatsu izena esaten, baia, urliak ederra kontestadu eutsan beste urlieri. Batak esan eutsan ba ze:

– I, ire andrea urli lekutako gizonagaz jabik!

– Ba, begiratu egiok, -erantzun ei eutsan-, niri neuri bear joadana emoten jaustak eta ganetikoagaz berak agintan jok!

Bueno, oraingoxean bai, itxi deigutsun komertaziño oni. Oraintsurarte oneek gauzok o kontadu be ezin leikeazan egin, kontetea be pekatua zan, gaur u graziak ez dagoala leengorik, orain i abadeak be ez deutsie mirarik egiten onango kontuak konteteari, batzuk barre be majo egiten daudie, orain, kontetea da gauza bat eta egitea beste bat, ze gaur be txarto dagoana txarto dago, gaur u ez dakit ba lar ez ete dan pasadu jentea bestera, jakina, askori kupoa denporea baiño leenago

agirien lotuten da gero sure fama ta kreditueri eperdien mun iotzesu!

Ai, etxoistesu, komertasiño onen ganean kanta batzupe badakides, uinarte estotzudes kantau baye ieke ta atan gabisen, aikomensan:

«Udabarrie data
Manuela bero
arexek emoten yok
eskatu eskero»

Gero besto bat a, kanta baragarrie ixin be, da ganera erderas. Ba or Durungo aldekoan bat a ba baten Bilbora yoan i sen buruen otzarea dala gastaña saltzean da ba Bilboko kalleetatik i yoanean-yoanean auxe kantau kantetan i auen:

«Gastañas de mentugorri
no ay como la mía
anoche probó mi marido
y buen gusto tenía»

Da ba goardiek e detenidu in i aurien da ba berak esin entendidu segaiti, da ba alangonbaten goardi edo danadalako auskeldunen batek esan i otzen:

– Andratxue, bakine se esaten abilan
– Ba, sesan yoapa? Atzo gaubean nire

gixonak a ganeko tripekadea in yoan onangoxe gastañakas da goso ganera, onik i gastaña mentugorrietosak, klase geao be bayaok, esterako, ataloak, lope txak, saldaimentuek...

Orduen konturetu i sirean ba erderas iñoana etzala goardiek aitu otziena, da ba, atera i aurien gartzelati.

Onango erderakadak a geao be entzunde daukodas. Beste baten be ba Durungoar bat i egoan Bilboko plasan txoriso edo lukainka saltzean. Da ba ekin iten otzien ia ba lukainka onatirean, etzeko piperrakas inde daosen d'estaipta sainbe(t) tekla.

betetan jakie eta gero ez dago dibortzio eta pestekeria baiño besterik. Artez dabilena ez da iñoiz damutuko, eta ez euki iñoiz artez ibilienaren damurik, oker dabilena leentxuago edo gerotxuago agirian lotuten da gero zure fama eta kredituari eperdian mun egioztazu!

Ai, itxaron egistazu, komertaziño onen ganean kanta batzuk be badakidaz, orain arte ez deusudaz kantadu baia ia ke eta aretan gabilzan, aikomenzan:

«Udabarria data
Manuela bero
arexek emoten jok
eskatu ezkerok»

Gero beste bat a, kanta barregarria izan be, eta ganera erderaz. Ba or Durungo aldekoan bat a ba baten Bilbora joan ei zan buruan otzarea dala gaztaña saltzen eta ba Bilboko kalleetatik i joanean-joanean auxe kanta au kantetan ei euan:

«Gastañas de mentugorri
no hay como la mía
anoche probó mi marido
y buen gusto tenía»

Eta ba guardiak e detenidu egin ei eudien eta ba berak ezin entendidu zergaitik, eta ba alangoren baten goardi edo danadalako euskaldunen batek esan ei eutsan:

– Andratxua, badakina zer esaten abilan
– Ba, zer esan joat ba? Atzo gaubean

nire gizonak a ganeko tripakadea egin joan onangoxe gaztañekaz eta gozo ganera, oneek i gaztaña mentugorriak dozak, klase geiago be bajagok, esaterako, ataloak, lopetxak, saldaimentuak...

Orduan konturatu ei ziran ba erderaz iñoana ez zala guardiak aditu eutsiena, eta ba, atera ei euden gartzelatik.

Alangonbaten arteape ixin auen artu androri ainbeste ekitegas da badiñotzo andran bateri:

– Oye, ustes, mejor choriso que yo en todo Durango tampoco no ay

D'olantxik emon i otzen ankayokoa edo andafuerasko yantzie areri andra mirakollosari.

Onango erderakadak a geiago be entzunda daukadaz. Beste baten be ba Durangoar bat ei egoan Bilboko plazan txorizo edo lukainka saltzen. Eta ba ekin egiten eutsien ia ba lukainka onak diran, etxeko piperrekaz eginda dagozan eta ez dakit ba zeinbat tekla.

Alangoren baten arteak be ezin euan artu andre ori ainbeste ekitegaz eta badiñotso andraren bati:

– Oye, usted, mejor chorizo que yo en todo Durango tampoco no hay

Eta olantxik emon ei eutsan ankajokoa edo andafuerazko jantzia ari andra mirakollosari.

2.18. Arimea berbaz tximinitik

Lenao, makina bat egote or besuen, batesbe negu-partean. Orduxean iten gaindun arto suritan edo suritute badaos artagarantan, edo goruetan, edo mediginen edo erropari adebasine eta botaten, ba bakixu, neguko bearrak.

Zuok umeok o barres, olgetan edo bastarrak enderdetan okolurik okolu. Batzuetan artaburruxekas aurklek iten da olgetan sainduen. Beste batzuetan aititegas edo amamagas «atxea-motxea»ra. Au bakixu, ume bakotxak atzamar bat imini aititen belaunburuen edo amaman altzoan da gero kantau, guk era bitera dakiu:

«Atxea motxea, konilipan
saure semea errotan
errota txikerra klin-klan
Katalina bentan
korrentan
tipirripiton
Martin sapaton
kañabera trompeta

Leenago, makina bat egote or beesuan, batezbe negu-partean. Orduxean egiten gendun arto zuritan edo zuritute badagoz artagarantan, edo goruetan, edo mediginen edo erropari adabazaina eta botaten, ba badakizu, neguko bearrak.

Zuok umeok o barrez, olgetan edo bazterrak enderdetan okolurik okolu. Batzuetan artaburruxekaz aurkiak egiten eta olgetan zenduen. Beste batzuetan aititagaz edo amamagaz «atxea-motxea»ra. Au badakizu, ume bakotxak atzamar bat imini aititaren belaunburuan edo amamaren altzoan eta gero kantadu, guk era bitara dakigu:

«Atxea motxea, konilipan
zeure semea errotan
errota txikerra klin-klan
Katalina bentan
korrentan
tipirripiton
Martin zapaton

lau kirikon,
txirripi, txarrapa, txirripi, txarrapa
TXAUST!»...

Eta atzamarra arrapau eskero batenba-
teri: «pispit ala koskot» esan da sigorra
emoten yakon.

Edo beste au be kantetan otzuen:
«Atxea motxea, konilipan
sure semea errotan
errota txikerra klin-klan
yoan nintzen basora
topau nauen erbi bet
yaurti nauntzen arri bet
d'atera nauntzen eskerreko
begi gorri andi bet,
selemiña kanpa, selemiña kanpa
TXAUST!»...

Eta emen be sigorra atzamarra goatu-
ten yakonari.

Da, ba ori arimean ori, Pedro Sasola-
koari daukotzet entzunde, ba ama bateri
ala estaipa andra bateri, semea edo gixo-
na il de ba gaulendietan tximiniko suloti
gaitu iten i otzen da ba besteak erantzun
be bai.

Da ba egunen baten, androrrek esan
i otzen ba:

- Non saos ba, semetxu edo gixontxue?
- Emen, tximinien suloan, erantzuten
i otzen-, beitixu obeto, orti laratzu ganetik!

Da ba, sue amatau antzean aukela,
sartu uen burue tximiniko suloan da,
arimean berbea entzun itauen baye ikusi
esebes, d'alangonbaten, nik estaipa, txi-
mini suloti idergibetea ala inisituen baten
argie ukusi bauen espauen badiñotzo:

- Semetxue edo gixontxue, len begi
soli t'eder bi seunkesan baye uin i bat
eta bera ilune baño estotzut ikusten!

D'olan ekin i otzen androrrek arimeari
berbas supasterretik.

kañabera trompeta
lau kirikon,
txirripi, txarrapa, txirripi, txarrapa
TXAUST!»...

Eta atzamarra arrapadu ezkerro bateren
bati: «pispit ala koskot» esan eta sigorra
emoten jakon.

Edo beste au be kantetan eutsuen:
«Atxea motxea, konilipan
zure semea errotan
errota txikerra klin-klan
joan nintzan basora
topadu neuan erbi bat
jaurti neuntsan arri bat
Eta atera neuntsan ezkerreko
begi gorri andi bat,
zelemiña kanpa, zelemiña kanpa
TXAUST!»...

Eta emen be sigorra atzamarra goratu-
ten jakonari.

Eta, ba ori arimearen ori, Pedro Saso-
lakoari daukotsat entzunda, ba ama bati
ala ez dakit ba andra bati, semea edo
gizona il eta ba gaulendietan tximiniko
zulotik deitu egiten ei eutsan eta ba beste-
ak erantzun be bai.

Eta ba egunen baten, andre orrek esan
ei eutsan ba:

- Non zagoz ba, semetxu edo gixontxua?
- Emen, tximinian zuloan, erantzuten
ei eutsan-, begiratu egizu obeto, ortik
laratzu ganetik!

Eta ba, sue amatadu antzean eukala,
sartu euan burua tximiniko zuloan eta,
arimearen berbea entzun egiten euan baia
ikusi ezer be ez, eta alangoren baten,
nik ez dakit ba, tximinia zulotik idergibe-
tea ala inizituren baten argia ikusi baeuan
ez baeuan badiñotzo:

- Semetxua edo gixontxua, leen begi
zoli eta eder bi zeunkazan baia orain i

Lamiñape, tximiniti sartzean i sirean, maskilluen esnea egosten imintaudienean en partikular, se esne saleak i sirean da maskilluti ganas itauenean; «txurie gora»-ka aste i sirean seguru.

2.19. Ermakariak

Ume batxayoten san orduen, gaienetan etzean, ba usedioa san ba urrungo egunean bateatutea sein il de limbora yoan betiko. Da ba bateoa urrungo egunean isineskero ba amak esin yoan da ba aite ta aitebitxi-amabitxi te ba beste senitartekoakas ite san.

Bateo egunean, elesportalean, partereak amabitxiri emototzen umea besoetan artzeako, ak aitibitxiri ta abadeak a portikuen kanpoan aste ausen bere erresuek, elexan esin sen sartu umea arik eta erresuok in de ure botaten sartu arte, an korupeko pontean, da gero eroataudien elexa barruen aurrera.

Gero urtekeran ba aitibitxi-amabitxiok auren gozoak eta botaten audiesan elesportalean da an danak arrapataka bata bestean buruetxo inik.

Gero ba, amabosgarren egunean ermakariak esaten yakona zelebretan audien amak eta bere aista eta kuñetak. Onik i bakotxak ekartauen seoser, olloa besapean, otzaran fota, asukerea, kafea, txokolatea... da baskari ostean ur gosotue edaten aurien.

Gero berrogaigarren egunean elexurte-

bat eta bera iluna baiño ez deutsut ikusten!

Eta olan ekin ei eutsan andre orrek arimeari berbaz supazterretik.

Lamiñak be, tximiniatik sartzen ei ziran, maskilluan esnea egosten iminten eudienean en partikular, ze esne zaleak ei ziran eta mazkillutik ganaz egiten euanen; «txuria gora»ka asten ei ziran seguru.

Ume bat jaioten zan orduan, geienetan etxean, ba usadioa zan ba urrungo egunean bateatutea zein il eta limbora joan betirako. Eta ba bateoa urrungo egunean izan ezkerro ba amak ezin joan eta ba aita eta aitabitxi-amabitxi eta ba beste senitartekoakaz egiten zan.

Bateo egunean, eleizportalean, partereak amabitxiri emoten eutsan umea besoetan artzeko, ak aitibitxiri eta abadeak a portikuan kanpoan asten euazan bere errezuak, eleizan ezin zan sartu umea arik eta errezuok egin eta ura botaten sartu arte, an korupeko pontean, eta gero eroaten eudien eleiza barruan aurrera.

Gero urtekeran ba aitibitxi-amabitxiok euren gozoak eta botaten eudiezan eleizportalean eta an danak arrapataka bata besteen buruak jo eginik.

Gero ba, amabosgarren egunean ermakariak esaten jakona zelebretan eudien amak eta bere aizta eta kuñatak. Oneek i bakotxak ekarten euan zeozer, olloa besapean, otzaran fota, azukerea, kafea, txokolatea... Eta bazkari ostean ur gozotua edaten eudien.

Gero berrogaigarren egunean eleizurte-

rea ospatuten san d'orduen be al auenak a selebretan auen.

Uin esangotenak estauko ermakariekas serikusiripaye, ume bat bateatu barik il eskero, ba ortusantuko kanpo aldean emoten yakon lurre.

Da, geao ondiño, umea galdu edo abortoa oneskero, yayoko etzeko etexupean emototzien lurre lenao, gero osterara es audien itxiten.

rea ospatuten zan eta orduan be al euanak a zelebretan euan.

Orain esango dodanak ez dauka ermakariekaz zerikusirik baia, ume bat bateatu barik il ezkero, ba ortusantuko kanpo aldean emoten jakon lurra.

Eta, geiago oraindiño, umea galdu edo abortoa egon ezkero, jaiotako etzeko etexurapean emoten eutsien lurra leenago, gero ostera ez audien itxiten.

2.20. Hiru ahizta joskila berbaltudunak

Bixialargun betek iru alaba auki ausen d'irurek berbaltudunek edo tartamutuek. Yoskilak sirean da iruten be alosa ekiten otzien seguru.

Da ba usedioa dan moduen, ba amori enterau sen ba baten bat errekadu iteko iterantzunepotaten ebilela ta esan i otzien alabori:

- Surok ixilik on d'ekin gorueteari, nauk esangodas esan beadireanok eta, se agoa askatan bosue askatu, neskasar lotuko sarie.

Etorri i sen batan bat errekadu iten da ba amori berbagure iru alabon aurrean, bateko dotea, besteko sera ta... alangon baten

- Batak: «Talan, firue apurtu ona!

- Besteak: «Ba, torontile emoiona!

- Irugarrenak: «Amak esan ixilitoteko da gu es ixiliton!

Bizialargun batek iru alaba euki euazan eta irurak berbaltudunak edo tartamutuak. Joskilak ziran eta iruten be alosa ekiten eutsien seguru.

Eta ba usadioa dan moduan, ba ama ori enteradu zan ba baten bat errekadu egiteko iterantzunak botaten ebilela eta esan ei eutsien alaboi:

- Zuok ixilik egon eta ekin gorueteari, neuk esango dodaz esan bear diranok eta, ze aoa askatan badozue askatu, nekazaar lotuko zarie.

Etorri ei zan baten bat errekadu egiten eta ba ama ori berbagura iru alabon aurrean, bateko dotea, besteko zera eta...alangoren baten

- Batak: «Talan, firua apurtu dona!

- Besteak: «Ba, torontila (moropila) emon egiona!

- Irugarrenak: «Amak esan ixilitoteko (ixilik egoteko) eta gu ez ixiliton (ixilik egon)!

3.1. Anbotoko Señorea eta urregorria

Ba kueba bat on san seguru da Anbotoko Señorori be an otesala ba, da beste

Ba kueba bat egon zan seguru eta Anbotoko Señora ori be an egoten zala

bape beragas otesan. Da batenbat yoan san a konsulta bat iten ba beragana. Da ba, yoan san orduen emonotzen seguru sagardoa edateko basu bet, basu beten, da kurtzea in iytotzen seguru ba arturduen ba sorgin edo parte txarrekoen bildurre daukela ta, entzutea ta, kurtzea in iotzen basu orreri ta edan i auen seguru sagardo ori. Da, akabaurduen basu ori, opatu iytotzen seguru te, esan i otzen:

– «Es, uin ori aureok (eurea dok), guk u, kurtzea in dotzek eta guk olangorik ixin geinkek e artu».

Da gero yoan siala ba beste lekuen batera da, an urre gorrie d'esan otzela:

– «Suen aitek iten yok onango iketzik?»

– Es.

– Ba guk onangoxea iten yuk. B'artise(k)p(b)atzuk (amaseiko gorriek eta...)

Artusela batzuk seguru eta ba yoan sala etzera da, etzean ba ikusirik ba onatireala ta sera dala, atzera bota i aurela, atzera, ta atzera yoan san orduen e,:

– «Ba geao eroateko esan daustie ta».

Esan otzela ba serorrek, an egoan orrek e, kriduek:

– «Uin ator ba mutil? Usabak altzau beaiok eta ba uin ixiinkeroan d'artisepatzuk arin».

De bidiru atzera artu d'altzau sala seguru ba usabori, Anbotoko Señorea altzau sala, da mogidu sala ba a serturien orduen galapan etzerantza da bestea be ikusi auen orduen an baten batek sertu auen orduen, ba atzeti kuyetan. Da kuyaurduko etzera eskapautzela. Sartu sala barrure, da, artuuen arrabioagas bototzela maldasiñoa seguru etze orreri:

– «Emen etze onetan esta faltauko

ba, eta beste bat be beragaz egoten zan. Eta bateren bat joan zan a konsulta bat egiten ba beragana. Eta ba, joan zan orduan emon eutsan seguru sagardoa edateko basu bat, basu baten, eta kurtzea egin ei eutsan seguru ba artu orduan ba sorgin edo parte txarrekoen bildurra daukala eta, entzutea eta, kurtzea egin ei eutsan basu orri eta edan ei euan seguru sagardo ori. Eta, akabadu orduan basu ori, opatu ei eutsan seguru eta, esan ei eutsan:

– «Ez, orain ori eurea dok, guk u, kurtzea egin deutzak eta guk olangorik ezin geinkek e artu».

Eta gero joan zirala ba beste lekuren batera eta, an urre gorria eta esan eutsala:

– «Zuen aita egiten jok onango iketzik?»

– Ez.

– Ba guk onangoxea egiten joaguk. Ba artu egizak batzuk (amaseiko gorriek eta...)

Artu euazala batzuk seguru eta ba joan zala etxera eta, etxean ba ikusirik ba onak dirala eta zera dala, atzera bota ei eudiela, atzera, eta atzera joan zan orduan e:

– «Ba geiago eroateko esan deustie eta».

Esan eutsala ba zer orrek, an egoan orrek e, kriduak:

– «Orain ator ba mutil? Ugazabak altzadu bear jok eta ba orain ezin einke eroan eta artu egizak batzuk arin».

Eta bi edo iru atzera artu eta altzadu zala seguru ba ugazaba ori, Anbotoko Señorea altzadu zala, eta mobidu zala ba a zertu eudien orduan galapan etxerantz eta bestea be ikusi euan orduan an baten

batek zertu egundo itzue edo koxoa edo olangoxe desgrasie».

D'eside faltetan seguru egundo be.

euan orduan, ba atzetik kogiduetan. Eta kogidu orduko etxera eskapadu eutsala. Sartu zala barrura, eta, artu euan arrabioagaz bota eutsala maldiziñoa seguru etxe orri:

– «Emen etxe onetan ez da faltaduko egundo itsua edo koxoa edo olangoxe desgrazia».

Eta ez ei da faltetan seguru egundo be.

3.2. Aita zaharrari zurezko tenedor-koiarak

Baten e orko estai(t) nongo etzean baten agurean bategas esin sen konpondu bere semea ta yatorduetan da esin i auen soportau antoju emoten i otzen da.

D'egun beten artu mayatzeko idergi berriko bigarren egunean ebagiko altz egurre da an ebilen setan atan erreminta batzukas.

Atan daragoiola bayatorko eskolatik mutikoa, kaskondutxue ya, ta aite erremintokas ikusikeran badiñotzo:

– Aite setan sabis?

– Ba, aitate sarra da bai te gure tenedor-koiarak ibili estaisen beretzako suresko tenedor-koiarak iten.

Mutikoak es i otzen yamon andirik in da merinda iski bat artu, yan da berape artu kutxillo txiki bet eta non asten dan seosetan!

Orretara badiñotzo aitek:

– I, setan abil eskuotako trasteokas?

– Ba, su sau sar ixiten sarenerako tenedor-koiarak iten! Gixon orrek orduen artu erdi inean aukesan tresnok eta erdi bi inde surtera bota i ausen, mutikoari beste ainbeste inasos.

Baten e orko ez dakit nongo etxeren baten agurerean bategaz ezin zan konpondu bere semea eta jatorduetan eta ezin ei euan soportadu antoju emoten ei eutsan da.

Eta egun baten artu maiatzeko idergi barriko bigarren egunean ebagitako altz egurra eta an ebilen zertan artan erramienta batzukaz.

Artan daragoiola badiatorko eskolatik mutikoa, kaskondutxua ya, eta aita erramientokas ikusikeran badiñotso:

– Aita zertan zabilz?

– Ba, aitaita zaarra da bai eta gure tenedor-koiarak ibili ez dagizan beretzako zurezko tenedor-koiarak egiten.

Mutikoak ez ei eutsan jaramon andirik egin eta merienda iski bat artu, jan eta berak be artu kutxillo txiki bat eta non asten dan zeozertan!

Orretara badiñotso aitak:

– I, zertan abil eskuotako trasteokas?

– Ba, zu zeu zaar izaten zaranerako tenedor-koiarak egiten!

Gizon orrek orduan artu erdi eginean eukazan tresnok eta erdi bi eginda surtera bota ei euazan, mutikoari beste ainbeste eginazoz.

3.3. Aita baztertuarena

Etzean baten an i aukien aite sarra deslai te iñotxamonik iten estotzela. Da ba ausokoak ain ikustauden errukarri egunen baten ausoko batek (g)aitu te bere etzera aroan i auen.

Da esan i otzen ba se: «urlie, bitixu, aberatza basintikes sure etzekoak e solia-go ibiliko llatzuz, baye aitisu, esaixu gogait in da ni naure esana ixu, ni nauk itxikotzudes amasaiko gorri betzuk eta iluntzero-iluntzero satos naure etzeko tollarara, igoixu kamarara t'an asi sates diru saratak iten da altuen kontetan, d'akabaurduen barriro kontetan asi barik aurrera in d'alangonbaten inder andiagoagas esan e: "bueno biger segidukot", d'ikusikosu se pasauko dan.»

Esan da in, agure orrek ausora-yoateak asi ausenetik eta ona iños baño obeto esatotzien etzekoak.

D'alangon baten ba il be in bear auen agure orrek eta il sanean intierrure yoan baño lenago in i aurien bueltan bat ausoko etzera bere semalabok t'a bai isan sala ikustea! ser? eta es aurien ba estaka endemoniño bat aurkitu letreru bategas! se letreru t'auxe: ona datorren bakotxak onexegas beronegas meresidu daus narruko on batzuk, emendatu esineko dirusaleok alangook.

4.1. Lamiñak Manualdeko txarkoan

Baten Estefana Ugertekoan aite yoan san goxean goxetik solora ganaduekas bearren eta lauterdiek inguru edo ixingo san, goxaldean. Da alangonbaten lamiña

Etzeren baten an ei eukien aita zaarra deslai eta iñok jaramonik egiten ez deustsala. Eta ba auzokoak ain ikusten eudien errukarri egunen baten auzoko batek deitu eta bere etxera aroan ei euan.

Eta esan ei eutsan ba ze: «urlia, begiratu egizu, aberatsa bazeintekoz zure etzekoak e zoliago ibiliko liatzuz, baia aditu egizu, ez egizu gogait egin eta nire neure esana egizu, nik neuk itxiko deustsudaz amaseiko gorri batzuk eta iluntzero-iluntzero zatoz neure etzeko tollarara, igon egizu kamarara eta an asi zaitetz diru zaratak egiten eta altuan kontetan, eta akabadu orduan barriro kontetan asi barik aurrera egin eta alangoren baten indar andiagoagas esan e: "bueno biar segiduko dot", eta ikusiko dozu zer pasaduko dan.»

Esan eta egin, agure orrek auzorajoateak asi euazanetik eta ona iñoiz baño obeto esaten eutsien etzekoak.

Eta alangoren baten ba il be egin bear euan agure orrek eta il zanean entierrura joan baño leenago egin ei eudien bueltaren bat auzoko etxera bere seme-alabok eta a bai izan zala ikustea! zer? Eta ez eudien ba estaka endemoniño bat aurkitu letreru bategaz! zer letreru eta auxe: ona datorren bakotxak onexegaz beronegaz meresidu dauz narruko on batzuk, emendatu ezineko diruzaleok alangook.

batzuk etorri yakosan beragana Manualdeko txarkoan. Eta orrik i arri kanpaia yo baño lenago aukiten aurién inder andie. Da gixon orreri guatutzien eta ba bera bildurtu in sen apur bet da esan auen ba:

– «Ser ingopa (egingo dot ba) nik, orrik i arri kanpaia(k)tx(y)o artiño se orrik inder andie daukie ta?».

Da pentzauen ba:

– «Nik kanta ba(t) kantaukotziet oniri, kanta ba(t) kantaukotziet eta kitu, eta liñoan kantea kataukotziet».

D'asi sen liñoan kantea kantetan. D'ori liñoan kante ori bera(k)tx(y)akin auen, da, asi sen da akabau iten yakon arin, baie atzera barrien barris astesan da olan ekin otzen ainbe tenporan kantetan. Da alangonbaten ba orretan daosela ba yo auen arri kanpaiak elexan. Da orduen asi sirean ba lamiñok ba ostanduten baie berak in auen ba(t) kuyau da ekarri auen etzera. D'etzean aukien eta gurotzien berba inaso baia esin in eta orduen egon sirean egun betzutan ba ia berbas etekien edo esetekien baie esin otzien barbarik inaso. Da egun beten ifini aurién esnea egosten da eurek apur bet olan a entretenidute daosela ba iotzien esne orrek (g)ora igun eta asi sen yausten. Da orduxean lamiñorrek, esnea asko gustetan yakon moduen arpelik (g)aldu es taiten ba asi sen esaten:

– «Txurie gora! Txurie gora!».

D'orduxean in aurién:

– «Bueno ba, one(k)p(b)adaki berbas».

D'ortik asi sirean ba berba ereinasoten. Da gero, orti berba ereinasoten asi sirean da esotzien a ber aurok (lamiñok) selan bixi diresen edo. D'esotzien ba bixi direselan an errekan, errekan bixiten diresela. Da ia ba selan aurok, selan il edo selan

miña batzuk etorri jakozan beragana Manualdeko txarkoan. Eta orreek i arri kanpaia jo baiño leenago eukiten eudien indar andia. Eta gizon orri goratu eutsien eta ba bera bildurtu egin zan apur bat eta esan euan ba:

– «Zer egingo dot ba nik, orreek i arri kanpaiak jo arteraiño ze orreek indar andia daukie ta?».

Eta pentsadu euan ba:

– «Nik kanta bat kantaduko deutsiet onei, kanta bat kantaduko deutsiet eta kitu, eta liñoaren kantea kataduko deutsiet».

Eta asi zan liñoaren kantea kantetan. Eta ori liñoaren kanta ori berak jakin euan, eta, asi zan eta akabadu egiten jakon arin, baie atzera barrien barriz asten zan eta olan ekin eutsan ainbat denporan kantetan. Eta alangoren baten ba orretan dagozala ba jo euan arri kanpaiak eleizan. Eta orduan asi ziran ba lamiñok ba ostanduten baie berak egin euan bat kogidu eta ekarri euan etxera. Eta etxean eukien eta gura eutsien berba eginazo baie ezin egin eta orduan egon ziran egun batzutan ba ia berbaz ete ekien edo ez ete ekien baie ezin eutsien barbarik eginazo. Eta egun baten ifini eudien esnea egosten eta eurak apur bat olan a entreteniduta dagozala ba egin eutsien esne orrek gora igon eta asi zan jausten. Eta orduxean lamiña orrek, esnea asko gustetan jakon moduan alperrik galdu ez daiten ba asi zan esaten:

– «Txuria gora! Txuria gora!».

Eta orduxean egin eudien:

– «Bueno ba, onek badaki berbaz».

Eta ortik asi ziran ba berba eraginazoten. Eta gero, ortik berba eraginazoten asi ziran eta esan eutsien a ber eurok

galdu se guraurien aurek (g)aldutea, se gaubetan ser andiek emoten otziesan, gerrandiemoten otzien, d'aber selan galduen direсан. D'esotzien:

– «Bueno ba, ba gu galduteko ba auxe da: Ba San Juan egunean yayo beadaurie ba erri-sekorrak, bi, ixin beadaurie biko-txak eta orrikas sekorrokas in beadana da: intilla bat artu eta idergi betea dan orduen, errekea goitipera pasau, ori txarkori, ta urtengo dau odolak».

D'olan ibili sirean topetan orrik erri-sekorro(k)p(b)iok. D'alangonbaten topau situesan, bikotxak ixin bearraudien d'erri-sekorrak, da topau situesan da efetibamente, erri-sekorro(k) topau situesan orduen, intilleagas ori txarkori, Manualdeko txarkori, gora ta bera pasaurien. Da urten i auen odola, d'intilleak aginetan batu i situsen seguru ulleak eta, lamiñenak.

D'olantxe galdu i situesan lamiñok, da geao bakea aukiniaurien lamiñokas.

(lamiñok) zelan bizi dirazan edo. Eta esan eutsien ba bizi dirazala an errekan, errekan biziten dirazala. Eta ia ba zelan eurok, zelan il edo zelan galdu ze gura eudien eurak galdutea, ze gaubetan zer andiak emoten eutsiezan, gerra andia emoten eutsien, eta aber zelan galduen dirazan. Eta esan eutsien:

– «Bueno ba, ba gu galduteko ba auxe da: Ba San Juan egunean jaio bear daudie ba erri-zekorrak, bi, izan bear daudie biko-txak eta orreekaz zekorrokaz egin bear dana da: intilla bat artu eta idergi betea dan orduan, errekea goitik bera pasadu, ori txarko ori, eta urtengo dau odolak».

Eta olan ibili ziran topetan orreek erri-zekorro biok. Eta alangoren baten topadu zituezan, bikotxak izan bear eudien eta erri-zekorrak, eta topadu zituezan eta efektibamente, erri-zekorro topadu zituezan orduan, intilleagaz ori txarko ori, Manualdeko txarko ori, gora eta beera pasadu eudien. Eta urten ei euan odola, eta intilleak aginetan batu ei zituzan seguru ulleak eta, lamiñenak.

Eta olantxe galdu ei zituezan lamiñok, eta geiago bakea eukin ei eudien lamiñokaz.

4.2. Abadea eta hodeia

Ba baten ixin sen abade bat eta ibili sen udan bere kanpoak eta ikusten. Ain ederrak egon sirean artoak eta gariak eta! Eta bedeinkatues ba bere kanpoak ikusten ibili sen.

Eta, alangon baten ba agartu yakon gixon bat, ori ixin sen deabrue gixonan forman esta, d'etorri yakon tentetan, es ekien berak nor san, eta esan otzen orrek e ba:

Ba baten izan zan abade bat eta ibili zan udan bere kanpoak eta ikusten. Ain ederrak egon ziran artoak eta gariak eta! Eta bedeinkatuaz ba bere kanpoak ikusten ibili zan.

Eta, alangoren baten ba agertu jakon gizon bat, ori izan zan deabrua gizonaren forman ezta, eta etorri jakon tentetan, ez ekian berak nor zan, eta esan eutsan orrek e ba:

– Selango kanpo ederrataukasu esta erri onetan? da

– Bai, benetan ederrak.

Da esan otzen gizon orrek:

– Nipadodas ba kaballoak onikanpoa-peingoan apurtuko ditusenak!

– Da bai?

– De bai.

D'abadeak erantzun otzen e:

– Ba nipe badodas ba bridak orri(k) kaballook o lotutekoak!

Da, bueno, olan ibili sian berbas da, esanotzen gizon orrek e abadeari:

– Ba gaur gauberorduko oni(k) kanpoak nitanak apurtu ingodas!

Eta yoan san a gizon ori eta abadea larri parausen da esauen ba:

– Se pasauko ete da emen?

Da, alangonbaten ba egon san egune argie, argie benetan. Da, arrastirantza laño batzuk agartu sirean. D'abadea apur bet estutu in sen ser pasauko ete dan, da, esan auen ba se:

– Yagoten egon beopa ia ber ser etorriko dan, ia ber etorten bada arrien bat, txirgorea, abasusea edo gausa txarren bat.

Eta etorri sen kargetan-kargetan denporalea txarra, afruntue, akordatzako ekatxa eta odei torreak alde gustietatik i danapat ingurean. Da ba erriko jentea be dana estutute parau sen eta ser pasau bear ete dauen!, kanpo gustie apurtu ingo dauela ta ak e inisituotzak.

D'abadea asi sen e brebiariori atera eta erresuek iten bere etze aurrean. Da baukan ortu bet abade orrek eta alangonbaten ikusi auen orduen ba yausi bea dauela golpe andien batek e berekitan eragoion: yausi daitela ni naure ortuko barrikara barrure!

– Zelango kanpo ederrak daukazuz ezta erri onetan? eta

– Bai, benetan ederrak.

Eta esan eutsan gizon orrek:

– Nik badodaz ba kaballoak onik kanpoak beingoan apurtuko dituzanak!

– Eta bai?

– Eta bai.

Eta abadeak erantzun eutsan e:

– Ba nik be badodaz ba bridak orrik kaballook o lotutekoak!

Eta, bueno, olan ibili ziran berbaz eta, esan eutsan gizon orrek e abadeari:

– Ba gaur gaubera orduko onik kanpoak nik danak apurtu egingo dodaz!

Eta joan zan a gizon ori eta abadea larri paradu zan eta esan euan ba:

– Zer pasaduko ete da emen?

Eta, alangoren baten ba egon zan eguna argia, argia benetan. Eta, arrastirantz laño batzuk agertu ziran. Eta abadea apur bat estutu egin zan zer pasaduko ete dan, eta, esan euan ba ze:

– Jagoten egon bear dot ba ia a ber zer etorriko dan, ia a ber etorten bada arriren bat, txirgorea, abazuzea edo gauza txarren bat.

Eta etorri zan kargetan-kargetan denporalea txarra, afruntua, akordatzako ekatxa eta odei torreak alde guztietatik i danak bat egin guran. Eta ba erriko jentea be dana estututa paradu zan eta zer pasadu bear ete dauan!, kanpo guztia apurtu egingo dauala eta ak e inizituotsak.

Eta abadea asi zan e brebiario ori atera eta errezuak egiten bere etxe aurrean. Eta baeukan ortu bat abade orrek eta alangoren baten ikusi euan orduan ba jausi bear dauala golpe andiren batek e berekitan eragoion: jausi daitela nire neure ortuko barrikara barrura!

Eta asi sen yausten ba, arrie ta gausa ikaragarrizkoak eta yausi sen dana bere ortuen barrure, osea ke, barriкеauki auen ortuen barruen d'arexen erdire yausi sen dana, eta an urtean, iñoskorik eta garitza andiena lograu i sen seguru.

4.3. Kastrejanako zubia

Ori subiena, ixin sala neskato bat, an baserri beten bixi sala ta beste errire pasetako ba iluntza bat ixin sen da olan sarri paseta san esta.

Baie, iluntzan baten asartau yakon pasetea ta, oño!, andik urr urrean auken da errekatik pasau bearrekoan ba builtandie in bearrauen besteti yoaten esta, eta aimareatxo ta iguskie sartzamendien sarturik egoanes, ilun-ilun yakine, se ongo san ba, ta badiño erdi durdidute:

– Oño!, untxe esta ongo deabrurik auxe errekontatik sibi bet iteko?

Bueno, yoan san arantza t'agartu yakon gixon bat. Beragas berbas asi sen da badiñotzo orreri gixon orreri:

– Oño!, ba nik i emeti subi bet itearren emongo naunke estaki(t) ser emongo naunken be!

– Ser emongo saunke ba, su saure arimea emongo saunke?

Ba, bai, posipe emongo naunke!

– Bueno, -esaotzen gixon orrek-, firmaixu ementxe papelean!

Eta firmauen selan alan itargien argipean da konformau sirean subi ori iteko. D'esaotzen gixon orrek:

– Biger e goxaldean ullarratxoten dauen ordureko subie inde ongo da!

Orregas konprometidu sirean da neska-tori ba, badoa atzera ta larritu in sen

Eta asi zan jausten ba, arria eta gauza ikaragarrizkoak eta jausi zan dana bere ortuaren barrura, osea ke, barriкеa euki euan ortuaren barruan eta arexen erdira jausi zan dana, eta an urtean, iñoizkorik eta garitza andiena logradu ei zan seguru.

Ori zubiarena, izan zala neskato bat, an baserri baten bizi zala eta beste errira pasetako ba iluntze bat izan zan eta olan sarri pasetan zan ezta.

Baia, iluntzeren baten azartadu jakon pasetea eta, koño!, andik ur urrean eukan eta errekatik pasadu bearrekoan ba buelta andia egin bear euan bestetik joaten ezta, eta abemariak jo eta eguzkia sartzamendian sarturik egoanez, ilun-ilun jakina, ze egongo zan ba, eta badiño erdi durdiduta:

– Koño!, oraintxe ez da egongo deabrurik auxe erreka onetatik zabi bat egiteko?

Bueno, joan zan arantz eta agartu jakon gizon bat. Beragaz berbaz asi zan eta badiñotso orri gizon orri:

– Koño!, ba nik i emetik zubi bat egitearren emongo neunke ez dakit zer emongo neuncan be!

– Zer emongo zeunke ba, zure zeure arimea emongo zeunke?

Ba, bai, pozik be emongo neunke!

– Bueno, -esan eutsan gizon orrek-, firmadu egizu ementxe papelean!

Eta firmadu euan zelan alan itargiaren argipean eta konformadu ziran zubi ori egiteko. Eta esan eutsan gizon orrek:

– Biar e goizaldean ollarrak joten dauan ordurako zubia eginda egongo da!

Orregaz konprometidu ziran eta neska-

seguru eta badiñotzo, bere erriko abadea-
gana yoan san da badiñotzo:

- Oño!, larri nao!

- Ser pasetan yatzu ba?

- Ba, auxe, onantxik eta onantxik urten
doste gixon batek eta esan dotzet e: «esta
ongo deabrurik i emeti subi bet iteko»,
da «se emongo saunke subie itearren» da
«ba saure arimea emongo saunke» da
«bai, posik», eta firmea inde itxi ot selan
beist.»

D'esan otzen abadeak:

- Bueno, ba galdute saos! Ori deabrue
ixin de da galduko satu! -D'esatzen aba-
de orrek-: bueno, estutu sates eta topaixu
ba lenbañolen Martien arrauntza ta Mar-
tien txita ixin den ullar bat, eta oni(k)
kantetan daurie da topaixu orixe d'aber
deabruek ori subi ori in akabaurduko aber
orrek ullar orrek e yoten badau!

D'asi sen, asi sen topetan da topetan
da topetan da topauen, topauen e Mar-
tien arrauntza ta Martien txita ixineko
ullar bat.

D'ekarri auri en etzera ba ta erri gustie
yakitun parau sen ba ser pasetan dan,
da bueno larri ba ta, ba deabruetxoan
sirean subi ori iten auren materialak artu
t'arri te ba serakustiek artute yoan sirean
subi ori iten.

Da yoan i sirean ba partidea esta,
d'atzeti koxo bat, eta eroan auri en danak
euren materiala, eta eroan situesan ba
materialatanak, eta koxoak, atzeti yoan
sanak a koxoa salako, bostaun arroako
arrie ta erremintak eroan situsen seguru,
da besteok o besteok (g)ea, besteak e
beitixu se eroango auri en.

Da subie aurrera yoan san goxaldea,
ta, alangonbaten gitxi falta sala ullar orrek
egoatxo gora ta gora, gora ta bera ta

to ori ba, badoa atzera eta larritu egin
zan seguru eta badiñotso, bere erriko
abadeagana joan zan eta badiñotso:

- Koño!, larri nago!

- Zer pasetan jatzu ba?

- Ba, auxe, onantxik eta onantxik urten
deust gizon batek eta esan deustat e: «ez
da egongo deabrurik i emetik zubi bat
egiteko», eta «zer emongo zeunke zubia
egitearren» eta «ba zeure arimea emongo
zeunke» eta «bai, pozik», eta firmea egin-
da itxi dot zelan beist.

Eta esan eutsan abadeak:

- Bueno, ba galduta zagoz! Ori deabrue
izan da eta galduko zaitu! -Eta esan eut-
san abade orrek-: bueno, estutu zaitetz
eta topadu egizu ba leen baiño leen
Martian arrauntza eta Martian txita izan
dan ollar bat, eta onik kantetan daurie
eta topadu egizu orixe eta a ber deabruak
ori zubi ori egin akabadu orduko a ber
orrek ollar orrek e joten badau!

Eta asi zan, asi zan topetan eta topetan
eta topetan eta topadu euan, topadu
euan e Martian arrauntza eta Martian
txita izandako ollar bat.

Eta ekarri eudien etxera ba eta erri
guztia jakitun paradu zan ba zer pasetan
dan, eta bueno larri ba eta, ba deabruak
joan ziran zubi ori egiten euren materialak
artu eta arri eta ba zerak guztiak artuta
joan ziran zubi ori egiten.

Eta joan ei ziran ba partidea ezta, eta
atzetik kojo bat, eta eroan eudien danak
euren materiala, eta eroan zituezan ba
materialak danak, eta kojoak, atzetik joan
zanak a kojoa zalako, bosteun arroako
arria eta erramientak eroan zituzan segu-
ru, eta besteok o besteok geiao, besteak
e begiratu egizu zer eroango eudien.

Eta zubia aurrera joan zan goizaldea,

iauen: «Kuuukurrrrrrukuuuu!» da kukurrukuotzori entzun audien orduen subiri ori arri beten faltan auki i aurien seguru eta deabruak auki auen ernegasiñoagas ba, yo i auen seguru subiko arrien da bost atzamarrak grabaute imini i situen seguru atzenengo arrien. Or Salamankatik edo ortipe on bear i dau erromanuen subiri ikeragarrien batek eta axe be arri beten faltan lotu salaskoa dauket entzunde erriko parroko sarrari, ixin be in ingo da igoyal, notxakin?

5.1. Inizituari deika

Egun sargori baten gaubiluntzean Seberiotik Larragotirantza yoyala Pantxin Larragotikoa, odaye asi sen.

Orduen pagodi eta gastañadi asko egoan eta ilundu orduen pagoperi(k) pagope gastañaperik (g)astañape Pantxinek es auen eser ikusten. Eta orduen inisituari esan autzela se:

– «Argi, Argi demoniñotxue».

Eta asten da inisituotz ikeragarrizko bat... eta Pantxin bildurtu in sen eta barriro inisituari esan autzela:

«-Lar barik, lar barik-»

Eta ostas-ostas eta bildur andiegas eldu sen Larragotire...

5.2. Parte txarrekoak

Orriek i parte txarrekoak o, seinde, sorginek edo lamiñak edo yentilok edo, iluntzeko aimareetatik aurrera urtetan audiela estaurien.

eta, alangoren baten gitxi falta zala ollar orrek egoak jo gora eta gora, gora eta beera eta egin euan: «Kuuukurrrrrrukuuuu!». Eta kukurrukuots ori entzun eudien orduan zubi ori arri baten faltan euki ei eudien seguru eta deabruak euki euan ernegasiñoagas ba, jo ei euan seguru zubiko arrian eta bost atzamarrak grabaduta imini ei zituan seguru atzenengo arrian. Or Salamankatik edo ortik be egon bear ei dau erromanuen zubi ikeragarrien batek eta axe be arri baten faltan lotu zalazkoa daukat entzunda erriko parroko zaarrari, izan be egin egingo da igoyal, nok jakin?

Egun sargori baten gaubiluntzean Zeberiotik Larragotirantz joiala Pantxin Larragotikoa, odeia asi zan.

Orduan pagodi eta gastañadi asko egoan eta ilundu orduan pagoperik pagope gastañaperik gastañape Pantxinek ez euan ezer ikusten. Eta orduan inisituari esan eutsala ze:

– «Argi, Argi demoniñotxua».

Eta asten da inisituots ikeragarrizko bat... eta Pantxin bildurtu egin zan eta barriro inisituari esan eutsala:

«-Lar barik, lar barik-»

Eta oztaz-oztaz eta bildur andiagaz eldu zan Larragotira...

Orreek i parte txarrekoak o, zeinda, sorginak edo lamiñak edo yentilok edo, iluntzeko abemariatatik aurrera urtetan eudiela esaten eudien.

Da bitisu selango bildurre isingotzien se gu gauri, amandre defunteak eta iturrukuretan yoaten gintzesenean kontu andie aukiteko esatoskun.

Da ba egunen baten aimareatxo ta gero ekarri eskero iturrukure, d'ori, ondo irukutzite ta gusti e, ba esaten ibili ñatzu(n) moduen, iturrukur ori edan baño len «Jesus» esanasoten oskun da ori bakarrik es, surteko ilinti betegas kurtze bat edo geao be itotzien sein parte txarrekook kaltean bat in estaiskun.

D'au ilintien kontu au, kafeari be iten gauntzen. Kafea asko be esan oten baye, iños artagarau erre-erreak iyo ta be indu kafea baye gustu txarra! sie be esta ona edateko baye a be askos obeagoa es.

Da ba aukiten gairidunean iten gairidun kafea. Imini besuen, an surten soruen sein trebera baten ganean lapikotxa bat ur d'irikin orduen bota kafe autze, apurtxu bet, asko barik eta maltea ta txikorie ugeriako d'orduxean artzea san surteti ilinti bet eta sirigutzi betzuk iten yakosan ganas aste san monentoan, fisis! itauen da kea gora goraka botatauen.

Oin, ni naupe estakit ori setako isiten san, parte txarrekoekaitik igoal, notxakin? Baye ite sala bai, ori untzurarte esotuu iten.

Gero ba esnea, ori bai, ori etzean logretan gairidun, busterriko bayek es aukien esne askoripaye. Da ba ori be besuen laratzuen eskegi maskillue ta an egosten gairidun. Sarriten e eperdie emon orduko ganas itoskun de ba erdi tertzioa surtera yausi, edo maskillu eperdien esnea erre be bai te kiretza selango!, gaur surok ori ser dan be estakisue, da surteko sastaparran bat edo tximiniko kedarre satien bat a barrure yausi esketi-

Eta begiratu egizu zelango bildurra izango eutsien ze guri geuri, amandre defunteak eta iturriko uretan joaten gintzazanean kontu andia eukiteko esaten euskun.

Eta ba egunen baten abemariak jo eta gero ekarri ezkerro iturriko ura, eta ori, ondo irakutzita eta guzti e, ba esaten ibili niatzun moduan, iturriko ur ori edan baiño leen «Jesus» esanazoten euskun eta ori bakarrik ez, surteko ilenti bategaz kurtze bat edo geiako be egiten eutsien zein parte txarrekook kalteren bat egin ez deiskun.

Eta au ilentiaren kontu au, kafeari be egiten geuntsan. Kafea asko be esan egoten baia, iñoiz artagarau erre-erreak eo eta be egin dogu kafea baia gustu txarra! zia be ez da ona edateko baia a be askoz obeagoa ez.

Eta ba eukiten gairidunean egiten gairidun kafea. Imini beesuan, an surten zoruan zein trebera baten ganean lapikotxa bat ur eta irakin orduan bota kafe autsa, apurtxu bat, asko barik eta maltea eta atxikoria ugariako eta orduxean artzen zan surtetik ilenti bat eta zirigutzi batzuk egiten jakozan ganaz asten zan monentoan, fisis! egiten euan eta keea gora goraka botaten euan.

Orain, nik neuk be ez dakit ori zertako izaten zan, parte txarrekoekaitik igual, nok jakin? Baia egiten zala bai, ori orain-tsurarte ezagutu dogu egiten.

Gero ba esnea, ori bai, ori etxean logretan gairidun, buztarriko beiak ez eukien esne askorik baia. Eta ba ori be beesuan laratzuan eskegi maskellua eta an egosten gairidun. Sarritan e eperdia emon orduko ganaz egiten euskun eta ba erdi tertzioa surtera jausi, edo maskellu

ño irisi ite san selango alango irestontzien bategas. Ai! da, ba untxe yatort o burure, sutxakin be estosu igoal ingo, baye bakisu pastoreak a goietan daosenean selan iristen daurien ardien esnea? Ba enbudoan asunek iminten dauries d'andi pasaso esneari, olantxik iristen daurie. D'egosi, oin i sinesko kantinetan baye lenago askatxuetara bota esnea ta arrieperotu te barrure botata, d'aik arriek berotuten botatauden tiro bakotxik!

D'olangoxe kontuek. Oin i adelantuepe andietaos da, lengorik i lardangañe, baya tire, onerako bada bijon daiskule!

eperdian esnea erre be bai eta kiratsa zelangoa!, gaur zuok ori zer dan be ez dakizue, eta surteko sastaparraren bat edo tximiniko kedarre zatiren bat a barrura jausi ezketiño irazi egiten zan zelango alango iraztontziren bategaz. Ai! eta, ba oraintxe jatort o burura, zuk jakin be ez dozu igual egingo, baia badakizu pastoreak a goietan dagozanean zelan irazten daudien ardien esnea? Ba enbudoan asunak iminten daudiez eta andik pasazo esneari, olantxik irazten daudie. Eta egosi, orain i zinezko kantinetan baia leenago askatxuetara bota esnea eta arriak berotu eta barrura botata, eta aik arriak berotuten botaten eudien tiro bakotxik!

Eta olangoxe kontuak. Orain i adelantuek be andiak dagoz eta, leengorik i lardangañe, baya tira, onerako bada bijon deiskula!

5.3. Sua, ura eta edurra

Uregas estu auki emen ser andirik, uriolarik, altutxuen bisi gara ta baye sue sarri ikusi u bereak iten. Ausunan be etze bapaño geao erre yaku.

Edurtzape mortalak ikusi us eta edurre be surie dala baltza da, ikusteko polite baye beste gustireko askena.

Orregaiti, gure aitu eta amandrek esatostkun edurre mendien dala ona ta sue ta ure be onak baya belaunpetik, andikora kontus!

Uragaz ez dogu euki emen zer andirik, uriolarik, altutxuan bizi gara eta baia sua sarri ikusi dogu bereak egiten. Auzunan be etxe bat baiño geiago erre jaku.

Edurtzak be mortalak ikusi doguz eta edurra be zuria dala baltza da, ikusteko polita baia beste guztirako azkena.

Orregaitik, gure aitu eta amandrek esaten euskuen edurra mendian dala ona eta sua eta ura be onak baia belaunpetik, andik gora kontuz!

6.1. Lamiñak Ugarten

Oin i olango konturik estu siñistuten baye, txikerretan, derrigor ixin bear txike-

Orain i olango konturik ez dogu siñestuten baia, txikerretan, derrigor izan

rretan, e... Amak a, urte t'erdiges itxi osten da, besterik enaiñun ikusi.

Amandre saspi urtegas il yatan. Gero etxean parau ginean ba aitegas, gure sorie a ixite san, aparejue(k) kortati gora, iturrukure, orrik, gaure konture gaunko-san, da esoskuen guri: «au ixu, ori ixu» esaten, gauk in bear.

Guk ardurea, ungo umeari esaios..., auxe aurki au be altzau bes.

Aitek e, berba ba(t)p(b)atak edo besteak deskuidetan basan txarto esaten e, selaien miñegas inaso sera, gastigue... Oin aspire ganean on nai mai ganean on,... selango diferentzie in dau e?

Domeketan Undurrara, poosik, Undurran olgetan ba klase askotara olgetan gaiñun, Sasolakoape etorten sirean da...

Olgau, arriekordetara da igirten, soka da, txirikelan da, potxolara intxurrekas da, orduen intxurre asko... da, olan...

Da baten e Kurtzebarriti gatosela, gaubiluntzea san ixin be, orrin lamiña edo estaipa nik i sorginen edo kiretza asmetan giñun, baye selango kiretza gero, da builtea artu te Albitupeko bideti ulleape artetute etorri ginean etzera.

Or Kurtzebarriti seoser on be ingo yatzu, se intteruetan be gorpue lotu eta abadeak errespontzoa erresetan auen, seoser ixingo da.

Au esan dotzuten au, emen esese Gose-tupeko subi ondoan be oten i de ori kiretz ori.

Iños baten bateri entzun dotzet ori kiretz ori mosollo-kakana ete dan be, baye batepaki!, oba orritati lekuotati egun argis ibili ser dan beist.

bear txikerretan, e... Amak a, urte eta erdigaz itxi eustan eta, besterik ez nendun (neuan) ikusi.

Amandre zazpi urtegas il jatan. Gero etxean paradu ginean ba aitagaz, gure zoria a izaten zan, aparejuak kortatik gora, iturrikoura, orreek, geure kontura geunkazan, eta ez euskuen guri: «au egizu, ori egizu» esaten, geuk egin bear.

Guk ardurea, oraingo umeei esan egiozue..., auxe aurki au be altzadu be ez.

Aitak e, berba bat batak edo besteak deskuidetan bazan txarto esaten e, zelaian miñagaz eginazo zera, gastigua... Orain azpira ganean egon naiz maai ganean egon,... zelango diferentzia egin dau e?

Domeketan Undurrara, poozik, Undurran olgetan ba klase askotara olgetan gendun, Sarasolakoak be etorten ziran.

Olgadu, arriak gordetara eta igarten, soka eta, txirikelan eta, potxolara intxaurrekaz eta, orduan intxaurra asko... eta, olan...

Eta baten e Kurtzebarritik gatozala, gaubiluntzea zan izan be, orreen lamiña edo ez dakit ba nik i sorginen edo kiratsa asmetan gendun, baia zelango kiratsa gero, eta builtea artu eta Albitupeko bidetik uleak be arteztuta etorri ginean etxera.

Or Kurtzebarriti zeozer egon be egingo jatzu, ze entteruetan be gorpua lotu eta abadeak errespontsoa errezetan euan, zeozer izango da.

Au esan deutsudan au, emen ezeze Gorozitupeko zubi ondoan be egoten ei da ori kirats ori.

Iñoiz baten bati entzun deusat ori kirats ori mozollo-kakarena ete dan be, baia batek badakil, obe orreetatik lekuotatik egun argiz ibili zer dan beist.

7.1. Jentilak eta lamiñak Untzetapikun

Ori yentilena?

Serean, ba Untzetapikun ifinten auen kadera bat, da beste kaderea Uriondo ganean, da uredaten auen an a, errotea daoen lekuan, Elorribitako errekan uredan. Andiek! O! Gixontzarrak!

Orrik, aspetan da kuetan sartute bixi sirean..

Hemen lamiñak serean oten sirean se-guru, Etsazora doan bidean, Ametzatik i, andikora.

Serari, Antero Amesolakoari, an a, sarratuko Seberioگانeko ondoan, urtetan otzien seguru da:

– «Kendu ai, kendu ai»

Onan txikitxue ta, -kendu ai ondoti-bai te...

D'atoan bera baño andiagoa. Da bildur-tute Amesolara gixajoa.

Ori Jentilena?

Zerean, ba Untzetapikun ifinten euan kadera bat, eta beste kaderea Uriondo ganean, eta ura edaten euan an a, errotea dagoan lekuan, Elorribietako errekan ura edan. Andiak! O! Gizontzarrak!

Oreek, azpetan eta kuebetan sartuta bizi ziran...

Emen lamiñak zerean egoten ziran se-guru, Etsazora doan bidean, Ametzatik i, andik gora.

Zerari, Antero Amesolakoari, an a, zarratuko Zeberioگانeko ondoan, urtetan eutsien seguru eta:

– «Kendu adi, kendu adi»

Onan txikitxua eta, -kendu adi ondo-tik- bai eta...

Eta atoan bera baño andiagoa. Eta bildurtuta Amesolara gizajoa.

8.1. Anbotoko Señorea Sarasolan

Anbotoko señorea, or, Sasolara be kandela berdeakas da urtetan otziela ta, bai, olangoak entzun nindusen. Ba, nos urtetan otzien, ba olango detallerik estau- ket akordurik, baye bakisu nok esan osten ori? Orren, Lusiano, suk esaiñun esotuko baye, au, koxea, Ermojenan, orren amen neba batek esan osten, bai Sasolan urte- tan otziela kandela berdeakas da kateape tarras.

Anbotoko señorea, or, Sarasolara be kandela berdeekaz eta urtetan eutsiela eta, bai, olangoak entzun nenduzan. Ba, noiz urtetan eutsien, ba olango detallerik ez daukat akordurik, baia badakizu nok esan eustan ori? Orren, Luziano, zuk ez zendun ezagutuko baia, au, kojear, Ermo- jenaren, orren amaren neba batek esan eustan, bai Sarasolan urtetan eutsiela kandela berdeekaz eta kateak be tarras.

8.2. Lamiñak Bañutzen

Iturrie, ur gasidune, orrexen etzean ortxe ostaien, ortxe, soloak, bealdeti tau- ken ortu satitxuen. Oin tuberie imini o-

Iturria, ur gaziduna, orrexen etxean ortxe ostean, ortxe, soloak, bee aldetik daukan ortu zatitxuan. Orain tuberia imini

tzien errekarra da, ori pixue ifini aurienean or in aurien gero eskusaue, an a iturrie on san lekuen. Nos arte on san bañutzea? Ba, gerrea akabau arte.

Da bañuen jente asko, asko oten sisan, gaur emen aista bape antxe onda, Gesalgoikora yoatesan ba gaueiten, da emen bañue artu goxean da yoatesan ara.

Emeko ure askok eroaten aurien gastañak egosteko, kantinekas da etorten sisan, botillakas da olantxe.

Da lamiñape ote sisan seguru, ikusi es i audiesan iten baye entzun bai auren surrumurruek eta ifios urregorrisko orrasien bape topau be seguru.

9.1. Aibelabeko beste-mundukoak

Ba etorri sen gaubean amabitinguruen edo d'entzuen katea sarata bat, da katea sagata ori gero ta urrago ta gero ta urrago ta gero ta urrago iten yakon.

Da sustu andie artuen, baye bidearloan katea(k) tarras direla, kateok, da estakipa ser ixingo san, baye sustu andie artu uen.

Da, or mendietan sustue askok artutauen. Andiek ixingo sirean (yentilek), ara, estakinik.

Aibelabe bakisu non daoen, ba antxe urtetauen atxen ganean, atxen erdi erdien, argi betek, argi asul-asul betek, da, se eteda, se eteda, ba, intzentzoa isingo ete dan, da olan gentea ser pentzau estakiela.

Anbotoko Señorea, saspi urte ote san Anboton da saspi urtean Gorbayen, esatauden, Gorbayeko Itxinen.

Lamiñape, Iberrondo errekan oten i sirean, da, area, estait selangoa, urrego-

eutsien errekarra eta, ori pisua ifini eudie-nean or egin eudien gero eskusadua, an a iturria egon zan lekuan. Noiz arte egon zan bañutzea? Ba, gerrea akabadu arte.

Eta bañuan jente asko, asko egoten zirazan (ziran), gaur emen aizta bat be antxe egonda, Gezalagoikora joaten zan ba gaua egiten, eta emen bañua artu goizean eta joaten zan ara.

Emeko ura askok eroaten eudien gaztañak egosteko, kantinekaz eta etorten zirazan, botillekaz eta olantxe.

Eta lamiñak be egoten zirazan seguru, ikusi ez ei eudiezan egiten baia entzun bai euren zurrumurruek eta ifioiz urregorrizko orraziren bat be topadu be seguru.

Ba etorri zan gaubean amabiak inguruan edo eta entzun euan katea zarata bat, eta katea zarata ori gero eta urrago eta gero eta urrago eta gero eta urrago egiten jakon.

Eta sustu andia artu euan, baia bidearloan kateak tarras dirala, kateok, eta ez dakit ba zer izango zan, baia sustu andia artu euan.

Eta, or mendietan sustua askok artuten euan. Andiak izango ziran jentilak, ara, ez dakit nik.

Aibelabe badakizu non dagoan, ba antxe urtetan euan aitzaren ganean, aitzaren erdi erdian, argi batek, argi azul-azul batek, eta, zer ete da, zer ete da, ba, intzentzoa izango ete dan, eta olan gentea zer pentsadu ez dakiala.

Anbotoko Señorea, zazpi urte egoten zan Anboton eta zazpi urtean Gorbeian, esaten euden, Gorbeiaiko Itxinan.

risko aginekas San Juan egunean yayo-ko sekorrakas itauden errekea areatu, da olan lamiñok tragetan situesan seguru, bai, urregorrisko area-aginek, da sekorrak, baso edo erri sekorrak biek San Juan egunean yayokoak, aikas areatu itauden errekea laminek (galtzeako.

Lamiñak be, Ibarrondo errekan egoten ei ziran, eta, area, ez dakit zelangoa, urregorritzko aginekaz San Juan egunean jaioko zekorrakaz egiten euden errekea areatu, eta olan lamiñok tragetan zituezan seguru, bai, urregorritzko area-aginak, eta zekorrak, baso edo erri-zekorrak biak San Juan egunean jaiokoak, areekaz areatu egiten euden errekea laminak galtzeko.

9.2. Saiak Anbotoko Señorearen itxuran

Au, saien kontue, biri daukotziet entzunde. Bata Pedro Sasolakoari. Ak e, sera esatauen: Or Anboto ondoan, Bernagoitin edo, ba saiek arrapau da gero sestoatan pekorotza(k)p(b)atu, saiori erpatatik eskegi, sue emon eta garretan yoaten sireala saiok Anbototi Gorbayerantza Anbotoko Señorearen itxuran.

Eta bestea Manuel sarra defuntue Albitzukoari. Ak ostera, Seberio eta Orosko arteko Aibelabeko atxeko sera, istorie kontetauen. Orra Aibelabera yoaten i sen fraile karmelita bat erriko batzukes. Ordu-reko saiok arrapaute aukitaudesan da pekorotza(k)p(b)atute. Gero maskilluetan edo kobresko galdallatan imini pekorotzok, estu erpatati, sue emon eta garretan yoaten sirean saiok Aibelabeti Mandoiera, Anbotoko Señorearen itxuran. Eta gentea sustauraño itesan, seguru!

Au saien kontua, biri daukotziet entzunda. Bata Pedro Sarasolakoari. Ak e, zera esaten euan: Or Anboto ondoan, Bernagoitin edo, ba saiak arrapadu eta gero zestoetan pekorotzak batu, saioi erpetatik eskegi, sua emon eta garretan joaten zirala saiok Anbototik Gorbeiarantz Anbotoko Señorearen itxuran.

Eta bestea Manuel zaarra defuntua Albitzukoari. Ak ostera, Zeberio eta Orozko arteko Aibelabe aitzeko zera, istoria kontetan euan. Orra Aibelabera yoaten ei zan fraile karmelita bat erriko batzuekaz. Ordurako saiok arrapaduta eukiten eudezan eta pekorotzak batuta. Gero maskelluetan edo kobrezko galdailetan imini pekorotzok, estu erpetatik, sua emon eta garretan joaten ziran saiok Aibelabetik Mandoiara Anbotoko Señorearen itxuran. Eta gentea sustaduraino egiten zan, seguru!

10.1. Itargiaren ilundeak

Onango kontuek e gure aitueri t'aman-dreri entzuten gauntzesan supastarrean arto garantan da oten sireanean.

Onango kontuak e gure aituari eta amandreri entzuten geuntsazan supaztrean arto garantan eta egoten ziranean.

Baten seguru, bariku santus, andra fatuen bat elixara barik i labegurretan yoan i sen Elexurreako basorantza eta baten batek ikusi be in i auen ota karga endemoniño bategas baye es i sen geao agartu a andrea. Esaten daurie ba se kondenaute parau sala itargien eta ni nauk estait egie ixingo dan baye idergi betea danean aitu eskero itargieri esan esalai ota-karga ta gustiko andrean itxurea daukola itargiko ilunde nausienak.

Bai, bariku santus, erri gustie yoate san elixara baye a etzana les yoan orregaiti parau i sen kondenaute, ixin ingo da igoal, notxakin?

Baten seguru, bariku santuz, andra faturen bat eleizara barik i labegurretan joan ei zan Elexurreako basorantz eta baten batek ikusi be egin ei euan ota karga endemoniño bategaz baia ez ei zan geiago agertu a andrea. Esaten daudie ba ze kondenaduta paradu zala itargian eta nik neuk ez dakit egia izango dan baia idergi betea danean aditu ezkeroko itargiari esan esan lei ota-karga eta guztiko andrearen itxurea daukala itargiko ilunde nagusienak.

Bai, bariku santuz, erri guztia joaten zan eleizara baia a ez zana lez joan orregaitik paradu ei zan kondenaduta, izan egingo da igoal, nok jakin?

11.1. Arimak promesak betatuz Zeberioan

Seberioango ermitan portikure yoan i sen eskeko bat, lo gaubean. Da gaubean lo daoela, desoran, etorri i sian (ei ziran) seguru, barruntau i ausen berbalotzak. Da berak, itxartu in sen, d'esan otzien:

– Jesus, Mari eta Jose! Ser dator emen?

Da besteak esan otzien:

– Gu gara Purgatorioko arimak, da gatos gaure penitentzie kunplitan, gaur leku betera ta biger beste leku betera, elexarik elexa, ermitarik ermita.

D'esan otzien:

«Gaube gaubeskoentzat d'egune eguneskoentzat». D'emen gara mille t'estait seinbet arime gaure serak, promesak betatuten.

Zeberioaneko ermitan portikura joan ei zan eskeko bat, lo gaubean. Eta gaubean lo dagoala, desoran, etorri ei ziran seguru, barruntadu ei euazan berbalotsak. Eta berak, iratzartu egin zan, eta esan eutsien:

– Jesus, Maria eta Jose! zer dator emen?

Eta besteak esan eutsien:

– Gu gara Purgatorioko arimak, eta gatoz geure penitentzia kunplitan, gaur leku batera eta biar beste leku batera, eleizarik eleiza, ermitarik ermita.

Eta esan eutsien:

«Gaua gaubezkoentzat eta eguna egunezkoentzat». Eta emen gara milla eta ez dakit zenbat arima geure zerak, promesak betatuten.

11.2. Sorginduta hil ezinik Uriondon

Uriondon egon i sen bat sorgindute. Da sekule es i sen ilten, da sekule esan (ez zan) ilten, d'eroan otzien abadea, elexakoak, il daiten da, elexakoakas yoan san abadea da, a abadea ikusi auenean elexakoakas da... bentanako marko ta gusti suten, garretan urten i auen.

Da gero inteirrue be in bearriotzien kajan arrietausela.

Uriondon egon ei zan bat sorginduta. Eta sekula ez ei zan ilten, eta sekula ez zan ilten, eta eroan eutsien abadea, eleizakoak, il daiten eta, eleizakoakaz joan zan abadea eta, a abadea ikusi euanean eleizakoekaz eta... bentanako marko eta guzti sutan, garretan urten ei euan.

Eta gero entierrua be egin bear ei eutsien kajan arriak dauzala.

11.3. Itargiko mantxak

Elexakoak, yoate(n) sireanean, parau bearrixitesan belauneko. Da bat yoan san labasuiteko ota kargeagas. Da ota kargeagas doala esan parau belauneko. Da gero urten auen itargien ota kargeagas kondenaute.

Eleizakoak, joaten ziranean, paradu bear izaten zan belauniko. Eta bat joan zan labesua egiteko ota kargeagaz. Eta ota kargeagaz doala ez zan paradu belauniko. Eta gero urten euan itargian ota kargeagaz kondenaduta.

11.4. Jentilkumak Upon

Seberioko Upoti pasau sen baten abade bat eta topausen mutikotxu bi pekorotzak altzau eta pekorotzak altzau sesto edo san batera, sestora edo otzarara, da ak abadeak esan i otzien:

– Mutikoak, fin be basabisie!

Da, es otzien yamonipin (jaramonik be egin), d'atzera esan otzien:

– ¡Andáis finos!

Da, orduen be yamonipes.

D'orduen ak abadeak a kurtze bat in d'esan otzien erderas d'auskeras:

– Kristiñauak sarie ala demoniñoak sarie?

– ¿Sois cristianos o sois demonios?

D'asi i sian, txikerrak ixin d'asi i sian

Zeberioko Upotik pasadu zan baten abade bat eta topadu euazan mutikotxu bi pekorotzak altzadu eta pekorotzak altzadu zesto edo zaran batera, zestora edo otzarara, eta ak abadeak esan ei eutsien:

– Mutikoak, fin be bazabilzie!

Eta, ez eutsien jaramonik be egin, eta atzera esan eutsien:

– ¡Andáis finos!

Eta, orduan be jaramonik be ez.

Eta orduan ak abadeak a kurtze bat egin eta esan eutsien erderas eta euskeraz:

– Kristiñauak zarie ala demoniñoak zarie?

jentilelango andiek. Da ori esan orduen karran aldendu i sian seguru.

– ¿Sois cristianos o sois demonios?

Eta asi ei ziran, txikerrak izan eta asi ei ziran jentilaklango andiak. Eta ori esan orduan karran aldendu ei ziran seguru.

11.5. Parte txarreko zaldia

Gure aitite, nik enindun esotu, baie nire aite(k) kontetauen, medikuena kobretan ibilte sala. Da presean parean, elexean e aspian, Seberioke parrokiaren parean, ba goxean goxeti yoan i sen, goxeko bostak edo laurek ixingo sian, da kaballoan pausuotzak barruntetan ausen, asko, da, eser es i auen ikusten.

Da, «Aitearen» in i auen seguru, Jesus, Maria eta Jose esan d'Aitearen in i auen. D'orduen pausuotza, kaballo bat ikusi i auen karran, drinean, ganean gixon bat aukela yoan san presara da presako urean sartu te uretzea bera yoan i sen gero.

Gure aitita, nik ez nendun ezagutu, baia nire aitak kontetan euan, medikuarena kobretan ibiltan zala. Eta presean parean, eleizearen e azpian, Zeberioke parrokiaren parean, ba goizean goizetik joan ei zan, goizeko bostak edo laurak izango ziran, eta kaballoan pausuotsak barruntetan euazan, asko, eta, ezer ez ei euan ikusten.

Eta, «Aitearen» egin ei euan seguru, Jesus, Maria eta Jose esan eta Aitearen egin ei euan. Eta orduan pausuotsa, kaballo bat ikusi ei euan karran, drinean, ganean gizon bat eukala joan zan presara eta presako urean sartu eta uratzea beera joan ei zan gero.

12.1. Lamiñak Gorozitun

Lamiñan kontuek, lenago Gostuko atxean kuoba batao es, d'an sartzean siala, d'andi urtetan aiela da errekarara uredaten ara bera ikusten aiesala. Da gero ba aintxe, gero orti, estaipa nik, nikeao estakit orixe lanaoko sarrak esanekoa baño.

Bai, orrasie galdute, serean orrastuten kanpora urtetan aiela atxean barruti, da gero orrasi ori estainik, ara errekarara dato-sela be galdu audela ta gero a topetan, orduen ikusten audiesan ondo, urrean, genteak, orrik lamiñok.

Lamiñen kontuak, leenago Gorozituko aitzean kueba bat dago ez, eta an sartzen zirala, eta andik urtetan eudiela eta errekarara ura edaten ara beera ikusten eudiezala. Eta gero ba antxe, gero ortik, ez dakit ba nik, nik geiago ez dakit orixe leenagoko zaarrak esanekoa baiño.

Bai, orrazia galduta, zerean orraztuten kanpora urtetan eudiela aitzean barrutik, eta gero orrazi ori ez dakit nik, ara errekarara datozala be galdu eudela eta gero a topetan, orduan ikusten eudiezan ondo, urrean, genteak, orreek lamiñok.

12.2. Anbotoko Señorea sutan. Mandoiatik

Anbotoko Señorea, estaipa nos pasetasan. Ori otesan urterdi, urrean, iten auen ala urte bete estakit, alde batean, da gero bestera paseta(n) san, urrean, suten.

Ni nauk u ikusi estot in baye orti Mandoi ganetik i Gorbaiera edo yoaten sala garretan.

Geao estakit. Ostera lamiñak a Gositun asko seguru. Kiretza be galanta. Ontxe t'ontxe be asmetan i de seguru.

Anbotoko Señorea, ez dakit ba noiz pasetan zan. Ori egoten zan urte erdi, urrean, egiten euan ala urte bete ez dakit, alde batean, eta gero bestera pasetan zan, urrean, sutan.

Nik neuk u ikusi ez dot egin baia ortik Mandoia ganetik i Gorbeiera edo joaten zala garretan.

Geiago ez dakit. Ostera lamiñak a Gorozitun asko seguru. Kiratsa be galanta. Oraintxe eta oraintxe be asmetan ei da seguru.

13.1. Parte txarrekoak karea egite orduan

Karea, karaubie, eitauren, esan bea da, inguruen soiek aterata, soiekas da igoal itaurien esta, eta gero itesan, batzuk otea ebateuren da bestobatzuk egurre, egurre be sartzean san askotan.

Karaubiek, beste batzuk, serekoak, kokagas sertzzean auresan beste karaubien yasekoa d'iguala, kargau be igoal itauresan esan bea da, sereti. Emen Barbatxaon kokagas itauren se or e ba esegoan inguruen otarik. Koka da iketzari apartetotzien ser bat.

Bueno, karea iten oten gintzesanean, sertzuk enaunke esango baye txitean pitean beste mutilok edo parte txarrekoen saratak entzuten gaindusen eta eskerrak erresueri, ostaintxean estakipa selan ibiliko ginean

Karea, karobia, egiten eudien, esan bear da, inguruan zoiak aterata, zoiakaz eta igual egiten eudien ezta, eta gero egiten zan, batzuk otea ebaten euden eta beste batzuk egurra, egurra be sartzen zan askotan.

Karobiak, beste batzuk, zerekoak, kokagaz zertzen eudezan beste karobien jasekoa eta iguala, kargadu be igual egiten eudezan esan bear da, zeretik. Emen Barbatxanon kokagaz egiten euden ze or e ba ez egoan inguruan otarik. Koka eta iketzari apartetan eutsien zer bat.

Bueno, karea egiten egoten gintzazanean, zertzuk ez neunke esango baia txitean pitean beste mutilok edo parte txarrekoen zaratak entzuten genduzan eta eskerrak errezuei, osterantzzean ez dakit ba zelan ibiliko ginean

13.2. Jentilak eta gaztaña denporea

Gastañeari gaxoa etorri yakon, es au-

Gastañeari gaisoa etorri jakon, ez eu-

ken ak e sereginik, gaxoa etorri yakon, da dana de reo eroaten san, seinde ba gaxo batek, bateri uyak daroana letx arloan, gaxoa etorri sen.

Lenago gastañea asko, puf! gastañea emen, gastañea emen, Jesus, Jesus gastañea! Emen egoan etzea, andie, esetu sendun a etze sarra? Esendun esetu? Koño! Terriblea. Aren salan iños ikusi odas nik, sakuepetetan onan gixonan garrirañoko lodi salan botata.

Gastañea etzean yateko ixiten san emen, baye eroan itauren erosite eroatauren, esan bea da, etorten sian konpradoreak, da gastañea eroatauren, baye gastañea da gause bat, ona.

Emen oin esangotzut au, au gitxitaki, emen serean, Gesalen, suk entzutea aukosu, ur gasien e bañutzea egon sala, d'egon san, d'agas uregas egosi esketiño gastañea gozoago, da, apurtu esan iten, da bestera, apurtu iten da, sabaldu iten da esta, d'agas oso osoan oten san eta ixiten san gozoago, d'esauen bear gatzik.

Baye, etzean a askotan eskeunken leku andigiripe ta basoan iten gaindusen kirikiñusiek, arriekas sein egurrekas da ganeti tapau ganaduetxan da axatu estaitesan, baye batzuetan orrik i yentilok kirikiñusiek apurtu edo yan be iten i audiesan seguru, labetatik ogi t'artoape ostuten i auriesan da, ikusi ni nauk estotin olangorik baye entzuteaukedas, da, egiek e ixin ingo dire igoal!

14.1. Gaueko arimak eta liño zapia

Liñoa ereiten gendun ba semendien

kan ak e zereginik, gaisoa etorri jakon, eta dana de reo eroaten zan, zeinda ba gaiso batek, bati oeak daroana letxe arloan, gaisoa etorri zan.

Leenago gaztañea asko, puf! gaztañea emen, gaztañea emen, Jesus, Jesus gaztañea! Emen egoan etxea, andia, ezagutu zendun a etxe zaarra? Ez zendun ezagutu? Koño! Terriblea. Aren salan iñoiz ikusi dodaz nik, zakuak betetan onan gizonaren garrirañoko lodi salan botata.

Gaztañea etxean jateko izaten zan emen, baia eroan egiten euden erosita eroaten euden, esan bear da, etorten ziran konpradoreak, eta gaztañea eroaten euden, baia gaztañea da gauza bat, ona.

Emen orain esango deutsut au, au gitxik daki, emen zerean, Gezalan, zuk entzutea aukiko dozu, ur gaziaren e bañu-etxea egon zala, eta egon zan, eta aregaz uragaz egosi ezketiño gaztañea gozoago, eta, apurtu ez zan egiten, eta bestera, apurtu egiten da, zabaldu egiten da ezta, eta aregaz oso osoan egoten zan eta izaten zan gozoago, eta ez euan bear gatzik.

Baia, etxean a askotan ez geunkan leku andiegirik be eta basoan egiten genduzan kirikiñusiak, arriekaz zein egurrekaz eta ganetik tapadu ganaduak jan eta aizatu ez daitezkan, baia batzuetan orreek i jentilok kirikiñusiak apurtu edo jan be egiten i eudiezan seguru, labetatik ogi eta artoak be ostuten ei eudiezan eta, ikusi nik neuk ez dot egin olangorik baia entzuteak daukadaz, eta, egia e izan egingo dira igual!

Liñoa ereiten gendun ba zemendian

edo, eta gero a liñoa eite san atera, maietza edo estaipa, gariegas naste antzean edo...

Da gero a liñoa eiten san sabaldu landan, apur bet e bigundu daiten, iñontzean, aurien edo. Sabaldu, seinde, garie iten san moduen eskure ebagite.

Gero a bigunduten sanean, eiten sisan pollak, d'ekarte san etzera, d'etzean labasue inde gero labea ya epeldute daoela, eite san an sartu.

Gero an apur bet epelduten sanean eiten san trangea esaten yakon, estakit, onango kadera biges, trangea esaten yakon goiti bera kadera biges, trangea esaten yakon goiti bera joteko egun bet eukitauen, asta ta gusti, d'agas ite san jo-jo, da ganeko kaskarea aukena, dana kendu.

Da gero, olan sertuten sanean, otesan beste espatea esaten yakon egur bat. Ain ganean imini ta besteagas eitesan yo, d'eitesan bigundu.

Ori in orduen, gero sarrantxatu ein beasan, sarrantxea, bai, olan egur beten aginek eukesan, onan atzamarran tamañuko lodiek, bostasai edo geao... d'an itesan sarrantxatu, ite san yo fin-fin imini.

Da gero itesan irun, otesirean makinatxuek erruda bategas, kaderakas ereiten yakon, d'itesan firue.

Gero firue inde gero in bear ixite san matasea, lau kuadruko ser bat, an itesan matasea batera ta bestera.

Gero gobadan garbitu, gobada bidiru bai sikan e errandonean ite san gobadea.

D'apur bet bigundu te suritu be ite sirean. Da iten sirean gobadan, igero esaten yakon gobadeari.

edo, eta gero a liñoa egiten zan atera, maietza edo ez dakit ba, gariagaz naaste antzean edo.

Eta gero a liñoa egiten zan zabaldu landan, apur bat e bigundu daiten, iñontzean, eurian edo. Zabaldu, zeinda, garia egiten zan moduan eskura ebagita.

Gero a bigunduten zanean, egiten ziran pollak, eta ekarten zan etxera, eta etxean labesua eginda gero labea ya epelduta dagoala, egiten zan an sartu.

Gero an apur bat epelduten zanean egiten zan trangea esaten jakon, ez dakit, onango kadera bigaz, trangea esaten jakon goitik beera kadera bigaz, trangea esaten jakon goitik beera joteko egun bat eukiten euan, asta eta guzti, eta aregaz egiten zan jo-jo, eta ganeko kaskarea eukana, dana kendu.

Eta gero, olan zertuten zanean, egoten zan beste ezpatea esaten jakon egur bat. Areen ganean imini eta besteagaz egiten zan jo, eta egiten zan bigundu.

Ori egin orduan, gero sarrantxatu egin bear zan, sarrantxea, bai, olan egur baten aginak eukazan, onan atzamarraren tamañuko lodiak, bostosei edo geiago... eta an egiten zan sarrantxatu, egiten zan jo fin-fin imini.

Eta gero egiten zan irun, egoten ziran makinatxuak errueda bategaz, kaderekaz ereiten jakon, eta egiten zan firua.

Gero firua eginda gero egin bear izaten zan matasea, lau kuadruko zer bat, an egiten zan matasea batera eta bestera.

Gero gobadan garbitu, gobada bidiru bai sikan e errandonean egiten zan gobadea.

Eta apur bat bigundu eta zuritu be egiten ziran. Eta egiten ziran gobadan, igero esaten jakon gobadeari.

Gobadea be errandonean itesan, es oingo moduen lejiagaz da olan, errandonea, barrikoa ixite san, puntea kendute, d'an itesan igero, inguruti iminten jakon, barruti e, ixera bigundu batzuk edo, besteak mantxau estaitesan, d'aspian egur me batzuk suloti ure pasau dakion.

Ure botaten jakon goitik, da gero ixerak ite sirean misasko ixerak, erriko misea esaten jakon, etzean auleruek telea itekoak.

Da gero andi atera ta itesan arildu, da, arilok in orduen preparaute egoan aulerueri eroateko.

Gero, aulerue egoan Dimen, lenago begoan Seberion baye, aulerueri «Txan-kerri» esatotzien, an elexa barrie daoen biximodu biko etzean bixi sen, da erre in sen a etzea, da gero estaipa nora yoan san...

Gero Dimen egoan, eta Dimeko aulerue etorte san abixaute d'etorte san mando bategas, d'eroaten ausen arilok ak, d'ekarten auen telori iten auenean, telea inde, ixerok eta iteko...

D'orrik ixerok in bear ixiten sisan, ori esan dune, jabonau da errandonean igero, lelengo ur epela bota, gero ereñotzagaz irikine eta usain gosoa artutauen...

D'a bai, ori esan dostesune, gaubeko arimena, ba aimareatatik asi ta ollarratxo arte ibiltan i sian orrik arimok auren penak betatuten da baten batek logretauenean urrungo domekan, elesportalean eskue eskatute i auen baye es i akon emon bear geaoko barik esku utze, liñosko sapi beten esku ori batute baño. Da seoser ixingo san se, diñudie arimorrek bere bost atzamarran erre-markea itxi-tauela liño-sapi orretan da orduen bai, orduxean sartzean sala seruen.

Gobadea be errandonean egiten zan, ez oraingo moduan lejiagaz eta olan, errandonea, barrikoa izaten zan, puntea kenduta, eta an egiten zan igero, ingurutik iminten jakon, barrutik e, izara bigundu batzuk edo, besteak mantxadu ez dai-tezan, eta azpian egur mee batzuk zulotik ura pasadu dakion.

Ura botaten jakon goitik, eta gero izarak egiten ziran misezko izarak, erriko misea esaten jakon, etxean euleruak telea egitekoak.

Eta gero andik atera eta egiten zan arildu, eta, arilok egin orduan preparaduta egoan euleruari eroateko.

Gero, eulerua egoan Diman, leenago baegoan Zeberion baia, euleruari «Txan-kerri» esaten eutsien, an eleiza barria dagoan bizimodu biko etxean bizi zan, eta erre egin zan a etxea, eta gero ez dakit ba nora joan zan.

Gero Diman egoan, eta Dimako eulerua etortzen zan abisaduta eta etortzen zan mando bategaz, eta eroaten euazan arilok ak, eta ekarten euan tela ori egiten euanean, telea eginda, izarok eta egiteko.

Eta orreek izarok egin bear izaten zirazan, ori esan doguna, jabonadu eta errandonean igero, leenengo ur epela bota, gero ereñotzagaz irakina eta usain gozoa artuten euan.

Eta a bai, ori esan deustazuna, gaubeko arimena, ba abemariatatik asi eta ollarrak jo arte ibiltan ei ziran orreek arimok euren penak betatuten eta baten batek logretan euanean urrungo domekan, elezportalean eskua eskatuten ei euan baia ez ei jakon emon bear geiagoko barik esku utsa, liñosko zapi baten esku ori batuta baiño. Eta zeozer izango zan ze, diñudie arima orrek bere bost atzamarran erre-markea itxiten euala liño-zapi orretan eta orduan bai, orduxean sartzen zala zeruan.

15.1. Anbotoko Señorea Anboton eta Lekandan

Anbotoko Señorea, daos antesedenteak, sainde gure pastoreak, enbrape, Elo-ribikoak, biek aistak... saspi urterik saspi urtera pasetan sala, da, Anboton iten situsela saspi urte da Lekandako kueban beste saspi. Da gaubetan askok ikusten situsela iluntzetan da gau-garrak saspi urte pasetan sian ingurumarien pasau iten siresela.

Orritires egiek. Gaure familien artean pasaukoak.

Anbotoko Señorea, dagoz antezedenteak, zeinda gure pastoreak, enbrak be, Elorribikoak, biak aitzak, zazpi urterik zazpi urtera pasetan zala, eta, Anboton egiten zituzala zazpi urte eta Lekandako kueban beste zazpi. Eta gaubetan askok ikusten zituzala iluntzetan eta gau-garrak zazpi urte pasetan ziran ingurumarian pasadu egiten zirazala.

Orreek diraz egiak. Geure familien artean pasadukoak.

15.2. Jentilak Untzetaben

Untzetaben egosela yentilek, d'andaos arri bolak, yentilek altzaukoak, txabolea, da yentilek sireala bekokien aukiela begie, da kokotean bestea. Da bat egon sala tuertoa.

Untzetaben egozala jentilak, eta an dagoz arri bolak, jentilak altzadukoak, txabolea, eta jentilak zirala bekokien eukiela begia, eta kokotean bestea. Eta bat egon zala tuertoa.

15.3. Jentila eta pastorea Orozkon

Da Orozkoko pastore bat baten kuxau in auen da barrure eroan auen, d'aukesan iru lau ardi an barruen, txabolan. Da txabolan aukesala, auken sue inde, d'auken burrunzie surten berotuten, se lenago burrunzie okelea sartu baño lenago berotu itesan kontajiorik esetako txarripalego.

Da yentile parau sala lo, da yentile lo parau sen orduen tuertoa sana les besteti, kokoteti sartu otzela Oroskoarrak (burrunzia).

Da barruen ebilen gero a kuxetan, baye, esin yoan. D'ateak aukela berrogeta amar arroako arri piesea barrutik iminite.

Eta Orozkoko pastore bat baten kogidu egin euan eta barrura eroan euan, eta eukazan iru lau ardi an barruan, txabolan. Eta txabolan eukazala, eukan sua eginda, eta eukan burrunzia surten berotuten, ze leenago burrunzia okelea sartu baño leenago berotu egiten zan kontajiorik ezertarako txarrik balego.

Eta jentila paradu zala lo, eta jentila lo paradu zan orduan tuertoa zana lez bestetik, kokoteti zartu eutsala Orozkoarrak burrunzia.

Eta barruan ebilen gero a kogiduetan, baia, ezin joan. Eta ateak eukala berrogeta amar arroako arri piezea barrutik iminite.

Da gero a sertute se in auela, an lantzean bat ardie(k)tx(y)oaten yakosela d'ardiekuxetan situsenak eskuetan aidan botaten situzela urrun auren usen da gusti.

D'ateiko ardi narru beten barruen e gixona be yoan sala da kuxau ta botauela, beragoko pago baten egoala eskegite paraute, ba, an, katigitute egunen bidiruen grillistu beten. D'Oroskoko jente gustiegoala arantza yoateko bildurregas.

16.1. Kastrejanako zubia

Or Kastrejanako subien pasetasan ba errekan bestekalderdien, errekea dao bastante asitxue be ta, bestekalderdien egoan iturrie, uretan yoateko da neskato eleganten bat egoan ba, iturrire yoan bear isitauen egun gustietan da gaube ilundute sarriten, ba, bearrak edo etzean da, ibilite, ba, ixin sen yoan goxeti te ba yoan bear ixiten auen, da ofresidutzen deabrueri: «arimea emongo neuskio deabrueri ementxe subi bet itarrik». Da deabru orrek e, berbas e, sertutzen ba: «ingotzut subie emoten bostesu arimea» ta «emongotzut». D'asisirean gaubean arimetako kanpaia(k)-tx(y)oorduen subi ori iten deabruok eta estaipa seinbet sirean, nire amapadaki ori, akorduen dauko, baie saspi arroa eroaten i ausen koxoan batek, deabru koxoan bat i egoan da saspi arroa eroaten i ausen subi ori iteko. Da neskatori geroago ta estuago, geroago ta estuago iten aurién da neskatori geroago téstuago iten yoan sanean ba, ixinauen sertu, t'etzekoape estutu sirean da yoan sirean abadeagana ser pasetan dan esaten. Da subi ori ya aukien akabetan edo ya bastante

Eta gero a zertuta zer egin euala, an lantzean bat ardiak joaten jakozala eta ardiak kogiduten zituzanak eskuetan aidean botaten zituzala urrun euren izen eta guzti.

Eta aretariko ardi narru baten barruan e gizona be joan zala eta kogidu eta bota euala, beragoko pago baten egoala eskegita paraduta, ba, an, katigatuta egunen bidiruan grillistu baten. Eta Orozkoko jente guztia egoala arantz joateko bildurragaz.

Or Kastrejanako zubian pasetan zan ba errekaen bestekalderdian, errekea dago bastante azitxua be eta, bestekalderdian egoan iturria, uretan joateko eta neskato eleganteren bat egoan ba, iturrira joan bear izaten euan egun guztietan eta gaube ilunduta sarritan, ba, bearrak edo etxean eta, ibilita, ba, ezin zan joan goizetik eta ba joan bear izaten euan, eta ofrezidu eutsan deabruari: «arimea emongo neuskio deabruari ementxe zubi bat egitearrik». Eta deabru orrek e, berbaz e, zertu eutsan ba: «egingo deustut zubia emoten badeustazu arimea». Eta «emongo deustut». Eta asi ziran gaubean arimetako kanpaiak jo orduan zubi ori egiten deabruok eta ez dakit ba zeinbat ziran, nire amak badaki ori, akorduan dauka, baia zazpi arroa eroaten ei euazan kojoren batek, deabru kojoren bat ei egoan eta zazpi arroa eroaten ei euazan zubi ori egiteko. Eta neskato ori geroago eta estuago, geroago eta estuago egiten eudien eta neskato ori geroago eta estuago egiten joan zanean ba, ezin euan zertu, eta etxekoak be estutu ziran eta joan ziran

abansaute, da ya bastarrok iten edo pasamanosak edo ba serok atzen atzenetan da ba goxaldea, laurek edo estaipa se ordu te, neskatori be estutu sen ba il in bearrauen da arimea emoteko deabrueri. D'ordu en ba, suk u yakingosu, kukurrukuek, ba entzuten badau beste baten kukurrukue goxetixugo ixin arrik gaberdien be kontestau itotzo. D'ordu en e ba inaurien i, kukurrukuen kantatorduko esanotzien ingo dauriela subie da abade orrek, ensegida akordau sen ba, «emen kukurrukue ifini biu kantaka, sespabere estao sereginik». Da kukurrukuen kantori ba se inauen e: «kuuuukurrukuuu!» abadeak in, da: «eses el gallo negro» d'abadea sala esangureauen da besteok: «siga». D'abade orrek atzera be: «kuuukurrukuuu!» da; «ese el gallo negro» alante!

Da, atan, irugarrenes in auenean, kukurrukuek e gorriek, in auen otan egoan lekuen, kortan: «kiiikirikiii» kontestautzen da: «eses el gallo rojo, ya emos terminao».

D'ordu en enbrori be bertan itxite, neskatorren arimea sertu barik eskapau i aurien deabruok eta arri beten faltan parau isen subie.

abadearengana zer pasetan dan esaten. Eta zubi ori ya eukien akabetan edo ya bastante abanzaduta, eta ya bazterrok egiten edo pasamanosak edo ba zerok atzen atzenetan eta ba goizaldea, laurak edo ez dakit ba zer ordu eta, neskato ori be estutu zan ba il egin bear euan eta arimea emoteko deabruari. Eta orduan ba, zuk u jakingo dozu, kukurrukuak, ba entzuten badau beste baten kukurrukua goizetixuago izan arrik gaberdien be kontestadu egiten deuto, eta orduan e ba egin eudien i, kukurrukuaren kantadu orduko esan eutsien egingo daudiela zubia eta abade orrek, ensegida akordadu zan ba, «emen kukurrukua ifini bear dogu kantaka, ze ezpabere ez dago zereginik». Eta kukurrukuaren kanta ori ba zer egin euan e: «kuuuukurrukuuu!» abadeak in, eta: «ese es el gallo negro» eta abadea zala esan gura euan eta besteok: «siga». Eta abade orrek atzera be: «kuuukurrukuuu!» eta; «ese es el gallo negro» adelante!

Eta, atan, irugarrenez egin euanean, kukurrukuak e gorriak, egin euan otan egoan lekuan, kortan: «kiiikirikiii» kontestadu eutsan eta a: «ese es el gallo rojo, ya hemos terminado».

Eta orduan enbra ori be bertan itxita, neskato orren arimea zertu barik eskapadu ei eudien deabruok eta arri baten faltan paradu ei zan zubia.

17.1. Musker demonintra

Muskerrari bildur andie ixiten gauntzen da uin kontaukotzut baten se pasau yakun or o semendinguruan.

Untxe da semendie, eta gariak ereiteko denporea, eta makinan be asko ganadue-

Muskerrari bildur andia izaten geuntsan eta orain kontaduko deusut baten zer pasadu jakun or o zemendi inguruan.

Oraintxe da zemendia, eta gariak ereiteko denporea, eta makinan be asko

kas, baye, layetan, layetan lau lagun yoan da, puntan bat, areri esaten yakon, soparrapi, soparra, osea ke atetan auen artes barik, onetara, eta gero ba garie eraiten gaindun, atxurregas a dana pikau, a ser gustie, a lur gustie, builtau dune. Gero imini asatzak, da gero garie erain.

Eta gero ganaduek kuyau, bustertu, d'eroan, d'aregas a dana pasau eta baite eskiñetati babatxikerra yateko udabarrien norberak, nai ganaduek.

Da kontetan yoan ñatzuna ba, baten gari eraiten gaosela, or o muna basterreko sagar arro baten non ukusten dodan musker demonintru bet.

Gorpus narrue pipiladureagas bete yatan da badaespada ospa in nauen solo goienara sein muskerrak samara sailtu in.

Guri beti esan doskue gure sarrak a orrik muskerrok o samara sailtu ineskero es i daurie soltetan arik eta saspi erriteko kanpayatxo arteño.

Gaur u onik (g)ure llobok diñudie muskerrak estauriela eser iten baye ni nau badaespada untxe ta untxe be enaintike orrikana arrimauko.

18.1. Lamiña eta mutila ezkongai

Egoan a mutil bet, nobie elegantea, mutile be elegantea, biek. Da b'ebisen ba formal eskondutekotzat. Da lagunok esan otzien ba se:

- «I, mutil! Bakik nogas abilan?».
- «Ni nobiegas, nogas ibiliko nopa?».
- «Baie ori nobi ori selangoa doan badakik?».
- «Oño! ba besto batzun modukoa, nes-kato bat».

ganaduekaz, baia, laietan, laietan lau lagun joan eta, puntan bat, ari esaten jakon, zoparrapi, zoparra, osea ke ateratan euan artez barik, onetara, eta gero ba garia ereiten gendun, aitzurragaz a dana pikadu, a zer guztia, a lur guztia, bueltadu doguna. Gero imini azatzak, eta gero garia erein.

Eta gero ganaduak kogidu, buztartu, eta eroan, eta aregaz a dana pasadu eta baita eskiñetatik babatxikerra jateko udabarrian norberak, naiz ganaduak.

Eta kontetan joan niatzuna ba, baten gari ereiten gagozala, or o muna bazterreko sagar arro baten non ikusten dodan musker demonintru bat.

Gorpuz narrua pipiladureagaz bete jatan eta badaezpada ospa egin neuan solo goienara zein muskerrak samara saltu egin.

Guri beti esan deuskue gure zaarrak a orreek muskerrok o samara saltu egin ezkerro ez ei daudie soltetan arik eta zazpi erritako kanpaiak jo arteraiño.

Gaur u onik gure llobok diñudie muskerrak ez daudiela ezer egiten baia ni neu badaezpada oraintxe eta oraintxe be ez neintike orreikana arrimaduko.

Egoan a mutil bat, nobia elegantea, mutila be elegantea, biak. Eta baebilzan ba formal ezkondutekotzat. Eta lagunok esan eutsien ba ze:

- «I, mutil! Badakik nogaz abilan?».
- «Ni nobiagaz, nogaz ibiliko nok ba?».
- «Baia ori nobia ori zelangoa doan badakik?».
- «Oño! ba beste batzun modukoa, nes-kato bat».

- «Baie ori ba dok lamiñea».

- Lamiñea? Saosie ixilik, neskato eleganteok eta.

- Ba begituyok ondo anketara da ikusikok selan jaukoasen patoan antzeko anak a uger iteko moduko sera, teladunek. Antxe igirikotzek ensegida.

Se lenago sirean moduen gona luseak, ibiltan sian soruraño, ba esian apenas a ikusten ankarik e badaukie be, da orregaita esotzen iños ikusi ankarik. Eta fijausen da fijau senean, d'asi sen pentzetan, eskonduteko laster da gero olan bere burue lamiñeagaz a, persona txar bategaz dabilela... da, ba, disgustuti il in sen.

Lamiñok, Saldaingo kueba baten egozan lamiñok, ba nik entzutea dauket e Olarreko etzera yoaten siala Saldainen. Da ba bapaño geao. Da gero mutil ori ba «orrek esan dauen moduen» esekien nobie lamiñea sala da Olarreko yoaten sian orrasieske, se aureri kendu itotzien Olarrekoak orrasie.

Ta yoaten sian eske ta:

- «Olarreko neska, ekana orrasia» - eskatuten iotzien.

Da gero mutil ori ba ya ikusi auenean sera dala, lamiñea dala ba olan entzuteatati te, ausokoak eta esanda, da konturatu sen da mutil ori disgustuti il in sen.

D'eroan audien entierruen, baias atautan, eskillaran. Da kapea bota gurotzen ak (lamiñeak) baie lenago elespeti kanposanture yoaten sian baie abadean partes sartu sian arin barrure, elespean itxi barik maien ganean, sartu situen arin barrure. Da lamiñori parau sen irrintza baten.

Lamiñeapota in gurotzen elespean kapea arimea eroateko baie besteak esotzien astirik itxi. Se intierruen yoan san ostaien segun itxurea. Se lenago bakisu

- «Baia ori ba dok lamiñea».

- Lamiñea? Zagozie ixilik, neskato elegantea dok eta.

- Ba begiratu egiok ondo anketara eta ikusiko dok zelan jaukoazan patoaren antzeko anak a uger egiteko moduko zera, teladunek. Antxe igarriko deusak ensegida.

Ze leenago ziran moduan gona luzeak, ibiltan ziran zoruraño, ba ez ziran apenas a ikusten ankarik e badaukie be, eta orregaitik ba ez eutsan iñoiz ikusi ankarik. Eta fijadu zan eta fijadu zanean, eta asi zan pentzetan, ezkonduteko laster eta gero olan bere burua lamiñeagaz a, persona txar bategaz dabilela... eta, ba, disgustutik il egin zan.

Lamiñok, Saldaingo kueba baten egozan lamiñok, ba nik entzutea daukat e Olarreko etzera joaten zirala Saldainen. Eta ba bat baiño geiago. Eta gero mutil ori ba «orrek esan deuan moduan» [bere seme Jose Mari Lasaren grabaketa imini neutsan leenengo entzuteko] ez ekian nobia lamiñea zala eta Olarreko joaten ziran orrazia eske, ze eurei kendu egiten eutsien Olarrekoak orrazia.

Eta joaten ziran eske eta:

- «Olarreko neska, ekarri egin orrasia» - eskatuten ei eutsien.

Eta gero mutil ori ba ya ikusi euenean zera dala, lamiñea dala ba olan entzuteetatik eta, auzokoak eta esanda, eta konturatu zan eta mutil ori disgustutik il egin zan.

Eta eroan eudien entierruan, baia ez atautan, eskillaran. Eta kapea bota gura eutsan ak (lamiñeak) baie leenago elezpetik kanposantura joaten ziran baia abadearen partez sartu ziran arin barrura, elespean itxi barik maaietan ganean, sartu zituen

gonak andiek eroaten situesan enbrak, lamiñape eroango situesan, nik lamiñarik estot ikusi te. Da kaparik esotzen bota esotzien itxi te. Da beitisu, entierruen be yoan e! (lamiñea)

18.2. Zaldiotsa hodeiagaz

Baten biorretara yoan gure aite, d'odaie ta unisitue. Da kaballoak a baye sagatak a suatetan daudiela e!

Da gure aitek seguru ango usabandeari agarrau da:

– Es Pedrotxu, es ikeratu, oni(k) pasaukoire, pasaukoire!

Da, aunisitue ta odaye da kaballoak ikusi iten i situesan. Orri(k) kaballoak a parte txarrekoak ixingo sian.

18.3. Ugaoko abadea eta hodeia

Da besto baten amari be dauket entzunde, olan e odaie yo bai, da, bakisu, arrie. D'esaten daudie parte txarrekoak oin estaudie esaten baie lenago...

Da Kalleko (Ugaoko) goiko elexati beko elexara abadea bereinkasiñoapotaten. D'atzenean esin auenean gausonik in, sapatea jaurtin i otzen da sapatea nondi yoan dan bes.

Da sakristauek e ba, sera, estoleari agarrau ta soltaso:

– Ene! Sertzutire orreek?

arin barrura. Eta lamiña ori paradu zan irrintza baten.

Lamiñeak bota egin gura eutsan elezpean kapea arimea eroateko baia besteak ez eutsien astirik itxi. Ze entierruan joan zan ostean segun itxurea. Ze leenago bada-kizu gonak andiak eroaten zituezan enbrak, lamiñak be eroango zituezan, nik lamiñarik ez dot ikusi eta. Eta kaparik ez eutsan bota ez eutsien itxi eta. Eta begiratu egizu, entierruan be joan e! (lamiñea)

Baten biorretara joan gure aita, eta odeia eta unizitua. Eta kaballoak a baia zaratak a sua ateraten daudiela e!

Eta gure aitak seguru ango uzabandeari agarradu eta:

– Ez Pedrotxu, ez ikaratu, onik pasaduko dira, pasaduko dira!

Eta, aunizitua eta odeia eta kaballoak ikusi egiten ei zituezan. Orrik kaballoak a parte txarrekoak izango ziran.

Eta beste baten amari be daukat entzunda, olan e odeia jo bai, eta, badakizu, arria. Eta esaten daudie parte txarrekoak orain ez daudie esaten baia leenago...

Eta Kalleko (Ugaoko) goiko eleizatik beko eleizara abadea bedeinkaziñoak botaten. Eta atzenean ezin euanean gauzonik egin, zapatea jaurtin ei eutsan eta zapatea nondik joan dan be ez.

Eta sakristauak e ba, zera, estoleari agarradu eta soltazo:

– Ene! Zertzuk dira orreek?

– Parte txarrekoak semetxue.

Abadea kadera baten sapatea ta beste-an bape barik i ya odaie lotu sen.

– Parte txarrekoak semetxua.

Abadea kadera baten zapatea eta beste-an bat be barik i ya odeia lotu zan.

18.4. Hil eta gero agertu

Ba bitixu non be daukadan entzunde. Elorribitako subien urtetotzela llobeari Martin Gordo defuntuek. Ito in se a. Da nobioagas etorri da nobioak ikusi es da berak ikusi.

Da berak ikusirik a, abadeari parte emon beotzien da bereinkasiñoatati, da pañilue, da pañilue bost atzamar markakas itxi te ya bereinkasiñoakas sertutesa-la.

Ba begiratu egizu non be daukadan entzunda. Elorribitako zubian urtetan eutsala llobeari Martin Gordo defuntuak. Ito egin zan a. Eta nobioagas etorri eta nobioak ikusi ez eta berak ikusi.

Eta berak ikusirik a, abadeari parte emon bear eutsien eta bedeinkaziñoatik, eta pañuelua, eta pañuelua bost atzamar markakaz itxi eta ya bedeinkaziñoakaz zertuten zala.

18.5. Deabruarekin tratua soloa lantzeko

Ba begitixu, serean pasau sen, Ariltzen, gaure Antonion anajeen etzean, Tratu defuntuenean.

Kridu bet aukien orrik, eta kridu orrek e ba estaipa se bear itarrik i deabrueri seoser ofresidutzen Ganbitarteko mokil arloa joteko, solokoa.

Da kridueri emon otzen e estaipa jitanuek edo olango seren bat, txismetxuen bat eskure.

D'a txismetxue sabaldu in daiela da solo gusti ori deabruz plantau yakon da mokilekustiek apurtu.

Bai gero, bere arimea emon edo espabere ito. Da mutil ori estutu sen da, ainbetenporan Santakurtzeko abade defuntue D.Domingo, estait i suk entzuteripadaukosu, ba aregana yoan siala estu te larri.

D'ak a berinkasiñoakas d'ainbeste denporan Tratu sarra ta kridue konfesetan

Ba begiratu egizu, zerean pasadu zan, Areilzan, geure Antoniorenen anajearen etxean, Tratu defuntuarenean.

Kridu bat eukien orreek, eta kridu orrek e ba ez dakit ba zer bear egitearrik i deabruari zeozer ofrezidu eutsan Ganbitarteko mokil arloa joteko, solokoa.

Eta kriduari emon eutsan e ez dakit ba jitanuek edo olango zeren bat, txismetxuren bat eskura.

Eta a txismetxua zabaldu egin dagiala eta solo guzti ori deabruz plantadu jakon eta mokilak guztiak apurtu.

Bai gero, bere arimea emon edo espabere ito. Eta mutil ori estutu zan eta, ainbat denporan Santakurtzeko abade defuntua D.Domingo, ez dakit i zuk entzuterik badaukazu, ba aregana joan zirala estu eta larri.

Eta ak a bedeinkaziñoekaz eta ainbeste denporan Tratu zaarra eta kridua konfe-

da komulgetan egun gustietan ebisen Santa Kurtzera, egun gustietan e!

Mokil arloa solo andie san Ganbitarteko selaie. Da mokil ori apurtu bear joten porreagas lenago, d'ajoten denporaldiepear, d'axe apurtarrrik dana era batera arimea deabrueri emongo leuskiola!

Ba laster apurtutzien urrean, baie barriro es egoan kitanueri txismerik artzeako.

setan eta komulgetan egun guztietan ebilzan Santa Kurtzera, egun guztietan e!

Mokil arloa solo andia zan Ganbitarteko zelaia. Eta mokil ori apurtu bear joten porreagaz leenago, eta a joten denporaldiak bear, eta axe apurtarrrik dana era batera arimea deabrueri emongo leuskiola!

Ba laster apurtu eutsien urrean, baia barriro ez egoan kitanuei txismerik artzeako.

19.1. Jentilak: 140 urteko jentila

Yentil bet egon san aun da berrogai urtekoa, da begie sabaldu barik egon san ainbeste denporan.

Begibepakarrrik aukitauden bekokien erdien da laguneri esan otzien:

– «Auxe betasal au altaistesue».

Da, aun kinteleko palanka bategas sabaldu otzien begie ta esan otzien:

– «Untxe ikusi yoat berrogai urtean ikusi etxoadana».

Jentil bat egon zan eun eta berrogei urtekoa, eta begia zabaldu barik egon zan ainbeste denporan.

Begi bat bakarrik eukiten euden bekiaren erdian eta lagunei esan eutsien:

– «Auxe betazal au altaistezue».

Eta, eun kintaleko palanka bategaz zabaldu eutsien begia eta esan eutsien:

– «Oraintxe ikusi joat berrogei urtean ikusi ez joadana».

19.2. Jentilak Untzetapikun

Untzetapikun egoten sirean yentilek, da Untzetapikun kadera bat imini da beste bat Mandoian (batetik bestera 10 kilometro inguru) da, Arkulandako arri-pausutan uredaten auden.

Da Untzetapikun, Untzetabepen daos yentil-bolak. Ekarri audesan Miraballesera, fabrika barrire bidiru, da besto bat egon san Aldeko Ziprianon kortan, da, oindiño oin bost edo sei urte Arri Anditi Atzabalerako bide aspian egote ixinde bat, alango yentil-bola bat...

Untzetapikun egoten ziran Jentilak, eta Untzetapikun kadera bat imini eta beste bat Mandoian (batetik bestera 10 kilometro inguru) eta, Arkulandako arri-pausuetan ura edaten euden.

Eta Untzetapikun, Untzetabepen dagoz jentil-bolak. Ekarri eudezan Miraballesera, fabrika barrira bi edo iru, eta beste bat egon zan Aldeko Ziprianoren kortan, eta, oraindiño orain bost edo sei urte Arri Anditik Atzabalerako bide azpian egoten izanda bat, alango jentil-bola bat...

Untzetapiku pikuen dao barres atxean lekue ta yarri leku moduko bat. Da inguruen dauke yentilen balkoya esatotzien orma bat einde.

Untzetapiku pikuan dago barrez aitzetan lekua eta jarri-leku moduko bat. Eta inguruan daukie jentilen balkoia esaten eutsien orma bat eginda.

19.3. Anbotoko Señorea Bertsutenen

Anbotoko Señorea esaten audien gure aitek eta ikusi audela Bertzutendi pasetan birriten edo. Da saspi urte itausela Anboton da beste saspi urte Supilaurren.

D'Anboton egoten sanean kosetxea ohea ixiten sala Supeliorren oten sana baño.

Da pasetan sala ota karga ba(t)k(g)arretan doan moduen da bustena ixingo auela, eskutilla baten antzean ostaien suegas yoaten sala.

Anbotoko Señorea esaten eudien gure aitik eta ikusi eudela Bertsutendik pasetan birritan edo. Eta zazpi urte egiten euazala Anboton eta beste zazpi urte Superlegorren. (Gorbeiako kueba handia).

Eta Anboton egoten zanean kosetxea ohea izaten zala Superlegorren egoten zana baño.

Eta pasetan zala ota karga bat garretan doan moduan eta buztana izango euala, eskutilla baten antzean ostean suagaz joaten zala.

19.4. Anbotoko Señoreak errotea geratu

Da gero, errotari betek egun beten esan auela: «Mekaguen la Señora de Anboto».

Da, Anbotoko Señoreak errotea parau in otzela. Da yoan sala konfesetan abade bategana a errotarie d'esanotzela:

– Anbotoko Señoreari bota ixingotzesu suk u maldesiñoan bat?

– Ene, bai! baten esan nendun: «Mekaguen la Señora de Anboto».

– Ba, axe(k) paraute daukosu errotea, da yoan da parkeskeskatu iosu, baye lesara sartzean sareanean sartu sate aurrerantza d'urtaisu ostairantza, espabe agarrau te bera daoen baño barrurago eroango satu te kondenaute parauko sara.

Eta gero, errotari batek egun baten esan euala: «Me cago en la Señora de Anboto».

Eta, Anbotoko Señoreak errotea paradu egin eutsala. Eta joan zala konfesetan abade bategana a errotaria eta esan eutsala:

– Anbotoko Señoreari bota izango deutzazu zuk u maldiziñoen bat?

– Ene, bai! baten esan nendun: «Me cago en la Señora de Anboto».

– Ba, arexek paraduta daukazu errotea, eta joan eta parkeske eskatu egiozu, baia lezara sartzen zaranean sartu zaitetz aurrerantz eta urten egizu osterantz, ezpabere agarradu eta bera dagoan baño barrurago eroango zaitu eta kondenaute paraduko zara.

Da yoan san da, esanotzen ba, parkeske eskatu otzen aurrean belauniko parau-te d'esanotzen errotea andando iminteko berari, de, ba, iminikotzela ta yoateko atzera t'andando ongo dala.

Da gixon orrek atzerantza urten auen, baie, esan otzen Anbotoko Señoreak a:

– Batenbatek ondo kontzejaute etorri sara, ostaintxean nau baño barrurago parau beako sendun de!

Eta joan zan eta, esan eutsan ba, parkeske eskatu eutsan aurrean belauniko paraduta eta esan eutsan errotea andando iminteko berari, eta, ba, iminiko deutsala eta joateko atzera eta andando egongo dala.

Eta gizon orrek atzerantz urten euan, baia, esan eutsan Anbotoko Señoreak a:

– Bateren batek ondo akonsejaduta etorri zara, osterantzean neu baiño barrurago paradu bearko zendun eta!

19.5. Abade bat penitentzia betatuten

Erri beten on sirean misinoiak. Errie, esineinkesan ala Seberio ixin sen ala besto bat ixin sen.

Da gixon bat on san misioneruegas konfesau gurauena. Da yoate san konfesetan egun gustietan da topetauen filandie, jente asko konfesetako t'esin ixitesan konfesau se aurreti aukitauen asko d'esin ixitesan.

Da, egun beten pentzauen: «Biger ingonopa orregas se gaur gaubean koruen parauko nok o lo iten».

Koruen egon san lo iten baye gauberdien elixako ateak sabaldu sirean d'agertu sen abade bat.

A abadea yoan sakristinire da yantzi se(n) mesemoteko. Da urten auen altaraurrera, da, ostaire beitate, esauenales topau sakristaurik i mesea erasoteko, atzera yoan, da mudau t'eskapaen.

D'urrungo goxean, goxeti, yoan san ba misioneruegana konfesetan gixon ori d'esan otzen misioneruek:

- Goxeti sabis!
- Bai, bart emen in do(t) lo, baye sustau ines.
- Ser pasa yatzu ba?

Erri baten egon ziran misinoiak. Erria, ezin neinke esan ala Zeberio izan zan ala beste bat izan zan.

Eta gizon bat egon zan misioneruagaz konfesadu gura euana. Eta joaten zan konfesetan egun guztietan eta topetan euan fila andia, jente asko konfesetako eta ezin izaten zan konfesadu ze aurretik eukiten euan asko eta ezin izaten zan.

Eta, egun baten pentsadu euan: «Biar egingo nok ba orregaz ze gaur gaubean koruan paraduko nok o lo egiten».

Koruan egon zan lo egiten baia gauberdian eleizako ateak zabaldu ziran eta agertu zan abade bat.

A abadea joan sakristinira eta jantzi zan meza emoteko. Eta urten euan altaraurrea, eta, ostera begiratuta, ez euana lez topadu sakristaurik i mezea erasoteko, atzera joan, eta mudadu eta eskapadu euan.

Eta urrengo goizean, goizetik, joan zan ba misioneruagana konfesetan gizon ori eta esan eutsan misioneruak:

- Goizetik zabilz!
- Bai, bart emen egin dot lo, baia sustadu egin naz.

– Ba gauberdien elixako atea sabaldu dire d'abade bat etorri de, da, sakristire yoan, da mesemoteko preparaute, urten, da, ba, mesemonbarik eskapau dau.

– Gaur gaubean parauko saintikes emen lo iten? -preguntau otzen misioneruek-, d'esan otzen besteak:

– Bakarrik es!

– Ba nau(k) lagundukotzut, eta etorten danean ori abade ori esaitesu; «untxorride».

Da parau sirean. Da gauberdien sabaldu sirean atea eta etorri sen abadea, d'esan otzen gixon orrek:

– Untxorride!

Da yoan san misionerue da ostaien parau yakon sakristau, mesea erasoten. Da sakristau paraurduen mesea emon auen abadeak eta mesemon auen orduen esan otzen:

– Au, ofresiduko mesa bat ixin de, da berraun urtean au ofresiduko mesau atera barik il naintzen da berraun urtean etorri nes ona. D'eskerrikasko lagundustesuleko, Purgatorioan egonas d'oin serure noa ta.

– Zer pasadu jatzu ba?

– Ba gauberdian eleizako atea zabaldu dira eta abade bat etorri da, eta, sakristira joan, eta meza emoteko preparaduta, urten, eta, ba, mezea emon barik eskapau dau.

– Gaur gaubean paraduko zeintek ez emen lo egiten? -preguntadu eutsan misioneruek-, eta esan eutsan besteak:

– Bakarrik ez!

– Ba neuk lagunduko deusut, eta etorten danean ori abade ori esan egistazu; «oraintxe etorri da».

Eta paradu ziran. Eta gauberdian zabaldu ziran atea eta etorri zan abadea, eta esan eutsan gizon orrek:

– Oraintxe etorri da!

Eta joan zan misionerua eta ostean paradu jakon sakristau, mezea erasoten. Eta sakristau paradu orduan mezea emon euan abadeak eta mezea emon euan orduan esan eutsan:

– Au, ofreziduko meza bat izan da, eta berreun urtean au ofreziduko meza au atera barik il nintzan eta berreun urtean etorri naz ona. Eta eskerrikasko lagundu deustazulako, Purgatorioan egon naz eta orain zerura noa eta.

19.6. Abade-txakurrak

Abade bat ixin sen kasarie seguru, itzela. Da mesemoten egon san da mesemoten daoela, meserdien, etorri sirean seguru txakurrek erbie aurretik daudela: «i, au!, i, au!».

Bate(k)p(b)osa fuerteagoa da besteapa debilagoa auken seguru. Da, etorri t'abadea meserdien meseari itxi t'eskopete artute erbiiltzen yoan i sen. Da gero abadea kondenaute parau sen.

Abade bat izan zan kazaria seguru, itzala. Eta mezea emoten egon zan eta mezea emoten dagoala, mezerdian, etorri ziran seguru txakurrak erbia aurretik daudela: «i, au!, i, au!»

Batek boza fuerteagoa eta besteak ba debilagoa eukan seguru. Eta, etorri eta abadea mezerdian mezeari itxi eta eskopetea artuta erbia ilten joan ei zan. Eta gero abadea kondenaute paradu zan.

Da gero ibilte sirean abade-txakurrek (g)aubetan axea itauenean en partikular, axea t'aurie t'afrentue sanean.

Da ba, emen, Ugetan egon sirean serri betzuk serretan. Da batek, olan es auen gausandirik siñestuten olango kon-tuetan, da besteak a siñestutauden da yakitauden andi selan abade-txakurre(k) pasetan direan gaubean.

D'orduko gaubean esan otzien areri, siñestutesauenari, gaubiluntzan:

– Yoai ta iturrukure ekak! Aimareatxo-ta yaosapaie, yoan da ekarrik!

Beste au yoan san iturrukur eske da trakurrek: i, au!, i, au! kaderetati te sere-ti... d'ur barik i karraka, atzera txabolara yoan san seguru.

Ori, Joaniko Sabaleko defuntue dauket entzunde ixin sala.

Eta gero ibiltan ziran abade-txakurrak gaubetan aizea egiten euanen en parti-kular, aizea eta euria eta afrontua zane-an.

Eta ba, emen, Ugetan egon ziran zerra-ri batzuk zerretan. Eta batek, olan ez euan gauza andirik siñestuten olango kon-tuetan, eta besteak a siñestuten euden eta jakiten euden andik zelan abade-txa-kurrek pasetan diran gaubean.

Eta orduko gaubean esan eutsien ari, siñestuten ez euanari, gaubiluntzan:

– Joan adi eta iturriko ura ekarri egik! Abemariak jota jagozak baia, joan eta ekarrik!

Beste au joan zan iturriko ur eske eta trakurrak: i, au!, i, au! kaderetatik eta zeretik... Eta ur barik i karraka, atzera txabolara joan zan seguru.

Ori, Juaniko Zabaleko defuntua daukat entzunda izan zala.

19.7. Akerrak andrea eroan aidean

Santakrusdi gora yoan da Bertzuten da Larrakotxen ganean dao Torre esaten yakon ausona bat.

Ango andra bat isin sen Erramona, da a ba, an ain aspitzuen dao bestalderantza iturri bet, Nagiturri esaten yakona.

Da gaubean yoan san iturriri iturruku-retan. D'esatauden akar bat sartu yakola atzekos aurrera ba, anka bien erditi, te an artute Ortuselai esatotzien landa bate-ra eroan auela aidan, d'andi Gastañandire ekarri, te atzera Ortuselaire eroan.

Da irugarren builtan Nagiturri itxi aue-la baye berba bari(k) topaudiela.

Santakruzdik gora joan eta Bertzuten eta Larrakoetxen ganean dago Torre esa-ten jakon auzona bat.

Ango andra bat izan zan Erramona, eta a ba, an ain aspitzuan dago bestalde-rantz iturri bat, Nagiturri esaten jakona.

Eta gaubean joan zan iturrira iturriko uretan. Eta esaten euden aker bat sartu jakola atzekos aurrera ba, anka bien erdi-tik, eta an artuta Ortuzelai esaten eutsien landa batera eroan euala aidean, eta an-dik Gastañandira ekarri, eta atzera Ortu-zelaira eroan.

Eta irugarren bueltan Nagiturri itxi euala baia berba barik topadu eudiela.

19.8. Lamiñak Saldainen

Lenago, erreka txarkoetan oten sirean lamiñak eta erreka-munara urtetauden orrastuten.

Da naskatxi bet egon san Saldaingo Olarran krida. Da etorri sen erromerien da lamiñak on ei sirean erreka-munan orrastuten. D'a ikusi orduen erreka saltu in auden da orrasie itxi auden bertan aistute.

Da gero a kuyaute eroan otzien. Da, areri yoaten yakosan gero, ba, etzera t'esatotzien:

- Saldaingo Olarrako naskatxa ekarrisu nire arraska!

Da lamiñak ote sirean supastarrera etorrite: «Txurie gora, txurie gora» -esaten, ba, esnea gustetan yakien da, esnera ixin be saleak sirean da.

Da batek auren burue salduen, ba selan galtzeairen esan auen tripa bete esnegaiti.

Esan otzien San Juan egunean yayoko sekor modelookas erreka tragestuteko.

D'asi audesan San Juan eguneko sekor modelook eta errekatxarkoa tragestuten asi sirean.

Da metxatati dandarras lamiñak eroa- tausen tragesak a tragesaginekas agarrate, da sokorru beten da odoletan txarko gustiek.

Da, orduen akabau sirean lamiñak.

19.9. Jentila eta Perutxu

Perutxu gaistoan anaje bat egon san kridu jentil betegas. D'esin auen gausonik in d'etorri sen etzera.

Da, etorri sanean, Perutxu gaistoak esan otzen bera yoango dala ordes, kridu, jentilengana.

Leenago, erreka txarkoetan egoten ziran lamiñak eta erreka-munara urtetan euden orraztuten.

Eta neskaxi bat egon zan Saldaingo Olarran krida. Eta etorri zan erromerian eta lamiñak egon ei ziran erreka-munan orraztuten. Eta a ikusi orduan erreka saltu egin euden eta orrazia itxi euden bertan aaztuta.

Eta gero a kogiduta eroan eutsien. Eta, ari joaten jakozan gero, ba, etxera eta esaten eutsien:

- Saldaingo Olarrako neskaxi ekarri egizu nire arraska!

Eta lamiñak egoten ziran supazterrera etorrita: «Txuria gora, txuria gora» -esaten, ba, esnea gustetan jakien eta, esnera izan be zaleak ziran eta.

Eta batek euren burua saldu euan, ba zelan galtzen diran esan euan tripa bete esnegaitik.

Esan eutsien San Juan egunean jaioko zekor modelookas erreka tragastuteko.

Eta asi eudezan San Juan eguneko zekor modelook eta errekatxarkoa tragastuten asi ziran.

Eta metxetatik dandarras lamiñak eroaten euazan tragesak a tragesaginekaz agarraduta, eta sokorru baten eta odoletan txarko guztiak.

Eta, orduan akabadu ziran lamiñak.

Perutxu gaiztoaren anaia bat egon zan kridu jentil betegaz. Eta ezin euan gauza onik egin eta etorri zan etxera.

Eta, etorri zanean, Perutxu gaiztoak esan eutsan bera joango dala ordez, kridu, jentilengana.

Da yoan san yentilegana d'esan otzen ia selan doan. Da, ba, anajeak estauela on gure ta bera doala ordeas.

Da, gero ba afaiten parau sirean. D'afaldu akabaurduen esan otzen yentiltzar kankallorrek e:

– Auxe da sure kuartue ta ementxe ingosu lo!

D'atxentilek itauen, yoaten sirean kriduek il de yan. Da Perutxu be yoan san kuarture lo. Da lelengo oipean aitu da gixon bat ilde topauen d'esan auen ba se:

– Ointxe galdue nok, oin selan salbauko nopa?

Da, in auen ile artu ta oyan sartu da bera oyapean parau. Da gauberdien yoan san yentile bera ilten d'an ildegoanari kutxilloa sartzeotzen alderdi gustietati.

D'urrungo goxean yentile yagi sanean, bera be yagi te, yoan da:

– Egunon daukola jaune, -esan otzen-, da, beorrek selan pasau dau ba gaube?

– Ondo ta suk?

– Niri gauberdien ardi betzu(k) pikaustie baye majo pasau ot!

Da yentilek in auen: «Oño!, au gogorrok eta il in beayoat, nor dan baño estok au mutiko kaskondu barri au nire estenkadakas ikereripe in esiteko!».

Da kutxilloa sorrostuten asi sen yentile an supastarreko sorrostari beten, bepurue astun eta alborikara adi sein Perutxuk u setan dabilen igirri gero akordatzako baten Perutxuri sartzeako.

Da yentilek e bekokien erdien begi bepañe es auden aukiten da kutxilloa sorrostuten asi orduen Perutxu gaistoak artu andi okolu beteti burriña landusko burrunzti bet, surten imini ta berotu sanean artu burrunzti gori ori esku batean da ilinti bet e bestean, da aspirikara sartu

Eta joan zan jentilarengana eta esan eutsan ia zelan doan. Eta, ba, anaiak ez dauala egon gura eta bera doala ordeaz.

Eta, gero ba afaiten paradu ziran. Eta afaldu akabadu orduan esan eutsan jentiltzar kankallo orrek e:

– Auxe da zure kuartua eta ementxe egingo dozu lo!

Eta ak jentilak egiten euan, joaten ziran kriduak il eta jan. Eta Perutxu be joan zan kuartura lo. Eta leenengo oepean aditu eta gizon bat ilda topadu euan eta esan euan ba ze:

– Oraintxe galdua nok, orain zelan salbaduko nok ba?

Eta, egin euan ila artu eta oean sartu eta bera oepean paradu. Eta gauberdian joan zan jentila bera ilten eta an ilda egoanari kutxilloa sartzen eutsan alderdi guztietatik.

Eta urrengo goizean jentila jagi zanean, bera be jagi eta, joan eta:

– Egunon daukola jauna, -esan eutsan-, eta, berorrek zelan pasadu dau ba gaua?

– Ondo eta zuk?

– Niri gauberdian ardi batzuk pikadu deustie baia majo pasadu dot!

Eta jentilak egin euan: «Koño!, au gogorra dok eta il egin bear joat, nor dan baiño ez dok au mutiko kaskondu barri au nire eztenkadakaz ikerarik be egin ez egiteko!».

Eta kutxilloa zorrozutuen asi zan jentila an supazterreko zorroztarri baten, bepurua astun eta alborikara adi zein Perutxuk u zertan dabilen igirri gero akordatzako baten Perutxuri sartzeako.

Eta jentilak e bekokian erdien begi bat baiño ez euden eukiten eta kutxilloa zorrozutuen asi orduan Perutxu gaiztoak artu andik okolu batetik burriña landuzko

otzesan yentil orrerio bekokiko begi bakar orretik eta begie utzitu otzen da itzu itxi.

Da, ixin sen ardi pastorea a yentile t'asi sen etze gustiti karraka bayesin sen defendidu d'ardi artean ostandu yakon Perutxu.

Da gero yentilek e burriñasko ate fuer-teak auki ausen da, se in auen? Ate bat a sabaldu, anka biek e sabali(k) parau ate atakan, d'ardiek lepoan laneagaiti tentaute pasetausen kaderartetati eskapau estayon Perutxuk.

Da Perutxuk u bien bitartean in auen ardi bet il d'arenarruegas yantzi, d'arran-dun ardi beteri arrana kendu, bere saman imini da yoan san yentilen ankarteti te tentautzen lepoan narruen, d'arranagas da...

- I besas ba!

Da pasauen yentilek. Eta kanpora ur-ten auenean Perutxuk esan otzen:

- Emeñaok!

Ta besteak auki auen anillo bat: «eme-ñaok, emeñaok, emeñaok» esatauena da botauen da Perutxuk atzamarrean sartu t'esin atera.

Da se in auen Perutxuk? Atzamarra ondoti arri betegas kendu ta itzesora bota, yaurtin.

Da yentilek saltu in auen ostaien da yentile itzesoaan ito.

Gero andi yoan san Perutxu beste gi-xon batenera kridu, txarri pastore, paga-dui askarriek eukosan etxaguntza batera.

Da gero ba andik i beste yentil bepe egoan txarri pastore da bie(k) txarriek arkalen ondoan erabili audesan.

Baye Perutxuk u lantzean txarri bet il de yan itotzen yentileri. Da yentilek e Perutxu il in gurauen baye bildur ixitotzen.

burruntzi bat, surten imini eta berotu zanean artu burruntzi gori ori esku batean eta ilinti bat e bestean, eta azpirikara sartu eutsazan jentil orri bekokiko begi bakar orretatik eta begia utsitu eutsan eta itsu itxi.

Eta, izan zan ardi pastorea a jentila eta asi zan etxe guztitik karraka baia ezin zan defendidu eta ardi artean ostendu jakon Perutxu.

Eta gero jentilak e burriñazko ate fuer-teak euki euazan eta, zer egin euan? Ate bat a zabaldu, anka biak e zabalik paradu ate atakan, eta ardiak lepoan laneagaitik tentaduta pasetan euazan kaderartetik es-kapadu ez dagion Perutxuk.

Eta Perutxuk u bien bitartean egin euan ardi bat il eta aren narruagaz jantzi, eta arrandun ardi bateri arrana kendu, bere saman imini eta joan zan jentilen ankar-te-tik eta tentadu eutsan lepoan narruan, eta arranagas eta...

- I be ez az ba!

Eta pasadu euan jentilak. Eta kanpora urten euanean Perutxuk esan eutsan:

- Emen niaok!

Eta besteak euki euan anillo bat: «emen niaok, emen niaok, emen niaok» esaten euana eta bota euan eta Perutxuk atzama-rrean sartu eta ezin atera.

Eta zer egin euan Perutxuk? Atzamarra ondotik arri bategaz kendu eta itxasora bota, jaurtin.

Eta jentilak saltu egin euan ostean eta jentila itxasoan ito.

Gero andik joan zan Perutxu beste gizon batenera kridu, txarri pastore, pagadui az-karriak eukazan etxaguntza batera.

Eta gero ba andik i beste jentil bat be egoan txarri pastore eta biak txarriak alkarren ondoan erabili eudezan.

D'egun beten seinek inder geao in auden. D'arriepotaten. D'arrie lurrera botatauen Perutxuk, gastayagas untaute. Da yentile(k)p(b)otatauen baye Perutxuk esatzen:

– Ixerdiegas aikomen, urdindute arrie, ixerdiegas. Ni naure arriek ixerdie atetan yok, ireak etxok atetan da seinek urrinago in beaiuk, nosago ingo yupa?, ingo yuk?

– Bai gure bok!, nosgure, nainos da nainon, adinon oterik naiko in yuk eta!

Da basamika bat auken Perutxuk an a pago arro bateko abien bere arrautzak esarten egoana ta axe artu kolkoan da ixilik.

Botauen yentilek urrin arrie, txirikelea letxe, karearri endemoniño bat, eta arasdui beten erdire yausi sen.

Baye Perutxupotauen basamikea ta ukusi bes! aituago ta urrinago, sartzamendiko estariraño, da esan otzen yentilek:

– Biger palanke seinek urrinago bota in beaiuk!

– Bai gure bok!

Da yentile ixin sen Salamankakoa. Da yoan sirean urrunago egunean palankeagas seinek urrinago bota. Ta yentilek urrin botatauen.

Da Perutxu(k) palankeari goatu, agarrau ondo t'asi sen esaten: «Aiba la palanka asta la Salamanka!, indartzuago: «Aiba la palanka asta la Salamanka» eta irugarren baten d'alik eta indartzuen: «Aiba la palanka asta la Salamanka!» ta yentilek e:

– Seitoko esatok ori?

– Ba, emeti Salamankaraño bota palanke da Salamanka gustie apurtuko doat eta!

Baia Perutxuk u lantzean txarri bat il eta jan egiten eutsan jentilari. Eta jentilak e Perutxu il egin gura euan baia bildur izaten eutsan.

Eta egun baten zeinek indar geiago egin euden. Eta arriak botaten. Eta arria lurrera botaten euan Perutxuk, gaztaiagaz untaduta. Eta jentilak botaten euan baia Perutxuk esaten eutsan:

– Izerdiagaz aikomen, urdinduta arria, izerdiagaz. Nire neure arriak izerdia ateraten jok, ireak ez jok ateratan eta zeinek urrunago egin bear joaguk, noizago egingo joaguk ba?, egingo joaguk?

– Bai gura badok!, noizgura, nainoz eta nainon, adinon egoterik naiko egin joaguk eta!

Eta basamika bat eukan Perutxuk an a pago arro bateko abian bere arrautzak ezarten egoana eta axe artu kolkoan eta ixilik.

Bota euan jentilak urrun arria, txirikelea letxe, karearri endemoniño bat, eta arizdui baten erdira jausi zan.

Baia Perutxuk bota euan basamikea eta ikusi be ez! adituago eta urrunago, sartzamendiko estariraño, eta esan eutsan jentilak:

– Biar palanke zeinek urrunago bota egin bear joaguk!

– Bai gura badok!

Eta jentila izan zan Salamankakoa. Eta joan ziran urrengo egunean palankeagaz zeinek urrunago bota. Eta jentilak urrun botaten euan.

Eta Perutxuk palankeari goratu, agarradu ondo eta asi zan esaten: «Ahí va la palanca hasta la Salamanca!, indartsuago: «Ahí va la palanca hasta la Salamanca». Eta irugarren baten eta aalik eta indartsuen: «Ahí va la palanca hasta la Salamanca!» Eta jentilak e:

– Mutil! esaipotara, se ni naure famili gustie yaok an da, esaipota!

Bueno, gero orretan parau sirean egunatan. D'urrungo egun beten esan otzen e:

– Ba pagoak susterretik atetan in beaiuk pruebea, seinek inder geao.

– Auk (g)juroanean ingoyuk.

– Biger in beaiuk orduen, marti ullarran kukurrukuagas batera, goxeko iñontzean.

– Geao barbaripes!

D'orduén Perutxuk eroan ausen karrete batzu(k) firu, berak iruneko ardi laneagas inekoak.

Da Perutxu ta yentile bietxoan sirean pagaduire ta yentilek e etxoteko asti barik porrue les atetausen banan banan artute pagook.

Da Perutxu asi sen firuegas pagoatanak amarretan, pago baten ganeti bestera ta bestetipestera ta pagadui gustie lotuten, d'esan otzen ixerdi masatan egoan yentilek e:

– Seiten abil mutil? Seitok or katamixerra les pagoripago?

– Seiten ibiliko nopa, ire antzean banan banan atera barik nitanapatera atera beayadas pagook, amarrau danak estukin onegas da danapatera atera suster da gusti!

– Mutil!, es aisek atera, esaistesak atera, se txarrientzako eskur gustie gauses-tandukostek. Ator, ator, itxiok bearleku orreri ni nau baño geao as da.

Gero oster a be, ba, Perutxuk u lantzean txarri bet iltotzen da bestea, yentile, deskontentus.

D'egun beten yakin auen: «biger edo bayaukoat a nik orregas enkuentruen bat...».

D'eroan auen puxiga bat a tripan eskegite, odoles beterik eta yoan san yentil

– Zeiteko (zer egiteko) esaten dok ori?

– Ba, emetik Salamankaraño bota palanke a eta Salamanka guztia apurtuko deuat eta!

– Mutil! es egik bota ara, ze nire neure familia guztia jagok an eta, ez egik bota!

Bueno, gero orretan paradu ziran egunatan. Eta urrengo egun baten esan eutsan e:

– Ba pagoak sustarretik ateraten egin bear joaguk pruebea, zeinek indar geiao.

– Euk gura doanean egingo joaguk.

– Biar egin bear joaguk orduan, marti ollarraren kukurrukuagaz batera, goizeko iñontzean.

– Geiao berbarik be ez!

Eta orduan Perutxuk eroan euazan karrete batzuk firu, berak iruneko ardi laneagaz eginekoak.

Eta Perutxu eta jentila biak joan ziran pagaduire eta jentilak e itxaroteko asti barik porrua lez ateraten euazan banan banan artuta pagook.

Eta Perutxu asi zan firuagaz pagoak danak amarretan, pago baten ganetik bestera eta bestetik bestera eta pagadui guztia lotuten, eta esan eutsan izerdi masatan egoan jentilak e:

– Zer egiten abil mutil? Zer egiten dok or katamixerra lez pagorik pago?

– Zer egiten ibiliko nok ba, ire antzean banan banan atera barik nik danak batera atera bear joadaz pagook, amarradu danak estukin onegaz eta danak batera atera suster eta gusti!

– Mutil!, ez egizak atera, ez egistazak atera, ze txarrientzako ezkur guztia gauzeztanduko deustak. Ator, ator, itxi egiok bearleku orri ni neu baño geiago aiz eta.

Gero oster a be, ba, Perutxuk u lantzean txarri bat ilten eutsan eta bestea, jentila, deskontentuz.

kokorioari beretarikoen bat iten. Da txarrien bat il otzen yentileri ta yentile ostairikara karran, abantean gañetu yakon.

Perutxu aurreti ta yentile ostayen, seinnek arinago, aik ekardien apatxotza! aurrekoripe es auden ikusten eta Perutxuk u Kortabasoko etxagune ikusi auenean ikestxondorran ondoan, alborikara aitute ta yoanean-yoanean badiñotzo:

- I, yentilik i barruntetan dok ortik anbatetik?

- Bai, mutil, orti yatok mendie bera esten endemoniño bat eskuen dauela!

- Ba orduen, eskoako begiegas kiñu bat in de, arinago yoateko kutxilloa tripati, odol-puxigati, sartu te susien yoan san bidesiorri(k)p(b)idesior.

Yentile be allegau sen Kortabasora ta ape ango etxaguneri badiñotzo:

- Perutxulangorik ukusiok o paraje onetatik?

- Ba, bai, untxe-untxe yoan dok eta i au atzerikara atorrela esan yotzadanean arinago yoateko edo kutxilloa sartu yok o tripati!

- Ba, nauporduen beste ainbeste in beayoat.

Dzau! sartu auen da il, odol utzitu.

Eta egun baten jakin euan: «biar edo bajaukat a nik orregaz enkuentruren bat...».

Eta eroan euan puxiga bat a tripan eskegita, odolez beterik eta joan zan jentil kokorioari beretarikoren bat egiten. Eta txarriren bat il eutsan jentileri eta jentila osterikara karran, abantean gañetu jakon.

Perutxu aurretik eta jentila ostean, zeinek arinago, aik ekardien apatxotsa! aurrekorik be ez euden ikusten eta Perutxuk u Kortabasoko etxaguna ikusi euanean ikaztxondorran ondoan, alborikara adituta eta joanean-joanean badiñotzo:

- I, jentilik i barruntetan dok ortik ainbatetik?

- Bai, mutil, ortik jatok mendia beera ezten endemoniño bat eskuan dauala!

- Ba orduan, eskoako begiagaz keiñu bat egin eta, arinago joateko kutxilloa tripatik, odol-puxigatik, sartu eta zuzian joan zan bidezidorrik bidezidor.

Jentila be allegadu zan Kortabasora eta ak be ango etxagunari badiñotzo:

- Perutxulangorik ikusi dok o paraje onetatik?

- Ba, bai, oraintxe-oraintxe joan dok eta i eu atzerikara atorrela esan jautsadanear arinago joateko edo kutxilloa sartu jok o tripatik!

- Ba, neuk be orduan beste ainbeste egin bear joat.

Dzau! sartu euan eta il, odol utsitu.

19.10. Txarri batek zazpi gantzagi

Lenago Kortabason pasau sen, txarri batek auki ausen saspi gantzagi, auki bi baño estitus aukiten baie ak antza saspi.

Leenago Kortabason pasadu zan, txarri batek euki euazan zazpi gantzagi, euki bi baño ez dituz eukiten baia ak antza zazpi.

Ixin sirean Felis Artxiki defuntue, da, Akiñao defuntue da, Santi Sabale defuntue ixin sirean.

Ba bixi sirean Olatzarren bi eta bestea Akiñao. Da Joaniko defuntue Kortabasokoa etorri sen egun beten abixetan txarriilten yoateko irurek.

Da yoan sirean irurek eta bidean doaselestututen asi sirean da irurek iruretara badiñotzie arkaleri:

- I, mutil, txarrie nok ilgo yupa?
- Ipadakik ilten?
- Da, ni nauk es!
- Ipai?
- Da nipes!
- D'ik?
- Eta nipes!

Ba, mutilek, argiekaxak, txarriilten ga-yoasak eta etxakiu(k) txarriilten iñope da!

- A, ori baño espok o arreglauko yuk, an yoan da kopa batzuk u barauskarri les edaten yusenean, danok: «nauk il beaya(t) txarrie ta nauk il beaya(t) txarrie» asi beayuk.

Da yoan, da barausi audenean edo kopok edan audiesanean batek esan auen:

- Nauk il beaya(t)k(g)ero gaur txarrie!

Besteak:

- Ipañño nauk ogeto yakiat, nauk ilgo yoa(t) txarrie!

Da besteak esan otzien e:

- Suropiopaño ogeto nauk ilten yoat eta nauk!

Askenean Santi Sabale defuntuek il auen da txarri ori il, de, erre ida siku ta galtzapulla susiekas, talla kasku betzukes garbitu, ta tripak atetan eroan audenean, miñe, estegorrie, bidiek, barasarea, esteak eta ganetiko gustiek ondo aterotzesan seguru baye gantzagiak

Izan ziran Felis Artxiki defuntua, eta, Akiñao defuntua eta, Santi Zabale defuntua izan ziran.

Ba bizi ziran Olatzarren bi eta bestea Akiñao. Eta Juaniko defuntua Kortabasokoa etorri zan egun baten abixetan txarria ilten joateko irurak.

Eta joan ziran irurak eta bidean doazala estututen asi ziran eta irurak iruretara badiñotsie arkaleri (alkarri):

- I, mutil, txarria nok ilgo joaguk ba?
- Ik badakik ilten?
- Eta, nik neuk ez!
- Ik bai?
- Eta nik be ez!
- Eta ik?
- Eta nik be ez!

Ba, mutilak, argiak gagozak, txarria ilten gaioazak eta ez jakiaguk txarria ilten iñok be eta!

- A, ori baiño ez badok o arregladuko joaguk, an joan eta kopa batzuk u barauskarri lez edaten joaguzanean, danok: «neuk il bear joat txarria eta neuk il bear joat txarria» asi bear joaguk.

Eta joan, eta barausi eudenean edo kopok edan eudiezanean batek esan euan:

- Neuk il bear joat gero gaur txarria!

Besteak:

- Ik baiño neuk obeto yakiat, neuk ilgo joat txarria!

Eta besteak esan eutsien e:

- Zuok biok baiño obeto neuk ilten joat eta neuk!

Azkenean Santi Zabale defuntuak il euan eta txarri ori il, eta, erre ida siku eta galtzapolla zuziekaz, tella kasku batzuz kaz garbitu, eta tripak ateraten eroan eudenean, miña, estegorria, bidiak, barasarea, esteak eta ganetiko guztiak ondo atera eutsazan seguru baia gantzagiak

osoan ixin atera da saspi satiten aterotzie-
san eta usandreari preguntau otzien e:

– Au txarri au basgastan bat ixinde ala?

– Ta, es, au makerea ixin de, amakatxu
umaldi emon doskune.

– O!, bargastea ixin basan sainbet au-
koteauen makerea ixinde saspi gantzagi
daukes da.

Grasiek e gantzagiok o gero be urtu
te koipea iteko direla lukainkak (g)ordeta-
ko sein sartanekoa iteko,ostantxean solo-
moak ixiten badire deskuiduen, arpelik
(g)altzean dauries.

Orixe pasau i yakien seguru, da arrasti-
ko txarri-morrolladan ixin sen bai barrike-
tea t'aparajue, d'alan akabau sirean txar-
ri-bearrok.

osoan ezin atera eta zazpi zatitan atera
eutsiezan eta uzandreari preguntau eu-
tsien e:

– Au txarri au bargastaren bat izanda
ala?

– Eta, ez, au makerea izan da, amaka-
txu umaldi emon deuskuna.

– O!, bargastea izan bazan zeinbat eu-
kiko ete euan makerea izanda zazpi gan-
tzagi daukaz eta.

Graziak e gantzagiok o gero be urtu
eta koipea egiteko direla lukainkak gorde-
tako zein zartenekoa egiteko,osterantze-
an solomoak izaten badira deskuiduan,
alperrik galtzen daudiez.

Orixe pasadu ei jakien seguru, eta
arrastiko txarri-morrolladan izan zan bai
barriketea eta aparajua, eta alan akabadu
ziran txarri-bearrok.

19.11. Txarri-odoloste jan ezinekoak

Ba, sera, itano dakiden esan dostek?
Yakingo etxoapa, besterik i etxoat in
naure aldien da!

B'olan gure bok, olan kontaukoat ba-
ten se pasau yakien anaje biri. Ba aitegas
bisi soasen anajeok eta etxeukian tayurik
esetako be ta ausokoan batek e txarrie
edo sesine ilten yuenean inbidis erreta
ote soasen, klaro, aurepe sasoi onean
da entramea be es txikerra.

Da ba, aite be sekena estala be, siku
antza soan da gasturik in baño lenago
moro! Da ba semeok o apurbet e mundue
be geao ta egunen baten seguru esan
iotzien aitorreri:

– Aite, beitu bei, berorrek (g)urespadau
be aurrerantzarako txarrikuma bat ekar-
ten goas, ese, au esta bisimodue, dana-

Ba, zera, itano dakidan esan dostek?
Jakingo ez joat ba, besterik i ez joat egin
neure aldian ata!

Ba olan gura badok, olan kontaduko
deuat baten zer pasadu jakian anaje biri.
Ba aitagaz bizi zoazan anajeok eta ez
jeukian tajurik ezertako be eta auzokoren
batek e txarria edo zezina ilten juenean
enbidiaz erreta egoten zoazan, klaro, eu-
rak be sasoi onean eta entramea be ez
txikerra.

Eta ba, aita be zekena ez dala be, siku
antza zoan eta gasturik egin baiño leena-
go moro! Eta ba semeok o apur bat e
mundua be geiago eta egunen baten
seguru esan ei eutsien aita orri:

– Aita, begiratu bedi, berorrek gura
ezbadau be aurrerantzarako txarrikuma

taukie ser yar da gu emen beti goseagas irrirtzeka setan estala, ser deretxo beorrek?

– Ba, isue saurok (g)jurosuena, sauron aukiekas saurok o dispunidu beosue ta!

Ta ba yoan soasen anaiok o urtaileko San Antoniotan Urkiolara ta bierantzean or Dimen erosi yaurian txarrikuma ordoz bat.

Lenengo lekue in yotzian kortan, txarrikorta edo kortatxi eder bat. Asi yuen txarri ori te bere tertzioan kapau be bai, Bediako Sipri kapadorea isiten san en jeneral, da ba posi(k)tx(y)egoasen anajeok Gabon inguruen txarri ori ilteko, agoan txue inde.

Allegau soasen gabonok eta ba asi soasen auren preparatibook iten. Da iñori esetako eser esan barik i badiñotzek anaje batek e besteari:

– I, txarri-bearrak iteko laguntasune eskatuko yuk or ausoan baye odolosteak a ixin be barritzuek ixiten dosak eta orrik i gauk in beayusek ixilean, d'ipadakisek iten?

– Nik selan yakingo yoapa?

– Argiek (g)axak orduen! Seoser asmau beako yupa!

– Ba bitik, emon yegutzuan txarrieri egun betzu(k) lenago ba sera, porrue, arroza ta ganetiko gustiek!

– D'olan ondo urtengo yauskule us-teok?

– Tirauk mutil, seosek urtengo yauskuk, nasaitu ai, d'esai ixin ain epe bakoa!

Esan d'egin seguru. Gobernau yuen txarri ori te ba eldu soan orduko urteko gabon aurretxue ta ba bota yuen erreka-due auso gustietara ta matarifeari en partikular.

bat ekarten goaz, eze, au ez da bizimodua, danak daukie zer jan eta gu emen beti goseagaz irrirtzaka zertan ez-tala, zer deretxo beorrek?

– Ba, egizue zeurok gura dozuena, zeuron eukiekaz zeurok o dispunidu bear dozue eta!

Eta ba joan zoazan anaiok o urtarrileko San Antonioetan Urkiolara eta beerantzean or Diman erosi jeurian txarrikuma ordotz bat.

Leenengo lekua egin jautsian kortan, txarrikorta edo kortatxi eder bat. Azi juen txarri ori eta bere tertzioan kapadu be bai, Bediako Zipri kapadorea izaten zan en jeneral, eta ba pozik jegoazan anajeok Gabon inguruan txarri ori ilteko, agoan txua eginda.

Allegadu zoazan gabonok eta ba asi zoazan euren preparatibook egiten. Eta iñori ezertarako ezer esan barik i badiñotzak anaje bata e besteari:

– I, txarri-bearrak egiteko laguntasuna eskatuko joaguk or auzoan baia odolosteak a izan be barritsuak izaten dozak eta orreek i geuk egin bearko joaguzak ixilean, eta ik badakizak egiten?

– Nik zelan jakingo joat ba?

– Argiak gagozak orduan! zeozer asma-du bearko joaguk ba!

– Ba begiratu egik, emon jeigutsuan txarriari egun batzuk leenago ba zera, porrua, arroza eta ganetiko guztiak!

– Eta olan ondo urtengo jauskula uste dok?

– Tirauk mutil, zeozek urtengo jauskuk, nasaitu adi, eta ez adi izan ain epe bakoa!

Esan eta egin seguru. Gobernadu juen txarri ori eta ba eldu zoan orduko urteko gabon aurretxua eta ba bota juen erreka-dua auzo quztietara eta matarifeari en partikular.

Orduko egunean goxean goxeti yagi soasen, ullarratxo baño be lenago ba barauskarriok eta atonduteko.

Eldu yakiasan ausokook eta barausi yaudian ogi altzien bat eta txarriilteko apur bet, ori txarriiltekoa aniseri esaten yotzian, anis korrienteari, te ba yatzi soasen kortara.

Eldu txarri orreri, sartu gantxoa, ta laster gobernau yoan matarife orrek. Odolape selanbeist artu yuesan da gero txarrie erretan, idea ta galtzuegas. Gero garbitu te tripok sabaldu, atera este, barasare, gantzagi, bidi te ganetiko gustiek eta eskegi yaurian tollarako soliba batetik.

Orripearrok inde, ausokook o alde in yaurian morrolladara lotu barik ese aik etxaukian tayurik.

Anajeok o bakarri(k) parau soasanean, artu sinesko balde sabal baten esteok eta alan dalakoan, barruko loiok kendu barik asten dosak geaoko barik kordel batzukes estuten da beingo baten akabau yuen buskentz estuteori.

Da gero ba imini yaurian ure irikiten an besuen, laratzuen, da ba asi soasen morsillok o geldorrestetan.

Emon yautziesan irikinaldi betzuk eta alangon batek ba atera yauriesan kanpora ta badiñotzak seguru batapesteari:

-I, sera, iñori eroaten asi baño len probau etxusek ingo? Artik, artipat, ia yan laisen edo, edo iaber sera...!

Probau yoasen in be anaje orrek eta arpegi gasiagorik iñok es iyoan iños imini seguru te erantzun iyotzan:

-I, onik i esin leisetxan, konfiantzarik andienekoari be esin leiosak emon, se inyun baño estok!

Ba orixe pasau soan seguru, te ba oin i txarri bet ilten dan bakotxean, beti

Orduko egunean goizean goizetik jagi zoazan, ollarrak jo baño be leenago ba barauskarriok eta atonduteko.

Eldu jakiazan auzokook eta barausi jeudian ogi altziren bat eta txarria-ilteko apur bat, ori «txarriiltekoa» anisari esaten jotsian, anis korrienteari, eta ba jatsi zoazan kortara.

Eldu txarri orri, sartu gantxoa, eta laster gobernadu joan matarife orrek. Odolak be zelanbeist artu juezan eta gero txarria erretan, idea eta galtzuagaz. Gero garbitu eta tripok zabaldu, atera este, barazare, gantzagi, bidi eta ganetiko guztiak eta eskegi jaudian tollarako soliba batetik.

Orreek bearrok eginda, auzokook o alde egin jaudian morrolladara lotu barik eze aik ez jeukian tajurik.

Anajeok o bakarrik paradu zoazanean, artu zinezko balde zabal baten esteok eta alan dalakoan, barruko loiok kendu barik asten dozak geiagoko barik kordel batzukaz estuten eta beingo baten akabadu juen buzkentz estute ori.

Eta gero ba imini jeudian ura irakiten an beesuan, laratzuan, eta ba asi zoazan morsillok o geldorrestetan.

Emon jeutsiezan irakinaldi batzuk eta alangoren baten ba atera jeudiezan kanpora eta badiñotsak seguru batak besteari:

-I, zera, iñori eroaten asi baño leen probadu ez joaguzak egingo? Artu egik, artu egik bat, ia jan leizan edo, edo iaber zera...!

Probadu joazan egin be anaje orrek eta arpegi gaziagorik iñok ez ei joan iñoiz imini seguru eta erantzun ei jotsan:

-I, oneek i ezin leizek jan, konfiantzarik andienekoari be ezin leiozak emon, zer egin joagan baño ez dok!

yao(k)p(b) aten bat auxe kontu au kontetako, ta untxe ta untxe be barre guredana iten yuk axe dala t'estala, barre, baye barre gero e, errementau es bestekoak.

19.12. Jentilak ikatz-egostorduan

Lenago, iketzegosten asko ite san. Aste gustireko ta yoaten ginean pagaduietara edo burbusduietara.

Baye gaubetan be an egon bear, da makiña ba(t)p(b)ildur pasauu orrikas yentilokas.

Ikusi etxa(t) sugertau ikusteripae yana sarri faltetan yakun t'aurok ixingo sirean lapurrok.

Orrin ganean estakitzu(t)k(g)eao esaten baye ori dala ta gure bosu iketzegosten selan iten gendun kontaukotzut, suk u esotu be estosu in ixingo igoal da.

Ba, semendinguruen asten gaintzesan basora yoaten. Guk u en partikular burbux iketza iten gendun, enjeneral burbux egurregas da yoaten gaintzesan preparetan, egurginen. Iten gendun, semendinguruen asite sesaile edo martirarteño da gero egur batzean botoatara.

Botoak iten sirean bieti esi bet iten san, esi fuerte bat, burbux egurrekas. Da gero goiko lurrek e biera bota da selaitu, seinde kortabaso txiki beten antzera, biribile, builtan-builtan, baye selai-selai, larrine letxe.

Selai bet ite san andie da gero urten auen beste usu edo kostumbre batek, aidan ite san gero botoa urkulu edo urkotxan ganean iminten sirean egur be-

Ba orixe pasadu zoan seguru, eta ba orain i txarri bat ilten dan bakotxean, beti jagok baten bat auxe kontu au kontetako, eta oraintxe eta oraintxe be barre guredana egiten joaguk axe dala eta ez dala, barre, baia barre gero e, errementadu ez bestekoak.

Leenago, ikatzegosten asko egiten zan. Aste guztirako eta joaten ginean pagaduietara edo burbuxduietara.

Baia gaubetan be an egon bear, eta makiña bat bildur pasadu dogu orreekaz jentilokaz.

Ikusi ez jat sugertadu ikusterik baia jana sarri faltetan jakun eta eurok izango ziran lapurrok.

Orreen ganean ez dakitsut geiago esaten baia ori dala eta gura badozu ikatz egosten zelan egiten gendun kontaduko deutsut, zuk u ezagutu be ez dozu egin izango igual eta.

Ba, zemendi inguruan asten gintzazan basora joaten. Guk u en partikular burbux iketza egiten gendun, enjeneral burbux egurragaz eta joaten gintzazan preparetan, egurginen egiten gendun, zemendi inguruan asita zezela edo martirarteño eta gero egur batzen botoetara.

Botoak egiten ziran beetik esi bat egiten zan, esi fuerte bat, burbux egurrekaz. Eta gero goiko lurrak e beera bota eta zelaitu, zeinde kortabaso txiki baten antzera, biribila, bueltan-bueltan, baia zelai-zelai, larrina letxe.

Zelai bat egiten zan andia eta gero urten euan beste usu edo kostumbre batek, aidean egiten zan gero botoa urkulu

tzuk u lurreti, lurretinkaute da iten san selaie askobe fasilago, egillamuen antza aukitauen baye biribilean, bieti palatue letxe iminite, esi ganoraskoan ganean.

Gero ba txondorginen asten gaintzeasan da ba txondorra kargetan san. Denodu gustiegas ibili bear ixite san da erdien iminten yakon kargerea esaten yakon egur bet, egur lerden da lodi bet, d'aste san egurre sutunik iminten kargereari dautzela.

Bere inguruen egurre sutunik imini de gero beste pixu bet, oseake iru edo lau pisu aukitauen txondorrak aik egurrek sutunik iminite da gero atzean iminte san txondorra apur bet olan e berrogeta bos gradu inguruen edo parauko san selai aldatzean da gero iten yakon asala esaten yakona egur txikerragoagas da finagoagas asala iten yakon.

Da gero soy(e) egonasketiño eras, soye ateta san tapetako da soyegonesik eras, ekarten san idea, da ideagas tapetan san lelengo ta gero ganeti botaten yakon iduri(e) esaten yakon autze.

Iduri(e) egoten san len boto sarra onas-kero an topeta san baye ostaintxean olan lur fasil be(t) topau da galbayagas eralgi in bear ixiten san ganeti tapetako da tapetan san txondorra.

Da gero kargerea esaten yakona esan lusea ixiten, or metroterdi bet edo auken baye selan txondorra kargau gorantza eroaten san ateres-ateres.

Seinbet eta txondorra luseago in, gorago eroan a egurre da gero atzenean a atera iten yakon da gero iduriegas da ideagas tapetan sanean andi suloti biera botaten yakon brasea da egur txikitxuek, abar antzekoak a sespal meakas batera, bean artu daien sue.

edo urkotxen ganean iminten ziran egur batzuk u lurretik, lurretik inkaduta eta egiten zan zelaia asko be fasilago, egillamuen antza eukiten euan baia biribilean, beetik palatua letxe iminita, esi ganorazkoaren ganean.

Gero ba txondorginen asten gintzazan eta ba txondorra kargetan zan. Denodu guztiagaz ibili bear izaten zan eta erdian iminten jakon kargerea esaten jakon egur bat, egur lerden eta lodi bat, eta asten zan egurra zutunik iminten kargereari deutsal.

Bere inguruan egurra zutunik imini eta gero beste pisu bat, oseake iru edo lau pisu eukiten euazan txondorrak aik egurrek zutunik iminita eta gero atzean iminten zan txondorra apur bat olan e berrogeta bost gradu inguruen edo paraduko zan zelai aldatzean eta gero egiten jakon azala esaten jakona egur txikerragoagas eta finagoagas azala egiten jakon.

Eta gero zoia egon ezketiño eraz, zoia ateraten zan tapetako eta zoia egon ezik eraz, ekarten zan idea, eta ideagaz tapetan zan leenengo eta gero ganetik botaten jakon iduria esaten jakon autsa.

Iduria egoten zan leen boto zaarra egon ezkerro an topetan zan baia osterantzean olan lur fasil bat topadu eta galbaeagaz eralgi egin bear izaten zan ganetik tapetako eta tapetan zan txondorra.

Eta gero kargerea esaten jakona ez zan luzea izaten, or metroterdi bat edo eukan baia zelan txondorra kargadu gorantz eroaten zan ateraz-ateraz.

Zeinbat eta txondorra luzeago egin, gorago eroan a egurra eta gero atzenean a atera egiten jakon eta gero iduriegaz eta ideagaz tapetan zanean andik zulotik beera botaten jakon brasea eta egur txiki-

Da lelengo apurtxu bet agoa sabalik aukite san baye gero agoa tapau iten yakon, barruen bieti artu daien suek.

Da gero suek artzeauenean a ganea tapetan yakon da gero ordu betedo beste barru a suloa egurres betetan yakon, egur txikitxue(k) txikertute a bete da gero beste ordu bidiru barru betegarrieskatutauen.

Betegarrie ixiten san egurrek sutunik egosanak arroen bat auki da iketziten asiorduen plegau ite sirean da, ai(k) plegaurduen bitarteak urtetauen, suloak, da suloa betetako ixiten san a betegarrie esaten yakona.

Da txondorrek olan e berrogai be(t) kargainguruko txondorrek a kargea ixiten san sakubiiket, berrogai be(t) kargainguruko txondorrapa eskatutauen e lau edo bos betegarri arik eta puntan iketza in arteño.

Txondorrek (g)ero puntan iketza in orduen txondorri betegarriek itxitotzen, da sigarro bat iteko astiepe emotoskun, ori sigarroana, sutxakingosu, esakerea da, ta ori esatea deskantzu apur bet artutea ixite san, solo-bearretan be tamañu beten sigarroa erreta san, aukenak, eta es aukenak a deskantzu piti bet eta posik (g)anera.

Gaubiluntzan iten yakon sapalagea esaten yakon porra bat egoten san d'aregas sapaldu da gaubean iduri apurbepota goien goiko puntan da gaube pasetako betegarrien daoen arte es, betegarrien daoen arte gauberdien be igoal igoal eskatuten dau betegarrie da gero etorten da bierantza-bierantza iketza iten goiti da gau gustietan iten yako martxea ba sapalagau da suloripadauko tapau d'eiduri apurbepota da apur bet itota itxi gaubean bake apur bet emoteko, lo txangori bet iteko be.

txuak, abar antzekoak a zezpai meeekaz batera, beean artu dagian sua.

Eta leenengo apurtxu bat aoa zabalik eukiten zan baia gero aoa tapadu egiten jakon, barruan beetik artu dagian suak.

Eta gero suak artzen euanean a ganea tapetan jakon eta gero ordu bat edo beste barru a suloa egurrez betetan jakon, egur txikitxuak txikertuta a bete eta gero beste ordu bidiru barru betegarria eskatuten euan.

Betegarria izaten zan egurrak zutunik egozanak arroren bat euki eta ikatz egiten asi orduan plegadu egiten ziran eta, aik plegadu orduan bitarteak urtetan euan, zuloak, eta suloa betetako izaten zan a betegarria esaten jakona.

Eta txondorrek olan e berrogei bat karga inguruko txondorrek a kargea izaten zan zaku bi ikatz, berrogei bat karga inguruko txondorrek ba eskatuten euan e lau edo bost betegarri arik eta puntan iketza egin arteraño.

Txondorrek gero puntan iketza egin orduan txondorri betegarriak itxiten eutsan, eta zigarro bat egiteko astiak be emoten euskun, ori zigarroarena, zuk jakingo dozu, esakerea da, eta ori esatea deskantsu apur bat artutea izaten zan, solo-bearretan be tamañu baten zigarroa erretan zan, eukanak, eta ez eukanak a deskantsu piti bat eta pozik ganera.

Gaubiluntzan egiten jakon zapalagea esaten jakon porra bat egoten zan eta aregaz zapaldu eta gauean iduri apur bat bota goian goiko puntan eta gaua pasetako betegarrian dagoan arte ez, betegarrian dagoan arte gauerdian be igual igual eskatuten dau betegarria eta gero etorten da beerantz-beerantz iketza egiten goitik eta gau guztietan egiten jako martxea ba zapalagadu eta zulorik badauko tapadu

Da gero magaletara esaten yakona bieko barrenera allegaurduen be bastante prisas ibilten da alde ba(t) tapetan yakonean beste magaletik urten suek, d'ai(k) tapetan ia magalean daoenean be bear andiemoten dau da magaletara allegauskero ba gau bet edo egun bet eta gau bet edo itxiten da t'akabetan da.

Da gero iten da otzitu esaten yakona txondorra. Belekiek oten sirean lenago, oin esta usauko, oin esta olango usedioripe ta oin esta iten iketzipe baye, belekie, olesko arraspa baten antzekoa da d'aregas goitipera dana arraspau ondo da basoiñarrak imini preparaute ta basoiñarreagas igurdi da gero aik iduriek e siku-siku oteire d'aik ikes bitartetati sartu iteire damatau iten daude txondorra, oseake, sano sue galtzean dau, suabe pasetan yako ba otzituteko da gero bigarren egunean edo maskalak atetan yakos se maskaletan egoten da ostera be surik (g)aien.

Da gero ba urrungo goxean goxetitxu yagite iguskiek urten orduko en jeneral iketza atetan da, segun selan e pentzetan dauen batek.

Ba, aterata gero, boto barrenean egoten da sabal, suegaitiño, surik urtetan badau amatau da gero an on beadau sikan e sortzi amar orduen.

Da gero surik espadauke gero botaten da larrinesaten yakon lekure txondor batera iketza.

Orixe, orixe san gure iketz egostea. Txondor baten lana in-akabeteak eginen andie emotoskun da bearlekuelangoa ixiten san ba, itzela!

Da ni nauk estakipa bearragaiti edo segaiti, len esaten ibili ñatzun yentilok o asmetako be asti barik ibilten gaintzesan. Yakine, txondor ingurumarien baten bat beti ote san letxe igoal esirean atomauko

eta iduri apur bat bota eta apur bat itota itxi gauean bake apur bat emoteko, lo txangori bat egiteko be.

Eta gero magaletara esaten jakona beeko barrenera allegadu orduan be bastante prisaz ibilten da alde bat tapetan jakonean beste magaletik urten suak, eta aik tapetan ia magalean dagoanean be bear andia emoten dau eta magaletara allegadu ezkerro ba gau bat edo egun bat eta gau bat edo itxiten da eta akabetan da.

Eta gero egiten da otzitu esaten jakona txondorra. Belekiak egoten ziran leenago, orain ez da usaduko, orain ez da olango usadiorik be eta orain ez da egiten ikatzik be baia, belekia, olezko arraspa baten antzekoa da eta aregaz goitik beera dana arraspadu ondo eta basoiñarrak imini preparaduta eta basoiñarreagas igurdi eta gero aik iduriak e siku-siku egoten dira eta aik ikatz bitarteetatik sartu egiten dira eta amatau egiten daude txondorra, oseake, sano sua galtzen dau, suabe pasetan jako ba otzituteko eta gero bigarren egunean edo maskalak ateraten jakoz ze maskaletan egoten da ostera be surik geien.

Eta gero ba urrungo goizean gozetitxu jagita eguzkiak urten orduko en jeneral iketza ateraten da, segun zelan e pentzetan dauen batek.

Ba, aterata gero, boto barrenean egoten da zabal, suagaitiño, surik urtetan badau amatadu eta gero an egon bear dau sikieran e zortzi amar orduen.

Eta gero surik ez badauka gero botaten da larrina esaten jakon lekura txondor batera iketza.

Orixe, orixe zan gure iketz egostea. Txondor baten lana in-akabeteak eginen andia emoten euskun eta bearlekuelangoa izaten zan ba, itzala!

bastarrak enderdetan. Dana dala, nosonos yana(k) faltau edo lorrindute be esotuus. Gaur u orritxoan sian baye txarragoak etorri dire, oin i etze-etzera yatortzus ostuten, da yana es presisamente, diruten beren beregi, olangorik! Ser ikusi beun baño esta!

Eta nik neuk ez dakit ba bearragaitik edo zergaitik, leen esaten ibili niatsun jentilok o asmetako be asti barik ibiltan gintzazan. Jakina, txondor ingurumarian baten bat beti egoten zan letxe igoal ez ziran atomaduko bazterrak enderdetan. Dana dala, nozonoz janak faltadu edo lorrinduta be ezagutu doguz. Gaur u orrek joan ziran baia txarragoak etorri dira, orain i etxe etxera datortzuz ostuten, eta jana ez prezisamente, diruten beren beregi, olangorik! Zer ikusi bear dogun baiño ez da!

20.1. Jentilak: lañoa eta euren azkena

Yentilek, Untzetabeti Mandoire pelotan itaudien da gero andi sertu sirean yentilok, urtotzien LAÑOAK, da lañoak unten otzienean:

– «Gureak in dau, akabau de»

Orduen sertu sirean yentilok, akabau sireala.

Arri-bolak bost edo sei arroakoak, karretillan ekarri gendusena Kallera (Miraballes, «Kalle» da Zeberiotarrontzat) eroan gendusena, kareatxeko arriek sian.

Untzetabepen begoan txabola bat, yentilek inde. Oin be badao errastuen bat. An aukien txabolea, an dao atxa ebagite. D'orma(k)p(b)egosan bastante sertzuek. Oindo akabau baritaos, oindo markataos.

Jentilak, Untzetabetik Mandoiara pelotan egiten eudien eta gero andik zertu ziran jentilok, urten eutsien LAÑOAK, eta lañoak unten eutsienean:

– «Gureak egin dau, akabadu da»

Orduan zertu ziran jentilok, akabadu zirala.

Arri-bolak bost edo sei arroakoak, karretillan ekarri genduzan Kallera (Miraballes, «Kalle» da Zeberioztarrontzat) eroan genduzan, kareatxeko arriak ziran.

Untzetabepen begoan txabola bat, jentilak eginda. Orain be badago errasturen bat. An eukien txabolea, an dago aitzia ebagita. Eta ormak be begozan bastante zertzuek. Oraindo akabadu barik dagoz, oraindo markak dagoz.

20.2. Jentilak Zollo-mendin

Baten seguru or Sollo (Zollo) partean orrik i txapel-okerrak edo goardi subilek

Baten seguru or Zollo partean orreek i txapel-okerrak edo guardi zibilak e jenti-

e yentilen bat a kuxau te detenidu in gurauden ba labetati ogi t'artoak ostu te mantzinkeriek iten ibilte sialako da yoan sisan solora, yentile bearren egoan lekure d'esan i otzien:

– Non bixi de yentile?

Da berak a kuxau tragesa edo intillea ipusterri te gusti te altzau akullue letxe esku betegas d'esan otzien:

– An goiko etzean bisi yatzue!

Yoan i siresan ango etzera ta ateritxo barik i sartu barrure ta arrabaea topauden sutean da badiñotzie:

– Emen bisi de yentile?

– Bai, baye or beko soloan tragesagas dabilena yatzue!

Da yoan sirean barrien barris solora d'allegaus batera esan i otzien yentileri:

– Presondegire satos gauges, aguro!

D'esan otzien yentilek:

– Etxoistesue piti beten, etzera yoan da malilea kuxau daidan!

– Es, su es, gutariko batxoango da, su geldi emen, sirkinik in barik!

Da yoan san ba bata eta arrabeari eskatu otzen makilea d'arrabeak ekarri be bai d'esan:

– Autzi makilla au t'eroaios!

– Makillea au, au trongotzar au?

– Ba, bai!

– Baye au nik eroan be esin nai, asko pisituten dau onek!

– Askok ez ainbeste, 300 arroa baka-rrik!

Orduen se in auen? ba besterantz eroan esin auen les, txerrintolea les builtaka eroan auen landea bera, ta beste sibilak ori ikusi auenean orpoetan ar barik eskapu i audien biek (g)alapan sein yentilek e dandabela berotu.

len bat a kogidu eta detenidu egin gura euden ba labetatik ogi eta artoak ostu eta mantzinkeriak egiten ibilten ziralako eta joan zirazan solora, jentila bearren egoan lekura eta esan ei eutsien:

– Non bizi da jentila?

Eta berak a kogidu tragasa edo intillea ipuztarri eta guzti eta altzadu akullua letxe esku betegaz eta esan eutsien:

– An goiko etxean bizi jatzue!

Joan ei zirazan ango etxera eta aterik jo barik i sartu barrura eta arrabea topadu euden sutean eta badiñotsie:

– Emen bizi da jentila?

– Bai, baia or beeko soloan tragesagaz dabilena jatzue!

Eta joan ziran barrien barriz solora eta allegaduz batera esan ei eutsien jentilari:

– Presondegira zatoz geugaz, aguro!

Eta esan eutsien jentilak:

– Itxaron egistazue piti baten, etxera joan eta makilea kogidu daidan!

– Ez, zu ez, gutariko bat joango da, zu geldi emen, zirkinik egin barik!

Eta joan zan ba bata eta arrabeari eskatu eutsan makilea eta arrabeak ekarri be bai eta esan:

– Eutsi makilla au eta eroan egiozu!

– Makillea au, au tronkotzar au?

– Ba, bai!

– Baia au nik eroan be ezin nei, asko pisituten dau onek!

– Askok ez ainbeste, 300 arroa baka-rrik!

Orduan zer egin euan? ba besterantz eroan ezin euan lez, txerrintolea lez bueltaka eroan euan landea beera, eta beste zibilak ori ikusi euanean orpoetan ar barik eskapadu ei eudien biak galapan zein jentilak e dandabela berotu.

20.3. Lamiñak Eskori ganean

Or Eskori ganean on i sen lamiñetxean bat eta ba baten batzuk u enterau sirean ba San Juan eguneko sekorrakas galtzean direala lamiñok.

Da yayo sirean seguru sekor gorri bi, erri-sekor gorri bi San Juan egunean da aurek e bustertuteko moduen plantau sireanean, kapau bakoak i sirean seguru, ba, erreka gustie tragestu i auden d'odola dariola galdu i siresan lamiña gustiok. Eta atzanean sekor parejea be desaparese- du in i sen.

Or Eskori ganean on ei zan lamiñetxe- ren bat eta ba baten batzuk u enterau ziran ba San Juan eguneko zekorrakas galtzen dirala lamiñok.

Eta jaio ziran seguru zekor gorri bi, erri-zekor gorri bi San Juan egunean eta eurak e buztartuteko moduan plantadu ziranean, kapadu bakoak ei ziran seguru, ba, erreka guztia tragastu ei euden eta odola dariola galdu ei zirazan lamiña guztiok. Eta atzanean zekor parejea be desaparezidu egin ei zan.

20.4. Anbotoko Señorea Azpitartetik Dimako haitzera

Anbotoko Señorea garrrrretan yoan san orti, ortixe sereti pasau sen. Gu, or, iketzegosten on gaintzesan, bai, Aspitar- ten, Dimeko atxera txispotztztzean yoan san garrrrretan. Nauk ikusi naindun. As- pitarten, or, iketzegosten on ginean, urte asko da, onduntxe yoanintzen ni soldadu. Da gaubean yoan san susssssien. Gu, or on ginean Felis da Lárrondo d'irurok, irurok ikusi gindun.

Anbotoko Señorea garrrrretan joan zan ortik, ortixe zeretik pasadu zan. Gu, or, ikatz egosten egon gintzazan, bai, Azpitarten, Dimako aitzera txispots- tztstsean joan zan garrrrretan. Neuk ikusi nendun. Azpitarten, or, ikatz egosten egon ginean, urte asko eta, onduantxe joan nintzan ni soldadu. Eta gauean joan zan zuzzzzian. Gu, or egon ginean Felix eta Lárrondo eta irurok, irurok ikusi gen- dun.

21.1. Lamiñak erreketan

Selan lamiñak oten sirean or erreka tarrotan kaskatera urten da orrastuten, da, esin ausela iñokendu. D'askenes ente- rau sireala San Juan egunean yaioko sekorrak, parejea, ein da, estait selango tragesa esan audien be, ara, enas akorde- tan ointxe ondo, ein, d'errekakustiek arraspetako esan otziela ba kenduko badi-

Zelan lamiñak egoten ziran or erreka tarrotan kaskatera urtenda orraztuten, eta, ezin euazala iñok kendu. Eta azkenez enteradu zirala San Juan egunean jaioko zekorrak, parejea, egin eta, ez dakit ze- lango tragasa esan eudien be, ara, ez naz akordetan oraintxe ondo, egin, eta errekek guztiak arraspetako esan eutsiela

re. Da, in inbeadaudiela orixe t'atzenean e danakendu situesala lamiñok.

ba kenduko badira. Eta, egin egin bear daudiela orixe eta atzenean e danak kendu zituezala lamiñok.

21.2. Jentilak harri-bolan Untzetabetik Mandoiara

Da ba jentilena barris i jentilek emetik ibilten siala bai labeak errekestetan da, artoripadao labean, labean kuiute eroaten da orreik i gausok kontetoskusan.

D'orti Untzetabeti Mandoire itaudiela pelotan da bolan, da bolak, gure Felipek, nebeak, Untzetabeti Miraballesera bajatu situsen. Selango bolak! baye ederto inde, seinde petotakarbi garbi daosemodun. Da kapritxoa usabak e Miraballesgoa, len egoan usaba, surok e estosue akorduripe auko, ori Poberrenak, bajetako. Da gixonakas yoan da bajatu situesan Miraballesera. An ixingoire, oin erre kara bota baitues be estaipaie.

Da, ba, olangoxe gausak, besterik ser dakipa nik orrinik... Personajeak segun esataudien, andiek, da begi bet. Da nik estait entzunde badauket emeti be (kokotera eskua eroanaz) beste bat aukitaudiela ostaikoa be ikusteko...

Ibili, gaubes, orrikaubes, egunes esisen ikusten e arean olangorik da gaubes ibili ba sulori-sulo bastarra(k) topetan gosea aukitaudien seguru edo yateko jeneroa topetan da esataudien ibilten siala gaubes.

Eta ba jentilena barriz i jentilak emetik ibilten zirala bai labeak errekestetan eta, artorik badago labean, labean kogiduta eroaten eta orreek i gauzok kontetan euskuzan.

Eta ortik Untzetabetik Mandoiara egiten eudiela pelotan eta bolan, eta bolak, gure Felipek, nebeak, Untzetabetik Miraballesera bajatu zituzan. Zelango bolak! baia ederto eginda, zeinda petotak garbi garbi dagozan moduan. Eta kapritxoa ugazabak e Miraballesgoa, leen egoan ugazaba, zuok e ez dozue akordurik be eukiko, ori Poberrenak, bajetako. Eta gizonakaz joan eta bajatu zituezan Miraballesera. An izango dira, orain erre kara bota badituez be ez dakit baia.

Eta, ba, olangoxe gauzak, besterik zer dakit ba nik orreenik... Personajeak segun esaten eudien, andiak, eta begi bat. Eta nik ez dakit entzunda badaukat emetik be (kokotera eskua eroanaz) beste bat eukiten eudiela ostekoa be ikusteko.

Ibili, gaez, orreek gaez, egunez ez ei zan ikusten e arean olangorik eta gaez ibili ba zulorik-zulo bazterrak topetan gosea eukiten eudien seguru edo jateko jeneroa topetan eta esaten eudien ibilten zirala gaez.

21.3. Jentil-umea eskolara

Bai, eskolara yoan sala yentilkumea ta danak (g)añetu yakoasan ba nor dan edo

Bai, eskolara joan zala jentilkumea eta danak gañetu jakoazan ba nor dan edo

ser dan da, asi yakienean bata yo ta bota, bestea yo ta bota, da gero mutilok o mantzo eskapau, da berape eskapau in auen.

Beste baten, bat a pelotea(n) moduen botauen ba(t)k(g)ora ta bestea estai(t) nora, latikasu betegas danapotausen.

Aun kinteleko makulue, estakan bat ixingo san, besapean sala, yentilkumea eskolara yoaten san eta gero putz einde botaten ausela umeok (g)justiope, beragas sertzean asi eskero, makuluegas, da gero atzera besapean artute etzera egun gustietan, orra Untzetabera yoango san or oten i sirean da yentilok.

21.4. Jentilak eta ereitzea

Gupeti auki u entzunde ba or Untzetaben, or ote sirean yentilek, or daos oin be yentil-bolak, arriskoak, borobil borobilak. Batzuk u ona Arkulandara be ekarri ditues.

Da ba, ereitze kontuen aurreratuek i sirean seguru. Pagadiak eta arasduiek askarriek i aukiesan seguru, batzuk u beres erneak eta besto batzuk u sabirikarakoak.

Sabiek e ser sirean? Ba, lenao, gaur be bai undiño, or basoetan lur satitxu betzuk u labrau iten sirean gure dan arbola-asie ereiteko. Ereiten san da gero esie in sein ganaduek e malograu.

Da, ba, asion ernaroa ondo yagon bear ixiten san da ikusi ia selango askaie daukon landareak.

Gero tertzio bateraskero atera landarok eta sartu iten sirean arloan-arloan. Da gero ba asten itxi. Batzuk u garrasatak asten sirean gero ageak edo solibatarako

zer dan eta, asi yakienean bata jo eta bota, bestea jo eta bota, eta gero mutilok o mantso eskapadu, eta berak be eskapadu egin euan.

Beste baten, bat a pelotearen moduan bota euan bat gora eta bestea ez dakit nora, latikazu bategaz danak botaten euazan.

Eun kintaleko makulua, estakaren bat izango zan, besapean zala, jentilkumea eskolara joaten zan eta gero putz eginda botaten euazala umeok guztiok be, bera-gaz zertzean asi ezkerro, makuluagaz, eta gero atzera besapean artuta etxera egun guztietan, orra Untzetabera joango zan or egoten ei ziran eta jentilok.

Guk beti euki dogu entzunda ba or Untzetaben, or egoten ziran jentilak, or dagoz orain be jentil-bolak, arrizkoak, borobil borobilak. Batzuk u ona Arkulandara be ekarri dituez.

Eta ba, ereitza kontuan aurreratuak ei ziran seguru. Pagadiak eta arazduiak azkarriak ei eukiezan seguru, batzuk u berez erneak eta beste batzuk u sabirikarakoak.

Sabiak e zer ziran? Ba, leenago, gaur be bai oraindiño, or basoetan lur zatitxu batzuk u labradu egiten ziran gure dan arbola-azia ereiteko. Ereiten zan eta gero esia egin zein ganaduak e malogradu.

Eta, ba, azion ernaroa ondo jagon bear izaten zan eta ikusi ia zelango azkaia daukan landareak.

Gero tertzio baterazkero atera landarok eta sartu egiten ziran arloan-arloan. Eta gero ba azten itxi. Batzuk u garratzak azten ziran gero ageak edo solibatarako eta beste batzuk u iñausi egiten ziran eta

da besto batzuk u iñausi iten sirean da egurre erre edo iketza in. D'orrik esaun isiten dire, adapoa daukielako.

Da soloko ereitza kontuen genero ona artzeaudien seguru. Artoa be askarrie kuxetan audien urrean.

Oin i Ameriketati etorri sala esaten daurie baye lenao Samartinek ixin bear auen ori lograuenak.

Artoa nos ereiten dan be ainbatetik i ikisi gaindun, da tertziarik onena esakereak esatosku: «San Yurgi, artoak ereiteko goxegi» (aprilean 23an); «San Martin, artoak ereini(k)p(b)alegos» (aprilean 25ean).

Gero ba au estait i setati be baye kandelarioetan be bildur andiegas ibiltan ginean, da sarri esaten gaidun: «Kandelario egunean iguskie baño otzoa ardi artean obe».

Da ba, yentilekandi edo danadalakotik i ikisiu seoser da ba atera u biximodue selanbeist.

Oin i estao lengorik. Oin jentea bearra doa fabrikara ta ilean txal bat (d)akar etzera, txala, sera esan gurot o soldatea. Len etzegoan ie soldatarik emen, alogeran ibilien batek ixin esik. Makiña ba (t)p(b)ear in du usabantzat. Baye, tire, posi(k)p(b)ixi ixin gara ta egun onape pasauus. Suon Uriondoko aittiteri daukottzet entzunde ba, a be, alargun gasterik eta etze bete ume ta egun beten esan i otzen D.Damianeri:

– D.Damian, beorrek estaki ondo seinbet egun txar pasau odan biximoduen!

– Seinbet urte daukosus Manuel?- esan i otzen abadeak-

– Ba jaune, aurtengoagas larogeta sortzi urte.

– Ba, ara, Manuel, larogeta sortzi gabon, larogeta sortzi asentzio, (Uriondoko

egurra erre edo ikatza egin. Eta orreek ezagun izaten dira, adapoa daukielako.

Eta soloko ereitza kontuan genero ona artzean eudien seguru. Artoa be azkarria kogiduten eudien urrean.

Orain i Ameriketatik etorri zala esaten daudie baia leenago Samartinek izan bear euan ori logradu euanak.

Artoa noiz ereiten dan be ainbatetik i ikasi gendun, eta tertziarik onena esakereak esaten deusku: «San Yurgi, artoak ereiteko goizegi» (aprilean 23an); «San Martin, artoak ereinik balegoz» (aprilean 25ean).

Gero ba au ez dakit i zertatik be baia kandelarioetan be bildur andiagaz ibiltan ginean, eta sarri esaten gendun: «Kandelario egunean eguzkia baño otzoa ardi artean obe».

Eta ba, jentilekandik edo danadalakotik i ikasi dogu zeozer eta ba atera dogu bizimodua zelanbeist.

Orain i ez dago leengorik. Orain jentea bearra doa fabrikara eta ilean txal bat dakar etxera, txala, zera esan gura dot o soldatea. Leen ez egoan ia soldatarik emen, alogeran ibiliren batek izan ezik. Makina bat bear egin dogu ugazabarentzat. Baia, tira, pozik bizi izan gara eta egun onak be pasadu doguz. Zuon Uriondoko aittitari daukatsat entzunda ba, a be, alargun gazterik eta etxe bete ume eta egun baten esan ei eutsan D. Damiani:

– D. Damian, berorrek ez daki ondo zeinbat egun txar pasadu dodan bizimoduan!

– Zeinbat urte daukazuz Manuel? -esan ei eutsan abadeak-

– Ba jauna, aurtengoagaz larogeta zor-tzi urte.

yai egune), larogeta sortzi estait ser da badaï(t) nor, bakisu senbat egun eder?

– Ene! ba erresoia dauko berorrek, - kostestau i otzen sure aitite defuntuek.

Ori onesean artu esketiño ondo baye a(k)p(b)e gorrie(k) pasauko ausen beste askon antzean, esaisu se lenao uin baño konformidadea be gaitxuago oten sala, ostaintxean nok o soportau a biximodu gogorra?

Suron aitite ganera sinismen andiko gixona yatzun. Baten be, akordetan nas, gerra denporan, Santa Kurtzeko abadeak igon gures Uriondora bonban bildurres da Uriondoko gustieri Santa Kurtzera etorteko ordenea emon otzien.

Suon aitite mobidu be in i sen seguru baye ausokoak esan i otzien:

– Manuel, estao yoaterik, esin gara arrisgau, abadea bat ixinde etorri espadator, gu yoan askosas gitxiago!

– Bueno ba, mesara al estala be beste seoser in beako yuk!

Orduen se in audien, ba yoan asentzio sarrera ta andik asentzio barrire prososiñoa in d'errosarioa erresau mesa orde.

Da gero ba pasau sen gerrea ta urte baten aste santu aurreko misinoietan konfesiño generala iten yoan i sen da fraideari kontau otzenean a fetxorie, es otzen parkasiñoa emon gure, da ba, Jesukristo naure jaune, erresau te yoan i sen da erriko parrokoari esan, d'ak emon i otzen asolusiñoa. Selango gausak e!

Je-je-je! bitu segas asi garean da segas akabau, guk u tertzio bateraskero edosein gause, tire, artu dun kakoko edo sartaneko apur bet, oneskero entrame apurren bat auki be ingosu te, bai, ogi kuskur bet eta permil altzi be(t)tx(y)ateko goseripe

– Ba, ara, Manuel, larogeta zortzi gabon, larogeta zortzi asentzio, (Uriondoko jai eguna), larogeta zortzi ez dakit zer eta badakit nor, badakizu zenbat egun eder?

– Ene! ba errezoia dauka berorrek, - kostestadu ei eutsan zure aitita defuntuak.

Ori onezean artu ezketiño ondo baia ak be gorriak pasaduko euazan beste askoren antzean, esan egizu ze leenago orain baiño konformidadea be geitxuago egoten zala, osterantzean nok o soportadu a bizimodu gogorra?

Zuon aitita ganera sinesmen andiko gizona jatzun. Baten be, akordetan naz, gerra denporan, Santa Kurtzeko abadeak igon gura ez Uriondora bonban bildurrez eta Uriondoko guztiei Santa Kurtzera etorteko ordenea emon eutsien.

Zuon aitita mobidu be egin ei zan seguru baia auzokoak esan ei eutsien:

– Manuel, ez dago joaterik, ezin gara arrisgadu, abadea bat izanda etorri ez badator, gu joan askozaz gitxiago!

– Bueno ba, mezara aal ez dala be beste zeozet egin bearko joaguk!

Orduan zer egin eudien, ba joan asentzio zaarrera eta andik asentzio barrira prozosiñoa egin eta errosarioa errezadu meza orde.

Eta gero ba pasadu zan gerrea eta urte baten aste santu aurreko misinoietan konfesiño generala egiten joan ei zan eta fraideari kontadu eutsanean a fetxoria, ez eutsan parkasiñoa emon gura, eta ba, Jesukristo neure jauna, errezadu eta joan ei zan eta erriko parrokoari esan, eta ak emon ei eutsan absolutziñoa. Zelangoz gausak e!

Je-je-je! begiratu zegaz asi garan eta zegaz akabadu, guk u tertzio baterazkero

esta bear, astea neke, tirausu, itxi ori aparatu ori or aspira ganean da erdu!

A, eskuek? ortxe, arrien, d'eskuek siki-tako or daukosu esku-sorkie edo etxoisu, misasko eskupañu bet ekarrikotzut!...

edozein gauza, tira, artu daigun kakoko edo zartaneko apur bat, onezkero entra-me apurren bat euki be egingo dozu eta, bai, ogi kuskur bat eta pernil altzi bat jateko goserik be ez da bear, astea neke, tirausu, itxi ori aparatu ori or azpira ganean eta erdu!

A, eskuak? ortxe, arrian, eta eskuak siketako or daukazu esku-sorkia edo itxa-ron egizu, misezko eskupañu bat ekarriko deutsut!...

22.1. Anbotoko Señorea eta abadegaia

Anbotoko Señorea bisi zen Anbotoko kueba baten eta kueba orretan sartu sen abade iteko egoan bat bere estola ta gusti eta sartu sen barrure ta barruen ikusi auen (Anbotoko Señorea) eta barruen ikusirik eskatutzen ure, da urori aterotzen urresko basu beten, urre gorris-ko basu beten eta inotzen krutzen bat eta esan otzen:

– «Urteisu emeti eskuetan daukosun de gusti...».

Eta urten auen. Aurrerantza sartu sen abadegi ori de atzerantza urten auen Olaetako batek, Otxandiotik albora dao Anboton aspian.

Anbotoko Señorea bizi zan Anbotoko kueba baten eta kueba orretan sartu zan abade egiteko egoan bat bere estola eta guzti eta sartu zan barrura eta barruan ikusi euan (Anbotoko Señorea) eta barruan ikusirik eskatu eutsan ura, eta urori atera eutsan urrezko basu baten, urre gorrizko basu baten eta egin eutsan kur-tzeren bat eta esan eutsan:

– «Urten egizu emetik eskuetan dauka-zun eta guzti...».

Eta urten euan. Aurrerantz sartu zan abadegi ori eta atzerantz urten euan Olae-tako batek, Otxandiotik albora dago Anboton azpian.

23.1. Errotaria eta bere alabea erregiñagai

Errotari beten alabeak i auken ba mon-toi andie galtzue edo sertuteko esta, ga-rie, galtzue asko seguru i auken. D'agartu i akon esaten e erregea edo batenbat:

– «Niges eskondu gure badau alabeak, orri(k) montoiotanok urre imini beosus».

– «Baye ori gatxa da sano», da mun-duen ori ingo laukenik balego da, negar

Errotari baten alabeak ei eukan ba montoi andia galtzua edo zertuteko ezta, garia, galtzua asko seguru ei eukan. Eta agertu ei jakon esaten e erregea edo batenbat:

– «Nigaz ezkondu gura badau alabeak, orreek montoioak danok urre imini bear dozuz».

da negar asi i sen. Gure, erregeagas eskondu te, negar da negar.

Da negar da negar daoela, agartu yakon ba baten bat, estakit nor ixingo san da, esan i otzen:

- «Segaitik negar iten dosu?».

- «Ba erregeagas eskonduteko onik montoyokustiok urre, d'ori isilitikixin». D'esan i otzen:

- «Onik montoyokustiok urre bolbitea gure bosu naukiminikotzudes urre, baie lelengo semea, matrimonioan daukosune nauri emon beostesu».

Da ba gixon ori bekokie ixurtute, berekitan pentzetan asi i sen da ba emongo neuskisu lelengo semea baie onikari montoyok estosus bolbiduko urre ta ba emongotzut lelengo semea kaskondu baño len.

- Bueno ba, suk u ondo aginduten bostesu emongostesule semea, onik iru montoyok bigerko urre biurtuko yatzus.

- Bai? ba emongotzut, -esan iotzen-.

D'urrungo egunean iru gari montoyok urre biurtu yakosan eta sinestu in isinik egoan errotari ori.

Errege ori be etorri i sen da mirari andie eretxi i otzen da ba dispunidu i aurien estegu ori, bodori.

Eskondu i sirean da ba semetxu bet auki be bai, baie errotarien alabea negar da negar, berari pasetan yakona, ta berari pasetan yakona, seguru.

D'esan otzien an baten batzuri se pasetan yakon da ba esan i otzien:

- Semea nori agindutzesu ba?

- Ba gixon bateri!

Etorten i sen gixon txikitxu bet, enbeleko antza, semea eske, da ba semea berari agindute daukotzela ta emoteko.

Da andreak esetz, esin leiola emon,

- «Baia ori gatxa da sano», eta munduan ori egingo leukenik balego eta, negar eta negar asi ei zan. Gura, erregeagaz ezkondu eta, negar eta negar.

Eta negar eta negar dagoala, agertu jakon ba baten bat, ez dakit nor izango zan Eta, esan ei eutsan:

- «Zergaitik negar egiten dozu?».

- «Ba erregeagaz ezkondateko oneek montoiook guztiok urre, eta ori ezin leiteke izan». Eta esan ei eutsan:

- «Oneek montoiook guztiok urre bolbidutea gura badozu neuk iminiko deustazude urre, baie leenengo semea, matrimonioan daukazuna neuri emon bear deustazu».

Eta ba gizon ori bekokia ixurtuta, berekitan pentzetan asi ei zan eta ba emongo neuskizu leenengo semea baie oneek gari montoiook ez dozuz bolbiduko urre eta ba emongo deustut leenengo semea kaskondu baiño leen.

- Bueno ba, zuk u ondo aginduten ba deustazu emongo deustazula semea, oneek iru montoiook biariko urre biurtuko jatzuz.

- Bai? ba emongo deustut, -esan ei eutsan-.

Eta urrengo egunean iru gari montoiook urre biurtu jakozan eta sinestu egin ezinik egoan errotari ori.

Errege ori be etorri ei zan eta mirari andia eritzi ei eutsan eta ba disponidu ei eudien eztegu ori, boda ori.

Ezkondu ei ziran eta ba semetxu bat euki be bai, baie errotariaren alabea negar eta negar, berari pasetan jakona, eta berari pasetan jakona, seguru.

Eta esan eutsien an baten batzui zer pasetan jakon eta ba esan ei eutsien:

- Semea nori agindu deustazu ba?

- Ba gizon bati!

Etorten ei zan gizon txikitxu bat, enbe-

es auen gure erregea enteretarik eta, da orretara, ba semea emon gurespostesu, nire ixena sein den igirri beosu.

Urungo egunean agartu yakon gixon-txu ori d'esan otzesan munduko isen gustiepaie, arpelik.

Bigarrenes be yoan yakon da beste ainbeste.

Irugarren bijarorduko, baten batek esan iotzen:

– Urteixu ona sorgin-landara edo ara ta goxean egune sabaldukeran, lañaberea daoela, a ber se notisi entzuten dosun se onekixontxu onek arantza in dau te, sorgin-landarantza.

Da goxean oirikara yoan i sian bijilanteak edo, lañabereagas da ba an i egoan yantza ta yantza esaten: «soy un ombre que me llamo sin nombre», da bere usenik estaudela topauko.

D'esan otzien erregiñeari, da ba barriro ixenak esateko eta alangorik espada, auxe esateko: «soy un ombre que me llamo sin nombre» se ixingo da deabrue.

Etorri i sen gixontxu ori uingoan semea eroateko da: «soy un ombre que me llamo sin nombre» entzu auenean furien bategas eskapau i auen, erri idi esi ba-koan damorroapaño urruma andiangoakas d'es iakon geao agartu a enbeleko a.

leko antza, semea eske, eta ba semea berari aginduta daukatsala eta emoteko.

Eta andreak ezetz, ezin leiola emon, ez euan gura erregea enteretarik eta, eta orretara, ba semea emon gura ez badeus-tazu, nire izena zein dan igarri bear dozu.

Urrengo egunean agertu jakon gixon-txu ori eta esan eutsazan munduko izen gustiak baia, alperrik.

Bigarrenez be joan jakon eta beste ainbeste.

Irugarren bijara orduko, baten batek esan ei eutsan:

– Urten egizu ona sorgin-landara edo ara eta goizean eguna zabaldukeran, lai-ñaberea dagoala, a ber zer notizia entzu-ten dozun ze onek gixontxu onek arantz egin dau eta, sorgin-landarantz.

Eta goizean oerikara joan ei ziran bijilanteak edo, laiñabereagaz eta ba an ei egoan jantza eta jantza esaten: «soy un hombre que me llamo sin nombre», eta bere izenik ez daudela topaduko.

Eta esan eutsien erregiñeari, eta ba barriro izenak esateko eta alangorik ez bada, auxe esateko: «soy un hombre que me llamo sin nombre» ze izango da deabrue.

Etorri ei zan gixontxu ori oraingoan semea eroateko eta: «soy un hombre que me llamo sin nombre» entzun euanean furiaren bategaz eskapadu ei euan, erri-idi ezi bakoaren damorroak baiño urruma andiangoekaz eta ez ei jakon geiago agertu a enbeleko a.

24.1. Lamiñak ikatz-egostorduan Uriondon

Gure aitek, emekoak esaten yoan, or Atxondoko trokan, suen aite defuntue ta

Gure aitak, emekoak esaten joan, or Atxondoko trokan, zuen aita defuntua

biek txondorra egosten bai... A(k)p(b)enetan kontetauen. Da txondorra suen da txondorrari betegarriemon bear. Da txondorrari betegarriemoten asi sianean esatauen agurorrek, suloan irrintzak urten i auden seguru, irrintzak suloan da aurek esan iotzien arkaleri:

– «Lamiñatosak, lamiñatosak, gurerrukie gaur».

Da txondorra betegarrieske, txondorra betegarrieske, garrak itzelak garrak itzelak, d'urten in bear txabola ti da:

– «Lamiñan irrintzatosak».

Da biepietara, esaten auen, agarrau bearrotziela txondorrari espabere txondorrak erre in bearrotziela ta.

Txondorrari betegarriemon d'alangonbaten txondorrori tapauudenean edo lotuudenean, erresau, ta lamiñok orduen ixildu isian, esatauen gure agureak.

Da guk, tentau iten gendun e: gusurre ixingo dala ori, gusurre!

– Gaur egun santue yaolan modun, irrintza baten suloan, irrintzak eta lamiñak soasen da txondorra apurbetegaiti an erretan jakuk. D'errestan asi gintzoasean, da betegarriemon, estaldu soasen.

24.2. Zaldi-irrintzak eta kateaotsa

Bestobaten be esatenauen, besto baten be, Ereñoti etorri bera gau beten, d'an Gabeardatz esaten dotzun Olarreko selaiti, andi bieti gora, gaubilunabarra, ya ilunabarra, da, ilunabartute, gaube ta, kaballo bandea kaballo bandea alboti, segidu iten iotzen, segidu, segidu ta segi-

eta biak txondorra egosten bai... Ak benetan kontetan euan. Eta txondorra sutan eta txondorrari betegarria emon bear. Eta txondorrari betegarria emoten asi ziranean esaten euan agura orrek, zuloan irrintzak urten ei euden seguru, irrintzak zuloan eta eurak esan ei eutsien alkarri:

– «Lamiñak dozak, lamiñak dozak, gure errukia gaur».

Eta txondorra betegarria eske, txondorra betegarria eske, garrak itzalak garrak itzalak, eta urten egin bear txabola ti eta:

– «Lamiñen irrintzak dozak».

Eta biak bietara, esaten euan, agarradu bear eutsiela txondorrari ezpabere txondorrak erre egin bear eutsiela eta.

Txondorrari betegarria emon eta alangoren baten txondor ori tapadu eudenean edo lotu eudenean, errezadu, eta lamiñok orduan ixildu ei ziran, esaten euan gure agureak.

Eta guk, tentadu egiten gendun e: guzurra izango dala ori, guzurra!

– Gaur egun santua jaoan moduan, irrintza baten zuloan, irrintzak eta lamiñak zoazan eta txondorra apurbategaitik an erretan jakuk. Eta erreztan asi gintzoazanean, eta betegarria emon, estaldu zoazan.

Beste baten be esaten euan, beste baten be, Ereñotik etorri bera gau baten, eta an Gabeardatz esaten deusagun Olarreko zelaitik, andik beetik gora, gaubilunabarra, ya ilunabarra, eta, ilunabartuta, gaua eta, kaballo bandea kaballo bandea albotik, segidu egiten ei eutsien, segidu,

du, burriña sagatea, burriña sagatea ta, kaballoak, irrintzarik eta.

Berak arin -esanauen- baye besteak arinago iten jotzen. Berak arin baye besteak arinago.

Da gurea kaderas ajile san, da onan, «iiiiii» iten auden seguru te, burriña sagatea, burriña sagatea...

Murtxoango landara gora eldu senean, bera kuyetako kaballorik es i egoan seguru.

Aldendu i sian kaballook, ixildu i sian seguru.

– «D'aipeste mundukoak soasen, aipeste mundukoak soasen! -esatauen.

Erresau, erresau! Erresaurduen desapa-residu!

25.1. Jentilak Gorbeian

Supilaurren, Gorbeyen, Anbotoko Señorean kueban aurrian egon sirean andra-gixon bi ardiexagoten.

Etorri yakon yentil be(t)k(g)ixonagana d'esau otzen beragas, jentilegas, yoateko. Da kueba barrure eroan auen. Kueba orretan askeneraño iñor esta sartu. Kandela ixituegas sartu eskero, kandlea amatetan danean, amasean faltan urten in bea dalako. Da erreka bat eta ikeragarisiko maiek eta ei daos an barruen.

Eta kueba barruen yentilek esan otzen: «Ire aitek olango iketzik iten yok?». Da gero esan otzen: «Artik!». D'arturduen kunturatu sen pastorea, amasaiko ta aun erleko gorriek sireala.

Da esan otzen yentilek: «Artu ik auk (g)uroan beste, baye arin, usabak ixartu in biar yok eta...».

Asi sen orduen pastorea kolkoa ta

segidu eta segidu, burriña zaratea, burriña zaratea eta, kaballoak, irrintzarik eta.

Berak arin -esan euan- baia besteak arinago egiten ei eutsien. Berak arin baia besteak arinago.

Eta gurea kaderaz ajila zan, eta onan, «iiiiii» egiten euden seguru eta, burriña zaratea, burriña zaratea...

Murtxoango landara gora eldu zanean, bera kogiduteko kaballorik ez ei egoan seguru.

Aldendu ei ziran kaballook, ixildu ei ziran seguru.

– «Eta aik beste mundukoak zoazan, aik beste mundukoak zoazan! -esaten euan.

Errezadu, errezadu! Errezadu orduan desaparezidu!

Superlegorren, Gorbeian, Anbotoko Señorearen kueban aurean egon ziran andra-gizon bi ardiak jagoten.

Etorri jakon jentil bat gizonagana eta esan eutsan beragas, jentilegas, joateko. Eta kueba barrura eroan euan. Kueba orretan azkeneraño iñor ez da sartu. Kandela izituagaz sartu ezkerro, kandlea amatetan danean, amasearen faltan urten egin bear dalako. Eta erreka bat eta ikaragarrizko maaiak eta ei dagoz an barruan.

Eta kueba barruan jentilak esan eutsan: «Ire aitak olango ikatzik egiten jok?». Eta gero esan eutsan: «Artu egik!». Eta artu orduan konturatu zan pastorea, amaseiko eta eun errealeko gorriak zirala.

Eta esan eutsan jentilak: «Artu egik euk gura dokan beste, baia arin, ugazabak iratzartu egin bear jok eta...».

boltzapetetan alik etarinen, da orretan daoela ixartu ein sen usaba d'orduen galapan asi sen da deabrue bere atzean.

D'atxerik atx bidearlovak in de gero Oroskorantza, bidian Olarteko kanpaiotza entzun aurien. T'orduen yentile geratu in sen.

Pastorea salbau in sen, se yentilek esin auen pasau aurrera kanpaiotza entzuten san lekure. Da pastorea salbaute ikusi auenean, yentile(k) maldasiñoa bototzen.

Eta olantxe yaso san. Gero aren pastorean etzean eta bere ostaikoen artean egundo esta faltau esbearrik.

Asi zan orduan pastorea kolkoa eta boltsak betetan aalik eta arinen, eta orretan dagoala iratzartu egin zan ugazaba eta orduan galapan asi zan eta deabrua bere atzean.

Eta aitzerik aitz bide arlovak egin eta gero Orozkorantz, bidean Olarteko kanpaiotsa entzun eudien. Eta orduan jentila geratu egin zan.

Pastorea salbadu egin zan, ze jentilak ezin euan pasadu aurrera kanpaiotsa entzuten zan lekura. Eta pastorea salbaduta ikusi euanean, jentilak maldiziñoa bota eutsan.

Eta olantxe jazo zan. Gero aren pastorearen etxean eta bere ostekoen artean egundo ez da faltadu ezbearrik.

25.2. Superlegorren penitentzia betatuten

Gison aberas bat Supilaurren penitentzie betetan ei egoan. Iyorrekua san da garrirañoa bixerragas ibilte san.

Santi motz eta bere lagun bet Supilaur inguruetati ebisen mendien, eta atzera etorteko berandu in yakien eta gaubiten Supilaurrera yoatea pentzaurien.

Ara eldu sirianean gison bisertzu ori burruntzien urdaye erretan topaurien d'aik esan utzien se:

– Berandu in yaku etzera yoateko ta bertan gaube itia pentzau ugu.

Eta beste orrek erantzun utziela se:

– Emen len be lagunik asko gaos!

Eta gixonok ori entzutian bildurtu in sirian d'al ixi auriemoduen etzera yoan sirian.

Gizon aberats bat Superlegorren penitentzia betetan ei egoan. Igorrekua zan eta garrirañoa bizarragaz ibiltan zan.

Santi motz eta bere lagun bat Superlegor inguruetatik ebilzan mendian, eta atzera etorteko berandu egin jakien eta gaua egiten Superlegorrera joatea pentsadu eudien.

Ara eldu ziranean gizon bizartsu ori burruntzian urdaia erretan topadu eudien eta aik esan eutsien ze:

– Berandu egin jaku etxera joateko eta bertan gaua egitea pentsadu dogu.

Eta beste orrek erantzun eutsiela ze:

– Emen leen be lagunik asko gagoz!

Eta gizonok ori entzutean bildurtu egin ziran eta al izan eudien moduan etxera joan ziran.

25.3. Gaubeko argi deabrua

Gallartuko (Orozko) Txomingorri burrukarie san, indertzue, kompromisorik es emon bear berari... ostantxean!

D'ori yoan san Billarora, ferire. Lenago Oroskoti gente asko yoate san ortixik, Sintatxeti. Nau be sarriten yoate nintzen, Sintatxetik, Aibelabetik egoan senda bat. D'andik, San Martingo sendati, Aibelabetik, argietorren da berekitan badiño:

– Oño!, ortxe yatok argie d'ontxe ñaok ni ondo! Orraxe pagalandara urten bea yautzat argi orreri!

T'argi ori betorren da urten otzen pagalandara. D'argi ori etorri sen orduen, beste ori aspian, palu andi betegas. D'argie plantau yakon serean, arbolean, errama baten ganean.

Ta beste au indertzue ta, gixon bildurbakoa ta... yoten dau argi ori... da gero, oño!, a-ger-tu- ya-ko-san ba!!! Asten yakos atzerikara segiduten da beste au estute larri.

Eldu sen aiñeketa baten Adaroko Iñisio Mantxuen etzera. D'ekarren sustuegas atea yoteko asti barik, bota ate sar ori ta sartu sen barrure.

Orduntxe andrea mesarako yasten:

– Ene, se Jangoiko! se pasetan da or?

– Ai ene!, ai ene! -sutiape artu esinik seguru-

– Ser pasetan yatzu ba?

– Urten dustie besteok!

– Beti sabisu, Txomingorri edo traste ori! Ibili sates formal!

– Ene!,ene!

Ta gero, ango andreak etalabeak urten in bear ba. Baye ak esegaitipe urten gures.

Gallartuko (Orozko) Txomingorri burrukaria zan, indartsua, kompromisorik ez emon bear berari... osterantxean!

Eta ori joan zan Billarora, feriara. Lenago Orozkotik gente asko joaten zan ortixik, Sintatxetik. Neu be sarritan joaten nintzan, Sintatxetik, Aibelabetik egoan senda bat. Eta andik, San Martingo sendatik, Aibelabetik, argia etorren eta berekitan badiño:

– Koño!, ortxe jatok argia eta oraintxe niagok ni ondo! Orraxe pagalandara urten bear jautsat argi orri!

Eta argi ori betorren eta urten eutsan pagalandara. Eta argi ori etorri zan orduan, beste ori azpian, palu andi bategaz. Eta argia plantadu jakon zerean, arbolearen, errama baten ganean.

Ta beste au indartsua eta, gizon bildurbakoa eta... joten dau argi ori... eta gero, koño!, a-ger-tu- ja-ko-zan ba!!! Asten jakoz atzerikara segiduten eta beste au estute larri.

Eldu zan arineketa baten Adaroko Inazio Mantxuaren etxera. Eta ekarren sustuagaz atea joteko asti barik, bota ate zaar ori eta sartu zan barrura.

Orduntxe andrea mezarako jasten:

– Ene, zer Jaungoiko! zer pasetan da or?

– Ai ene!, ai ene! -suteak be artu ezinik seguru-

– Zer pasetan jatzu ba?

– Urten deustie besteok!

– Beti zabil zu, Txomingorri edo traste ori! Ibili zaitetz formal!

– Ene!,ene!

Eta gero, ango andreak eta alabeak

D'egune sabaldu auen orduen urten i auen orre(k) Txomingorri orrek.

urten egin bear ba. baia ak ezegaitik be urten gura ez.

Eta eguna zabaldu euan orduan urten ei euan orrek Txomingorri orrek.

25.4. Jentilak Superlegorren biziten

Pastore bi egosan Supilaur inguruen bakotxa bere errebañuegas t'auxe pasau yakien.

Negue san, da mendien pastore biek. D'akorduripes! Da onetan edurre goitipera, botaalean. Da batapesteari badiñotzo:

– Mutil, esin gaintikosak eldu etzera, Supileurko kuebara yoan beako yuk!

Da kuebara yoan sirian. An beukien lekue ardiak sartzeko. Errebañue bertan sartu t'an egosan ardi artean tapabokakas bertan lo iteko.

Da in sen gaube. Da onetan se: Tziiist! t'ardie(k) kanporantza eskapa. T'aurek: Fiiiio! Fiiiio! kuyau te barrure sartzean ardiok.

Andik (g)eroagoan be barriro: Tziiist! T'ardiok seguru euren ganetik eskapa. Atzera ardie(k) topetan da sartzean, alan ibili ei sirian gau gustien.

Nik entzutiataukedas orixin sala aipastoreak aimariatxo baño lenago an kueban sartu siriala. D'an dausen serak, yentilek edo, oneik serok, urtetako podererik es.

Se aimarietan urtetan ei daurie eta gero arri-kanpayagas sartu iten i dire.

D'egongo sirian mutilok (pastoreok) euren medallakas edo euren gaubeko orasiñoakas edo. T'axe bendesiño seretik esin pasau kueba barruen egosan yentilok.

Eta entzuten euriesan saratok o yenti-

Pastore bi egozan Superlegor inguruan bakotxa bere errebañuagaz eta auxe pasadu jakien.

Negua zan, eta mendian pastore biak. Eta akordurik be ez! Eta onetan edurra goitik bera, bota aalean. Eta batak besteari badiñotso:

– Mutil, ezin geintikozak eldu etxera, Superlegorreko kuebara joan bearko joaguk!

Eta kuebara joan ziran. An baeukien lekua ardiak sartzeko. Errebañua bertan sartu eta an egozan ardi artean tapabokekaz bertan lo egiteko.

Eta egin zan gaua. Eta onetan ze: Tziiist! eta ardiak kanporantz eskapa. Eta eurak: Fiiiio! Fiiiio! kogidu eta barrura sartzean ardiok.

Andik geroagoan be barriro: Tziiist! Eta ardiok seguru euren ganetik eskapa. Atzera ardiak topetan eta sartzean, alan ibili ei ziran gau guztian.

Nik entzuteak daukadaz ori izan zala aik pastoreak abemariak jo baño leenago an kueban sartu zirala. Eta an dagozan zerak, jentilak edo, oneek zerok, urtetako podererik ez.

Ze abemarietan urtetan ei daudie eta gero arri-kanpaiagaz sartu egiten ei dira.

Eta egongo ziran mutilok (pastoreok) euren medallakaz edo euren gaueko oraziñoekaz edo. Eta axe bendeziño zeretik ezin pasadu kueba barruan egozan jentilok.

lek edo urten gure t' esin urtenean egosalako sireala.

Eta entzuten eudiezan zaratok o jentilak edo urten gure eta ezin urtenean egozalako zirala.

25.5. Anbotoko Señorea Superlegorren

Urigoiti azpian dan Olarten ein aurien olea. Orduen munduen es egoan fraikerik es eser. Et' antxe arriegoan burriña edo eiteko, eta fundauen olea.

Da olea fundeu auen lekuen ifini euren itzelesko errudandi bet, egurreskoa a olea mogitako.

Asi sirian ba bearren asteko, ta ifini aurien orlori t' esin aurien mogidu esetara be. Eta baten batek esan otzela:

- Ori orlori mogidu bear bosue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana yoan beosue konsulte bat artzean ia sela(n) mogidu leien.

Da usabak, propiedadedun bet ixingosan, da bera bildur de, errentorea agindu auen.

Eta errentorea yoan san Supilaurko kuebara Anbotoko Señoreagana, da, Anbotoko Señoreak ei auken alboan erri-sekor bat itxunde eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

- Ementxe nator ba
- Ser dakastesu ba? - kontestautzela.
- Konsulte batera nator, -tesan otzen-:

Urliak, Olarteko serak, - nausi bet isingosan, lenaokoa, - olea in dau d' esin dau mogidu, da batonbatek konsultetako Anbotoko Señoreagas.

D'Anbotoko Señoreak esan otzen se:

- Au olau mogidutia gure bosue, urlie komentoko superiorragana soasie t' axek esangotzue. Se ori orlori suotaukosue ben-desidu barik -se fraikek eta oneik autoak

Urigoiti azpian dan Olarten egin eudien olea. Orduan munduan ez egoan fabrikarik ez ezer. Eta antxe arria egoan burriña edo egiteko, eta fundadu euan olea.

Eta olea fundadu euan lekuan ifini euden itzalezko errueda andi bat, egurrezkoa a olea mobiduteko.

Asi ziran ba bearren asteko, eta ifini eudien ola ori eta ezin eudien mobidu ezertara be. Eta baten batek esan eutsela:

- Ori orlori mobidu bear badozue, porsiakaso, Anbotoko Señoreagana joan be ar dozue konsulta bat artzen ia zelan mobidu leian.

Eta ugazabak, propiedadedun bat izango zan, eta bera bildur eta, errentorea agindu euan.

Eta errentorea joan zan Superlegorreko kuebara Anbotoko Señoreagana, eta, Anbotoko Señoreak ei eukan alboan erri-zekor bat etzunda eta bera goruetan ei egoan seguru, eta:

- Ementxe nator ba
- Zer dakastazu ba? -kontestadu eutsala.

- Konsulta batera nator, -eta esan eutsan-: Urliak, Olarteko zerak, -nagusi bat izango zan, leenagokoa, - olea egin dau eta ezin dau mobidu, eta batenbatek konsultetako Anbotoko Señoreagaz.

Eta Anbotoko Señoreak esan eutsanze:

- Au ola au mobidutea gura badozue, urlia komentoko superiorragana zoazie

eta barkuek eta oneik bendesidu estire eiten?-. Eta orrek olorrek esin dau mogidu deabruetauko detenidute.

T'emon otzen sagardoa, basukadea. Lenao usedioa egotesan ullesko subiak fundetan sireala iturrietan da baton batek edan auela ullia ta gusti, sera, ure, ta fundidu yakola barruen subia, aregas ulliagas da gero andik etorri sala «Jesus» esateko usedioa, edan itorduen. A «Jesus» esan eskeitiño estala formetan suberik. Balitike ori egie ixitia esta?... kontetan dire ta, gausek eta...

Eta orrepesteorrek, sagardoa edan auen da esakerea auken «Jesus», eta esan auen «Jesus» eta itxi autzen basue.

Eta badiñotzo Señoreak:

- Au basu au eroaixu, se onegas len badauke(t) penitentziagandik, andiagota-
taukodas, se au basu au suk in dosu bendesidu, «Jesus» esan dosunian.

Da yoan sirian komentuko superiorra-
gana d'etorri sen superior ori t'estolea imini, bere yantzie serty d'asi sen bere bereinkasiñoa botaten.

Eta tu-ru-mu-tu! ikeragarrisko bategas asi sen orrenbeste egurreko errudia bueltaka.

Danak ikeratute, eta superiorrak esaten otzien: es bildurtu, es bildurtu, es bildurtu...!

Eta askeneko burrundada bategas yoan i sen andi deabru ori eta esautzen superiorrak:

- Ikustosue? Suok lelungotan bendesidu in basinduen, bearra asi orduko, au mogidu ingo san ondo. Baye tire, oin segidu olonegas, segon da deabru(k)(d)etenidute.

Su, balitike orreik egiek ixitea esta? Ara, siñestu gurestituenape, an daukies ondiokarren an Olarten aldibeteko olea-

eta arexek esango deuntsue. Ze ori ola ori zuok daukazue bendezidu barik -ze fabrikak eta oneek autoak eta barkuak eta oneek bendezidu ez dira egiten?-. Eta orrek ola orrek ezin dau mobidu deabruak dauka deteniduta.

Eta emon eutsan sagardoa, basukadea. leenago usadioa egoten zan ulezko subeak fundetan zirala iturrietan eta baten batek edan euala ulea eta guzti, zera, ura, eta fundadu jakola barruan subea, aregaz uleagaz eta gero andik etorri zala «Jesus» esateko usadioa, edan egitorduan. A «Jesus» esan ezkeitiño ez dala formetan suberik. Baliteke ori egia izatea ezta?... kontetan dira eta, gauzak eta...

Eta orrek beste orrek, sagardoa edan euan eta esakerea eukan «Jesus», eta esan euan «Jesus» eta itxi eutsan basua.

Eta badiñotso Señoreak:

- Au basu au eroan egizu, ze onegaz leen badaukat penitentziagandik, andiagoka-
daukadaz, ze au basu au zuk egin dozu bendezidu, «Jesus» esan dozunean.

Eta joan ziran komentuko superiorra-
gana eta etorri zan superior ori eta esto-
lea imini, bere jantzia zertu eta asi zan bere bedeinkaziñoa botaten.

Eta tu-ru-mu-tu! ikeragarrizko bategas asi zan orrenbeste egurreko erudea bueltaka.

Danak ikeratuta, eta superiorrak esaten eutsien: ez bildurtu, ez bildurtu, ez bildurtu...!

Eta azkeneko burrundada bategas joan ei zan andik deabru ori eta esan eutsen superiorrak:

- Ikusten dozue? Zuok leenengotan bendezidu egin bazenduen, bearra asi orduko, au mobidu egingo zan ondo. Baia tira, orain segidu ola onegaz, ze egon da deabruak deteniduta.

ren antigualeko serak, arriek, sinifikasiñoa antxe aukingo daurie.

Zu, baliteke orreek egiak izatea ezta? Ara, siñestu gura ez dituenak be, an daukiez ondiokarren an Olarten aldibateko olearen antigualeko zerak, arriak, sinifikaziñoa antxe eukingo daudie.

25.6. Gaueko arimak Gallartun-Orozkon

Orrik i kondenauek, agartu skero ba bai, or Gallartun (Orozko) orti Sintatxetik agartan sian argiek esta, ta, orduen itesan medallea edo eskapularioa aukieskero, ra! agertu da: «Angelus domine nunciabi Marie...!» eta iru agur mariek erresetan sirian da gero «por las almas de purgatorio, un Padre Nuestro» eta ya desaparecido eiten sirian.

Da, orrik i yentilok palukadea emoneskero ba etzealangoatxayoten sirian, «brujoa» esatotzien, andiek, baie estaukie deretxorik presentetako nobera atentziñoa geitu eskero, da «Aitearen da Semearen» egin eskero be estaukie deretxorik.

Da, agartuten segitan daurienak defuntupadire, gero esan beayakie:

– Se ofresimintu dakastesu?

Eta, ak esaten dautzu ba auxe pekatu au dauket edo ser au dauket edo dauket abitu betxantzite edo sertute, da, esin dauriela a soltau ta ba abadeak soltauoktzela, sertute gero, arri-kanpayak a yota gero, ta pañelue markaute itxiten auriela, bost atzamarran erreunea seguru.

Orreek i kondenaduak, agertu ezker ba bai, or Gallartun (Orozko) ortik Sintatxetik agertan ziran argiak ezta, eta, orduan egiten zan medallea edo eskapularioa euki ezker, ra! agertu eta: «Angelus Domini nunciavit Mariae...!» eta iru agur mariak errezetan ziran eta gero «por las almas del purgatorio, un Padre Nuestro» eta ya desaparecido egiten ziran.

Eta, orreek i jentilok palukadea emon ezker ba etzealangoak jaioten ziran, «brujoa be» esaten eutsien, andiak, baia ez daukie deretxorik presentetako nobera atentziñoa deitu ezker, eta «Aitearen eta Semearen» egin ezker be ez daukie deretxorik.

Eta, agertuten segiduten daudienak defuntuak badira, gero esan bear jakie:

– Zer ofrezimintu dakastezu?

Eta, ak esaten deutsu ba auxe pekatu au daukat edo zer au daukat edo daukat abitu bat jantzita edo zertuta, eta, ezin daudiela a soltadu eta ba abadeak soltaduko deutsala, zertuta gero, arri-kanpaiak a jota gero, eta pañuelua markaduta itxiten eudiela, bost atzamarran erreunea seguru.

25.7. Deabru gedarrez ahuntzak pilatuteko

Ori sen Gergorio, onango betullekas,

Ori zan Gregorio, onango betullekaz,

antigualeko gizona. Eurie goien bean seguru da, auntsopateti atera ta besteti sartu ba serean, Legorpen, Legorpeko aspean, da: «Ei!, ei!, estok infernuko deabrurik agartuko onik i kaballeriok, onik auntsok atateko!».

Da, batos kaballeriok, da odola eskatu iotzien seguru, odol tantakadatxoeren bat seguru emoten botzien eurek aterakotzie-sala.

Da beste ori aik ikusirik i, bildurtute, itxi auntsok eta burukulleatanape altaute seguru etorri i sen etzera. D'etzean be isin soportau d'amauki auen aurrean da:

– Aikor!, aikor! Beti saos orriri gaies da oin etorri yatzuselako kexasaos?

Da beste ori kortati te sereti te, ta ene! ta, estaipa ama edo alaba edo seme yoan sirian ori nire usaban arrabea, a san ba, bo(s) seme mesa emonak isin situenak, ori da, erresantea ta sera san a seguru, d'a libruen bategas etorri d'ak a sertu gixon ori.

25.8. Txikoa eta Pepetxin

Ori Irumugarrietati bera, ba, ardie(k) larratu da etorri sen ori etzera da ostaien txikokuman bat.

Baie sana letxe bera fuertea ta inder-tzue ta barru onagas, da seguru te, ba, Elorribitako kurseroan:

– Ba etorten bas orti ona, neuk u sertukoutzapai, laster aterakoutzat!

Da txikoak ostaien segidu. Da kuxau palua ta yooooten dau txikoori da, nekasuen!, etorten yakos seguru beste mundukook o yo auelako edo... Norberari es iotzie eser iten yo esik, norbera(k) persegidu skero orduen persegitidaurie, fundi-

antigualeko gizona. Euria goian beean seguru eta, auntsok batetik atera eta bes-tetik sartu ba zerean, Legorpen, Legorpeko aspean, eta: «Ei!, ei!, ez dok infernuko deabrurik agertuko oneek i kaballeriok, oneek auntsok aterateko!».

Eta, badatoz kaballeriok, eta odola eskatu ei eutsien seguru, odol tantakadatxo-eren bat seguru emoten baeutsien eurek aterako eutsiezala.

Eta beste ori aik ikusirik i, bildurtuta, itxi auntsok eta buruko uleak danak be altzaduta seguru etorri ei zan etxera. Eta etxean be ezin soportadu eta ama euki euan aurrean eta:

– Aikor!, aikor! Beti zaoz orreiri diez eta orain etorri jatzuzalako kexaz zagoz?

Eta beste ori kortatik eta zeretik eta, eta ene! eta, ez dakit ba ama edo alaba edo seme joan ziran ori nire ugazabaren arrebea, a zan ba, bost seme meza emonak izan zituanak, ori eta errezantea eta zera zan a seguru, eta a libruen bategaz etorri eta ak a zertu gizon ori.

Ori Irumugarrietatik beera, ba, ardiak larratu eta etorri zan ori etxera eta ostean txikokumaren bat (zaldikumea).

Baia zana letxe bera fuertea eta indar-tsua eta barru onagaz, eta seguru eta, ba, Elorribitako kurzeroan:

– Ba etorten baaz ortik ona, neuk u zertuko eutsak bai, laster aterako eutsak!

Eta txikoak ostean segidu. Eta kogidu palua eta jooooten dau txiko ori eta, nekasuen!, etorten jakoz seguru beste mundukook o jo eualako edo... Norberari ez ei deutsie ezer egiten jo ezik, norberak persegidu ezkeror orduan persegiduten ei

du iten i dire seinde seietan moduen, txikoan be fundidu.

D'artes Pagalandati bera etorri sen seguru sarataka ta usabandrea, ori Manuel trampañ andrea, bastante beatantza san ori be bai, aista bape eukien moja ta erresante antza san a, da, agana. D'ak errosarion bat erresau te ak aplakau.

daudie, fundidu egiten ei dira zeinda saietan moduan, txikoan be fundidu.

Eta artez Pagalandatik beera etorri zan seguru zarataka eta ugazabandrea, ori Manuel trampañ andrea, bastante beata antza zan ori be bai, aista bat be eukien monja eta errezante antza zan a, eta, aregana. Eta ak errosarioren bat errezadu eta ak aplakadu.

25.9. Jentilak andrak eroan

Yentilek, ortxe, Aibelabeti doan sinta bat e, mendie, d'aren espian ibili sirian seguru artayorran andra ta gixonak.

Da yentilok andi kuebati urten da androk altzau i auriesan ara gora seguru, andrak eroan i auriesan, bai, Yentil-sulon antxe i egosan yentilek.

Jentilak, ortxe, Aibelabetik doan zinta bat e, mendia, eta aren azpian ibili ziran seguru artajorran andra eta gizonak.

Eta jentilok andik kuebatik urten eta androk altzadu ei eudiezan ara gora seguru, andrak eroan ei eudiezan, bai, Jentil-sulon antxe ei egozan jentilak.

25.10. Abemarien osteko «beste mutilok»

Ni naure usaban errentoreen anai bet isin sen. Da, ardieta yoañ da, ardiek sertu orduen Abemariatxo ta, trankilo a. Da «beste mutilok» altzetan daurie egoan lekuti, d'au gau gustie ibili auriñ andando seguru, eta ba berak es ekiena letxe eser, gero Upo-menditi biera etorren seguru otatzea bera.

Da, sereko, Upoko ollarrak «kukurruku» egin. Da orduntxe memorire etorri te Upo berako mendiesotu, da yoañ san etzera.

Nire neure ugazabaren errentorearen anaia bat izan zan. Eta, ardieta joan eta, ardiak zertu orduen Abemariak jo eta, trankilo a. Eta «beste mutilok» altzetan daudie egoan lekutik, eta au gau guztia ibili eudien andando seguru, eta ba berak ez ekiena letxe ezer, gero Upo-menditik beera etorren seguru otatzea beera.

Eta, zereko, Upoko ollarrak «kukurruku» egin. Eta orduantxe memorira etorri eta Upo beerako mendia ezagutu, eta joan zan etxera.

25.11. Lamiñak Lanpreabeko errotan

Lamiñak bajetan i sirian orra d'esne

Lamiñak bajetan ei ziran orra eta esne

saleak itzelak. Da se akordau yakien seguru ango errorotako serari: «lamiña ba(t) kuiau deidan!»

Da lamiñea kui aurien, d'es i daurie esebe iten seguru. Da gero gaubian esne saleak i dire itzelak: txurie gora!, txurie gora! D'esnea gorantza.

Da gero arri kanpaiatxo edo sertuas batera, dast! eskapau i auen seguru. Da eureri esein askero giltza sulotati be sartu iten i dire seguru.

zaleak itzelak. Eta zer akordadu jakien seguru ango errorotako zerari: «lamiña bat kogidu deidan!»

Eta lamiñea kogidu eudien, eta ez ei daudie ezer be egiten seguru. Eta gero gauean esne zaleak ei dira itzalak: txuria gora!, txuria gora! Eta esnea gorantz.

Eta gero arri-kanpaiak jo edo zertuaz batera, dast! eskapadu ei euan seguru. Eta eurei ezer egin ezkeru giltza zulotatik be sartu egiten ei dira seguru.

25.12. Jentila: Ameriketako pastore tuerto indartsua

Ameriketan edo ixin bearrauen urrean. B'egoan ba pastoren bat indertzue, tuertoa. Da bik edo ixin beaurien, posadea eskatau otzien da, yoan da bateri eldu t'anka bat ifini, ta bestea ta, rau!, sartu, da burruntzien sartu te, koño! erre in i auen, txingerrean erre erdie ta beste erdie an. Da bestea egoan alboan begire:

– Da mutil, oin ni naupe auxe jaukoat!

Da, a yaten egoala, burruntzie sartu auen su ganean da:

– Orreri bakik i ser in beayotzadan, begiti sartu!

Da sartuten dotzo burruntzia ori ta erre koño! begi gusti ori da:

– Oin aiko, oin etxok ikusten da oin nau nausi!

– Emen ao?

– Atea itxi, arrisko arri landusko atea ifini te beste orrek ardiopotateusen seguru ba andi arri landuti ganeti kanpora a kuyetako ardi artean egoan eta.

Da beste orrek se iten dau, ardi narru betegas sertu ta yoan yakon burue makurtute da, agarretan dautzo ta, rau! ta:

Ameriketan edo izan bear euan urrean. Baegoan ba pastoreren bat indartsua, tuertoa. Eta bik edo izan bear eudien, posadea eskatu eutsien eta, joan eta bati eldu eta anka bat ifini, eta bestea eta, rau!, sartu, eta burruntzian sartu eta, koño! erre egin ei euan, txingerrean erre erdia eta beste erdia an. Eta bestea egoan alboan begira:

– Eta mutil, orain nik neuk be auxe jaukoat!

Eta, a jaten egoala, burruntzia sartu euan su ganean eta:

– Orri badakik i zer egin bear jautsadan, begitik sartu!

Eta sartuten deutso burruntzia ori eta erre koño! begi guzti ori eta:

– Orain aiko, orain ez jok ikusten eta orain neu nagusi!

– Emen ago?

– Atea itxi, arrizko arri landuzko atea ifini eta beste orrek ardiok botaten euazan seguru ba andik arri landutik ganetik kanpora a kogiduteko ardi artean egoan eta.

Eta beste orrek zer egiten dau, ardi narru bategaz zertu eta joan jakon burua

– Bota nok! Oin dana nautzako.

makurtuta eta, agarretan deutso eta, rau! eta:

– Bota nok! Orain dana neutzako.

25.13. Arrabako landea Zeberiorena

Arrabako landea lenago (Zeberio) Santomasena san. D'ori San Tomaseri kendutzien.

Ba lenao yoate san ba Zeberio abadea sertuten, bendesitan serok, San Tomasen elie edo esatotzien esta, elie, da eskolumekas abadea yoate san, da, abade ta maistra ta umeakas da bendesitauen. Da gero ba etorte sian atzera arrastien an baskaldute ta bendesidu te etorte sian seguru etzera.

Da segidu itaurien. D'ori ixin sen San Tomasen eliek igutauen bei bandeak eta sekorrak. Da sekorrak or deskantzue itauen, ur bereinkitue artzeauen serean, adaten auen seguru emen Elexondon (Zeberio) parrokiaren). Or Elexondon ur bereinkitue edaten auena letxe, arrastien freskuran emototzien martxea Arrabara.

D'Arraba sarratutegoan, dana sarratutesta. Da gero ba abade sarren bat parroko serti ta parrokooperak sarra dala ta ba itxi, da gero ba andik itxi in da itxi in, alantxik i dao ori.

Da gero Seanistarrak emotzien deman-dea. Ibili sirean lusero demandan, d'ixin aurien demandori ibitau, da bueno:

– Emen bakisue se in beosuen? Sekor bana ifini d'aixek sekorrak asi, ta eguskien barruen ibitue irabasten dauana, arexena ixiteko.

Da Seanistarrak ifini aurien sekorra ta ona, paparra ondute ta emen Seberiokoa emonago ta makalago, borro-borro peste bat seguru.

Arrabako landea leenago (Zeberio) Santo Tomasena zan. Eta ori Santo Tomasi kendu eutsien.

Ba leenago joaten zan ba Zeberio abadea zertuten, bendezitan zerok, Santo Tomasen elia edo esaten eutsien ezta, elia, eta eskolumekaz abadea joaten zan, eta, abade eta maistra eta umeekaz eta bendezitan euan. Eta gero ba etorten ziran atzera arrastian an bazkalduta eta bendezidu eta etorten ziran seguru etxera.

Eta segidu egiten eudien. Eta ori izan zan San Tomasen eliak igoten euan bei bandeak eta zekorrak. Eta zekorrak or deskantsua egiten euan, ur bedeinkatua artzean euan zerean, edaten euan seguru emen Elexondon (Zeberio) parrokiaren). Or Elexondon ur bedeinkatua edaten eua-na letxe, arrastian freskuran emoten eutsien martxea Arrabara.

Eta Arraba zarratuta egoan, dana zarratuta ezta. Eta gero ba abade zaarren bat parroko zertu eta parrokoak berak zaarra dala eta ba itxi, eta gero ba andik itxi egin eta itxi egin, alantxik ei dago ori.

Eta gero Zeaniztarrak emon eutsien deman-dea. Ibili ziran luzaro demandan, eta ezin eudien demanda ori ebitadu, eta bueno:

– Emen badakizue zer egin bear do-zuen? Zekor bana ifini eta arexek zekorrak azi, eta eguzkiaren barruan ibitue (sic) irabazten dauana, arexena izateko.

Eta Zeaniztarrak ifini eudien zekorra eta ona, paparra onduta eta emen Zebe-

Da bueno, soltau ba Arrabako landean erdien!

Da soltau, d'asi sirean burruke ta burruke da yo aurien Arrabako atea, da ixin bear auen ibitau e iguskien barruen.

D'iguskie atxen puntatik estalduten egoala, sekor nausi ori olango buelta baten e, apatxa(k) faltau atzeta ta atxa bera, da oño! Seberioakoak irebasi.

Da gero estait ori selan arreglau sen.

riokoa emonago eta makalago, borro-borro peste bat seguru.

Eta bueno, soltadu ba Arrabako landean erdien!

Eta soltadu, eta asi ziran burruka eta burruka eta jo eudien Arrabako atea, eta izan bear euan ibitau e (sic) eguzkiaren barruan.

Eta eguzkia aitzaren puntatik estalduten egoala, zekor nagusi ori olango buelta baten e, apatxak faltadu atzetik eta aitzak beera, eta koño! Zeberioakoak irabazi.

Eta gero ez dakit ori zelan arregladu zan.

25.14. Kastrejanako zubia

Krida bateri pasau yakon seguru. Krida orrek e ba seguru ba erromerien yoan gure, da gero iturrukure ekarteko ba, da iturrukure ekarten yoan saneko berandu in yakon da ekarri in bear san da, yoan da, buelta andi bet ei egoan iturrire yoateko, eta esan i auen:

– Es ete dire agartuko orrik i frakagorri betzuk sikan emen subi bet eiteko!

Da onan kaballero bat, sombreruagas da bastoiagas da agartu yakon:

– Ser gura ba?

– Subie!

– Laster plantauyko yatzu subie odol tantakada bat emoten bosu!

Besteorrek: «baietz».

Astèn dire serok o ba frakagorriok arria ekarri eta arria landu, montetan da serean d'astèn dire seguru, da beste orrek se iotzien e, alan asi sian orduen, yoan san seguru abaden bategana konsultetan da:

– Ene!, ba nauk esin naisu gausori serti baie ba urlie komentoko fraile bate-

Krida bati pasadu jakon seguru. Krida orrek e ba seguru ba erromerian joan gura, eta gero iturrikoura ekarteko ba, eta iturrikoura ekarten joan zanerako berandu egin jakon eta ekarri egin bear zan eta, joan eta, buelta andi bat ei egoan iturrira joateko, eta esan ei euan:

– Ez ete dira agertuko orreek i frakagorri batzuk sikieran emen zubi bat egiteko!

Eta onan kaballero bat, sombreruagaz eta bastoiagaz eta agertu jakon:

– Zer gura dona ba?

– Zubia!

– Laster plantaduko jatzu zubia odol tantakada bat emoten badozu!

Beste orrek: «baietz».

Asten dira zerok o ba frakagorriok arria ekarri eta arria landu, montetan eta zerean eta asten dira seguru, eta beste orrek zer egin eutsien e, alan asi ziran orduan, joan zan seguru abaderen bategana konsultetan eta:

– Ene!, ba neuk ezin neizu gauza ori zertu baie ba urlia komentoko fraile bate-

gana soas eta ia sertuten dautzun. Da, arin in beada, arin, se subie aurera ei doa, se koxoan batepe estaipa seinbet arroako arri landue ekarri seguru, da esan iotzen seguru: «Martien ollarragas ibiliko olloa, da arrautzea da martien ineko txiteak a kukurruku in beadau ba orrik erretiretako seguru».

Gero bebisen seguru, ta fraile ori be etorri te, bedeinkatu te... ta atan egoala, dza-dza-dza! «kukurrukuuuu!» ollarrak. Orduen besteok,zzziiist! dana(k)t(d)esapa-residu sirian d'arri beten faltan ei egoan seguru orixe, Kastrejanako subi ori.

25.15. Musker-bildurra

Bildurre? Askarrie! Beroakas en partikular arbola mokor ganetan ikusten gaindusen da badespada makina bat «aitearen» in ixingu orrikandi bakes urtetako.

Baten e olan e sera elexastikue etzan andran batek e bariku santu egunes elextara yoateari itxi in i otzen seguru te paskoa labesue iteko ota igerrak eske yoan basora.

Bero itauen seguru te elexako kanpao-tza be ondo entzuten i auen baie atagusti be aurrera in i auen.

Da or o kortabasoko aurberako ikez botorra allegau sanean, oño! estotzie musker endemonintru bik i sailtu iten, batak a samara ta besteak belaun burure!

Andorrek e bertan bera bota i ausen ota igerrok eta asi sen muskerrok uxatuten baye ekinago ta txarrago seguru. Belaun burukoak a geroago ta barrurago

gana zoaz eta ia zertuten deutsun. Eta, arin egin bear da, arin, ze zubia aurrera ei doa, ze koxoren batek be ez dakit ba zeinbat arroako arri landua ekarri seguru, eta esan ei eutsan seguru: «Martian ollarragaz ibiliko olloa, eta arrautzea eta martian egineko txiteak a kukurruku egin bear dau ba orreek erretiretako seguru».

Gero baebilzan seguru, eta fraile ori be etorri eta, bedeinkatu eta... eta atan egoala, dza-dza-dza! «kukurrukuuuu!» ollarrak. Orduan besteok, zzziiist! danak desaparezidu ziran eta arri baten faltan ei egoan seguru orixe, Kastrejanako zubi ori.

Bildurra? Azkarria! Beroekaz en partikular arbola mokor ganetan ikusten genduzan eta badaezpada makina bat «aitearen» egin izangu orreekandik bakez urtetako.

Baten e olan e zera eleizastikua ez zan andraren batek e bariku santu egunez eleizara joateari itxi egin ei eutsan seguru eta paskoa labesua egiteko ota igerrak eske joan basora.

Bero egiten euan seguru eta eleizako kanpaiotsa be ondo entzuten ei euan baia ataguzti be aurrera egin ei euan.

Eta or o kortabasoko aurberako ikatz botorra allegadu zanean, koño! ez deustie musker endemonintru bik i saltu egiten, batak a samara eta besteak belaun burura!

Andra orrek e bertan bera bota ei euazan ota igerrok eta asi zan muskerrok uxatuten baia ekinago eta txarrago segu-

sartzea i otzesan ortzok eta besteak a samatik i barrure es otzen in ba?

A egoan egotekoa! Da etzan ninismeneko ba baye entzuteak aukesan paskoaskoagas bete in bea dala ta elexara bidea artu i auen fraide autor entzuleari muskerrok erakusteko.

Yoan san da ba, fraide orrepadiñotzo:

– Se Jangoiko! feturea langoa dakastezu alabatxue, sepasetan yatzun baño esta orrik alauriopotateko, baye-baye, nondi(k) sabis gaurko egunes?

– Ba, jaune, onantxi te onantxi yoan nas da etxatas ba geñetu onik i musker madarikitu biok!

– Alabatxue, damutute basaos erre-saixu «neure Jesukristo gure jaune» baye orregas estosu naiko ixingo, orri(k) muskerrok o uxatuteko soas da saspi erriteko kanpayatxoteko agindisu.

Yo situesan ba kanpayok eta orduxean itxi i otzien muskerropakean. D'urrungo egunean yoan i sen otatan da basorikarako otokas bistu labea ta iños baño ogi, pamitxa, tremes, arto, opil da mokotz edo morrokota geao erre i auen seguru.

25.16. Muskerra eta subea

Muskerra ta subea beti ebisen auren trebituokas da esirian bape ondo konpontan baye bietatipat ikusi esketiño bestea be etzegoan askos urrinago.

Subea betiixin de txarra ta mantzine baye muskerra seguru es i de txarra ta iños entzunde daukot personari te lagundu be itotziela.

Baten e semendingurue ixin sen da

ru. Belaun burukoak a geroago eta barrurago sartzen ei eutsazan ortzok eta besteak a samatik i barrura ez eutsan egin ba?

A egoan egotekoa! eta ez zan ninesmeneko ba baye entzuteak eukazan paskoaskoagaz bete egin bear dala eta eleizara bidea artu ei euan fraile autor entzuleari muskerrok erakusteko.

Joan zan eta ba, fraile orrek badiñotso:

– Zer Jaungoiko! feturea langoa dakastezu alabatxua, zer pasetan jatzun baiño ez da orreek alauriok botateko, baia - baia, nondik zabilz gaurko egunez?

– Ba, jauna, onantxe eta onantxe joan naz eta ez jataz ba gañetu oneek i musker madarikatu biok!

– Alabatxua, damututa bazagoz erreza-du egizu «neure Jesukristo gure jauna» baia orregaz ez dozu naiko izango, orreek muskerrok o uxatuteko zoaz eta zazpi erritako kanpaiak joteko agindu egizu.

Jo zituezan ba kanpaiok eta orduxean itxi ei eutsien muskerrok bakean. Eta urrengo egunean joan ei zan otatan eta basorikarako otokas biztu labea eta iñoiz baiño ogi, pamitxa, tremes, arto, opil eta mokotz edo morrokota geiago erre ei euan seguru.

Muskerra eta subea beti ebilzan euren trebituokaz eta ez ziran bat be ondo konpontan baia bietatik bat ikusi ezketiño bestea be ez egoan askoz urrunago.

Subea beti izan da txarra eta mantzina baia muskerra seguru ez ei da txarra eta iñoiz entzunda daukat personei eta lagundu be egiten deusiela.

Baten e zemendi ingurua izan zan eta

idebaten eregoion jenteak eta olango baten batek e sista apurren ba(t)p(b)ota gure ta ida ganean artu auen loak.

Lo arrantzaka daoela arpegiti te kirimillak itotzesan seosek eta musker mardokote batek es auen ba eragi gixon ori!

Gixon orek e lelengotan es auen es burlesar artu, bene benetan baño ta txori gorriek al estala be maldasiñoka es ta asten ba!

Muskerra gorde in yakon an estarien da topetan dabilela estau ikusten ba endemoniñosko sube bat agoa sabalik eta espie aterata!

Ulleape artestu in yakosan da garrikoan eskegite auken igitie artu te sassst! buruebagi otzen sube orreri da berekitan esan i auen: «oño!», orregaiti musker orregaitik isin espalitzok o gorrie(k) pasauko ñoasen, ori musker ori onook eta bake bakean itxite be kontuetxaukoasat!

Beste baten be subea ta muskerra bie-purrekan ebisen seguru te subeak a geao itotzen seguru baye muskerra kardulas berde baten ostantan yakon da subeak ikusi esin.

Baye egunen baten e konejuentzat a karduten yoan propietarioan bat eta estau ebaten ba muskerra egoan kardue be!

Muskerrak orduen sailtu askarrien bat in i auen da subeak e atzerikara segidu, aurberan okerratire ixin be orri(k) subeok eta, da ba ori ukusirik i etxagun orrek e yaurtin in iotzen igitie, aldan gustien, da oño! yo auen bai sube ori te bertan tragau, bai, antxe garbitu i auen seguru sube mantzin ori.

idebaten eragoion jenteak eta olango baten batek e siesta apurren bat bota gura eta ida ganean artu euan loak.

Lo arrantzaka dagoala aurpegitik eta kirimillak egiten eutsazan zeozek eta musker mardokote batek ez euan ba eragi gizon ori!

Gizon orrek e leenengotan ez euan ez burlesar artu, bene benetan baiño eta txori gorriak aal ez dala be maldaziñoka ez da asten ba!

Muskerra gorde egin jakon an estarian eta topetan dabilela ez dau ikusten ba endemoniñozko sube bat agoa zabalik eta ezpia aterata!

Uleak be arteztu egin jakozan eta garrikoan eskegita eukan igitaia artu ta sassst! burua ebagi eutsan sube orri eta berekitan esan ei euan: «koño!», orregaitik musker orregaitik izan ez balitzok o gorriak pasaduko nioazan, ori musker ori ona dok eta bake bakean itxita be kontuak jaukoazat!

Beste baten be subea eta muskerra biak burrukan ebilzan seguru eta subeak a geiago egiten eutsan seguru baia muskerra kardulatz berde baten ostentan jakon eta subeak ikusi ezin.

Baia egunen baten e konejuentzat a kardutan joan propietarioren bat eta ez dau ebagiten ba muskerra egoan kardua be!

Muskerrak orduan saltu azkarriren bat egin ei euan eta subeak e atzerikara segidu, aurberan okerrak dira izan be orreek subeok eta, eta ba ori ikusirik i etxagun orrek e yaurtin egin ei eutsan igitaia, aal dan guztian, eta koño! jo euan bai sube ori eta bertan tragadu, bai, antxe garbitu ei euan seguru sube mantzin ori.

25.17. Josafaten landea

Beste munduti iñor esta etorri baye nik entzutiataukedas ba Josafaten landatik i pasau bea dala d'an betatu bear i dire emeko munduko mantzinkeriek.

Nik entzutia dauket e seinde ba saurea estan soloko mimen bat ostuten bosu be an Josafaten landan mimenagaz beragas emoten i dotzues askatu arteñoiko lepokoak.

Ba, oño!, je-je-je! nipe orduen badaukedas artzeakoak an, se baten or o auso-koan beresien elexar beres erne garrasta lerden bat ostu nauen burkamea iteko ta!

Su, je-je-je! balitike orrik i egiek ixitea gero! Badespada arorduko konfesetea esta isingo obe?

Beste mundutik iñor ez da etorri baia nik entzuteak daukadaz ba Josafaten landatik i pasadu bear dala eta an betatu bear ei dira emeko munduko mantzinkeriak.

Nik entzutea daukat e zeinda ba zeurea ez dan soloko mimen bat ostuten badozu be an Josafaten landan mimenagaz bergaz emoten ei deutsuez askatu arterañoiko lepokoak.

Ba, koño!, je-je-je! nik be orduan badaukadaz artzeakoak an, ze baten or o auzokoaren beresian leizar berez erne garrazta lerden bat ostu neuan burkamea egiteko eta!

Zu, je-je-je! baliteke orreek i egiak izatea gero! Badaezpada arorduko konfesa-tea ez da izango obe?

25.18. Arimak penitentzia betatuten Zeberioan

Gaubiluntzetan seguru koadrilla ikergarrie, elie ibiltan i sen elexa ta ermitarik ermita auren munduko okerrak artestu arteño.

Baten e aberatzen baten arimea i ebilen sokorru beten Seberioaneko elesportalean da ba an baten batek entzun i auen da yoan be bai te badespada «aitearen» bat in de badiñotzo:

– Nor saren beist, se ofresitan jatzu?

– Ba urlie ñatzu te onantxi te onantxi urli lekuteko etzeko orma suluan onenbeste amasaiko gorri itxi nintusen gordeta da senitarteko iñori esan barik il, d'iñori esan barik il eskero esin de bat sartu seruen, orixe mesedes esango baseuskio gurekoen bateri?

– Ori baño espada ingo jatzu.

Gaubiluntzetan seguru koadrilla ikergarria, elia ibiltan ei zan eleiza eta ermitarik ermita euren munduko okerrak arteztu arteño.

Baten e aberatsen baten arimea ei ebilen sokorru baten Zeberioaneko elezportalean eta ba an baten batek entzun ei euan eta joan be bai eta badaezpada «aitearen» bat egin eta badiñotso:

– Nor zaran beist, zer ofrezitan jatzu?

– Ba urlia niatzu eta onantxe eta onantxe urli lekutako etzeko orma zuloan onenbeste amaseiko gorri itxi nituzan gordeta eta senitarteko iñori esan barik il, eta iñori esan barik il ezker ezin da bat sartu zeruan, orixe mesedez esango bazeuskio gurekoren bati?

– Ori baiño ez bada egingo jatzu.

Da gizon orrek emon i auen parte ta familiek artu i auen diruon gosamena ta sati bet e amarrenak eta limosnatan emon be bai. Andik (g)leao es i sen ikusi arimori, seruek artuko auen!

Eta gizon orrek emon ei euan parte eta familiak artu ei euan diruon gozamena eta zati bat e amarrenak eta limosnatan emon be bai. Andik geiago ez ei zan ikusi arima ori, zeruak artuko euan!

25.19. Urregorria San Justoko landapean

Sarri auki ot o kebrantatxur bet artu te San Justoko landea udelanduteko tentasiñoa.

Entzuteataos ba or o ermitondoko landan idi narru bete urregorri daoela estai(t) nosik ona.

Esan dotzudena letxe, ondo tenol andi ta denodu gustiegas ekingo nauskio bearleku orreri baye notxakin non da seinbeteke sakonarien daoen. Da ganera ori landori ermiteana da ta elitike ondo ongo arakatuten ibiltea, Undurrako ausunakoak eta beste Seberiostrape elauskie ondo eretxiko orreri kontu orreri, ori goiti beti aberatzapardin ixingo gara, je-je-je, ta ganera Josafaten landan igoal e kontuek argitu beako naunkes, es, es, daosela bertanbera urregorriok!

Sarri euki dot o kebrantatxur bat artu eta San Justoko landea udelanduteko tentaziñoa.

Entzuteak dagoz ba or o ermita ondoko landan idi narru bete urregorri dagoala ez dakit nozik ona.

Esan deutzudana letxe, ondo tenol andi eta denodu guztiagaz ekingo neuskio bearleku orri baia nok jakin non eta zeinbeteke sakonarian dagoan. Eta ganera ori landa ori ermitearena da eta ez leiteke ondo egongo arakatuten ibiltea, Undurrakako auzunakoak eta beste Zeberioztrarak be ez leuskioe ondo eretxiko orri kontu orri, ori goitik beetik aberatsak bardin izango gara, je-je-je, eta ganera Josafaten landan igual e kontuak argitu barko neunkez, ez, ez, dagozala bertanbera urregorriok!

25.20. Urregorria Oiz mendian

Ni nauk estaki(t) nori be entzunde daukotzedan au kontu au baye esaten daurie or o Oiz mendien goxean lelengo eguskiexoten dauen lekuen urre gorrie agartuten dala, bai, iguskiek e lelengo yoten dauen lekuen seguru.

Ni nau enas on iños orko mendi orretan baye esaten badaurie seoser ixingo da, esteretxasu?

Ni neuk ez dakit nori be entzunda daukotsadan au kontu au baia esaten daudie or o Oiz mendian goizean leenengo eguzkiak joten dauan lekuan urregorria agertuten dala, bai, eguzkiak e leenengo joten dauan lekuan seguru.

Ni neu ez naz egon iñoiz orko mendi orretan baia esaten badaurie zeozter izango da, ez deritzazu?

25.21. Urregorria etxe-oinarripetan, kuebetan...

Urregorrien kontuek asko daos. Sutxakin be igoal ingosu, serean or o etze bat iten danean da lelengo arrie imini, usedioa ote san aspian isentasiño bat iminteko. Batzuetan surteko iketza iminte san, besto batzuetan tella kasku bepebai da modukoa isineskero dirue, batzuk u urre gorrie, amaseiko gorri bet edo aun erleko gorrie, beste batzuk u urre surie be bai.

Or Ermitabarriko eskolea in sanean be nok estakipaye simintupean ogorlekoan bat i dao.

Da, etze barrien bat iteko arriten yoaten gintzesanean etze-errean batera da simintu arriek arakatu, iños agartu yakus olangoak, karean be topau gaindun bat, amasaiko gorri bet. Su saupe esaindun topau ba aun erleko gorri bet e an Sabaleko etzostaien?

- Bai, egie da, da Sábalek esan be in osten: «posik oteko ao, ainbet eguneko soldatea irebasi ok». (Hitzok neureak dira eta Pedro Sábalek urregorrizkoa zala jakiteko ehun erleko gorria eskatu eta aginekin marka bat egitea lortu ebanean esan eustan: «urregorrizkoa dok, etxaotudarik»).

Gero ba sera, gaur u ermitetara ta dirue botaten da limosna iteko baye lenago be, nik i ori sarrari te entzunde, kuebatara be boten i sen dirue setako atako, Anbotoko Señorea edo orrintzat isingo san igoal, orixe estakitut, orrik i kontuepe igoal baye notxakin!

Urregorriaren kontuak asko dagoz. Zuk jakin be igual egingo dozu, zerean or o etxe bat egiten danean eta leenengo arria imini, usadioa egoten zan azpian izentaziño bat iminteko. Batzuetan surteko iketza iminten zan, beste batzuetan tella kasku bat be bai eta modukoa izan ezkeroko dirua, batzuk u urregorria, amaseiko gorri bat edo eun erleko gorria, beste batzuk u urre zurie be bai.

Or Ermitabarriko eskolea egin zanean be nok ez dakit baia zimentupean ogerlekoren bat ei dago.

Eta, etxe barriren bat egiteko arritan joaten gintzazanean etxe-erreren batera eta zimentu arriak arakatu, iñoiz agertu jakuz olangoak, Kareagan be topadu gendun bat, amaseiko gorri bat. Zuk zeuk be ez zendun topadu ba eun erleko gorri bat e an Zabaleko etxe ostean?

- Bai, egia da, eta Zábalek esan be egin eustan: «pozik egoteko ago, ainbat eguneko soldatea irabazi dok». (Hitzok neureak dira eta Pedro Sábalek urregorrizkoa zala jakiteko ehun erleko gorria eskatu eta aginekin marka bat egitea lortu ebanean esan eustan: «urregorrizkoa dok, ez jagok dudarik»).

Gero ba zera, gaur u ermitetara eta dirua botaten da limosna egiteko baia leenago be, nik i ori zaarrei eta entzunda, kuebatara be botaten ei zan dirua zetako atako, Anbotoko Señorea edo orreintzat izango zan igual, orixe ez dakitsut, orreek i kontuak be igual baia nok jakin!

25.22. Norbere kurtzearekin deskontentuz

Au kontu au urlri lekuteko fraidean bate-

Au kontu au urlri lekutako frailerren bati

ri entzune i de seguru. Estakit ondo esango bot espot, onik elixastikuok asko dakie ta.

Ba baten seguru or i ebilen baten bat e bere bisitzako kurtzea astunegie dala ta kanbiau gurean.

Yoan i sen seguru serure da an a San Pedrori edo estakipa nori esan i otzen seguru:

– Ni nauk esinai geao da kurtze au kanbiauko baseustike?

– Ba, aitu, emen senbakure d'arexen beste daukasus eta artu gurosune!

Yoan i sen kurtzerikurtze ta batak au bauken bestak ori, esauen gustukorik aurkituten.

Da asken antzean an ate inguruan tentetan dau bat eta: auxe! auxe yatorra ondo, eroso, t'auxe!

Da badiñotzo San Pedro edo dana dalako orrek:

– Ba, ori untxe puntuen sauk itxi osune da!

D'atzera etorri i sen lengo bere kurtzeagas.

entzuna ei da seguru. Ez dakit ondo esango badot ez badot, oneek eleizastikuok asko dakie eta.

Ba baten seguru or ei ebilen baten bat e bere bizitzako kurtzea astunegia dala eta kanbiadu gurean.

Joan ei zan seguru zerura eta an a San Pedrori edo ez dakit ba nori esan ei eutsan seguru:

– Nik neuk ezin nei geiago eta kurtze au kanbiaduko bazeustike?

– Ba, aditu, emen zenbat gura eta arexen beste daukazuz eta artu gura dozuna!

Joan ei zan kurtzerik kurtze eta batak au baeukan besteak ori, ez euan gustukorik aurkituten.

Eta azken antzean an ate inguruan tentetan dau bat eta: auxe! auxe jatort ondo, eroso, eta auxe!

Eta badiñotso San Pedro edo dana dalako orrek:

– Ba, ori oraintxe puntuan zeuk itxi dozuna da!

Eta atzera etorri ei zan lengo bere kurtzeagaz.

25.23. Kamiñeru emendatu ezina

Onen antzekoa besto bape badakit. Estakit i nori entzunde baya baten seguru beragoion emendatu esineko kamiñeru leposurien batek e arri apurtan kamiñoa sabaltako. Si-porrea ona auken baye atxa gogor plantetan yakon, d'iguskie bero, kanikulea. Da ba alangon baten badiño:

– Seinbepaño gurago ñeunkek untxe iguskie isitea!

Da ba, berapestakiela iguski in i sen seguru. Da posipaño posago ebilen. Baye andi lasterrera odai laño batzuk u plantau

Onen antzekoa beste bat be badakit. Ez dakit i nori entzunda baia baten seguru baeragoion emendatu ezineko kamiñeru lepozuriren batek e arri apurtan kamiñoa zabaltako. Ziri-porrea ona eukan baia aitzaz gogor plantetan jakon, eta eguzkia bero, kanikulea. Eta ba alangoren baten badiño:

– Zeinbat baiño gurago ñeunkek oraintxe eguzkia izatea!

Eta ba, berak be ez dakiala eguzki egin ei zan seguru. Eta pozik baiño pozago

yakosan aspian da eser ikusi esin, da oño! badiño berekitan:

– Nor ixin laitikoan untxe odei lañoa!

Da, laño in i sen, da posik. Baye gero aterauen axeta bat, axe indertzue da lañook nondi gure tándixik eroatausen seguru, da badiño oingoan e:

– Ser? da ba axea ixin gure ñaunkek!

Da ba axe biortu sen, baye lañook astindu ausenean mendiek itotzen aurre, t'esin mogidu ta:

– Mendie banintikok obe! -esan i auen.

Da ba mendie, atxesko mendie bolbidu i sen. Da, atara, posipaño posago egoala, beas puntatan kaskasuek barruntetan i ausen da gero baño be min geao emototzien seguru. D'aituten dau beatzetara, d'ara or koño non ukusten dauen kamiñeru merro bat si-porreagas atxa apurtan kamiñoa sabaltako! D'atara badiño:

– Sainbe(t)k(g)justauko llatak a barrien barris kamiñeru ixitea!

Da ba kamiñeru biortu sen barriro. Onik i kontuek ixingo dire baye konformidadea gausandie da gero!

ebilen. Baia andik lasterrera odei laño batzuk u plantadu jakozan azpian eta ezer ikusi ezin, eta koño! badiño berekitan:

– Nor izan leitikoan oraintxe odei lañoa!

Eta, laño egin ei zen, eta pozik. Baia gero atera euan aizeta bat, aize indartsua eta lañook nondik gura eta andixek eroaten euazan seguru, eta badiño oraingoan e:

– Zer? Eta ba aizea izan gura ñeunkek!

Eta ba aize biortu zan, baia lañook astindu euazanean mendiak egiten eutsan aurre, eta ezin mobidu eta:

– Mendia baneintikok obe! -esan ei euan.

Eta ba mendia, aitezko mendia bolbidu ei zan. Eta, atara, pozik baiño pozago egoala, beatz puntetan kaskazuak barruntetan ei euazan eta gero baiño be min geiago emoten eutsien seguru. Eta adituten dau beatzetara, eta ara or koño non ikusten dauan kamiñeru merro bat ziri-porreagaz aitza apurtan kamiñoa zabalta-ko! Eta atara badiño:

– Zeinbat gustaduko liatak a barrien barriz kamiñeru izatea!

Eta ba kamiñeru biortu zan barriro. Oneek i kontuak izango dira baia konformidadea gauza andia da gero!

25.24. Gaubean eleizportikuari hiru buelta emon ezetz

Gupeti aukiu entzutia gaubean elesportikuari iru buelta emon eskero ortu santuen argiek ikusten diriala.

Da ba ote sian fanfarroiak a posture ori in gurean baye buelta bi emon d'irugarrena emon akabau orduko ulleape artesute atzera itauden.

Guk beti euki dogu entzutea gaubean eleizportikuari iru buelta emon ezkeru ortu santuan argiak ikusten dirala.

Eta ba egoten ziran fanfarroiak a postura ori egin guran baia buelta bi emon eta irugarrena emon akabadu orduko uleak be arteztuta atzera egiten euden.

Ortu santuegas kontus! Ortu santuek e errespeto andie emoten dau, gaubean esese egun argis be bai.

Oin i ba i dakie orrik argiok o ser direan baye lenago eskolaripe esekien da ba dana san bildurre, gaubetan en partikular.

Gaur u yakiteti aparte, elexingurue argi ederrakas dao ta ganera oingo gasteak a estaukie olango kopletarako astirik, oin kotxeok artute or dabis mundurik aramayo egunek eta gaubetaukosan ordu gustietan, d'elesportikuek estitu es aspian arrapauko domeketan be.

25.25. Jentilak eleizea aldatu gauez

Au elexeana suron aitepe badaki. Or o parrokie iten ibili sianean seguru, au entzune da e, ni nauk ikusi estotin, ba egunes iten audiesan orma satiek urrungo egunerako beste lekuen batera eroanda ote i sirean seguru.

Yentilek ixiten i sirean da gausonik isin audienes in ba gauben baten andran batek sorotz in i otzien kortako leiotik eta errikoari kontau. Baye, desgrasie gizona, sorotz in auen ori, etzan agartu ba begi bekaldute urrungo goxean! Yentilok isingo sirian, nok ingotzen ba ostantxean?

Au kontu au Seberion esese Seanin be pasau sala entzunde dauket, an be orrik isingo sirian.

25.26. San Juanetako kontuak

San Juanetan?, Jesus, Maria ta Jose!,

Ortu santuagaz kontuz! Ortu santuak e errespeto andia emoten dau, gauean ezeze egun argiz be bai.

Orain i ba ei dakie orreek argiok o zer diran baia leenago eskolarik be ez ekien eta ba dana zan bildurra, gauetan en partikular.

Gaur u jakitetik aparte, eleizingurua argi ederrakaz dago eta ganera oraingo gazteak a ez daukie olango kopletarako astirik, orain kotxeok artuta or dabilz mundurik aramaio egunak eta gauak daukazan ordu guztietan, eta elezportikuak ez ditu ez azpian arrapaduko domeketan be.

Au eleizearena zuon aitak be badaki. Or o parrokia egiten ibili ziranean seguru, au entzuna da e, nik neuk ikusi ez dot egin, baia egunez egiten eudiezan orma zatiak urrungo egunerako beste lekuren batera eroanda egoten ei ziran seguru.

Jentilak izaten ei ziran eta gauza onik ezin eudienez egin ba gauren baten andraren batek sorotz egin ei eutsien kortako leiotik eta errikoari kontadu. Baia, desgrazia gizona, sorotz egin euan ori, ez zan agertu ba begi bat galduta urrungo goizean! Jentilok izango ziran, nok egingo eutsan ba osterantzean?

Au kontu au Zeberion ezeze Zeanurin be pasadu zala entzunda daukat, an be orreek izango ziran.

San Juanetan?, Jesus, Maria eta Jose!,

iñon dirian kontuek iten gendusen egun sentie edo arrikanpayak entzuten gaindu-senetik eta aurrera, ollarrape ortxe tertzio orretan yotauen.

Ba, sera, gure bosu, goxerik i se iten gendun esaten asiko ñatzu, ni nauk ite(n) noana e, se beste batzuk u keto antzape basirian da esaudien ainbeste atzeraurrera eiten.

Ni nau, San Juan egunean, goxean goxeti yagi te goxeko iñontzean ortosik i yoaten nintzen solori(k) solo era gustietako bedarrapatzean eta arbola-klase gustien erramatxu bepebai da bakotxari artues artues pater noster bat erresau.

Setako iten nituen, sertu, batu t'eresau? Ba, sera, asteko, ori ortosik ibiltea seragaiti isiten san, urtean sear osasun ona aukiteko, ankapusti eskero es ide katarrorik eta aukiten, je-je-je! igoal egie be ixingo yatzu ori e? d'ori bakarrik es, entzutia dauket goxeko iñontzean, San Juan goxeko iñontzean bilusik i kikiribuel-ta batzuk emon esketiño bedar artean, es ide gaxorik eta aukiten urte gustien! je-je-je! ni nauk estot in ori iños, bai, ortosik ibiltea bai.

Da ori erreseteara ba beitu, bedar batzuk u osasunerako ixiten dire, batzuk parsonan gaxorako da besto batzuk u animilien gaxorako, da besto batzuk u esate baterako amen daukosus ementxe etze ostaien sube-bedarrak, onegas da pater noster bategas estotzu subiak ausikirik iten. Ni baten or Kerixetako muna bastarrean nengoan igitiegas albisbedarra ebaiten da ikusi be estot ondo iten, d'alangonbaten eskuen bedar artean seoser mogitan, da aituten dotzet ogeto ta subea, d'esosten ausikirik in, da yaurtin in nendun.

iñon diran kontuak egiten genduzan egun sentia edo arrikanpaiak entzuten genduzanetik eta aurrera, ollarrak be ortxe tertzio orretan joten euan.

Ba, zera, gura badozu, goizerik i zer egiten gendun esaten asiko niatzu, nik neuk egiten neuana e, ze beste batzuk u keto antzak be baziran eta ez eudien ainbeste atzeraurrera egiten.

Ni neu, San Juan egunean, goizean goizetik jagi eta goizeko iñontzean ortozik i joaten nintzan solorik solo era guztietako bedarrak batzean eta arbola-klase guztien erramatxu bat bebai eta bakotxari artuaz artuaz pater noster bat errezadu.

Zertarako egiten nituen, zertu, batu eta errezadu? Ba, zera, asteko, ori ortozik ibiltea zeragaitik izaten zan, urtean zear osasun ona eukiteko, anak busti ezkerok ez ei da katarrorik eta eukiten, je-je-je! igual egia be izango jatzu ori e? Eta ori bakarrik ez, entzutea daukat goizeko iñontzean, San Juan goizeko iñontzean biluzik i kikiribuel-ta batzuk emon ezketiño bedar artean, ez ei da gaixorik eta eukiten urte guztian! je-je-je! nik neuk ez dot egin ori iñoiz, baia, ortozik ibiltea bai.

Eta ori errezatearena ba begiratu, bedar batzuk u osasunerako izaten dira, batzuk personen gaixorako eta beste batzuk u animilien gaixorako, eta beste batzuk u esate baterako amen daukazuz ementxe etxe ostean sube-bedarrak, onegaz eta pater noster bategaz ez deutsu subeak ausikirik egiten. Ni baten or Kerixetako muna bazterrean nengoan igitaiagaz albizbedarra ebagiten eta ikusi be ez dot ondo egiten, eta alangoren baten eskuan bedar artean zeozer mobitan, eta adituten deusat obeto eta subea, eta ez eustan ausikirik egin, eta jaurtin egin nendun.

Da ba esan dotzuten letxe, ba bedarrokas ganaduen gaxoak (g)obernetan gendusen, da bedarrok erabili ba estakipa, lasiertuna edo errapea gogortuten yakienarako, apatxartekoa osatuteko, enpatxureko, txala galduordureko, esne-sabaldureko, gastelusearrerako, au gaxo au de, ba ganaduen samea t'inguruek narru bisien edo ule barik i lotutea, d'orretarako, sulderratakiesenerako, edo ago-bixerrakas daosenerako, d'olango kontuetarako. Gaur u indisiñoak eta daos baye lenago gauk iten gendun dana.

Personan gaxoetarako be baligo auden baye beste erremedio batzupe begosan. San Juan bedarretatik aparte ba esate baterako, samako minerako sedasko sapi beten arturun beroa iminten san talaburriñan berotute gero, da gero saman imini bero aukiteko, edo katarrorako asun friegak a lepoan, ospelak eta atzamar kiputuek e ba ur bero, gatz eta berakatzagas igurdi in bear isiten sirian. Santigituetan barris ba erresu ta sorginkerietarañoakoak iten sirean, da ba olango kontuek.

Bueno, segidu in beakotzu lengoari esta? Ba gero egunes ba San Juan-aratxa iminten da, en jeneral, balkoietan edo bentanako antepetxuen. Lenago aratxa iminten san bai gaur u elexarra iminten da. Kurtze bat iten yako ta gero ba galburu ta lora txorta bape imini.

Nik i badaukepa entzutia, nori esin nei esan baye, lenago errekadu iteko be erabilte sala San Juan-aratxa. Kasureko, batek e urli neskatxie, propidadekoa en jeneral, ba eskontako gurauenean, ba mutilen etzekoak a seguru neskatotan etzean iminte i auden San Juan-aratxa, da ba kontestasiñoa baieskoa sanean,

Eta ba esan deutsudan letxe, ba bedarrokaz ganaduen gaixoak gobernetan genduzan, eta bedarrok erabili ba ez dakit ba, lasiertuna edo errapea gogortuten yakienarako, apatxartekoa osatuteko, enpatxurako, txala galdu ordurako, esnezabaldurako, gastelusearrerako, au gaixo au a, ba ganaduen samea eta inguruak narru bizian edo ule barik i lotutea, eta orretarako, sulderrak daukiezanerako, edo ao-bizarrakaz dagozanerako, eta olango kontuetarako. Gaur u indiziñoak eta dagoz baia leenago geuk egiten gendun dana.

Personen gaxoetarako be balio euden baia beste erremedio batzuk be baegozan. San Juan bedarretatik aparte ba esate baterako, samako minerako sedazko zapi baten arto-urun beroa iminten zan talaburriñan berotuta gero, eta gero saman imini bero eukiteko, edo katarrorako asun friegak a lepoan, ozpelak eta atzamar kiputuak e ba ur bero, gatz eta berakatzagaz igurdi egin bear izaten ziran. Zantiratuetan barriz ba errezu eta sorginkerietarañoakoak egiten ziran, eta ba olango kontuak.

Bueno, segidu egin bearko deutsagu leengoari ezta? Ba gero egunez ba San Juan-aratxa (aritz) iminten da, en jeneral, balkoietan edo bentanako antepetxuan. Leenago aritz iminten zan baia gaur u leizarra iminten da. Kurtze bat egiten jako eta gero ba galburu eta lore txorta bat be imini.

Nik i badaukat ba entzutea, nori ezin nei esan baia, leenago errekadu egiteko be erabilten zala San Juan-aratxa. Kasurako, batek e urli neskatxia, propidadekoa en jeneral, ba ezkontako gura euane-

neskean etzekoak a mutilenean iminten i aurién baye San Pedro egunean.

Da gero ba gaubiluntzean iten sirian konturik andienak. Or o aimareatxo ta lesterxure, artzean gaindusen galtzapulla garanduek, eta gero puntan sue emon da susie ixiten san da orrikas yoaten gintzesan solorik solo kantetan, su sau be akordauko sara, mutikoa pe yoaten sirian da. Da kantau ba, sera, auxe:

«San Juan bagilean
denpora ederrean
artoak eta gariék (g)orde
subeak eta sapoak erre
San Juan bespera gaube!».

Da ba soloak (g)ustiek ingurututen gaindusenean ba etorri ona etze bitartera ta sugarrak iten gaindusen.

Orretarako, ba lenaotik aukiten gendusen sasiek eta otak eta ebakite ta gitxi basirian errama siku t'abarrak eta ekarten gendusen inguruko baso edo beresietati. Or sabi sarreko bolalekuen be sasi gure dana ote san.

Gero ba sue xitukeran, guk u, yakingosu, ni nauk aurreko urtian batuko San Juan bedar sikuen sobrakas emoten gauntzen sue sasi ta egur moltzoari.

Da ba, umorea ona oten san, umeapatesbe. Da ba oin askenantzean estu itisin baye lenago ba, usedioa egoanes, olan e bedar txarrak eta galtzeako, San Juan sugarretara botaskero bedar txarrok es i sirian asten barriro, baye esin sirian bota edozein modutera, bilusik in bear ixiten san, da ba, bakisu, nor atomau bilusik gentaurrean ori iten? Baye beti ote sirean gastean batzuk u, bakisu, soro ondiño bai, t'olango batzuk u ibilte sirian bilusik solorik solo badar txarro(k) topetan da sugarretara botaten. Genteak a, pentzai-

an, ba mutilaren etzekoak a seguru nes-katoarenetxean iminten ei euden San Juan-aratxa, eta ba kontestaziñoa baiezkoa zanean, neskearen etzekoak a mutilarenean iminten ei eudien baia San Pedro egunean.

Eta gero ba gaubiluntzean egiten ziran konturik andienak. Or o aimareak jo eta lastertxura, artzen genduzan galtzapolla garanduak, eta gero puntan sua emon eta zuzia izaten zan eta orreekaz joaten gintzazan solorik solo kantetan, zu zeu be akordaduko zara, mutikoa be joaten ziran eta. Eta kantadu ba, zera, auxe:

«San Juan bagilean
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
subeak eta sapoak erre
San Juan bezpera gau!».

Eta ba soloak guztiak inguratuten genduzanean ba etorri ona etxe bitartera eta sugarrak egiten genduzan.

Orretarako, ba leenagotik eukiten genduzan sasiak eta otak eta ebakita eta gitxi baziran errama siku eta abarrak eta ekarten genduzan inguruko baso edo beresietatik. Or sabi zaarreko bolalekuan be sasi gura dana egoten zan.

Gero ba sua izitukeran, guk u, jakingo dozu, nik neuk aurreko urtean batuko San Juan bedar sikuen sobreakaz emoten geuntsan sua sasi eta egur moltzoari.

Eta ba, umorea ona egoten zan, umeak batezbe. Eta ba orain azkenantzean ez dogu egiten izan baia leenago ba, usadioa egoanez, olan e bedar txarrak eta galtzeako, San Juan sugarretara bota ezkeroko, San Juan sugarretara bota ezkeroko, baia ezin ziran bota edozein modutara, biluzik egin bear izaten zan, eta ba, bada-kizu, nor atomadu biluzik jente aurrean

su, errementau es besteko barre-karkaxadak itausen fetxoriok ukusite.

Gero ba su ori edo sugarrok amataues amataues etosenean sailtuek eta iten sirian, bates be gasteak, eta bapaño geao txinger artera be yausi, bai tire, etzan eser pasetan.

Gero ba tertzio bateraskero danok etzera. D'urrungo goxean ondiño sue gustis amatau barik ote san da ba gustis amatau orduen aik autzek edo iduriek soloatara eroaten gaindusen koxitza onak a logretako.

D'onikas kontuokas ba parte txarrekoape uxatu iten i sirian seguru, orrik i yentil, sorgin d'olangoak.

ori egiten? Baia beti egoten ziran gazteren batzuk u, badakizu, zoro oraindiño bai, eta olango batzuk u ibilten ziran biluzik solorik solo bedar txarrok topetan eta sugarretara botaten. Genteak a, pentsadu egizu, errementadu ez besteko barre-karkaxadak egiten euazan fetxoriok ikusita.

Gero ba su ori edo sugarrok amataduaz amataduaz etozanean saltuak eta egiten ziran, batez be gazteak, eta bat baiño geiago txingar artera be jausi, baia tira, ez zan ezer pasetan.

Gero ba tertzio baterazkero danok etxera. Eta urrango goizean oraindiño sua guztiz amatadu barik egoten zan eta ba guztiz amatadu orduan aik autsak edo iduriak soloetara eroaten genduzan koxitza onak a logretako.

Eta oeeikaz kontuokaz ba parte txarrekoak be uxatu egiten ei ziran seguru, orreek i jentil, sorgin eta olangoak.

25.27. Gorbeia inguruko otsoak

Ba baten, Iruartzte (Iruarriza) Adaro ondoan (Orozkon) Joaniko Etxebarriak, orrek (g)aur 140 urte auko auen, ba otzokuma bat euken da baten Gorbaiera doala otzoagas, an Berretineko senda bateti doala, Gorbaieko Arraba partean, beste otzo bat etorri sen seguru te otzo biek burrekan asi.

Orduen pago batera igon i auen eta burruken ebisen bitartean eskapau in i oan selan beist.

D'an i egoan iturri bet, Otzagarai isenekoa d'ori i de Gorbaieko iturririk altuena, b'or pagaduie d'or in i aurien burrukaldie.

Otzoak a lenago asko ote sirian da

Ba baten, Iruartzte (Iruarriza) Adaro ondoan (Orozkon) Juaniko Etxebarriak, orrek gaur 140 urte euko euan, (1979an) ba otsokuma bat eukan eta baten Gorbeiera doala otsoagaz, an Berretineko senda batetik doala, Gorbeiaiko Arraba partean, beste otso bat etorri zan seguru eta otso biak burrukan asi.

Orduan pago batera igon ei euan eta burrukan ebilzan bitartean eskapadu egin ei euan zelan beist.

Eta an ei egoan iturri bat, Otzagarai izenekoa eta ori ei da Gorbeiaiko iturririk altuena, ba or pagaduia eta or egin ei eudien burrukaldia.

Otsoak a leenago asko egoten ziran

gose isiten sirianean etzeetaraño etorten yakusen da batzutan esin gendun gausonik in.

Orregaiti, onik i gison gasteloak edo sasoiko mutilek, artu auren eskopeta edo sepoak eta otzo sein asagariten ibilten sirian da baten bat arrapau edo il eskero, estu lau ankok eta palu beteti eskegite ekartaudien etzerik etze erakusten, da batean bestean seoser emototzien eskure.

Oin i aspalditxoan esta iten baye lenao iños eisea be in isin de Gorbai inguruetan.

Gison koadrillak arkal artu te asi Seanitik eta ortik i Orosko ta Baranbiorarteñoakoak isiten i sirian da ba batzuk u otzoak uxatu goietarantz eta kasariak an Gorbaien etxon isea edo kasea iteko. Da, seguru, an jausten i sirian otzook plasta-plasta! In bear! se espabere isin gendun gausonik in. Batetik otzoak, bestetik asagariak, deskuidau eskero askunarrape bai. Setan esanipes basabei edo saldi eta biorrak. Mandoape bai, yakine, oin i mansasainipe estao ta. Basaurdaparris, etze-etzeraño. Ortxe daukus untxe be errastuek, soas ia! ikusikosu sainbe(t)p(b)asaurde bide inde daoen gure soloetan!

Atxine esataudien ba Orduñeko tren bidea in sanean galdu siriala otsoak, esin i adien da pasau trenbidea seguru, baye, demonintrue! estire galdu es, d'etxakies es etzera bideak aistu! Lengunbeten telebisiñoan ikusi ot o gixon bat otzoakas olgetan d'aurekaiti ondo berba iten, ba emen ukusi gure naunke ori gison ori olango fetxorien bat iten daurienean! Su(k) sauk u ser deretxasu?

eta gose izaten ziranean etxeetaraño etorten jakuzan eta batzutan ezin gendun gauza onik egin.

Orregaitik, oneek i gizon gazteloak edo sasoiko mutilak, artu euren eskopeta edo zepoak eta otso zein azagaritan ibilten ziran eta baten bat arrapadu edo il ezkerro, estu lau ankok eta palu batetik eskegita ekarten eudien etzerik etxe erakusten, eta batean bestean zeozer emoten eutsien eskura.

Orain i aspalditxoan ez da egiten baia leenago iñoiz eisea be egin izan da Gorbai inguruetan.

Gizon kuadrillak alkar artu eta asi Zeanuritik eta ortik i Orozko eta Baranbiorarteñoakoak izaten ei ziran eta ba batzuk u otsoak uxatu goietarantz eta kazariak an Gorbeian itxaron eizea edo kazea egiteko. Eta, seguru, an jausten ei ziran otsook plasta-plasta! Egin bear! ze ezpabere ezin gendun gauza onik egin. Batetik otsoak, bestetik azagariak, deskuidadu ezkerro azkunarrak be bai. Zertan esanik be ez basabei edo zaldi eta beorrak. Mandoak be bai, jakina, orain i mandazainik be ez dago eta. Basaurdak barriz, etxe-etxeraño. Ortxe daukaguz oraintxe be errastuak, zoaz ia! ikusiko dozu zeinbat basaurda-bide eginda dagoan gure soloetan!

Antxina esaten eudien ba Orduñeko tren bidea egin zanean galdu zirala otsoak, ezin ei eudien eta pasadu trenbidea seguru, baia, demonintrue! ez dira galdu ez, eta ez jakiez ez etxera-bideak aaztu! Leengo egun baten telebisiñoan ikusi dot o gizon bat otsoakaz olgetan eta eurekaitik ondo berba egiten, ba emen ikusi gura neunke ori gizon ori olango fetxorien bat egiten daudienean! Zuk zeuk u zer deritzazu?

25.28. Lau anaia ofizioa ikasten

Gizon bateri, bigarren eskontzako andreak antzuek urten otzon d'esan ondo konpontan lelengo eskontzako lau seme-akas.

Bearren asteko tertzioa allegau yakie-nean aitorrek esan otzien ba se:

– Ia ba mutilek, oinarre mantenido satu-siet eta oin i ofizioan bat edo beste ikisi beakostesue ta soasie nondikure seoser ikisten.

Da ba mutilok, bakearren, aitepe auren amordeagas bixi beauen da, ba yoan sirian.

Yoan da yoan, lau bide topau situesan da sarrenak esan i otzien besteari ba se:

– Bueno, bakotxak a bide bat artuku te urte bete barru onaxe yoko dogu barriro, ondo deretxasue?

Baietz erantzutzien da atzera beitu be in barik artu i audien aurrera bidea bixi-modue atetako.

Urtea emon audienean juntau sirean barriro esaneko lekuen eta laurek e yoan sirean aitegana, d'aitek e:

– Ser? Badakastesue ofisiorik ala ser?

Orduen, batak esan otzen yosten ikisi dauela, besteak, astronomo, besteak, kazari, da besteak lapur.

Aitek in i auen bere artean a: «Onik i ontxe probauko yoasat» d'esan otzien semeori:

– Erdusie nauges orra beresire, d'ortxe ingu pruebea, ia se ofisio edo se ikisi ostesuen.

Astronomo ikisi auenari geitu otzen da:

– I, or aras garrastako goirengo urko-txean, urkuluen, belean abie yaok eta bitik ia sainbet arrautza yaukoasan.

Gizon bati, bigarren ezkontzako andre-ak antzuek urten eutsan eta ez zan ondo konpontan leenengo ezkontzako lau seme-akaz.

Bearren asteko tertzioa allegadu jakie-nean aita orrek esan eutsien ba ze:

– Ia ba mutilak, orain arte mantenido zaituziet eta orain i ofizioren bat edo beste ikasi bearco deustazue eta zoazie nondik gura zeozet ikasten.

Eta ba mutilok, bakearren, aitag be euren ama-ordeagaz bizi bear euan eta, ba joan ziran.

Joan eta joan, lau bide topadu zituezan eta zaarrenak esan ei eutsien besteei ba ze:

– Bueno, bakotxak a bide bat artuko dogu eta urte bete barru onaxe joko dogu barriro, ondo deritzazue?

Baietz erantzun eutsien eta atzera begiratu be egin barik artu ei eudien aurrera bidea bizimodua atetako.

Urtea emon eudienean juntadu ziran barriro esaneko lekuan eta laurak e joan ziran aitagana, eta aitag e:

– Zer? Badakastazue ofisiorik ala zer?

Orduan, batak esan eutsan josten ikasi dauela, besteak, astronomo, besteak, kazari, eta besteak lapur.

Aitag egin ei euan bere artean a: «One-ek i oraintxe probaduko joazat», eta esan eutsien semeoi:

– Erdusie neugaz orra beresira, eta ortxe egingo dogu pruebea, ia zer ofisio edo zer ikasi deustazuen.

Astronomo ikasi euanari deitu eutsan eta:

– I, or aritz garrastako goirengo urko-

Beste orrek artzean daus begietako tramankulook, katalejuok eta badiño:

– Aite, lau arrautza daukos.

– Bai, egie dok!

Gero lapur ikisi auenari badiñotzo:

– Iguik eta ostuyosak belea abitik altzau barik!

Igon auen eta belean uskaiko lumapeta-ti sartu eskue ta ostu otzesan arrautzok eta aiteri eroan.

Aitek orduen kasari ikisi auenari esan i otzen:

– Ekasak lau arrautzok eta arra betean sabal iminiko doadas soruen da tiro bategas apurtu beostesak!

Imini ausen eta daunba! lau arrautzak a satz, mintz eta gusti, gorringo eta suringo txirripistadas beterik.

Gero yosten ikisi auenari esan otzen:

– Oin yosisek arrautzok!

Da beste orrek e yosi in i situsen seguru, bueno, onik i kontuek ixingo dire esta?

Da ba gero lapur ikisi auenak barrien barris itxi otzesan arrautzok beleari arean be ikeratu barik.

Aite posik egoan da andik i denporakarenean, entzutia daukot e, ba or uri nausien baten erregean alaban bat ostu auelaskoa dragoiyen batek eta orduen aitek lau semeok ofresidu otziesela ta lograu audiela alabori ekartea da geao es i audien arean be goseripasau. Je, je, je! Arean sentzunitaukonak esin lais onikontuok sinistu, konteteak estauko kalterik, umeari seosegas denporea emonaso beayakie ta.

txean, urkuluan, belearen abia jagok eta begiratu egik ia zeinbat arrautza jaukazan.

Beste orrek artzen dauz begietako tramankulook, katalejuok eta badiño:

– Aita, lau arrautza daukaz.

– Bai, egia dok!

Gero lapur ikasi euanari badiñotso:

– Igon egik eta ostu egiozak belea abitik altzadu barik!

Igon euan eta belearen uskaiko lumapetatik sartu eskua eta ostu eutsazan arrautzok eta aitari eroan.

Aitak orduan kazari ikasi euanari esan ei eutsan:

– Ekarri egizak lau arrautzok eta arra betean zabal iminiko deuadaz zoruan eta tiro bategaz apurtu bear deustazak!

Imini euazan eta daunba! lau arrautzak a sats, mintz eta guzti, gorringo eta zuringo txirripistadaz beterik.

Gero josten ikasi euanari esan eutsan:

– Orain josi egizak arrautzok!

Eta beste orrek e josi egin ei zituzan seguru, bueno, oEEK i kontuak izango dira ezta?

Eta ba gero lapur ikasi euanak barrien barriz itxi eutsazan arrautzok beleari arean be ikeratu barik.

Aita pozik egoan eta andik i denporakarenean, entzutea daukat e, ba or uri nagusiren baten erregearen alabaren bat ostu eualazkoa dragoiren batek eta orduan aitak lau semeok ofrezidu eutsiezala eta logradu eudiela alaba ori ekartea eta geiago ez ei eudien arean be goserik pasadu. Je, je, je! Arean zentzunik daukanak ezin leiz oneek kontuok sinestu, konteteak ez dauka kalterik, umeei zeozergaz denporea emonazo bear jakie eta.

26.1. Sorgina katu itxuran

Lenago Uriondon goruetan asko iten gendun, liñoagas sein laneagas. Lantzean etze baten juntetan ginean kandelargi bategas ausonako gustiok iruteko lana-liñoook.

D'an entzunde daukot o ba baten seguru katu baltz demonintru bet gañetuten i akon andran bateri supastarrera gaubetan goruetan daoela.

Da ba androrrek e gixonari esan i otzen se pasetan yakon da gixonak a esan i otzen ba se:

– Gaur gaubean gure bona nau lotuko nona goruetan!

Da ba atan lotu sirean da gixon orrek selan beist beragoion gorueteari da alangon baten non agartuten yakon ankarteti bustena gora dauela katu bals bat eta badiñotzo:

– Ene! gixona ta goruetan?

– Katue ta berbas! -erantzun gixonak.

D'orduen gixon orrek e surten berotuten auken burruntzie artu te di-dau! emon otzesan narruko batzuk eta gero trebera ganetik i sartana artu te barruko koipe irikine bota buruti bera.

Gatu baltz orrek egas in espauen gitxiagorik es auen in tximini sulotik (g)ora laratzue arandelotzean itxite.

D'esaten daurie, urrungo egunean ausoko estaki(t) nor be mandaitute ta arpegie erreta agartu sala, nondi da selan berape estakiela.

27.1. Kastrejanako zubia

Baten, Kastrejanako neskato bat Bilbo-ko yayetara yoan i sen da gusture ibili

Leenago Uriondon goruetan asko egi-ten gendun, liñoagaz zein laneagaz. Lantzean etxe baten juntetan ginean kandelargi bategaz ausonako gustiok iruteko lana-liñoook.

Eta an entzunda daukat o ba baten seguru katu baltz demonintru bat gañetuten ei jakon andraren bati supasterrera gauetan goruetan dagoala.

Eta ba andra orrek e gizonari esan ei eutsan zer pasetan jakon eta gizonak a esan ei eutsan ba ze:

– Gaur gauean gura badona neu lotuko nona goruetan!

Eta ba atan lotu ziran eta gizon orrek zelan beist baeragoion gorueteari eta alangoren baten non agertuten jakon ankartetik buztana gora dauela katu baltz bat eta badiñotzo:

– Ene! gizona eta goruetan?

– Katua eta berbaz! -erantzun gizonak.

Eta orduan gizon orrek e surten berotuten eukan burruntzia artu eta di-dau! emon eutsazan narruko batzuk eta gero trebera ganetik i zartana artu eta barruko koipe irakina bota buruti beera.

Gatu baltz orrek egaz egin ez baeuan gitxiagorik ez euan egin tximini zulotik gora laratzua arandelotzean itxita.

Eta esaten daurie, urrungo egunean auzoko ez dakit nor be mandaituta eta aurpegia erreta agertu zala, nondik eta zelan berak be ez dakiala.

sen antza erromerien bere lagunabarrikas.

Eta bidean topadu ei euan azagaria ba ez dakit noren ollarra agoan dauela eta azagari orri ollarra ba kendu ei eutsan eta amaseiko orregaz etorri ei zan etxera pozik gero.

Eta esaten ei euden edo zurrumurrua ibili ei zan orduan topaduko eudelakoa ba frantzesok an itxiko urrezko kutxa ori.

37.2. Lamiñak Lamindao-Petralandan (Dima)

Dime eta Seanuri bitartean dao Lamindao esta, da bertan ba elixatxo bape badao eta bai te landa bape bai eta baserriepe bai euren artean, ba baserriek.

Da, baserri beten bisi sirian mutil bi, anaie bi, gibosoak, da, aukiesan auntzek. Da, urreko atxera yoate sirian auntzekas, auntzek e ba eroaten, da, ekarten be bai.

Da, egun beten pasau yakon aretiko ba mutil bateri etorri sanean etzerantz auntzekas, Petralandako landan topau si-tuen sorginetxantzan eta auxe abestuten eben, ba:

Astelena
Martisena
Eguastena, iru
Eguena
Barikue
Sapatue, sei

Da, ba, olan e ba domeka salea edo ba elezara ta joaten sana les bera ba, esaoan e:

– Eta Domekea, saspi!

D'orduen e ba lamiñak esautzien: Itxisu emen ori txepea edo giboia eta soas etzera.

Dima eta Zeanuri bitartean dago Lamindao ezta, eta bertan ba eleizatxo bat be badago eta bai eta landa bat be bai eta baserriak be bai euren artean, ba baserriak.

Eta, baserri baten bizi ziran mutil bi, anaia bi, jibosoak, eta, eukiezan auntzak. Eta, urreko aitzera joaten ziran auntzekaz, auntzak e ba eroaten, eta, ekarten be bai.

Eta, egun baten pasadu jakon aretiko ba mutil bati etorri zanean etxerantz auntzekaz, Petralandako landan topadu zitu-tuan sorginak jantzan eta auxe abestuten eben, ba:

Asteleena
Martisena
Eguastena, iru
Eguena
Barikue
Zapatua, sei

Eta, ba, olan e ba domeka zalea edo ba elezara eta joaten zana lez bera ba, esan euan e:

– Eta Domekea, zazpi!

Eta orduan e ba lamiñak esan eutsien: Itxi egizu emen ori txepea edo jiboia eta zoaz etxera.

Da positxoan san ba lamiñari itxite ba txepe ori edo kolkor ori edo estait se esaten yakon auskeras ba, jibo ori edo.

Da ikusi oanean anaiak olan datorrena, bera be positik (g)elditu sen da urungo egunean yoan san bera auntzekas, da, arantzean, auntzen eske yoan sanean etorri sen da, bardin topau situen lamiño-txantzan, da kantea be ba bera, d'erantzune be mutil orrek e bera, bere anayan moduen emutzien.

D'esautzien e: artuisu ba sure anayan gibo edo txepe ori te soas etzera.

37.3. Lamiñak Uriben (Zeanuri)

Seanurin, Uribe ausunia be gustis fatmatue da lamiñekas, isaten ei san, lenago, bertara daoen bideape Meagorri dauko isena. Orrek esan gure i dau mineral gorrie urtetan dauen lekue esta, urtetan auena atxine edo, oin kamiñoa inde ongo da bearbada baye, orain be ikusten da a lupes gorrie an inguruen erreka batao eta an egoten ei siran lamiñak, orrastuten d'andi gaubes pasetako bildur isiten ei siren.

Bai te, Urkistebe, Beretxin, an trokan be bai eta egiskiten orrastuten egoten ei siran eta iñor ikusi eskero ba arin-arin eskapau iteuden esta.

Da, egun beten, andra batek orrasie ostu egin eutzen, orrasie urregorriskoa edo olan elegantea eukiten ei auden, eta lamiñek urrungo egunean yoan yakosan etzera eta orrela edo esaten eutzien:

Iturriako etxeko andrea
ekarristesu orrasia
espabere nikendukotzut u
anakasia edo olango ixen bat.

Eta pozik joan zan ba lamiñari itxita ba txepe ori edo kolkor ori edo ez dakit ze esaten jakon euskeraz ba, jibo ori edo.

Eta ikusi euanean anaiak olan datorrena, bera be positik gelditu zan eta urungo egunean joan zan bera auntzekaz, eta, arantzean, auntzen eske joan zanean etorri zan eta, bardin topadu zituan lamiñok jantzan, eta kantea be ba bera, eta erantzuna be mutil orrek e bera, bere anaiaren moduan emon eutsien.

Eta esan eutsien e: artu egizu ba zure anaiaren jibo edo txepe ori eta zoaz etxera.

Zeanurin, Uribe auzunea be guztiz fatmatua da lamiñekaz, izaten ei zan, leenago, bertara dagoan bideak be Meagorri dauka izena. Orrek esan gura ei dau mineral gorria urtetan dauan lekua ezta, urtetan euana atxina edo, orain kamiñoa eginda egongo da bearbada baia, orain be ikusten da a lupetz gorria an inguruan erreka bat dago eta an egoten ei ziran lamiñak, orraztuten eta andik gaez pasetako bildur izaten ei ziran.

Bai eta, Urkiztebe, Beretxin, an trokan be bai eta eguzkitan orraztuten egoten ei ziran eta iñor ikusi ezkerro ba arin-arin eskapadu egiten euden ezta.

Eta, egun baten, andra batek orrazia ostu egin eutsen, orrazia urregorriskoa edo olan elegantea eukiten ei euden, eta lamiñak urrungo egunean joan jakozan etxera eta orrela edo esaten eutsien:

Iturriako etxeko andrea
ekarri egistazu orrazia
ezpabere nik kenduko deusut u
anakazia edo olango izen bat.

Eta bildurtute andreak emutzien orrasi ori.

Eta beste amama bateri urtetotzien lamiñak, sutondoan burruntzien urdaie erretan ibiltesan amama ori esta, d'aurek txubelaxuek edo urguxuek edo olango ixen bat edo sapaburuek edo, burruntzien iminite, untau iten i autzien seguru amama orreri ogie, eta, itxi in bear, espabere okerrak i sirian seguru lamiñok.

Bai te esnea be asko gustetan ei yakien da, galda(i)llean, maskilluen esnea auki te ba, artu te, edan be bai.

Eta, ba bueno, emen, olan basan sartu kalabasan eta urten daiela Seaniko plasan.

Eta bildurtuta andreak emon eutsien orrazi ori.

Eta beste amama bati urtetan eutsien lamiñak, sutondoan burruntzian urdaia erretan ibiltan zan amama ori ezta, eta eurak txubelaxuak edo urguxuak edo olango izen bat edo zapaburuak edo, burruntzian iminita, untadu egiten ei eutsien seguru amama orri ogia, eta, itxi egin bear, ezpabere okerrak ei ziran seguru lamiñok.

Bai eta esnea be asko gustetan ei jakien eta, galdaillean, maskelluan esnea euki eta ba, artu eta, edan be bai.

Eta, ba bueno, emen, olan bazan sartu kalabazan eta urten dagiala Zeanuriko plazan.

38.1. Sorginak eta: Baltzolan, Petralandan

Samakolako etxe baten bixi siren Manu eta Petra andragixonak, emastea eta senarra.

D'esan dotzon sapatu beten bere senarrari Petrak:

– Manu, biger yoan beadosu Villarora ekarriteko petrolio astarako se argirikezteku ekartesposu petrolio da metxatxu bet.

– Bueno, yoango nas.

D'olan yoan dires ogera da goxalderantza esan dotzo:

– Sabaldixu bentanea eta begitixu ia ixerrak asko badaos ala egunsentia bada.

D'esan dotzo:

– Egunsentia da Petra.

– Bueno ba, yoan in beosu Villarora. Ekarrikosu petrolio eta metxatxu bet.

Da esan dotzo:

– Eta dirue? dirurik estauket.

Zamakolako etxe baten bizi ziran Manu eta Petra andragixonak, emaztea eta senarra.

Eta esan dotson zapatu baten bere senarrari Petrak:

– Manu, biar joan bear dozu Villarora ekarriteko petrolea astarako ze argirik ez daukagu ekarten ez badozu petrolea eta metxatxu bat.

– Bueno, joango naz.

Eta olan joan dira oera eta goizalderantz esan deutso:

– Zabaldu egizu bentanea eta begiratu egizu ia izarrak asko badagoz ala egunsentia bada.

Eta esan deutso:

– Egunsentia da Petra.

– Bueno ba, joan egin bear dozu Villarora. Ekarriko dozu petrolea eta metxatxu bat.

- Baye iru arrautze daukus etxean d'aixek eroaixus.

- Iru arrautze bakarrik?

- Da, bai, orregas emongotzu petrolioa eta metxea.

Bueno, yoan da. Topau dau asto bat, bidean erdi erdien d'asi de: arre ta arre ta arre ta! etxako kentzean ixen d'alan-gonbaten esan dau:

- Jesus, ser daukosu astoa?

A esan dotzenezan, txispetan yoan yako inisitue baño arinao Baltzolako kuebara, suten. Da berak esan dau:

- Ori esta ixin astoa, ori, ixin de lamiñen bat edo sorgine.

Da bueno ba, olan yoan da Villarora. Da gero Petralandako kurtzeta pasau bear ixin dau, landati, Petralandako landati, dao kurtze bat antxe t'andixik, t'ikusi daus berak a yantzan sorginek asko, yantzan, d'esaten ixin daurie aurek:

- Josepa etxeandereak, Ogaragotikoak, esteu ukiko osasunik, bere gosamenak entregetan espadaitu, se gosamenak (g)osetan dao berenak estireanak.

Bueno, entzun dau gixontxu orrek ori, da yoan da Villarora d'esan dotzo dendako andreari:

- Badakisu ser pasau yatan?

- Ser pasa yatzu ba?

- Ba lelango astobatopaudopidean d'astoori ixin kendu d'ixin kendu ibili nas d'alangonbaten esan dot: Jesus! Ser Jaungoiko daukosu ba? A esan dotzenezan su te gar yoan da Baltzolako kuebara. Baie estixin astoa, ixin de edo laminen bat edo sorginen bat.

- Ba ixingo san Manu!

Bai, da gero etorri nas serera, landara, orra Petralandako landara d'an egon dires sorginetxantzan, asko, yantzan, sorgi-

Eta esan deutso:

- Eta dirua? dirurik ez daukat.

- Baia iru arrautza daukaguz etxean eta areexek eroan egizuz.

- Iru arrautza bakarrik?

- Eta, bai, orregaz emongo deutsu petroleoa eta metxea.

Bueno, joan da. Topadu dau asto bat, bidean erdi erdian eta asi da: arre eta arre eta arre eta! ez jako kentzen izan eta alangoren baten esan dau:

- Jesus, zer daukazu astoa?

A esan deutsanean, txispetan joan jako inizitua baiño arinago Baltzolako kuebara, sutan. Eta berak esan dau:

- Ori ez da izan astoa, ori, izan da lamiñaren bat edo sorgina.

Eta bueno ba, olan joan da Villarora. Eta gero Petralandako kurtzetik pasadu bear izan dau, landatik, Petralandako landatik, dago kurtze bat antxe eta andixek, eta ikusi dauz berak a jantzan sorginak asko, jantzan, eta esaten izan daudie eurak:

- Josepa etxeandereak, Ogaragotikoak, ez dau eukiko osasunik, bere gozamenak entregetan ez baditu, ze gozamenak gozetan dago berarenak ez diranak.

Bueno, entzun dau gizontxu orrek ori, eta joan da Villarora eta esan deutso dendako andreari:

- Badakizu zer pasadu jatan?

- Zer pasadu jatzu ba?

- Ba leenengo asto bat topadu dot bidean eta asto ori ezin kendu eta ezin kendu ibili naz eta alangoren baten esan dot: Jesus! zer Jaungoiko daukazu ba? A esan deutsanean su eta gar joan da Baltzolako kuebara. Baia ez da izan astoa, izan da edo laminaren bat edo sorginen bat.

nek, d'esate ixin dotzie batapesteari: Josepa Ogaragoitikoak estau ukiko osasunik bere ondasunak entregetan espadaitu, se dao gosamenak iñonakosetan.

- Ba, soas arantzean d'esaiousu Josepari

- Bai, esan beotzet

Yoan da t'esan dotzo: Josepa, gaur goxean onantza natorrela, Villarora, an Petralandako landan on dire sorginetxantzan, asko e, d'esate ixin dotzie arkaleri: «Josepa Ogaragoitikoak estau ukiko osasunik espadaitu entregetan bera gosetan daoen gausek, se berenak estire ta».

Orra! Auki dau kridu bet etxean d'esan dotzo: «Urlie, erdu ona! -Yoan yakon d'esaotzon- Bustertu beiek d'onek nire gause danak eroaiosus fulanori».

Bai, olan eroan dotzes d'aren osasune ortixi etorri da, konpleto.

- Ba izango zan Manu!

Bai, eta gero etorri naz zerera, landara, orra Petralandako landara eta an egon dira sorginak jantzan, asko, jantzan, sorginak, eta esaten izan deutsie batak beste-ari: Josepa Ogaragoitikoak ez dau eukiko osasunik bere ondasunak entregetan ez baditu, ze dago gozamenak iñorenak gozetan.

- Ba, zoaz arantzean eta esan egiozu Josepari

- Bai, esan bear deutsat

Joan da eta esan deutso: Josepa, gaur goizean onantz natorrela, Villarora, an Petralandako landan egon dira sorginak jantzan, asko e, eta esaten izan deutsie alkarri: «Josepa Ogaragoitikoak ez dau eukiko osasunik ez baditu entregetan bera gozetan dagoan gauzak, ze berarenak ez dira eta».

Orra! Euki dau kridu bat etxean eta esan deutso: «Urlia, erdu ona! -Joan jakon eta esan eutsan- Buztertu beiak eta oneek nire gauza danak eroan egiozuz fulanori».

Bai, olan eroan deutsaz eta aren osasuna ortixe etorri da, konpleto.

39.1. Anbotoko Señorea: sorrera

Anbotoko Señoreak, neskaxien bat yoan i akon, dendea euki i auen bai te, gonea erosten, telea erosten, telea erosten gonea iteko.

D'erosi auen seguru, telea, iteko gona ori, bai es i auen auki dirurik, da ba pagetako itxi, da gero pagau barik i neskaxie il.

Da il sala entzun auen orduen orrek il sala entzun auen orduen, ai!, niri gonea

Anbotoko Señoreak, neskaxiren bat joan ei jakon, dendea euki ei euan bai eta, gonea erosten, telea erosten, telea erosten gonea egiteko.

Eta erosi euan seguru, telea, egiteko gona ori, bai ez ei euan euki dirurik, eta ba pagetako itxi, eta gero pagadu barik i neskaxia il.

Eta il zala entzun euan orduan orrek il zala entzun euan orduan, ai!, niri gonea

ixin daust sor da ni nau enoa parkatuten, esan i auen.

Da etorri i sen atzera, mundure etorri i sen neskatxi ori da krida yoan i sen dirue iribasten gonea pagetako krida yoan i sen da ba krida egoan lekuen ba soldatea, da, estaipa seinbet ixin sen, seinbet, lau sirikoak sirian orduen diruepaie, estaipa seinbet. Da ba gonea sor auen beste lau siriko eskatu i otzen usabari, ba urterako.

Da, a estala soldatea ta, d'eskatu daiela geao, da esesba, axek iten dotzela falta, estauela besterik falta axe baño da, eskatuteko ba geao usaborrek esate i otzen seguru, t'esetz, estauela bear geao axe baño ta axe. Da tire ba, axegas.

Da gero usaba ta danak oira yoan orduen, oira yoan barik gelditu i sen, da su andie in, da, an su andien treberea iminten i auen berotuten. Da gero an trebera ganean yarri bera.

Da usabatxagon in i auen baten ia se iten geldituten dan da olan topauen orduen, ori in auen orduen esan i otzen e ia segatik iten dauen a, d'esan i otzen se pasetan yakon.

Da usabak esan i otzen:

– Autzis d'emoiosus dendere orreri te soas seure lekure. Esan da emoutzesan seguru diruok usabak.

Da neskatxi orrek artu t'eroan i otzesan dendereari da emon ei otzesan dendereari diruok.

Da mostradorean barrualdean goruetan egon i sen denderea da, eskuen diruek artu situen orduen ba goru ta gusti garretan urten i auen dendati da neskatxii ori be bere lekure baie garretan.

Geao be garretan ei dabil, da dendere ori Anboton oten dan orduen estaipa

izan deust zor eta ni neu ez noa parkatuten, esan ei euan.

Eta etorri ei zan atzera, mundura etorri ei zan neskatxi ori eta kriada joan ei zan dirua irabazten gonea pagetako kriada joan ei zan eta ba kriada egoan lekuan ba soldatea, eta, ez dakit ba zeinbat izan zan, zeinbat, lau sirikoak ziran orduan diruak baia, ez dakit ba zeinbat. Eta ba gonea zor euan beste lau siriko eskatu ei eutsan ugazabari, ba urterako.

Eta, a ez dala soldatea eta , eta eskatu dagiala geiago, eta ezetz ba, axek egiten deutsalala falta, ez dauala besterik falta axe baño eta, eskatuteko ba geiago ugazaba orrek esaten ei eutsan seguru, eta ezetz, ez dauala bear geiago axe baño eta axe. Eta tira ba, axegaz.

Eta gero ugazaba eta danak oera joan orduan, oera joan barik gelditu ei zan, eta su andia egin, eta, an su andian treberea iminten ei euan berotuten. Eta gero an trebera ganean jarri bera.

Eta ugazabak jagon egin ei euan baten ia zer egiten geldituten dan eta olan topadu euan orduan, ori egin euan orduan esan ei eutsan e ia zergatik egiten dauan a, eta esan ei eutsan zer pasetan jakon.

Eta ugazabak esan ei eutsan:

– Eutsiz eta emon egiozuz dendera orri eta zoaz zeure lekura. Esan eta emon eutsazan seguru diruok ugazabak.

Eta neskatxi orrek artu eta eroan ei eutsazan dendereari eta emon ei eutsazan dendereari diruok.

Eta mostradorean barru aldean goruetan egon ei zan denderea eta, eskuan diruak artu zituan orduan ba goru eta guzti garretan urten ei euan dendatik eta neskatxi ori be bere lekura baie garretan.

sikitea iten dauen, se Supilaurren daoen orduen aurie. Da Supilaurren daoen orduen aurie bada, aurten egongo da Supilaurren, se beti aurie da ta.

Da ori ikusi dauena, kontau dauena emen dao, baie ikusi dauena jakin es non. Olan pasau yakon seguru.

Geiago be garretan ei dabil, eta dendera ori Anboton egoten dan orduan ez dakit ba sikitea egiten dauan, ze Superlegorren dagoan orduan euria. Eta Superlegorren dagoan orduan euria bada, aurten egongo da Superlegorren, ze beti euria da eta.

Eta ori ikusi dauana, kontadu dauana emen dago, baie ikusi dauana jakin ez non. Olan pasadu jakon seguru.

39.2. Lamiñak barikuetan Petralandara

Lenago, bariku gaubetan, koxemanean a sorginek Petralandara yoaten i sirian. Da etze baten andrea ta gizona, ba, andra-gixonak kriduegas bisi i sirian da yoaten i sirian barikuetan Petralandara.

Da suteko arri losape baten untire bat eukiten i euden d'an eskuek et'ankok, ba, untetan i situesan untire orregas da «sasi gustien ganeti eta laño gustien aspiti» esanda yoaten i sirian.

Da gero kriedueri be akordau yakon seguru egun beten joatea, da, ba, bera be. Da akordau yakon orduen ba katea bat artu i auen da bere ankati, katea, estu ankan kate ori, da, atxine aspirea egote san sutian, oin estao aspiraripe, aspirea ta, aspireari ba ankati kate ori estu, d'aspireari estute gelditu i sen.

Da untire ori in de badiño seguru mutil orrek e, estala yoango pentzau i auen, aspireari estotziela aterako ta, badiño seguru mutil orrek: «sasi gustien aspiti ta laño gustien ganeti». D'aspireorregas tximiniti gora mogidu i sen d'esin urten, tximiniti esin atara aspire ori, baia urten i auen.

Da gero sasipeti yoan bear, da koxe-

Leenago, bariku gauetan, koxemanean a sorginak Petralandara joaten ei ziran. Eta etxe baten andrea eta gizona, ba, andra-gizonak kriduagaz bizi ei ziran eta joaten ei ziran barikuetan Petralandara.

Eta suteko arri losak be baten untura bat eukiten ei euden eta an eskuak eta ankok, ba, untetan ei zituezan untura orregaz eta «sasi guztien ganetik eta laiño guztien azpitik» esanda joaten ei ziran.

Eta gero kriaduari be akordadu jakon seguru egun baten joatea, eta, ba, bera be. Eta akordadu jakon orduan ba katea bat artu ei euan eta bere ankatik, katea, estu ankan katea ori, eta, atxina azpirea egoten zan sutean, orain ez dago azpirarik be, azpirea eta, aspireari ba ankatik katea ori estu, eta azpireari estuta gelditu ei zan.

Eta untura ori egin eta badiño seguru mutil orrek e, ez dala joango pentsadu ei euan, aspireari ez deutsiela aterako eta, badiño seguru mutil orrek: «sasi guztien azpitik eta laiño guztien ganetik». Eta azpira orregaz tximiniatik gora mobidu ei zan eta ezin urten, tximiniatik ezin atera azpira ori, baia urten ei euan.

manean allegau orduko dana urrutute allegau i sen da, ia ser pasau yakon? Da, ba sasipetati etorri dala ta ba esin yoanda urrutu dala esan i otzien. Olan esta esaten, «sasi gustien ganeti da laño gustien aspiti» esanda etorri urrungoan.

Da, oin estakipa yoan basan geao... Emen dao kontau dauena baye ikusi dauena estakipa non egongo dan!

Eta gero sasipetik joan bear, eta koxe-manean allegadu orduko dana urrututa allegadu ei zan eta, ia zer pasadu jakon? Eta, ba sasipetik etorri dala eta ba ezin joanda urratu dala esan ei eutsien. Olan ez da esaten, «sasi guztien ganetik eta laño guztien azpitik» esanda etorri urrungoan.

Eta, orain ez dakit ba joan bazan geiago. Emen dago kontadu dauana baia ikusi dauana ez dakit ba non egongo dan!

39.3. Lamiñak Lanpreabeko pozuetan

Lanpreabeti Atxondora bitarte, or, or, beko errekan ortik beean errekea, ori de Lanbreabe, yakingosu Lanbreabe sein den.

Ba orti gora Atxondora bitartean or daos lamiñe-posuek, or ei daos, da eurek preguntau ei otzien ia selan kendu laisen aik emeti enberasu iten i auden da. Da, esan i otzien San Juan goxean yayoko sekora nabarrak da errementariti ekarriko intille barriekas errekea intilletuten badaude eurek eskapau bear.

Da etzirealakoan a San Juan goxeko sekora nabarrak, etzirealakoan etorriko esango i auden, baie San Juan goxean a kontra, sekora nabarrak topau in i situesan da errekok intilletu i situesan da gero yoan in bear aik emeti.

Lanpreabetik Atxondora bitarte, or, or, beko errekan ortik beean errekea, ori de Lanbreabe, jakingo duzu Lanbreabe zein dan.

Ba ortik gora Atxondora bitartean or dagoz lamiña-pozuak, or ei dagoz, eta eurak preguntadu ei eutsien ia zelan kendu leizen aik emetik enberazu egiten ei euden eta. Eta, esan ei eutsien San Juan goizean jaioko zekora nabarrak eta errementariatik ekarriko intilla barriekas errekea intilletuten badaude eurek eskapadu bear.

Eta ez ziralakoan a San Juan goizeko zekora nabarrak, ez ziralakoan etorriko esango ei euden, baia San Juan goizean a kontra, zekora nabarrak topadu egin ei zituezan eta errekok intillatu ei zituezan eta gero joan egin bear aik emetik.

39.4. Lamiñea ezkongai Lanpreaben

Lanpreaben nobioa auki lamiñeak, da, ama edo il bea yakon nobioari da, anda-

Lanpreaben nobioa euki lamiñeak, eta, ama edo il bear jakon nobioari eta, anda-

ixerea ekarri ama il jakon orduen, anda-ixerea lamiñeak, anda-ixerea nobioari.

Da gero nobioak entregau es anda-ixerea, da, eske yoaten eisen, eske, anda-ixerean eske.

Da ba emon es eiten ei otzen ba anda-ixerea. Da ba egunen baten ba yoan i sen eske da esan i otzen e nobioak a, andi giltza suloti begitu daiela emongoutzela ta.

Da olan parau i sen lamiñea giltza suloti olan begire. Da besteapurruntzi goriegas begie atera lamiñeari da yoan seguru posure negarres.

D'ia ixena ser daukon preguntau i otzen nobioari te: «niri NEU», ixena, da ia nok ein dotzen, da: «niri NEUk», da: «euk in bona seiti ao negarres?». «Euk seiten in dona? -lamiñeari esaten otziela.

Bai orrik i atxine ixin sirian bai, da, oin u yakin es ba aik atxinekoak, suk esan dosulakoan nik igoal, da supes igoal d'apes, da bestepes da bestean batek se oin baño lagun sarragoape beosan asko disponitako egon sirean atxine be, bai disponitan situesan atxine be gausek, isingo esta ba!, antzeko seoser entzun, a daoen lekuen e iminite gero okerretara gausek esaten sirean. Orduen, oin be bai t'orduen be alantxe.

Oin be lagunek surretaos bai, da seoser letra bat, ainbaten seoser ikusten badaude, Jesus! an iten daude enbrollo bat iten daude da, ara ser dan, iño(k) pentzau esiteko bestekoa, d'orduen be olangoxeak iten situesan.

izarea ekarri ama il jakon orduan, anda-izarea lamiñeak, anda-izarea nobioari.

Eta gero nobioak entregadu ez anda-izarea, eta, eske joaten ei zan, eske, anda-izarearen eske.

Eta ba emon ez egiten ei eutsan ba anda-izarea. Eta ba egunen baten ba joan ei zan eske eta esan ei eutsan e nobioak a, andik giltza zulotik begiratu dagiala emongo eutsala eta.

Eta olan paradu ei zan lamiñea giltza zulotik olan begira. Eta besteak burrunntzi goriagaz begia atera lamiñeari eta joan seguru pozura negarrez.

Eta ia izena zer daukan preguntadu ei eutsan nobioari eta: «niri NEU», izena, eta ia nok ein deutsan, eta: «niri NEUk», eta,; «euk egin badona zergaitik ago negarrez?». «Euk zer egiten egin dona? -lamiñeari esaten eutsiela.

Baia orreek i atxina izan ziran bai, eta, orain u yakin ez ba aik atxinekoak, zuk esan dozulakoan nik igual, eta zuk be ez igual eta ak be ez, eta bestek be ez eta besteren batek ze orain baño lagun zaarragoak be baegozan asko disponitako egon ziran atxina be, bai disponitan zituezan atxina be gauzak, izango ez da ba!, antzeko zeozer entzun, a da goan lekuan e iminita gero okerretara gauzak esaten ziran. Orduan, orain be bai eta orduan be alantxe.

Orain be lagunak zuurrak dagoz bai, eta zeozer letra bat, ainbaten zeozer ikusten badaude, Jesus! an egiten daude enbrollo bat egiten daude eta, ara zer dan, iñok pentsadu ez egiteko bestekoa, eta orduan be olangoxeak egiten zituezan.

40.1. Anbotoko Señorea Baltzolan

Anbotoko Señorea, gure amamak esatauen ba, beye, beintxea faltau da beintxean susterrrik es.

Da ibili sireala bile, da yoan sireala Baltzolako kobarratera ta ene! amen gure beintxea, beintxea edarra ixin sen gaure amamak ori gero e amamak, nauk (g)aur ixinde les entzunde dauket ori.

Da egoan gure beintxea, da yoan sireala ta yo, amen gure beintxea esauena, yo ta bera, lesara.

Anbotoko Señorea, gure amamak esaten euan ba, beia, beintxea faltadu eta beintxearen susterrrik ez.

Eta ibili zirala bila, eta joan zirala Baltzolako koba-arratera eta ene! emen gure beintxea, beintxea ederra izan zan geure amamak ori gero e amamak, neuk gaur izanda lez entzunda daukat ori.

Eta egoan gure beintxea, eta joan zirala eta jo, emen gure beintxea esan euana, jo eta bera, lezara.

40.2. Artzak andrea Baltzolako koban

Da besto bat artza, artzak e enbra bat ostu in i auen artzak. Da i auken koban sartute. Da familie ixin i auen.

D'artzak orrik indertzuek ixin bea daudie urrean, da tapea (kobako atea) or atzean iminite ta. Da umeak, edadera etorri yakonean edo amari esautzela:

– Ama, guk se iten du ba beti emen?

– Etxoik, ixilik ao, ori atea gogor iminite yaukuk, emetik ixin geinkek urten guk.

– Ori bueltauko naunke nik-umeak.

Da bueltau be bai urrean. Amak es i otzen itxi gure baie ala ta gustis be bueltau be bai.

Da buelta ta segiduen etorri artza, ostantxean salbaute i egosan.

Orrik, lenaoko sarrak esanekoatire.

Eta beste bat artza, artzak e enbra bat ostu egin ei euan artzak. Eta ei eukan koban sartuta. Eta familia izan ei euan.

Eta artzak orreek indartsuak izan bear daudie urrean, eta tapea (kobako atea) or atzean iminita eta. Eta umeak, edadera etorri jakonean edo amari esan eutsala:

– Ama, guk zer egiten dogu ba beti emen?

– Itxaron egik, ixilik ago, ori atea gogor iminita jaukuk, emetik ezin geinkek urten guk.

– Ori bueltaduko neunke nik-umeak.

Eta bueltadu be bai urrean. Amak ez ei eutsan itxi gura baia ala eta guztiz be bueltadu be bai.

Eta buelta eta segiduan etorri artza, osterantxean salbaduta ei egozan.

Orreek, leenagoko zaarrak esanekoak dira.

40.3. Anbotoko Señorea Obaburun

Ori atzamarrana, emeti yoan Urkiolara

Ori atzamarrarena, emetik joan Urkiola

emeko bat (Dimako bat). Oba-burun urtotzela aurrera (Anbotoko Señoreak), Obaburun esataudien da ba pasau sala aurrera da gero es otzela esein.

Da Urkiolara yoan da konfesau. Da, abadeak esautzela eskurik es emoteko, emoteko pañelo bat urrungo andi pasetan danean urtengotzela ta.

D'esan d'egin! Urten da pañelo bat emoteko da pañeloa emoutzela ta bost atzamarran markea in otzela pañeloan.

40.4. Sorginak Mañarin

Lenaoko sorginena, ori be gaure amamak esanekoa. Mañarin, lenao tertulie, Mañirin, Basetan, tertulien aurek.

Krida on sala bera estauen gure amamak. Da ba urteiran e axe kantea estakipaie, santzoa, santzoa ta santzoa bestea-pe.

Ene!, serak ete datos ba, sorginek! Da galapan da rau! ate(a) itxi auela, blaust! atea itxi auela sartu sanean da: grasiak itxi osuleko esautzela (sorginek).

Kateotzean etori i sen, seinde, ganadu be(t) kateagas, ganadu bet solteu ta kateagas kateotzean etortea les etorri i sen.

Ori gure amamak esana e!

Da Letañurire, Letañuri dauko emen-txe basotxo batek ixena, letani erresetan yoaten i sirean sorginek, ortixi, depositue inde daoen lekuti, bidea dao, Letañubide dauko isena, da orrik e, bidera urten sorginek edo, da kurutzea ei otzela batek eta arexek kurutzea iotzenezan bidea librau eutziela.

Olan esataudien lenaokoak.

lara emeko bat (Dimako bat). Oba-burun urten eutsala aurrera (Anbotoko Señoreak), Obaburun esaten eudien eta ba pasadu zala aurrera eta gero ez eutsala ezer egin.

Eta Urkiolara joan eta konfesadu. Eta, abadeak esan eutsala eskurik ez emoteko, emoteko pañuelo bat urrungo andik pasetan danean urtengo deutsala eta.

Eta esan eta egin! Urten eta pañuelo bat emoteko eta pañueloa emon eutsala eta bost atzamarran markea egin eutsala pañueloan.

Leenagoko sorginena, ori be geure amamak esanekoa. Mañarin, leenago tertulia, Mañarin, Basetan, tertulian eurak.

Kriada egon zala bera esaten euan gure amamak. Eta ba urteeran e axe kantea ez dakit baia, santzoa, santzoa eta santzoa besteak be.

Ene!, zerak ete datoz ba, sorginak! Eta galapan eta rau! atea itxi euala, blaust! atea itxi euala sartu zanean eta: graziak itxi dozulako esan eutsala (sorginek).

Kateotzean etorri ei zan, zeinda, ganadu bat kateagaz, ganadu bat soltadu eta kateagaz kateotzean etortea lez etorri ei zan.

Ori gure amamak esana e!

Eta Letañurira, Letañuri dauka emen-txe basotxo batek izena, letania errezetan joaten ei ziran sorginak, ortixek, depositua eginda dagoan lekutik, bidea dago, Letañubide dauka izena, eta orreek e, bidera urten sorginak edo, eta kurutzea egin eutsala batek eta arexek kurutzea egin eutsanean bidea libradu eutsiela.

Olan esaten eudien leenagokoak.

41.1. Laminak Usansolon

Usansolon dao subi bet, Lamindarateko subie. D'an urtetan deure laminak, da denporona danean urtetan auren segun, eguskire, eguskie artuten.

D'aure(k) paretan sirean orrastuten da, gero orrasie itxitaurien ba subien da batzupaseta urienak koyu itotzien ba orrasie da gero gaubean yoate sien ba serera, etzera:

– «Marie, ekasu orrasie
espabere galdukotzut
kortako askasie».

Da gero ba laminok martxauren e seguramente letanie edo tranbiegaiti.

Usansolon dago zubi bat, Lamindarateko zubia. Eta an urtetan daude laminak, eta denpora ona danean urtetan euren segun, eguzkira, eguzkia artuten.

Eta eurak paretan ziran orraztuten eta, gero orrazia itxiten eudien ba zubian eta batzuk pasetan eudienak kogidu egiten eutsien ba orrazia eta gero gauean joaten ziran ba zerera, etxera:

– «Maria, ekarri egizu orrazia
ezpabere galduko deutsut
kortako askazia».

Eta gero ba laminok martxadu eudien e seguramente letania edo tranbiagaitik.

41.2. Anbotoko Señorea Urkiolan

Urkiolan egonintzen, amar urte uki nitusenean, promesa edo amak, gaxorik egongo nintzen da, iauen promesa Urkiolan bedratzi egun eiten da, an bedratzi serak entzuten gindusen, sermoiak, d'oten gintzesan koadrillea.

Da gero iruretartearen esaurien elixea sabalduten. Da yoaten gintzesan a Urkiolako mendire ba Sandoia edo estait, mendi bet, ba, an urtetan señora batek an, Anbotoko Señoreak. Batzutan urtetan elegante ta beste batzutan urtetan txispea eskuen dauela, da txispea ukusten gauntzenean, martxau iten ginun karraka estoskuen txispeak ukutu, se, ukutuskero txispeak, esatauriaren kondena iten dala ta, da, danok karraka yoategintzesan atzera Urkiolara.

Urkiolan egon nintzan, amar urte euki nituzanean, promesa edo amak, gaxorik egongo nintzan eta, egin euan promesa Urkiolan bedratzi egun egiten eta, an bedratzi zerak entzuten genduzan, sermoiak, eta egoten gintzazan koadrillea.

Eta gero iruretartearen ez eudien eleizea zabalduten. Eta joaten gintzazan a Urkiolako mendira ba Sandoia edo ez dakit, mendi bat, ba, an urtetan euan señora batek an, Anbotoko Señoreak. Batzutan urtetan euan elegante eta beste batzutan urtetan euan txispea eskuan dauala, eta txispea ikusten geuntsanean, martxadu egiten gendun karraka ez deuskuen txispeak ikutu, ze, ikutu ezkeren txispeak, esaten eudien kondenu egiten dala eta, eta, danok karraka joaten gintzazan atzera Urkiolara.

41.3. Anbotoko Señorea Upon

Tia, Artetakoa, gurea, ba yoan san ideibaten Upora. Da, Upon euki aurien basoa ta, eurena.

Da yoan san da, etorri sen Señorea Anbotokoa edo berak estaki ser ixin sen. Da bildurregas etori sen karraka etxeraño, Artetaraño.

Da yoan san kortara da kortan egon san semeak etorri artean. Da semeak esaotzien:

- Ama, se iten dau beorre(k) kortan ba?
- Amotoko Señorea etorripai, da es inaiten kondenau ba sartu nes ementxe.
- Ama, Señorea Amototik estator.

Tia, Artetakoa, gurea, ba joan zan idea ebagiten Upora. Eta, Upon euki eudien basoa eta, eurena.

Eta joan zan eta, etorri zan Señorea Anbotokoa edo berak ez daki zer izan zan. Eta bildurragaz etorri zan karraka etxeraño, Artetaraño..

Eta joan zan kortara eta kortan egon zan semeak etorri artean. Eta semeak esan eutsien:

- Ama, zer egiten dau berorrek kortan ba?
- Anbotoko Señorea etorri dok bai, eta ez egin naiten kondenadu ba sartu naz ementxe.
- Ama, Señorea Anbototik ez dator.

41.4. Txispeak kondenadu

Nire gizona egon san began, da ausoko bapebai, biek. Da erdi erdien yausi yakien txispe bat.

Da karraka etorri sien etzeraño kondenau ingo diresula ta txispeak artu eskero.

Nire gizona egon zan beean, eta auzoko bat be bai, biak. Eta erdi erdian jausi jakien txispa bat.

Eta karraka etorri ziran etzeraño kondenadu egingo dirala eta txispeak artu ezkerro.

41.5. Abade txakurrak

Nire aitek, ba, kontetauen, ba, abade bat on sala mesea selebretan da etorri yakon txakurre, bere txakurre da: au!au!au! te, se iauen abadeak, itxi mesea selebretari da martxauen eskopeteagas koiten serori.

Da gero ba in sen abadea kondenau da gero txakurre ibiltesan gauberdien txakurra be estaipa kondenau in basan, ba

Nire aitak, ba, kontetan euan, ba, abade bat egon zala mezea zelebretan eta etorri jakon txakurra, bere txakurra eta: au! au! au! eta, zer egin euan abadeak, itxi mezea zelebretari eta martxadu euan eskopeteagaz kogiduten zer ori.

Eta gero ba egin zan abadea kondenadu eta gero txakurra ibiltan zan gauerdian txakurra be ez dakit ba kondenadu egin

txakurre ibiltetan gauberdien beti: guau!
guau! guau! sataka.

D'esaturien abade kondenaue sala.

41.6. Patakonek lapurra

Andratxu betxoan san ba errenteagas,
ullasko pareagas errentea pagetan. Da
ba yoan sanean an bidean bakar leku-
txuen arin-arin yoan san ba Patakonek dabi-
lela andik eta. Da urtotzen gixon batek.

- Da, ene andratxue, nora soas ain
arin ba prisas?

- Ba esan dostie Patakonek dabilela eme-
tik eta bildurregas.

D'esaotzen gixonak:

- Neu nes Patakonek!

D'andratxue in sen asustau, d'asusteta-
rik:

- Esaites asustau!

- Bai, berrogei ogerleko dires errentea
eta amar peseta gitxiago darotzet se etze-
an estotauki geao te, d'etzean esan dostie
urrungoan pagaukotzule, d'etorko garela
amar peseta aurreratuten dunean.

Da iotzen Patakonek amar peseta be-
rak emon da gero ni psik, ni psik.

Eta yoanintzen da beskarie emosten
usabak etxeko moduen. Da yoanitzenean
etзера esanontzien:

- Errentea dana pagau ot.

- Da selan pagausu ama ta?

- Ba Patakonek emon doste, Patakonek
emon dostes da nik e pagautzet
usabari ondo.

D'etzean gero Patakonek ser i auen,
kaballogas yoan eskillera bategas da ka-
balloa eroaue alrebes ba erradurek ifini
kaballoari alrebes, da eskillareagas usaba-

bazan, ba txakurra ibiltan zan gauerdian
beti: guau! guau! guau! zarataka.

Eta esaten eudien abade kondenaue
zala.

Andratxu bat joan zan ba errenteagas,
ollasko pareagas errentea pagetan. Eta
ba joan zanean an bidean bakar lekutxuan
arin-arin joan zan ba Patakonek dabilela
andik eta. Eta urten eutsan gizon batek.

- Eta, ene andratxua, nora zoaz ain
arin ba prisaz?

- Ba esan deustie Patakonek dabilela
emetik eta bildurregas.

Eta esan eutsan gizonak:

- Neu naz Patakonek!

Eta andratxua egin zan asustadu, eta
asustetarik:

- Ez zaitez asustadu!

- Bai, berrogei ogerleko dira errentea
eta amar peseta gitxiago daroatsat ze
etxean ez dot euki geiago eta, eta etxean
esan deustie urrengoan pagauko deustaga-
gula, eta etorriko garala amar peseta
aurreratuten dogunean.

Eta egin eutsan Patakonek amar peseta
berak emon eta gero ni psik, ni psik.

Eta joan nintzan eta bazkaria emon
eustan ugazabak etxeko moduan. Eta
joan nintzanean etxera esan neuntsien:

- Errentea dana pagadu dot.

- Eta zelan pagadu dozu ama eta?

- Ba Patakonek emon deust, Patakonek
emon deustaz eta nik e pagadu
deustat ugazabari ondo.

Eta etxean gero Patakonek zer egin
euan, kaballogaz joan eskillera bategaz
eta kaballoa eroan euan alrebes ba erra-

nera sartu bentanati te usabari diru gus-
tiek erotzesan.

Asieske, Patakon lapurre beti ixingo
da lapurre.

durak ifini kabloari alrebes, eta eskill-
reagaz ugazabarenera sartu bentanatik
eta ugazabari diru guztiak eroan eutsa-
zan.

Asieske, Patakon lapurra beti izango
da lapurra.

41.7. Asto demoniñoa

Kolasiñoako errotara gixon batxoan san
da, para yakon aurrean asto bat. Da:

– Kendu saites -astoari esatotzen -ken-
du saites ondotik!

D'asi i sen gixona maldasiñoaka. Da
maldasiñoaka asterik, astoa in yakon aaasi
sano, asi.

Da gixona in sen sustau sano. Da
sustetarik:

Jesus! Ser da au? Jaungoikoa! au ser
da olan asteko?

Da demoniñoa ixingo san se mar-
txauen ondoti.

Kolasiñoako errotara gizon bat joan zan
eta, paradu jakon aurrean asto bat. Eta:

– Kendu zaitex -astoari esaten eutsan
-kendu zaitex ondotik!

Eta asi ei zan gizona maldiziñoaka. Eta
maldiziñoaka asterik, astoa egin jakon aaa-
zi sano, azi.

Eta gizona egin zan sustadu sano. Eta
sustetarik:

Jesus! Zer da au? Jaungoikoa! au zer
da olan azteko?

Eta demoniñoa izango zan ze martxadu
euan ondotik.

42.1. Zezena sutan erreka barrutik

Etorri siran nire aita eta amama Bidebi-
yetati etzerantz. Egun bi lenau an ito
san mutil bet errekan eta ito san lekue
da Perratxa.

Ementxe, semetxue, ito san mutil bet,
errese dogun aitagurie!

Se bildurre esaten auen gure aitek.
Akaba baño lenago, urten auen sesen
batek suegas eta buelta bi euren arte
eginauen eta sartu san leku berberan.

Gure amamak esaten auen:

– «Es dauko orasiño faltarik, infemuen
dago!».

Etorri ziran nire aita eta amama Bide-
bietatik etxerantz. Egun bi leenago an
ito zan mutil bat errekan eta ito zan
lekua da Perratxa.

Ementxe, semetxua, ito zan mutil bat,
errezadu dogun aitagurea!

Ze bildurra esaten euan gure aitak.
Akabadu baiño leenago, urten euan ze-
zen batek suagaz eta buelta bi euren
arte egin euan eta sartu zan leku berbere-
an.

Gure amamak esaten euan:

– «Ez dauka oraziño faltarik, infemuan
dago!».

42.2. Sorginak galdu errogatibekin

Lenago esaten aurien, gixon bat urteiten auen gaubetan eta estator etzera, estator etzera, ser pasau yako, ser pasau yako?

Eta beste goizean e, urteiten auen balkoi beten, etxe baten da:

– Se pasau yatzu?

– Estakit, sorgin batzuk gaube gustiyen ibil naure bateti besteti ta besteti, eta balkoian, emeko balkoian itxi naurie.

Au dana, etor sienien errogatibak ya esaten aurien akabau siala sorginak.

Leenago esaten eudien, gizon bat urten egiten euan gauetan eta ez dator etxera, ez dator etxera, zer pasadu jako, zer pasadu jako?

Eta beste goizean e, urten egiten euan balkoi baten, etxe baten eta:

– Zer pasadu jatzu?

– Ez dakit, sorgin batzuk gau guztian ibili naude batetik bestetik eta bestetik, eta balkoian, emeko balkoian itxi naudie.

Au dana, etorri ziranean errogatibak ya esaten eudien akabadu zirala sorginak.

43.1. Asto deabrua

Arantxikiko bideti gixon batxoan san errotara, da bidien topausun asto bat. Gizona, kenduteko ondotik asi sen, asarratu sen, da gero maldasiñoa bota saun d'astoa andi t'andi, andi ixin sen, andie asitesan da gero gizona asustau sen da esan auen:

– Ai, Jaungoikoa! Au ser da?

D'astoa kendu sen beres.

Arantxikiko bidetik gizon bat joan zan errotara, eta bidean topadu zauan asto bat. Gizona, kenduteko ondotik asi zan, aserretu zan, eta gero maldiziñoa bota zauan eta astoa andi eta andi, andi izan zan, andia aziten zan eta gero gizona asustadu zan eta esan euan:

– Ai, Jaungoikoa! Au zer da?

Eta astoa kendu zan berez.

43.2. Lamiñak orrazi gedarrez

Andra bat, yoan san erre kara, da an topau dau orrazi bet. Da gero erropegas yoan san etzera. Gero gaubean etor sirela laminak atera da:

«Marinasi, Marinasi
ekasu nire orrazi».

– Da nondik emongotzut?

– Atepetik, atepetik!

Andra bat, joan zan erre kara, eta an topadu dau orrazi bat. Eta gero erropegaz joan zan etxera. Gero gaubean etorri zirala laminak atera eta:

«–Marinazi, Marinazi
ekarri egizu nire orrazi».

– Eta nondik emongo deutsut?

– Atepetik, atepetik!

43.3. Gaueko txarri-elia: erdia txarria eta erdia arima

Baten seguru, ortik i Galloti Kolasiño-rantz joan i sen andra bat aimareatxo ta gero da ba alangon baten non agartuten yakon txarri eli bet urrumotzean. Da ba berak a bigarrenes aimareak erresau te orpoatan ar barik kuxauen etzea.

Etzekoak a atan patxadatan ikusirik esan i otzien e:

Txarri elie diñoskosu? Segaitiño estosu ba bat etzerako ekarri?

Saosie ixilik! -erantzun i otzien-, orrik i erdie txarrie t'erdie arimea dire, orrikas egun argis apartau obe sein noberari be kondenau edo danadalakoa sugertau es iteko!

Baten seguru, ortik i Gallotik Kolasiño-rantz joan ei zan andra bat abemariak jo eta gero, eta ba alakoren baten non agertuten jakon txarri-eli bat urrumotsean. Eta ba berak a bigarrenez abemariak errezadu eta orpoetan ar barik kogidu euan etxea.

Etxekoak a aretan patxada aretan ikusirik esan ei eutsien e:

- Txarri-elia diñoskuzu? Zergaitiño ez dozu ba bat etxerako ekarri?

- Zagozie ixilik! -erantzun ei eutsien-, orreek i erdia txarria eta erdia arimea dira, orreekaz egun argiz apartadu obe, zein norberari be kondenadu edo danadalakoa sugertadu ez egiteko!

44.1. Zolloko lapurrak

Paulo ba, aspigarriye kargetan, san Roke aspiyen arrebiegas, da yoan yakoson gixon bi, d'esaotzien gixon orrik:

- Gauges etor ber dosu!

- Selan yoango nas ba, emen e, bei paregie ta arrebie ta... selan itxikoas?

- Estardure, dausela orrik or, suk etorri beosu gauges.

Da, Sollora (Zollo), da Sollora yoan sienien:

- Or beste lekuten yo ber dosu atie, d'esangotzue «nor dan», esango daude, ta suk esangosu: «Paulo».

Lagun andiye ixin sen seguru Paulo ori da, Paulori akordau yakon e: «da nik se ingotzat, ni(k) ser eingot?».

Suloen batxakiñauen, baso-mutille ixin sen da, sulo baten inguruen lotu sien seguru eran audenok d'esanotzien ba:

Paulo ba, azpigarria kargetan, San Roke azpian arrebegaz, eta joan jakozan gizon bi, eta esan eutsien gizon orreek:

- Geugaz etorri bear dozu!

- Zelan joango naz ba, emen e, bei parejea eta arrebea eta... zelan itxiko dodaz?

- Ez dau ardura, dagozala orreek or, zuk etorri bear dozu geugaz.

Eta, Zollora, eta Zollora joan ziranean:

- Or beste lekutan jo bear dozu atea, eta esango deutsue «nor dan», esango daude, eta zuk esango dozu: «Paulo».

Lagun andia izan zan seguru Paulo ori eta, Paulori akordadu jakon e: «da nik zer egingo deutsat, nik zer egingo dot?».

Zuloren bat jakin euan, baso-mutilla izan zan eta, zulo baten inguruan lotu

- Fraka(k) soltau, frakak e soltetako ganie dekot!

- Ba soltau.

- Aiba, garrikoa an itxi, beste estaipa seoser be be itxi bauen, d'ensegida nator frakok o soltaute.

Da beste ori asten da builtaka mendiye bera, da sulo ori yakifiauen non dauen da ba asartau sen sulorretara yoatie, d'an e iru egun edo iñausela.

Da, topetan mundu gustiye Paulo ori, da ondio bixirik topaudela.

ziran seguru eroan eudenok eta esan eutsien ba:

- Frakak soltadu, frakak e soltetako ganea daukat!

- Ba soltadu.

- Aiba, garrikoa an itxi, beste ez dakit ba zeozer be itxi baeuan, eta ensegida nator frakok o soltaduta.

Eta beste ori asten da bueltaka mendia beera, eta zulo ori jakin euan non dagoan eta ba asartadu zan zulo orretara joatea, eta an e iru egun edo egin euazala.

Eta, topetan mundu guztia Paulo ori, eta oraindino bizirik topadu eudela.

44.2. Anbotoko Señorea zulorik zulo

Anbotoko Señorea da entzutie, sue dariyola yoan sala suloan bateti beste suloan batera yoan san seguru.

Orti, Ganekogortati ikusten i auden sugarra dariola gaubaruan, batesbe erresu egoten sanien.

Anbotoko Señorea eta entzutea, sua dariola joan zala zuloren batetik beste zuloren batera joan zan seguru.

Ortik, Ganekogortatik ikusten ei euden sugarra dariola gauaroan, batez be errasu egoten zanean.

44.3. Lamiñak Arguiako ortusantu ondotik

Lamiñak? Bai, ama defuntiek iños esaten auen lamiñak etorten siela, gillistuke sementeriyondotik, bai, Arguyako sementeriyotik.

D'aiketorriskero karra in inbier ostanduten gentik, aikositeroaten otzuela. T'estai(t) nor be, eran audela da botaudela mendien baten, baye, urrungo egunien aiguskiyek urteiharte a esin sela altzau, a personie er(o)an audela lamiñok.

Lamiñak? Bai, ama defunteak iñoiz esaten euan lamiñak etorten zirala, gillistuka zementerio ondotik, bai, Arguiako zementeriotik.

Eta aik etorri ezkerro karra egin egin bear ostanduten genteak, aik kogidu eta eroaten eutsuela. Eta ez dakit nor be, eroan eudela eta bota eudela mendiren baten, baia, urrungo egunean eguzkiak urten egin arte a ezin zala altzadu, a personea eroan audela lamiñok.

45.1. Anbotoko Señora, deabruari alaba eskeintzerik

Orrek istori asko dauko, Anbotoko Señoreak, istori asko dauko ta. Mañaritik (g)ora, aldea, lenago, oin e sertute daos etzeapaie, yausite daos de, or e mendis bastante mendis bisi sian jentea, gure ama be angoa ixin sen da, da, aldea etze baten ba bixi sian matrimonio bat, d'alaba.

D'alabea bastante majea, majea sano. Da gixona yoan san basora ganadue bille, aite, gixona, aite, ganadue bille.

Da, esin topau iñonbe. Da ixin sen egun bet berooa sano, sano beroa, da ur tragu bet edateko be iñon lekirupes, esin, itoten. D'atzenean e ixin aguantaute:

– «Ño! aukesea Jaungoikoape estau kasuripeingo untxe, deabruak kasu ingo baleuke: txorro bat amentxe!»

Da gixon bat e elegante yantzite presentau, da:

– Ser pasetan yatzu gixona? ta

– Ba, egarrie! Esines egon egarriegas! da

– Bueno, nik ure badekot, emongotzut, baie prometidu biostesu alabea neutzat ixiteko, neuges eskonduteko!

– Edosein gause se ilten nao, itoten nao, te seukurosune, edosein gause. Emoistesu atoan, gero gerokoak ukusikus, emoistesu atoan! da: TZAK! in de, txorroa!

– Or txorroti yausten dan anilloa alabeari sartu atzamarrean!

Bueno, ta TZAK! anilloa. Gorde auen d'eroauen, da desaparecido jakon gixon ori.

Etor sala etzera ta gero pentzau, an apuruen es auen pentzetan ser pasauko

Orrek istoria asko dauka, Anbotoko Señoreak, istoria asko dauka eta. Mañaritik gora, aldea, leenago, orain e zertuta dagoz etxeak baia, jausita dagoz eta, or e mendiz bastante mendiz bizi ziran jentea, gure ama be angoa izan zan eta, eta, aldea etxe baten ba bizi ziran matrimonio bat, eta alaba bat.

Eta alabea bastante majea, majea sano. Eta gizona joan zan basora ganadua billa, aita, gizona, aita, ganadua billa.

Eta, ezin topadu iñonbe. Eta izan zan egun bat berooa sano, sano beroa, eta ur tragu bat edateko be iñon lekuri be ez, ezin, itoten. Eta atzenean e ezin aguantaduta:

– «Koño! aukesea Jaungoikoak be ez dau kasurik be egingo oraintxe, deabruak kasu egingo baleuke: txorro bat ementxe!»

Eta gizon bat e elegante jantzita presentadu, eta:

– Zer pasetan jatzu gizona? eta

– Ba, egarria! Ezin naz egon egarriagaz! eta

– Bueno, nik ura badaukat, emongo deustut, baia prometidu bear deustazu alabea neutzat izateko, neugaz ezkonduteko!

– Edozein gauza ze ilten nago, itoten nago, eta zeuk gura dozuna, edozein gauza. Emon egistazu atoan, gero gerokoak ikusiko duguz, emon egistazu atoan! eta: TZAK! egin eta, txorroa!

– Or txorrotik jausten dan anilloa alabeari sartu atzamarrean!

Bueno, eta TZAK! anilloa. Gorde euan eta eroan euan, eta desaparecido jakon gizon ori.

yakon, baie gero pentzeu ta pentzeu...
bere andreari asi yakon esaten:

- Ba, atzo «Txitxirri» ikusi nauen

- Jesus! gizona, esaisu esan olakorik!

Bai, bai, olako gizona estau basoan da gizona elegante yantzite ta sera olango gizonik estao, raro eretxiten dotzet a gizonari, normala esleitike.

Da orduen ba abadeagana yoan da esan in beayako se pasetan dan. Da etorri Abadiñora da abadeari kontau se pasetan dan:

- Da, auxe tauxe pasetan yat (aitak).

- Bueno ba, etorri daitela alabea bedinkaziñoa botateko.

- Ba esangotzet.

- Anilloa es kendu e atzamarreti, se olan igual denporea baño lenau eroango deu.

Gero yoan san abadeagana (alabea) eta esanotzen:

